



EGAN

XABIER ETXANIZ:

Herri ipuinen nazioartekotasuna

PATXI EZKIAGA:

Iratzederren munduak

YOLANDA ARRIETA:

Santiagon egun bi t'ardi

Kritikak eta erreseinak

1995-2

AURKIBIDEA

AZTERKETA LITERARIOAK

XABIER ETXANIZ. Herri ipuinen nazioartekotasuna	5
JUAN KRUZ IGERABIDE. Hegoaldeko itsasoe-tan barna (Irudimena eta balea zuria)..	29
AMAIÁ ITURBIDE. Hizkuntza hitz-joko bihur-tzen denean	47
JOSE MARIA SATRUSTEGI. Ipuin miresgarri bat mitoen Olinpoan	59
PATXI EZKIAGA LASA. Iratzederren munduak	69

SORKUNTZA

POESIA	
PATXI EZKIAGA LASA. Hamar kanta udako	99

ANTZERKIA	
YOLANDA ARRIETA. Noiz baina...!	111

AHOZKO TRADIZIOA	
MAITE MUJKA. Herri-kontakizunak.....	139

ITZULPENAK

ANTONIO FAVA. Aszentsorea trabatuta gel-ditu da.....	155
--	-----

ADABAKIAK

Usurbilgo Udarregiren mendeurreneko gogoetak.....	187
Santiago egun bi eta erdi.....	190
Beran Lore Jokoen oroitzapen jaialdia	195
Kultura Sailak 116 bideofilme euskaratu ditu zortzi urtetan	196
Lubaki Bandaren agurra	197
Klasikoak bildumaren ale berriak.....	198
Ahozkotasanari buruzko ikastaroa udan....	199
Aguirre pastoralaz	202

1/100

EGAN



Maz. Salvador Cermeña fidei

EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO
"BOLETIN"-AREN EUSKARAZKO GEHIGARRIA

Idazkaritza: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. Gipuzkoako Saila
992 Postakutxatila — DONOSTIA




*Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria*

*Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak
ez du derrigorrez bat etorri behar
EGAN aldizkarian agertzen diren edukiekin.*

ERREDAKZIO BATZORDEA

Zuzendaria: Luis Mari Mujika
Zuzendariordea: Iñaki Zumalde
Idazkaria: Gillermo Etxeberria
Administraria: Jose Antonio Zabala
Bokalak: Jose M^a Urkia
Juan Garmendia Larrañaga
Abel Muniategi

ISSN: 0422 - 7328. EGAN
Legezko Gordailua: SS. 289/1958
Inprimategia: BIZKER - Usurbil



AZTERKETA
LITERARIOAK

Herri ipuinen nazioartekotasuna

“Peru Arraizpe” eta “Ma Zi nekazari” argia ipuinen arteko parekotasunak

XABIER ETXANIZ

Herri ipuinen zergatiari erantzuteko teoria ugari erabili dira, munduaren interpretazio bat emateko balio dutela, mitologiarekin erlazionatu izan dute beste batuzek, badira ere bizitzaren misterioei erantzuna bilatzeko ahalegina dela diotenak, edo pertsonaren garapen psikologikoarekin lotzen dutenak.

Ez gara hemen hasiko zeintzuk, non eta zergatik sortu izan diren herri ipuin horiek, berauen nazioartekotasunaz baizik.

“Mari Zikin”, “Mari xor”, “Gatza ala Erregea”, Euskal Herriko ipuin beraren aldaerak dira, baina ipuin hori denok ezagutzen dugun Perraulten eta Gimm anaien “Marierrauskin” ipuin ezagunaren beste aldaera bat dugu. V. Proppek bere *Morphologie du conte* liburuan dioen bezala, elkarrengandik oso urrun dauden herri eta kulturen artean ematen da kidesetasun hori: “Nola adieraz Errusian, Alemanian, Frantzian, Indian, Ameriketako indioen artean eta Zelanda Berrian erregina-igelaren kontua berdin samarra izatea, herrien arteko harreman bat ere historikoki frogatzerik ez dugunean. Antz hori ezin daiteke adieraz, bereizatearen iduripen zehatz bat ez badugu. Morfologi hauzitan ohitura ez den historigileak ez du antz hori dagoen lekuan ikusiko; beretzat garrantzi handikoak diren kidesetasunak alde batera utziko ditu, haietaz ohartu ez delako; alderantziz, berak kidesetasun bat ikusi duela uste duenean, morfologilariak erakusterik izango dio alde-ratutako fenomenoak erabat ezberdinak direla” (Etxeberrriak aipatua, 1973, 207). Bruno Bettelheim psikoanalista ezagunak ere, ipuin mires-

garrien jatorria aztertzerakoan horien sakabanaketa erakusten digu: "Aunque resulta imposible determinar con precisión la época en que fue inventada la primera historia del tipo 'Cenicienta', lo que sí sabemos es que existe versión china de este cuento, escrita hace más de mil años por un tal Tuan Cheng-shih, (...) La versión más antigua de La bella y la bestia se remonta aún más atrás en el tiempo, al corazón mismo de la Grecia antigua" (Bettelheim, 1987, 12 eta 13), baina ipuinen sakabanetzeaz gain, beraien arteko parekotasuna ere aipatzen digu psikoanalistak: "Aunque los cuentos de hadas puedan sufrir variaciones en sus detalles, según las culturas, por todo el mundo se repiten las mismas intrigas fundamentales. La historia larga e ininterrumpida de estos cuentos, la similitud de sus temas, incluso en civilizaciones bien diferentes" (op. cit. 14). J. M. Barandiaran ere ari zaigu ipuinen aldera eta zabalkundeaz: "El tema del combate con el dragón se ha infiltrado en la bibliografía de San Jorge y en la leyenda de *iraunsuge* de San Miguel de Excelsis en Aralar (*Eusko-Folklore*, I, p. 18. 1921). El área de su expansión es extraordinariamente grande, pudiendo decirse que abarca, cuanto menos, casi toda la extensión del mundo antiguo. Los hallamos en la Grecia antigua y moderna, en el Cáucaso, en la India y en el Japón", (Barandiaran, 1962, 43).

Baina badira herrialde bateko eta besteko ipuinak bereizten dituzten elementuak. Georges Jeanek (1988, 103 eta hurrengoak) ipuinak kultura ezberdinen isla direla adierazten du, eta alde horretatik kulturak, ohiturak, gizartea, ezberdinak diren neurrian, ipuinak ere halako-xeak dira. Hala ere, kritikoa honek onartzen du elementu estrukturalen eta miragarrien arteko parekotasuna, unibertsaltasuna.

Ikusi dugunez, ipuin beraren aldaerak aurki daitezke kontinente ezberdinetan, eta ondorengo lerroetan Euskal Herriko eta Txinako herri ipuin biren arteko parekotasuna aztertuko dugu.

Euskal herri ipuinen artean bada bat, Peru Arraizpe izenburupean sailkaturik duena Resurreccion Maria Azkuek bere Euskalerraren Yaintza bilduman; Markinako Domingo Aldazabal izan zen Azkueren informatzailea. "Peru Arraizpe" honen aldaera ugari daude Euskal Herrian; Mayi Ariztiaren "Artoaren ixtorioa" edo Wendworth Websterren "Apehz atzipakorra" ditugu honen adibide garbiak. Azkuek berak komentatzen du Urdazurin jaso zuela beste aldaera bat: "Con el nombre de *Putifar*, oí este hermoso cuento, aunque algo más breve, hace muchos años, en Urdazuri (AN). Publiqué este cuento el año de 1899

en la revista *Euskalzale*, págs. 13, 23 y 31, con el nombre de *Peru ta Maria*". (Azkue, 1989, 290).

Txinako ipuinen antologia prestatu nuenean, herrialde hartako ipuin eta kontu ugari irakurri nituen eta euskaratutakoen artean baze- goen euskal ipuin hauen oso oso antzeko bat: "Ma Zi nekazari argia". Ikus ditzagun ipuin bi hauek eta beraien arteko parekotasuna.

Peru Arraizpe

Barregarri geienak izaten dira eurentzat baino inorentzat egokia- goak, etxerako baino kanpokoentzat mesedegarriagoak. Peru, iñor bazan, barregarria zan; alerra baina burutsua, gorputz-astuna ta buru- arina, anka-sorra ta begi-zolia. Aspaldion eukazan laiak ugerturik, so- loak latzinik, bedar galgarriak aurrez, etxe-bazterrak amaraunez (are- musarez) ondo apainduta, soinekoak dindirri-urtika, idi-beiak gitxi ta argaltxak eurak, sukaldea otza, etxeurreko garaia garau barik, eskin- tokia isili ta oilo bakoa.

Peru, etxean ezeukanaren bila auzora sarritxoegi yoanda, zorrizto bat zorriz baino zorrez beteago bizi zan. Gurasoak itxiriko ondasunak lur yo bear eutsenean, agertzen dakozan astean astean edo sarriago artzekodunak. Guztiai egiten eutsen abegi ona, baina abegi utsa, diru bako abegia.

Artzekodunak aspertu ziranean, gutiak bat eginda eskribau batzui emon eutsen Peruri enbargua egiteko eskua. Eskribauak aurretiaz ots egiten eutsen Peruri, esaten eutsela:

—Peru: ain egunetan enbargua egitera yoango gozak.

—Etorri ondoen deritxazuenean erantzun eutsen berak.

Peruk orduan bere emazte Mariari, bazter batera eroanda, buruari azgura barik azka ta azka egoala esan eutsan:

—Mari, badakin eskribauak zer dirausten? Astelenean gurera da- tozala, basegun on bat igarotera.

—Bestetara ez?

—Ezetz diñoë.

—Gurëan zer jagok ba arei emotekorik?

—Zer jagonan? Erbikume bi baino besterik ezer ezton bear izan- go. Auzotegi onetantxe bat edo batek baedodaukaz olako ku- matxo bi.

- Zerak jaukazak: Maripa Anbrusenak. Baiña nok ari atara? Len bere zerbait zor dautsagula ta etxok ezer emon nai izango.
- Orretxegaitik emongo jon ba: bestela lengorik eztabela artuko esaion. Zemai au asko ezpaltizon, eskribauak datozana bajakin ta arei jaten emoteko dala esanezkero, emongo jonaz, bai, laster gero emon bere.
- Ta zelan ipintzeko? Bazkari txatxarra izango dok iru eskribau-rentzat.
- Ik egin, Mari, neure esana. Erbikume bata neuk eröango jonat neugaz basora; bigarrena eukin euk ankatik ondo lotuta. Eskri-bauak datozenean, nire galde asitakoan, erbikumëari sokëa askatuta, berba onek esango dautsanaz: "*Mustur-zuri* oa Arraiz-ko sagastira ta gure Peruri datorrela, eskribauok zain daukaza-la-ta. Arin ibili, *Mustur-zuri*."
- Peru: zoratuta nagoala esango jöek.
- Ik egin neure esana, Mari, ta zoro-moro zerbait egingo jonagu. Ez besterik ezer aitatu gero.

Eldu zan astelena ta goizeko eguzkiaren atzetik, izerdi-zapiak kapelapean ebezala, eldu ziran iru eskribauak, euren mutil ta guzti. Perugaitik Mariari itaundu eutsenean, onek eskaratzeko txixilu-barrutik erbikumea atara, ankako lokarria askatu ta esan eustan:

—*Mustur-zuri*: oa Arraizko sagastira ta gure Peruri datorrela, eskri-bauok zain daukazala-ta. Arin ibili, *Mustur-zuri*.

Berba onek entzueran erbikumea inoizko bizkorren joian, eskri-bauak arriturik egozan berari begira, mutilak apurren baten jarraitu eutsen; eta arik lastertxora agertu zan Peru, erbikuma bat kaltzerpean eballa. Eskribauok zurturik, bidera urtenda, Peruri arrerä ederra egin eutsen.

- Egun on, gizonak. Gaur lango eguraldi bero sargaritan iluntze-rarte eneban uste agertuko zinenik.
- Zelan jakin dozu bada eldu garana?
- Arraizko sagastian nengoan eta arrapaladan *Mustur-zuri* etorri jat, Marik bialdu dabela ta zain zaukedazala esatera.
- Zelan ikasi jok ba berbetan?
- Zelan ikasten dabe jostunen zozöak soiñua joten? Onek be bardin; neure ekinaz edozein mandatu egiten ikasi dau.
- Orixe saldu bear dauskuk, Peru.

—Ezta..., ezta..., ezta...!

—Urte bete atzeratuko doagu enbargua egitèè, artetan zorrai geuk arpegi emongo dautsegu.

—Zeuek zarelako or dozue bada: bestela erregeri bere eneukan emoteko usterik.

Erbi onegaz iru eskribauok euron bidean joazala, bati otu dakon erbi mandataria urrengo ostatura bialdutèa.

—*Mustur-zuri* esan eutsan, jòèn adi or beko aldera, bide barri ondoko ostatura ta ea sei lagunentzako bazkaria ipini al izango daben. Arin ibili, *Mustur-zuri*.

Bai ta pozik joan bere; baiian eskribauok atzean itxi ebazanean etxakan erbiari bururatu ez ostaturik, ez bazkaririk.

Ordu erdi igaro zan, ordu bete, ordu ta erdi... ta *Mustur-zuri* etzan agiri. Buruari azka asi ziran eskribauok, zer esan ezekiela. Mutilak, ugazaben isilik, barre egiten eben. Onetan eurakana Peruren auzoko Maripa Anbrusena eldu zan, buruan pedarkada ura ekarrela.

—Egun on Jaungoikoak dagizuela.

—Bai zeuri bere. Ikusi dozu or nunbait, txakurren igesi edo... *Mustur-zuri?*

—Nor da *Mustur-zuri?*

—Peruk berbetan erakutsi ta menduriko erbia. Eztakizu Peru nor dan, Peru Arraizpe?

—Bai ondo be.

—Ta eztozu inoiz ikusi, besapean erbi bat dabela?

—Nik eztakit auxe baino beste erbi-konturik. Atzo iluntzean banator, kartetan txist eta txost arratsaldea igaro ta gero, banator etxera ta: "Maripa —entzun beban—. ¿Eu aiz, Mari?" "¿Zer nai?" "Peruk biar bazkaritarako iru adiskide andi jatorkazala diño ta erbi biak mesedez emoteko, urrengoan ordea emongo dabela-ta." Au entzunda, emon neutsazan neure erbiak ez beraren ederrarren, zorrak daustaz da neuk erbiak emon ezik ezautuko eztaustazanen bildurrez baiño.

Orduan eskribau-mutilak barrezantzoka asi ziran, eskribauak (bi beintzat) amurruarren mutilai agiraka. Atsoa zer etezan ezekiala pedarkada uraz aurrera joan zan, eta eskribauak ordu erdiren baten zer egin ezekiela egonda gero, Peru Arraizpegana bigarrenez joan ziran.

Orduko egoan Peru, eskribauak bigarrenez agertuko dakazana

igarrita, ardura andiz zerbait gogoketan. Emaztea beraren aginduz auzotegi guztiko errariak (ogi-arto-taloak) batzen ibili zan.

Gero bien artean etxe-airreko mota edo bedartzea azalatu edo atxukatu ta zotal-azpian errariak ezkutauaz batera, dakezan eskribauok.

- Ona emen gure eskribau jaunok— esan eban Peruk.
- Demoniñotxu orrek, ederra sartu dauskuk. Geugaz katigu (baituran) eroan bear augu, polit ori.
- Zer da, gizonak?
- zer dan! Ta itauduteko adorëa daukak?
- Bidean galdu izango dozue zuek. Orixe dago ba, sarri ibili ezik...
- Barriketak. Nundik nora asmau dok *Mustur-zuri* edo baltz orren okerreria?
- Ene bada ta ni! Zer jazo dan igarri baietz? *Mustur-zuri* norbait, berak eztakian tokiren batera, bialdu izango dozue ta gero atzerako biderik aurkitu ezinda, bear bada txakurren bat ondorik dabilela...
- Ago isilik, zaplandari ori; aor beko bide-zokondoko ostatura bialdu joagu-ta.
- Zuek txarto emongo zeutsen mandatua. Ekinduta zagoze ezpanetan bera erderazko berba arrotz gatx asko dingilizka dozuezala berba egiten da gero zelan aditu, zelan ulertu zuei erbikumatxo batek?
- Peru... Peru... Adarrari bigarren soiñua atara nai aldautsak? Lengo irri ta burla egitea ezaldok asko izan? Maripa Anbrusenaren erbiakaz egin dauskuan adarra jotea, onen arinaztutekoa dala uste dok?
- Jaunak ba... Jaunak ba..., eztozue gugaz bazkaldu gura izan, eta guk barriz Maripa Anbrusenari, zeueri bazkari itxurazko bat emotearren, eskatu geutsazan. Zuek eztozue gura izan, eta zer egingo genduan? Bein ekarri ezkeru zimaurtzara botako genduzan?
- Peru: tira geugaz urrengo presondegira, guzur-urtika ta iñor irakiten emen egon barik.
- Ezegidazue bada, ori esateko, sapatzetikeldu, katarra enaz-ta.
- Tira, tira.

—Nik onakoxean bada eztaikit zer egingo neukean.

Au esanaz asi zan Peru atxurraz, amurruz legez, motan or zulo emen zulo egiten; eta zulo baxotxean edo ogia edo arto edo taloa agertu zan. Au ikuseran arritu ziran eskribauak eta itaundu eben:

—Ze atxur dok ori, Peru?

—Ai au! Eskerrak beroni bizi gara gu onen aukeran. Zergaitik uste dozue ba eztodala nik galdarau ez artagaraurik ereiten? Atxur onetxek emoten daust nai beste errari. Etxaurreko mota onetanxe lurra azalatu ezkeru, beste nekerik ezto bear.

—Salduiguk atxur ori.

—Saldu? Au erosteko dirurik eztago inguruotan.

—Eukiten emoiguk ba amabost bat egunerako; ta beste urte be-tean ire zorrai geuk arpegi emongo jautsegu.

—Orrenbeste mesede gizonari egin leio. Eroaizue atxur ori baina amabost egu orretan zelan bizi izango naiz berori barik?

—Gauza erraza dok ori. Ataraik ontxe mota onetan amabost egu-nerako erraria.

—Bai ta egia.

Peruk atara ebazan ordu erdi lenago sarturiko errariak eta atxurra emoeran esan eban:

—Gero, gizonak, ez uste izan edozein lurretan ogi nai arto nai taloa atara leikeanik. Norberaren etxe-inguruko lurretarako dauko atxur onek beronen al izatea.

Au entzueran atxur ori artuta alde egin eben iru eskribauak.

Urrengo goizean iruren etxe-inguruak ondo aztertu ta ondiatuta ikusi zeikezan. Peru Arraizperen atxurrak arria ta arra naikoa atara ebazan; baina ogirik txori batentzako lain bere ez. Au ikusirik, aurregu-nean baino bere amurratuago yoan ziran Arraizpera eskribauak, atxurra eskuan ebela.

Orduko Peru ta Maria alkar artuta egozan, eskribauak yoazanean eginbehar ebena ondo ikasita. Mariak garrian maskuri (puxika) bat eukan odolez beteta, yale-magalaren azpian, ezkutuan. Peru goizik erdian egon zan adar eze legun legun batzuk ebagi ta azala kontuz kontuz ertsi ta azal onezaz zinburrinak egiten. Eldu ziran alango baten gure eskribauak eta, ezpanetan amurrua bits egiten euskela, Peruri saputzetik oratuta esan eutsen:

—Demoniñotxo orrek ezto ingotan igesik egingo.

—Zer?

—Zeretzeta, burduntzi-ertzean erreta.

—Nora naoazue?

—Tira ixilik eta geldirik.

—Mari, Mari: ik onei gauza txarren bat eginbear izan dautsen, ni onan eroateko; ta nik onakoxean, nai ta urkamendira naroela, edozer egingo neuke.

Au esanda, Peruk aurretiaz eskueran eukan aizto zorrotz bat artu ta sast! emazteari garri garritik, xika edo maskuritik sartu eutsan. Marik berarizko arnasa-ots bat egin eta lurra yo eban, ilda legez, odola zauritik arradan eriola.

Eskribauak au ikusirik,

—Peru —esan eben—. Zer egin dok! Emaztea il dok!

—Gizonak. Zer uste zenduen bada? Idisko zoro bat bainintzan iltera eroan ni izan nozue iruron artean, eta odolak, erriak diñoanez, su baga diraki.

—Peru, zer egindok, errukarri orrek!

—Baina ez ikaratu: sarri ilten dot nik au. Gaiñibeta bat daukat, ondo ilarren, txistua yo ezkeru len kenduriko bizitzea atzera emoten dabena.

—E!

—Ikusiko dozue.

Peruk orduan artu eban zinburrun bat eskuetan eta Juuuiist!, ots eragin eutsanean, ilak edo iltzakoak begiak erdi zabaldu ebazan. Eskribauak arrituta. Juuuiist!, bigarreanean. Mariak arnasa luze-luze bat artu eban. Eskribauak aoa zabalik. Juuuiiist! irugarrenean: Arraizpeko atsoa bere senera etorri zan eta eskribauak konkortuta gelditu ziran.

Peruk bene benetan esan eutsen:

—Gizonak: emazte berbaldunegiak isilkortu ta urtenegiak otzan-duteko eztago onako tresnarik. Emakumarik dongenak ondu ta uzuenak bezau leikez: lasterko gero.

—Peru, ik zetarako dok ori? Ire emaztea inoiz berbalduna ta urte-na ta donga ta uzua izan badok bere, aurreratu egiguk tresna ori aste bete edo bitarako ta zorroak epetu ez eze garbitu bere geuk egingo doaguzak.

—Gizonak: eneutsan nik au edonori ez emon ez baituko (pres-

tauko); baina gizon argiak zare, zer eginbear dan dakizuenak; eta, aste bete barru atzera neuri emotekotan, eroan egikezue tresna ori.

Esker andiak Peruri emonda euren poza sinistu ezinik yoan ziran eskribauak euren bidean.

Kezka ta eztabaidak zer diran eztakienak yoatea baiño ezeuken Arraizpetik uri-aldera iru eskribauai yarraika. Zarrenak, erlikia baizen maiterik, Peru Arraizperen zinburruna eskuan eroian. Beste biak bein banan esetsi eutsen, auxe esanaz, eurak bere etzerala beste bat baino gitxiago ta zinburruna batena bakarrik etzala eta nok lenengo eroan bear eban yakiteko zerbait egin bear zala.

Ona eldueran eskribauen barri dakienen uste ta eritxiak bana dira, eztira bardinak. Batzuk dinoe urrengo ardantegira eldueran nok eroango ebanbateko urrera erabagi ebela. Beste batzun ustez, zotzak eskuazpian erdi estaldurik, andiena atara ebanak zinburruna eroan ebala. Baina Nok au sinistu? Noiz ezagutu eteda diru bagako eskribaurik? Bat edo baten eritxian auzitzan erabagi eben nor izango zan basa-txilibitu aren yaubetzakoa.

Zana zala, eroan ebanak, etxera eldu zanean, emazteari asarez begiratu ta barbarik adina agiraka egin eutsazan, eta arako emaztea bere gogor egiten asi dakanean, sast, sast!, aizto zorrotz bat sartu ta beingo baten il eban. Atara eban gero zinburrun ori ta asi zan yoten, !Juuiiiist!, baña zirkinik bere ezaban ilak egin. Juuiiiist!, bigarrenean; begiratu ta alperrik. Irugarrenean luzeago: Juuiiiiiiist! Baina zer? Geldi, gogortuta egöan emakuma errukarria.

Eskribau koko au emaztearen gorpuaz zer egin ezekiala, uleai tenka ta bea ostikoka apurtu bearrik ebilela, atean norbaitek ots egina zinburrun ori bigarren eskribauari eroan eutsan. Oni bere lenengoari legez yazo dakon. Irugarrenari bardin. Egun bere atantxe, alkar itunduten egonda, arrapaladan yoan ziran Arraizpe-aldera.

Peruk urrundik eurak ileta-soinekoakaz ikusirik,

—Irrurak il doek, bakotxak bere emaztea. Agur ni —esanda, bide-ra urten eutsen.

Eskribauak Peruren atxaki ta akibakulari jaramon baga, upel baten barruan sartu ta bira biraka itxasora yaurtigiteko usteaz eroan eben. Urrengo ardantegira elduta, eskribauok zerbait artu bear ebela ta bertan gelditu ziran, Peru, upeletik atara bagarik, bide-ertzean itxita.

Onetan artalde bat bertatik igaro zan eta Peru barrutik upelari

ukabilkadak emoten asi zan. Zer etebilen yakin nairik artzaina urreratu ta *nor da?* itaundu ebanean,

Peruk:

—Ai au dot lorra, au atsekabea! erantzun eban.

—Zer dok ba, atsekabez egoteko?

—Zer dodan? Erregeren alabeagaz—, nai eztodala, ezkondu gura nabe.

—Nai eztoala?

—Nai banaiok, neure oinen gainean yoatea izango naieuek.

—Euk ezkodu gura ezpadok, amentxe naiagok neu, orretarako gertu.

—Upel oni agoa zabalduiok bada ta truk egingo doagu bizikerea: ni artzaintzan sartukonok, i erregeren yauregian.

Ordu erdi garrenean Peru artalde ta guzti bidetik urre eabilen, artzain gizagaisoa barriz itzulika (bira-biraka) eroan eben eskribauak. Noizik noizera

—Ezkonduko naizala —zinoan upelekoak.

Besteak euren artean:

—Gure Peruri zoratu dako.

Itxasbazterrera eldueran, iru eskribauen artean bultzaka uretara egotzi eben upela. Atx-artearen zati-zati eginda, artzaina olatu-artearen ebilen lerrak egiten, gorputza ur-azalean euki ezinik.

Eskribauak euren kurruka ta tipo ta ar txarra Perugaz batera itxasoan ito ebela uste izan ebanean, etxeranzko bidean asi ziran irurak. Nok zetu, nok erakutsi aren ikara ta zurtaldia, Peru Arraizpe, arako *Mustur-zuri* ta atxur ta zinburrundun Peru, euren begiakaz ardi-artearen, batari txistu, bestari ziri ta bestari arrika ikusi ebanean!! Peruk euren arpegia ikusiaz bakarrik igarri eban euren burukokezkea; ta bigun-biguntxorik, oi ebanez, ezer ezpaileukan itaundu eutsen:

—Orain bere emen baino etzare, gizonak?

—Peru da berau? Peru Arraizpe!! Eguno onakorik! Nun batu dituk ardi orrek?

—Enozue ikusi olatu-artearen, kolpe batari ta grausk besteari ardi zuriak batzen?

—Zetan edo atan abilena bai, baina geiago ezin ikusi izan doagu.

—Nai izan baneu, onako sei batuko nituan.

- Baldagoz orain bere?
- Bai zuek irurok artuala ta geiago.
- Amilduko nok neu bertara, lekurik onenera?
- Orrenbeste mesede egiteko beti nago gerturik.
- Egotzi nagik orduan.

Peruk bultz gogoz egineta egotzi eban itxasora bat.

Au zarra ta igari ezekiana zan eta artzaina baino lenago asi zan itoten.

- Zertan dabilk a? —itaundu eutsen beste biak Peruri.
- Onenak begiz yo ta artzen dabil. Arin ezpazabiltze, badakit gaur zer yazoko dan.
- Yaurti gaizak orduan arin arin.
- Ea bada —esanda, bultz egin eutsen onei bere Peruk eta tipitapa, beste gauzarik agiri ebala, bere ardiakana yoan zan.

(Markinako Domingo Aldazabalek kontatua eta R. M. Azkuek *Euskalerrriaren Yakintza II* liburuan, 275-290 orrietan, batua)

Ma Zi nekazari argia

Behin herri batean, Ma Zi izeneko gizon bat bizi zen. Aberatsek ezin zuten ikusi: pobreek aldiz, pozaren pozez onartzen zuten. Ma Zik pobreei lagundu eta aberatsei adarra jotzen baitzien.

Urte batean Wang, herriko agintaria, zergak kobratzen hasi zen urtero bezala. Ma Zik orduan, zera pentsatu zuen bere golkorako: "Belaunaldiz belaunaldi nire familiak gogor lan egin behar izan du sorotan. Aita hil egin zuten eta ama goseak akatu zuen ni oraindik ere behartsu bat besterik ez naiz. Ba nahikoa da! Aurten ez dut gari alerik emango, hil nazatela nahi badute". Eta Wang agintaria engainatzeko modua pentsatzen hasi zen.

Ma Zik uztaren salmentaz ateratako dirutzaren erdia gastatu zuen bi azeri erosten; gainerako diruaz oilo asko erosi zituen, oilo handi eta haragitsuak. Azeri bat etxean gorde eta bestea soka lodi batez lotu egin zuen. Egunero paseiatzen zuen etxe aurretik eta atzekaldetik. Egun batean Wang agintaria, zergak kobratzen ari zelarik, Ma Ziren etxearen atzekaldetik pasatu zen. Hau ikustean, zera esan zion ozenki samar:

—Kaixo, Ma Zi, prestatu al dituzu zergetarako gari aleak?

—Jakina! aurten oso uzta ederra izan dugu eta aukeratuak ditut nire ale onenak zuri emateko. Bihar edo etzi etor zaitezte beren bila, zuk nahi duzunean etorri.

Wang agintaria harriturik geratu zen Ma Zi azeria paseiatzen ikustean.

—Baina, zer egiten duzu? Oso arriskutsua izan daiteke ihes eginenez gero! esan zion Ma Ziri.

—Bai zera! Ez du kalterik egiten. Alderantziz, hobe da libre uztea —erantzun zion Ma Zik barrezka.

Wangek, are harrituago, zera esan zion:

—Burutik jota al zaude? Ez al duzu ikusten azeri bat dela? Libre utziko al duzu? Begira, nik ez dut ulertzen.

Ma Zik orduan, azeriaren burua ferekatu eta zera esan zion:

—Zoaz, altxor hori! Zoaz oiloak harrapatzera. Zenbat eta oilo handi eta gozoago ekarri, orduan eta hobeto.

Eta libre utzi zuen. Azeriak alde egin zuen ziztu bizian.

Wang agintariak, erabat txunditurik, aho zabalik, ez zion begirada gainetik kentzen Ma Ziri.

—Jarein dut —azaldu zion Ma Zik—, bihar bazkari oparo eta ederra prestatzeko zuretzat. Orain, nire altxor hau bidali dut oilo bila. Zatoz bihar eguerdian. Zure zain egongo naiz.

Eta halaxe, hurrengo egunean, Ma Zik primerako bazkaria prestatu zuen. Wang agintariak urrutitik sentitu zuen bazkariaren usain gozoa. Urdailak eraginda, azkarrago abiatu zen Ma Ziren etxerantz. Mahai gainean plater ugari zeuden. Den-denak oilaskokiz eginda: oilo gisatua, oilo egosia sutan, oilo puskak uretan egosiak, oiloa lurruntan egina, oilo gezamina, oilo zatiak mani eta intxaurrekin, hots, oilaskokiz egindako plater ugari. Hura dena ikustean Wang agintariak Ma Ziren azeriarekiko mirespena sentitu zuen eta era berean animalia haren jabearekiko inbidia.

—Ma Zi, non da zure azeri eder hori? Dei iezaiozu gurekin batera jan dezan.

—Ez —esan zuen Ma Zik burua mugituz—, ez da behar. Ea, jan dezagun hoztu baino lehen.

Eta oilaskokiz egindako plater gozoak dastatzen hasi ziren, baita laster asetu ere. Wang agintaria bete bete egina zegoen. "Bene-bene-

tan, azeri hori altxor preziatua da. Nolako altxorra gainera! Erosterik banu...”, pentsatu zuen agintariak, eta honelaxe mintzo zitzaion Ma Ziri:

—Atera ezazu azeri harrigarri hori azter dezagun.

Ma Zi gelan sartu eta bertan lotuta zegoen beste azeria atera zuen. Agintariak, erabat sinisturik, zera esan zion:

—Egia da, azeri ona da. Zilarrezko ehun liangen truk erosten dizut. Zer deritzozu?

Ma Zik burua mugituz ezetz esan zion:

—Ez, ez. Ezta pentsatu ere. Altxor hau salduz gero, nola biziko naiz ni? Ez nuke jatekorik izango. Begira, errentarena emango dizut oraintxe bertan, baina azeria ezin dizut saldu.

Wang agintariak behin eta berriro erregutu zion.

—Ma Zi, bost axola zait errentaren dirua, oso gutxi da eta. Zilarrezko berrehun liang ematen dizkizut azeri horregatik.

Ma Zik, beste erremediorik ez balu bezala, zera esan zion:

—Beno, horrenbeste desiatzen baduzu... Baina saltzekotan zilarrezko hirurehun liangetan salduko nuke.

Wang agintariak zilarrezko hirurehun liang ipini zituen Ma Ziren esku ahurrean. Ondoren, harro harro abiatu zen etxerantz azeria zera-malarik.

Etxera iritsi bezain laster, zera esan zion bere emazteari:

—Azeri hau altxor bat da. Oso iaioa da oiloak harrapatzen etxerako.

Emazteak, azeria mesprezu handiz begiraturaz, zera erantzun zion gogorki:

—Ez dut sinisten.

Orduan agintariak, Ma Zi imitatuz, azeriari hitz egin zion:

—Zoaz altxor hori! Zoaz oiloak harrapatzera. Zenbat eta oilo handi eta gozoago ekarri, orduan eta hobeto.

Eta jarein zuen azeria. Honek orduan, alde egin zuen ziztu bizian.

Wang agintaria azeriaren zain egon zen denbora luzez. Egun bat pasa zen eta beste bat ere bai. Azeriaren berririk aldiz, inondik ere ez. Orduan, ohartu zen Ma Ziren engainuaz. Ukabilak gogortu eta amorru bizian hasi zen oihuka:

—Madarikatua Ma Zi hori! Madarikatua behin eta berriro! Ni en-

gainatzera ausartu zara. Orain bai dudala aitzaki ederra zu infernura bidaltzeko.

Eta sutan, erabat haserre, hamar morroi hartuz joan zen Ma Ziren bila.

Gau hartan bertan harrapatu zuen agintariak Ma Zi bere etxean.

—Bandidu bat zara —oihukatu zion aurpergira—. Eta gainera zure nagusia engainatu duzu. Itzul iezaizkidazu nire hirurehun liang berehala ez baduzu lepoa galdu nahi.

—Ezin dut —zioen Ma Zik—. Gastatu egin dut diru guztia.

—Makila ezazue hil arte! agindu zien Wang agintariak bere morroiei amorru bizian.

Baina gau ilunean elurra ari zuen eta izugarritzko hotza egiten zuen.

—Wang jauna —esan zioten morroiek—, guretzat oso lan erraza da hori, baina hotz handia egiten du eta oso zaila izango da lurperatzea. Hobe bihar hiltzen badugu.

—Ongi da. Baina kenduiozue arropa guztia eta eskuak lotu harriztar horretara gaueko hotzak hil dezan.

Morroiek arropa kendu eta harriztarrean lotu zizkieten eskuak. Puntuzko txalekoa eta gantzontziloak besterik ez zizkieten utzi.

Gau elurtuaren hotzak ziztatzen zuen Ma Ziren gorputza. Hotzez hil zitekeen, baina nekazari azkarrak aurkitu zuen irtenbide abila: jende guztia lotan geratu zenean harri hartu eta jasotzen hasi zen. Gau osoa pasa zuen harria jaso eta lurrean uzten. Egusentian eguzkiaren lehen izpiek distiratzten zuten Ma Ziren gorputz izerditsuan.

Wang agintariak morroiak bidali zituen Ma Ziren gorpuaren bila. Morroiak erabat harrিতuta itzuli ziren:

—Wang jauna, Wang jauna, zuk esan zenuen gaueko hotzak akatuko zuela baina zoaz ikustera. Beroa jasan ezinik dago gorputz guztia izerdi patsetan duela. Haizemaile bat eskatu digu erre-freskatzeko.

Wang agintaria, txundituta, gertakaria ikustera abiatu zen. Egia zen. Ma Zi, izerdi patsetan, haize freskoa eskatzen ari zen. "Hemen bada misterio ezkuturen bat" pentsatu zuen agintariak.

—Zer, Ma Zi hasi zen Wang, sukarra al duzu? Gau osoan egin du edurra, nola liteke zu izerditan aurkitzea biluzik egonik gau osoan? Harrigarria da, azalduko al zenidake misterio hau?

—Begira, saldu nizun azeria altxor bat zen, benetan. Ziuraski zure emazteak begikoa botako zion. Jakizu azeria ez zela itzuli zure emaztea ez zelako fidatzen.

Wang agintariak arreta handiz entzun zituen hitz hauek burua alde batetik bestera mugitzen zuelarik.

—Ongi da —esan zion Ma Ziri—. Sinisten dizut. Azeria benetako altxorra da, baina orain, esaidazu, zer dela eta zaude izerditan gau hotz honetan? Zein da zure sekretua?

—Orain bai, orain konbentziturik nago zuk ez duzula inoiz ezagutu benetako sekretu bat. Aldean daramadan puntuzko txaleko hau, nire aitonak utzi zidan altxor bat da. "Hotz eta beroaren txalekoa" deritza. Txaleko honekin beroa izaten dut negurik hotzenean, ikusten duzun bezala, eta hotza udako egunik berotsuenetan. Hau bai benetako altxorra!

Wang zur eta lur geratu zen. Bi aldiz pentsatu baino lehen Ma Ziren txalekoa erosi nahi izan zuen:

—Salduidazu zure "Hotz eta beroaren txalekoa". Zilarrezko ehun liang emango dizkizut.

—Ez, oraingoan ez dut inola ere salduko nire altxor hau. Esan dizut, aitonaren heredentzia da. Salduko banu, horrek esan nahiko luke ez ditudala nire arbasoak errespetatzen.

—Baina nik altxor hau nahi dut. Zilarrezko berrehun liang ematen dizkizut!

Ma Zik, beste erremediorik ez balu bezala, zera esan zion:

—Beno, horrenbeste desiatzen baduzu nire altxorra... saltzen dizut zilarrezko larehun liangen truk. Sakrifizio bat egiten ari naiz, gainera: hotz handia pasatuko dut nire txaleko hau gabe.

Wangen aginduak jarraituz, morroiek libre utzi zuten Ma Zi; bere arropak eta zilarrezko larehun liang eman zizkieten. Ma Zik aldiz, bere txaleko zikin eta zarpaila eman zien.

Eta azeriaren salmentan lortutako diruarekin egin zuen bezala, pobreen artean banatu zituen zilarrezko larehun liangak.

Wang agintaria pozaren pozez zegoen bere altxorarekin. Baina Hotz eta beroaren txalekoa oso zikin eta kiratsu zegoenez, morroiei eman zien xaboi eta ur beroz garbi zezaten. Gero, eguzkitan lehortu ondoren, jantzi egin zuen. Eta horrela soinean txalekoa soilik zeramaila, abiatu zen bere aitagarrebaren etxerantz. Kaletik zihoan jendeak

farre egiten zuen agintaria itxura hartan ikustean. Gero eta hotz handiagoa sentitzen zuen eta jendearen farreak entzutean altxorraren benetako balioa zalantzan jarri zuen. Dardarka zegoen eta hortzek zara handia ateratzen zuten elkar jotzean. Makurturik zihoan hotz gutxiago sentitzearren, eta eskerrak emazteak deitu ziola, bestela kalean jarraituko zuen denon irrigarri.

Wang agintariak argi eta garbi ikusi zuen bigarren aldiz ere Ma Zik engainatu zuela. Amorru bizian, nekazaria akatzea bururatu zitzaion. Oraingoan ez du aldegingo, zioen agintariak.

Hurrengo eguerdian atxilotu zuen Ma Zi. Boltsa handi batean sartu eta itsasaldera ematen zuen zuhaitz batetik zintzilikatzeke agindu zuen. Zuhaitza moztean, boltsa erori eta Ma Zi ito egingo zen. Morroiek, zuhaitza mozten ari zirenean, gose zirela eta, zera esan zioten Wang agintariari:

—Wang jauna, gose gara. Bazkalostean moztuko dugu zuhaitza.

—Ongi da, bazkal ezazue. Ma Zi hilik dagoela esan diateke, eta itxoin dezake apur bat.

Eta horrela, agintaria eta morroiak bazkaltzera joan ziren. Lekutik joan ziren unean agertu zen Wang agintariaren aitagarreba. Bere suhiaren etxera zihoan eta txundituta geratu zen zuhaitzeko boltsa mugikorra ikustean.

—Zer da hau? Nor mugitzen da boltsa barruan?— galdetu zuen harrituta.

Ma Zik ezagutu egin zuen Wang agintariaren aitagarrebaren ahotsa eta bazekien hau konkorra zela.

—Ni naiz —erantzun zion Ma Zik. Lehen konkorra nintzen baina orain banbu adar bat bezain zuzena naiz. Hau da konpontzaila.

—Zein? —galdetu zuen aitagarrebak animaturik.

—Boltsa hau altxor bat da. Begiratu, ni bezalako konkor bat sartuz gero boltsa honetan eta ordubetez zintzilik eduki, zuzen-zuzen jarriko da. Orain nire senideen zain nago, zuhaitzetik jaitsi behar naute eta. Ondoren boltsa jabeari itzuli eta zilarrezko ehun liang ordaindu behar dizkiot.

Wang agintariaren aitagarrebak zera esan zion orduan pozaren pozez:

—Horrela da beraz. Ba, ni ere konkorra naiz, utzidazu zure boltsa-

altxorra eta zintzilika nazazu zihaitzean. Zilarrezko ehun liang emango dizkizut.

—Ongi da, baina ehun liang gutxiegi iruditzen zait.

—Zenbat nahi duzu orduan?

—Ehun eta berrogeitahamar.

—Ezta pentsatu ere! —zioen urduri konkorrak.

Une hartan pasatu ziren handik bi nekazari pobre. Ma Ziren ahotsa entzutean, zuhaitzetik jaitsi zuten boltsa, eta Ma Zi libre utzi. Hau, orduan, Wang agintariaren aitagarrebaren aurrean geratu zen tente-tente.

—Begira ezazu nire bizkar zuzena —esan zion—. Zuhaitz zahar baten antzekoa zen, eta orain banbu bat dirudi.

Wang agintariaren aitagarrebak zilarrezko ehun eta berrogeitahamar liang eman zizkion larriturik.

—Zintzilika nazazu, mesedez —eskatu zion orduan.

Ma Zik boltsa barruan sartu eta zuhaitzetik zintzilikatu zuen. Ondoren, bi nekazari pobreekin, etxera itzuli zen poltsikoan zilarrezko ehun eta berrogeitahamar liang zeramatzala.

Wang agintaria, bere morroiekin itzuli zen zuhaitza mozten bukatzeko.

—Moztu lehenbailehen, ea oraingoan hiltzen den!

Konkorrak bere suhiaren ahotsa entzutean, oihu egin zuen:

—Baina ni naiz zure aitagarreba eta zu nire suhia. Jaitsi nazazu azkar!

Wang agintaria guztiz haserre, amorru bizian, deiadarka hasi zen:

—Irain nazazu nahi beste. Ikusiko dugu nor den aitagarreba, zu ala ni. Unetxo bat barru Itsasoko Draagoiaren aurpegia ikusiko duzu. Hau lotsagabekeria, nire aitagarreba dela esatea!

Morroiek azken aizkorakada eman ondoren zuhaitza itsasora erori zen.

Egun batzuk beranduago, Ma Zik ahate pila bat erosi zuen azokan zilarrezko ehun eta berrogeitahamar liangekin. Eta goiz batean, ahate taldea paseatuz, Wang agintariaren etxe aurretik pasatu zen. Ma Zik banbuzko makila bat zeraman, ehun gorri bat puntan loturik zuelarik. Ehuna oso oso gastaturik zegoen eta urtetan ahateak

gidatzen erabilia izan zela ematen zuen. Wang agintariak, erabat nahasirik, oihu egin zuen:

—Baina nola liteke? Ziur nago hil zintudala. Nola berpiztu zara?

—Hil egiten ote da bihotz onekoa? —erantzun zion Ma Zik irribarez—. Uretara bota ninduzun egun hartan itsas hondarreraino urperatu nintzen. Itsasoko Dragoiak segituan izan zuen nire berrri, eta bere itsaski-jenerala eta karramarro-soldaduak bidali zizkidan sartzen uzteko. Han, urrezkoak dira eguneroko tresna guztiak. Non begiratu, hura distiratsu. Te eta janaria eskaini zidaten. Izugarriko muxika gozoa dastatu nuen, baita enara kabia eta nik nahi beste janari. Ondoren Itsasoko Dragoiak hamar edertasuni deitu zien niri laguntzeko paseoan. Haiak ziren ederrak! Pena bat zu han ez izatea, bakarrik esango dizut leku zoragarria dela. Urrezko bufaloak, urrezkoa zaldiak, urrezko oi-loak ikusi nituen; eta horien alboan gaua argitu zuten perlak, harri bitxiak, hotz eta beroaren txalekoak, su-jantziak, belar luze ugariak... Bi egun zoragarri pasa nituen, baina etxera itzuli nahi nuen. Izan ere horrenbesteko edertasun duen leku batean, zaila da ni bezalako gizon pobre bat eroso egotea, ez bainago ohituta horrelakoetan. Agur egiteko unean, zera esan zidan Itsasoko Dragoiak:

—*Hemen edertasun ugari dugu, hartu nahi duzuna zurekin joan dadin.*

Politen arteko politena aukeratu nuen, baina zoritxarrez honek ez zuen bizidunen mundura etorri nahi. Orduan, Itsasoko Dragoiak agindu hau eman zidan:

—*Har ezazu gogokoen duzun altxorra.*

—*Eskerrik asko, baina ez dut altxorrik nahi esan nion nik.*

—*Zergatik?*

—*Lehen bi altxor nituen eta herriko aberatsenari saldu banizkion ere, honek hil nahi izan ninduen.*

Hala ere Itsasoko Dragoiak berriro ekin zuen:

—*Besterik ez bada, oroigarriren bat hartu behar duzu. Lotsaz hilgo naiz ez baduzu ezer hatzen.*

Eta halaxe ahate hauek hartu nituen; agurtzerakoan, berriz, zera esan zidan Itsasoko Dragoiak eskua hartua zidalarik:

—*Biziki estimatzen zaitut. Zatoz sarritan nire jauregi honetara.*

Aski izango da atea bederatzi aldiz jo eta "Ma Zi naiz, gizon ona" esatea eta zabaldu egingo zaizu atea.

Wang agintariak zera pentsatu zuen bere golkorako: gizon hau lelo hutsa da. Ni bere lekuan egon izan banintz, hamar emakume eder hartuko nituzkeen, Itsasoko Dragoia hilgo nuen eta bere altxor guztiak hartuko nituzkeen. Bai, argi eta garbi dago: lelo hutsa da. Gero, irribarez, Ma Ziri hitz egin zion:

—Ma Zi, joanak joan. Ez dezagun borrokarik egin. Oraingoan Itsasoko Dragoiaren jauregira eramaten baldin banauzu nire ondasun guztiak emango dizkizut. Ados al zaude?

—Burutik jota al zaude? Itsasoko Dragoiaren altxorrak ez ditut nahi izan eta nola bururtzen zaizu zure gauza hutsal hauek nahi izango ditudala?

Wang agintaria belaunikoz jarri zen Ma Ziren aurrean erreguka:

—Barkaidazu! Barkaidazu! Barkatu egin dizkizudan gaiztakeria guztiak. Eraman nazazu Itsasoko Dragoiaren jauregira eta gaurtik aurrera errespetatu egingo zaitut beti.

—Beno, pena ematen didazu eta eramango zaitut. Baina hitzez hitz jarraitu behar duzu nik esandakoa. Lehenengo: inork ez du jakin behar hau, bestela Itsasoko Dragoiak ez digu atea irekiko. Eta bigarren: zurezko untzi bat prestatu behar duzu niretzat eta portzelanazko beste bat zuretzat, eta gainera burnizko barra bat untzia jotzeko.

Wang agintariak hitzez hitz jarraitu zituen Ma Ziren aginduak. Egun baretsu batean itsasoratu ziren. Ma Zi zurezko untzian zihoan, agintaria portzelanazkoan. Itsas zabalean Wang agintariak Ma Ziri hitz egin zion:

—Itsasoko Dragoiaren jauregiko atea jo beharko dugu.

Ma Zik orduan, bere zurezko untzia jo zuen emeki. Wang agintariak urduri eta presaka hamar emakume eder eta Itsasoko Dragoia hil ondoren, honen altxor guztiak hartu nahian, zera proposatu zion Ma Ziri:

—Hobe portzelanazko untzia jotzea. Portzelanak zurak baino zarrata handiagoa ateratzen du.

Ma Zik untzia jo zuen. Ding, ding, ding, ding, baina Itsasoko Dragoiak ez zuen atea irekitzen. Orduan Wang agintariak jo bitartean esan behar ziren hitzak gogoratu zituen "Ma Zi naiz, gizon ona". Erabat desesperaturik, oihu egin zion Ma Ziri:

—Ma Zi oihukatu eta jo gogor nire untzia.

Ma Zik, kasu eginez, gogor jo zuen portzelanazko untzia puskatu arte eta horrela itsas hondarreraino joan zen Wang agintaria betirako.

Berdez jantzitako neska. Txinako ipuinak I. Iruña: Pamiela, 1988 liburutik hartua.

Ipuinen arteko parekotasuna.

Bai Ma Zi, bai Peru Arraizpe nagusien eta boteretsuen kontrako ipuinak dira; engainuan eta batez ere, pertsonaien inteligentzian oinarritzen direlarik. Pertsonaia txinarra herrikoa da, pobreen aldekoa:

“...aberatsek ezinzuten ikusi, pobreek aldiz, pozaren pozez onartzen zuten. Ma Zik pobreei lagundu eta aberatsei adarra jotzen baitzien”, gure Peru, aldiz, alferrontzi galanta dugu: “alperra baina burutsua, gorputz-astuna ta buru-arina, anka-sorra ta begi-zolia”.

Pertsonaiak azkarrak eta burutsuak dira kasu bietan, baina izatez nahiko ezberdinak aurkezten zaizkigu. Hauxe da ipuinen arteko ezberdintasun bakarrenetariko bat.

Ma Zi eta Peru zergak edo zorrak ordaindu beharrean aurkitzen dira: Wang, herriko agintaria, zergak kobratzen hasi zen urtero bezala kontatzen zaigu Txinako ipuinean; euskaldunean berriz, zordunak dira kobratu nahi dutenak: “Artzekodunak aspertu zirenean, guztiak bat eginda eskribau batzui emon eutsen Peruri enbargua egiteko eskua”.

Ipuinetako pertsonaiek beren burua erabiliko dute zergen eta zordunen zamatik libratzeko. Batak nahiz besteak animalia bereziak lortuko ditu. Ma Zik azeriak erabiliko ditu, uztaren salmentaz ateratako dirutzaren erdia gastatu zuen bi azeri erosten; Peruk erbikumeak:

—Gurëan zer jagok be arei emotekorik?
—Zer jagonan? Erbikume bi...”

Animaliak lorturik, engainatuak izango direnen zain geratzen dira gure pertsonaiak, baita antzezten hasi agintaria edo eskribatuak agertu bezain laster:

“Ma Zik orduan, azeriaren burua ferekatu eta zera esan zion:

—Zoaz, altxor hori! Zoaz oiloak harrapatzera. Zenbat eta oilo handi

eta gozoago ekarri, orduan eta hobeto.
Eta libre utzi zuen."

Peruk Maria bere emaztea erabiliko du eskribauak engainatzeko orduan:

"Mariak (...) erbikumea atara, ankako lokarria askatu ta esan utsan:

—*Mustur-zuri*: oa Arraizko sagastira ta gure Peruri datorrela, eskribauak zain daukazala-ta. Arin ibili, *Mustur-zuri*.
berba onek entzueran erbikume inoizko bizkorren joian".

Agintaria eta eskribauak harriturik geratzen dira animalia berezien ezaugarriak ikusirik eta nola edo hala lortu nahi izango dituzte:

"—Egia da, azeri ona da. Zilarrezko ehun liangen truk erosten dizut"

"—Orixen saldu bear dauskuk, Peru."

Hasierako eragozpenak eta saldu nahi ez izateak gainditu ondoren, nekazariek, kostata baino, salduko dizkiete beren bitxiak:

"—beno, horrenbeste desiatzen baduzu..."

"—Zeuek zarelako or dozue..."

Nagusia eta eskribauak laster konturatzen dira sartutako ziriaz, izan ere animaliek lan egin beharrean hanka egiten baitute, eta duten boterea erabiliz Ma Zi eta Peru atxilotzeko aginduta ematen dute. "Gau hartan bertan harraptu zuen agintariak Ma Zi bere etxean" eta "(...) Geugaz katigu eroan bear augu, polit ori". Pobreek, aldiz, dirurik ez baina burua badute eta berehala asmatu dute aitzakiren bat. Kasu bietan ukatzen dute engainua eta animaliekin jabe berriek izandako jarrerari leporatzen diote hauen ihesa: "Zure emazteak begikoa botako zion" esaten dio Ma Zik agintariari, eta ez hori bakarrik, animalia oso berezia zela eta berehala igarriko zuela agintariaren emazteak ez zuela konfiantzarik berarengan. Perek eskribauei leporatzen die errua: "Zuek txarto emongo zautsen mandatua".

Orain arte ipuin bien egitura paraleloa izan da, gertakariak antzekoak eta ipuinaren argumentoa bera.

Bigarren topaketa izango dute gure protagonistek herriko agintariarekin eta eskribauekin, baina oraingoan ezberdinak dira engainuak.

Ma Zi harri batera lotuko dute gau hotzean eta ariketak egiten gau osoa pasa ondoren, izoztuta aurkitzea espero zutena izerditan blai topatzen dute. Hotz eta beroaren txalekoa izango da gertakari miresgarri horren kausa eta agintariak erosi egingo dio dirutza handiaren truk.

Peruk, berriz, nahi beste janari ematen duen aitzurra eta ganibet berezia, hildakoa berpizten duena, salduko dizkie eskribauei.

Azkenik, bai Ma Zi bai Peru, atxilotuak dira eta agintariak Ma Zi Boltsa handi batean sartu eta itsaldera ematen zuen zuhaitz batetik zintzilikatzeke agindu zuen. Zuhaitza moztean, boltsa erori eta Ma Zi ito egingo zen. Eskribauek beren aldetik, Peru upel baten barruan sartu ta bira biraka itxasora yaurtigiteko usteaz eroan eban.

Heriotz zigorra jasan beharko dutela dirudi, biak boltsan edo kupelean sarturik itsasoan itoko direla; baina oraingoan ere salbatuko dira pobreak, azkarrak, bizkorak eta burutsuak direnak. Ma Zik Wang agintariaren aitagarreba engainatuko du:

“—Lehen konkorra nintzen baina orain banbu adar bat bezain zuzena naiz. Hau da konpontzailea.

—Zein? galdetu zuen aitagarrebak animaturik.

—(...) Boltsa hau altxor bat da (...)

—(...) ba, ni ere konkorra naiz, utzidau zure boltsa-althorra eta zintzilika nazazu zuhaitzean”.

Peruk, berriz, handik igarotzen zuen artzai batekin ondorengo elkarrizketa hau dauka:

“—Zer dodan? Errege alabeagaz, nai eztopala, ezkondu gura nabe.

(...)

—Euk ezkondu gura ezpadok, amentxe naigok neu, orretarako gertu”.

Une honetan aldaketa bat ematen da ipuin bietan, ordura arte boteretsuen zigorra nolabait jasan behar izan duten nekazariak, agintaria eta eskribauen kontrako jarrera hartzen dute. Mendekuaren orduan iritsi da; Ma Zi eta Peru, biak baliatzen dira engainatu duten azken pertsonaz mendukua prestatzeko. Ma Zik aitagarrebak emandako diruarekin ahateak erosten ditu; Peruk artzaiaren ardiak hartzen ditu.

“ahate taldea paseatuz, Wang agintariaren etxe aurretik pasatu zen (...)

—Baina nola liteke? Ziur nago hil zintudala. Nola berpiztu zara?”

“—Peru da berau? Peru Arraizpe!! Eguno onakorik! Nun batu dituk ardi orrek?”

Harridura eta jakinmina pizten dute Ma Zik eta Peruk, ez bakarrik bizirik dauelako, baita dituzten ondasunengatik ere. Agintariak eta eskribauek diru egarri itsasora jaurtiak izateko nahia adierazten dute, handik atera baitituzte nekazariak abereak.

“—Eraman nazazu Itsasoko Dragoiaren jauregira, eskatuko dio Wangek Ma Ziri”.

“—Amilduko nok neu bertara, lekurik onenera? eskatuko dio eskribauek Peruri”.

Eta kasu batean nahiz bestean itsasoko uretan itota amaituko dituzte beren egunak Ma Ziren eta Peru Arraziperen hondamena nahi zutenek.

Aurreko adibideen bidez argi eta garbi geratu da Txinako herri ipuin horren eta R. M. Azkuek jasotakoaren arteko parekotasuna. Argumento, egitura eta pertsonaien ateraldi, jokabide eta asmoak berdinak dira “Ma Zi nekazari argia” Asialdeko ipuinean eta “Peru Arraizpe” gurean.

Izan ere, duela mende bat Websterrek zioen bezala; “Gaur uste dut, jatorrizko motiboak nahiz datoak berrogei bat besterik ez direla giza-motaren folklore osorako. Beste dena, kaleidoskopio baten aldaketak eta muhantzak bezala da. Beste erresumetako folklorea aurkitu ez dudan gauzarik ez dut aurkitu euskal folklorea. Bereiztasun bakarra bertako kutsuan eta kontaeran datza”. (Etxeberrriak aipatua, 1973, 203 eta 206).

ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA.

ARIZTIA, M. (1982) *Amattoren uzta*. Donostia: Elkar. 2. argitalpena.

AZKUE, R. M. (1989) *Euskalherriaren Yakintza II*. Madrid: Espasa-Calpe & Euskaltzaindia. 3. argitalpena.

- BARANDIARAN, J. M. (1962) *El mundo en la mente popular vasca. vol. III*, Donostia: Auñamendi.
- BETTELHEIM, B. (1980) *Los cuentos de Perrault*. Bartzelona: Critica.
- ETXANIZ, X. (ed.) (1988) *Berdez jantzitako neska. (Txinako ipuinak I)*. Iruña: Pamiela.
- ETXEBERRIA, M. (1973) *Euskaldunen ipuin harrigarriak*. Arantzazu: Jakin.
- GOMEZ, G. (ed.) (1993) *Perraulten ipuinak*. Iruña: Pamiela.
- IGERABIDE, J. K. (193) *Bularretik mintzora. (Haurra, ahozkotasuna eta Literatura)*. Donostia: Erein.
- JEAN, G. (1988) *El poder de los cuentos*. Bartzelona: Pirene.
- LEGOALDI (ed.) (1929) *Grimm anayen berrogetamar ume-ipuin*.
- WEBSTER, W. (1993) *Ipuinak-I*. Donostia: Kriselu.

Hegoaldeko itsasoetan barna

(Irudimena eta balea zuria)

JUAN KRUZ IGERABIDE

Poesiaren eginkizuna egia bilatzea omen da poeta handi askoren ustez. Niri beti mirespen handia sortu izan didate egiaren bila ibili izan diren poeta handiek. Nire ilusioa ere horixe zen, eta hartu nuen neuk ere bolidoa karrera horretan hasteko. Baina, hutsa! Segituan jo nuen bazterra, eta hor gelditu nintzen ez bolido ez egia eta ez begia. Eta orain gezurrak esatera dedikatzen naiz. Eta horrela aritzen naiz ni ere, gezurti guztiak bezala, gezurrak esaterakoan ere gezurretan, paradoja ezagun hartan bezala.

Hegoaldeko itsasoetan barna

Hegoaldeko itsasoetan, esferaldi australean, agertzen omen zen balea zuria, bere atzetik abiatzen zirenak hondamendira eramanez. Ur handietan ba-

rrena doa poeta ere, balea zuriaren bila eta bila, untzi-kapitain erotuaren seta gogorrez.

Ulises-entzat itsas-lamien kantua galbide da. Gorrak edo itsuak ez du itsas-lamien kantuen edo belaea zuriaren beharrik; Ulises-ek bai, kapitain erotuak bai, poetak bai. Eta behar hori bihurtzen zaie bizitzeko motibu eta, aldi berean, hondamendira-ko arrisku.

Ikuspegi horrek, ordea, poeta gizaki arraro, xelebre eta agian sagaratua ere badela esatera eramango ninduke; nolabait poeta jainkoen semetzat hartzen zuen ikuspegi erromantiko haren ondotik nenbilke horrela. Lizardik berak "giza-txoro"-tzat edo "olozkun" gorenak dituen gizakitzat dauka poeta. Baina, pentsamolde horrekin ez nator bat gaur egun.

Poesian ari garen gehienok

lilura baten atzetik goaz, hizkuntzen itsasoan barna; eta mintzoa da gure barkua. Baina horrek hain berezi egiten ote gaitu? Ez, nire ustez. Gizaki oro doa liluraren baten atzetik: baten lilura hitzak baldin badira, beste batena koloreak dira; beste batena, soinuak; bestearena, berriz, landareak, edo makinak, edo abiadura, edo hegan egin beharra, edo korrika egin beharra ez dakit zeren atzetik, edo dirua, edo boterea, edo 'edo' luze eta amaigabea...

Gizakia, gizakia denetik doa liluraren atzetik; hori da beharbada gizakia beste izakiengandik bereizten duen ezaugarrietako bat: liluraren baten atzetik joan beharra, etengabe lilura berriak sortuz aritzea. Eta lilura horietan dago gordeta, preziski, gizakia-ren hondamendia; noizbait atzemanek gero, lilura horrek berekin hondoratzen baitu ur handi eta ilunen sabelean.

Poesian aritzen denak lilura hori mintzo-irudiekin adieraztea besterik ez du egiten. Hitzak dira poetaren itsaso, eta itsaso horretan doa etengabe bere lilura propioaren atzetik.

Aspaldi esan zuten ekialdeko erlijioek mundu hau lilura edo 'maya' besterik ez dela, gizakiok etengabe gauza suntsikorraren atzetik goazela. Joatea da beharbada gure patua, joatea eta joatea, eta helburuak eta hel-

mugak lilura besterik ez dira izango ziur aski, baina joanarazi egiten digute.

Liluraren kontu horretan poeta ez da, zein nekazari, zein banku gizon, zein beste edozein ofiziotako gizon edo emakume batengandik oso ezberdina. Hitzekin nahasketa berriak sortu dituela eta, bere lilurari adierazpide misteriotsuak ematen bada kiela eta, nolabait mirariak egiten ariko balitz bezala ikusten du bere burua, elite sentitzen da, hitzaren sekretuaren jabe bailitz. Eta gauza bera pasatzen zaio edozein arlotako artistari: pintorea jainko sentitzen da koloreen erreinuan, musikalaria ere jainko sentitzen da doinuen erreinuan. Baina ez ote da jainkosa sentitzen ama bat, munduko amarik ezjakinena izanda ere, bere presentzia hutsak umeari ateratzen dion irribarrearen aurrean? Ez ote da jainko sentitzen autobuseko gidaria, errebueltak dotoredore hartzen dituenen? Ez ote da jainko sentitzen nekazaria beren buruekin agur eginez dagoen porru-saila ederraren aurrean?

Eta horrela pasa gintezke munduko ofizio guztietatik. Eta poetarena ere beste ofizio bat da; berezi samarra beharbada, baina azken finean beste ofizio bat.

Liluraren atzetik doa poeta ere, besteak bezala. Eta itsasoan

sartzen da, nora joan oso garbi ez dakiela. Ez, ez daki ondo biderik, itsasoan bideak infinitoak baitira; bide jakin bati jarraiki doazenek ere badakite balea zuriaren bideak ezustekoak direla beti, eta hura ikusi nahi badute, goizago edo beranduago bide jakin horietatik irten egin beharko dutela. Beraz, poesian estetika desberdinen azterketak inguraketak besterik ez dira, poesiaren lilurak beti ezustean harrapatuko baikaitu; noski, untzi-kapitain trebe bat beti hurbilago ibiliko da lilura horren bideetatik, baina hor ikusiko dugu galde eta galde berarekin gurutzatzen den untzi-kapitain orori: Ikusi al duk balea zuria? Zein aldetan ari da agertzen aldi honetan? Inor hurbildu al da beragana? Non ikusi dute azkeneko aldiz?

Gutxi dira itsasoan zehar balea zuria, edo lilura sekretua, ikusi dutenak; gehienok haruntz eta honuntz gabiltza hitzen itsasoan, balea zuria ikusi ere egin gabe. Bada urrundik ikusia duenik; bat edo bestek nahiko hurbiletik ere ikusia omen du; bakanak dira, ordea, arpoia sartzera iritsi direnak. Hauetako asko lilurak berarekin hondoratzen ditu; bizirik alde egiten dutenak, burumakur eta umil itzuli ohi dira itsasoan zehar, gehienak zauriren bat berarekin daramatela: dela zangoan, dela eskuan, dela buruan... erotutakoak ere ez dira gutxi. Hauek

berrito ekiten dioten bilaketari, eta erremediorik gabe itsasoak irensten ditu azkenean. Dena dela, balea zuriaren hatsa sentitu duenari ez zaio geratzen harrokeriatarako gogo handirik: ondo umilduta itzultzen da, itzultzeko adur onik badu behintzat, joandako bidetik.

Itsasoan marinel gazte bat aurkitu dugu, balea zuriak hondora bidalitako barkuaren zati bati helduta, eta hark kontatzen digu bere kapitainaren ixtorioa. Hari entzunda, hitzen itsasoan itsumustuan gabiltzanoi aski zaiugu gure harrokeria ausarta pixka bat baretzeko, jakinik gainera, seguruenik balea zuria ikusi ere egin gabe erretiratu beharko dugula.

Eta hala ere itsasoratu egiten gara, hegoaldeko itsasoetan barna, gure Lur borobil honen hegoaldea baita gure amaren sabela, urez betea, non gure sorburua baino lehenagoko denboratan bezala sentitzen garen. Amaren iparraldea lurrezkoa da batez ere; ama bizia da, etengabe elikatzen gaituen ama. Hegoaldean dauka, ordea, sabela, ur amniotikoz mukuru.

Ura da amaren sabelbarneko elementua. Uretan egosten dira poemak, jaio baino lehenago. Urak, sinbolikoki emozioen edo barne-zirraren mundua adierazten du. Gizakiaren barne-bar-

neko bultzada edo pultsioak, erabat konturatugabegertatzen direnak, inkonziienteak alegia, uraren eraginak sortzen ditu. Gure gorputzaren elementu osagarririk ugariena, diferentzia handiz, ura baldin bada, ur horrek badu bere alde animikoa ere, eta uraren sinboloa izango da gure arimaren bultzatzailerik oinarri-zkoena. Beraz, poesiaren sorreran gehienetan emozio edo barne-zirrara dagoela esatea ez da batere harrizkoa.

Urak itsasoak gordetzen ditu, baina nork bete ditu itsasoak? Itsasoa edo amalurraren sabela hartzailea da, eta urez beteta egoteko emale bat edo betetzaille bat imaginatu beharra daukagu. Aspaldiko tradizioak dienez, erraldoi handiek pisa egiten zutenean sortzen omen zituzten ibaiak eta putzuak eta itsasoak. Gargantua beraren ofizio ohia da hori. Baina erraldoi handi horien usuria pixa ezezik hazia ere bazen, likido preziatu hori ere erruz isurtzen baitzuten. Ur handiak, beraz, likido amniotikoz eta seminalez beterik leudeke. Eta, sinbolikoki, ur horiek bilduko lituzkete gure emozio, zirra-ra, grina, dardarizo, kuttuntasun, herra, eta era hauetako pultsio edo barne-bultzadak oro. Beraz, horrela biltzen dira aita eta ama sinbolikoak; itsaso eta beste urak amak bildu ditu bere baitan, baina erraldoia edo aita da egilea.

Eta zeintzuk dira erraldoi horiek? Jainkoaren semeak, noski. Jainkoaren mitologian, honek hasieran ez luke sexu bereizketarik; baina, bere manifestazioa edo agerpena era polarizatuan egiten da, eta lehenik seme erraldoian polarizatzen da eta honen saihetsetik, beste polotik alegia, ama sortzen da, honela, izadia eta mugituz edo aldatuz doan guztia sinbolizatzen duen triangelua osatuz.

Gizakia uraren beharrean dago, eta uretara joko du bizi nahi badu. Poesiaren oinarrian ura dago. Baina gizakiarengan badago gora eginarazten dion beste bultzada bat, uretatik askatu eta libre bizi nahi bailuke. Amaren sabela edo itsasoa kuttuna da, baina aldi berean kartzela eta muga ere bada, nahiz oso zabala izan. Eta muga horretatik aldegiten lagunduko dion zerbaiten bila doa poeta. Eta zerbait hori lilura edo balea zuria da; urdiniluna da amaren sabela edo itsasoa, zuria edo argia da baleak edo lilurak agintzen diona.

Baina uretan nabigatzen ez dakiena alferrik abiatuko da balea zuriaren bila. Liluraren atzetik joatea kapitain trebearen lana da. Lilura baino lehenago ura dago, uretako zurrumbilo eta ekaitzetatik pasatzea. Hor hondora bagintez, akabo balea zuria ikusteko esperantzak. Arkano zahar batean zirkulu bat agertzen

da, bitan banandua; beheko alde ura da, eta goikoa, berriz, airea; aireratu baino lehenago uretan bide luzea egin beharra dago, urgaineratu eta han nabigatzen ikasi arte; bide hori derri-gorrezkoa da eta itsumustuan egiten dena gainera, argiak airea eskatzen baitu, urak iluna gordetzen duen bezala. Arkano horri begiratzeko badiogu, lilura edo balea zuria aireko argiaren iragarpen edo abisua besterik ez litzateke; benetako argia airean dago eta balea zuria itsasoan azaleratuz eta murgilduz ari dena da. Balea zuria edo lilura poetarentzat iruzurbidea besterik ez da, argia erakutsi eta berriro hondoratu egingo baitu; horregatik diogu hasieratik balea hondamendirako bidea dela. Eta zere-nen kantuari bagagozkio, zer da, bada, kantu hori, iruzurbidea besterik?

Uretan sortu ziren lehen bizidunak, eta airera irten ziren: horrela egin zuten landareek, itsasbelarretatik abiatu eta zoru mailako landareetatik pasaz, airea orraztu nahi luketen zuhaitz handihorietaraino iritsiz; horrela egin zuten animaliek ere, uretako lehen protozoo-etatik hasi, eta lur-azala eta zeruak zeharkatzera iritsi arte; eta horrela egiten du gizakiak, eta horrela egiten du poetak. Lurra ama bada, ura da bere sabela, hondo amaiezina

duen sabela, izakiei airera jaino baino lehenagoko babesa eskeintzen diena.

Hari beretik, poesiaren sorreran ura, barne-zirrara, ikusiko dugu, era guztietako emozioak. Baina ur horiek ilunak izanik, egoera itsu samarrean egongo da poesia hor, ikuspegi zabalik gabe, airearen faltan, eragin intermediatoei jarraiki. Uretako poemak zuzen-zuzenekoak dira; ez dira, airekoak bezala, jirabiraka ibiltzen metafora korapilatsuen bila; uretako irudien hezedura haragian sentitzen den horietakoa da, soinu eta murmurio hurbilez lagundua.

Uraren hurbiltasun hori azpimarratzeko ispiluaren irudia aipatuko dugu. Ispilua ere lilura modu bat besterik ez da; lehen mailan sortzen den lilura izango litzateke, oso gertukoa, oso uki-garria edo tangiblea. Ez luke bidai luze eta arriskugarrien beharrik izango. Putzu ttiki inuzentea izango litzateke bere egonleku, eta ez itsaso zahar eta maltzurra. Baina putzu ttiki horrek, bere inozotasunean, bere ahulean, erakarpent-indar ikaragarria dauka; geure burua bera erakartzen digu, gure bizitzako lehen lilura geure buruarekikoa baita, eta hor baitago gure ezagueraren sorlekua. Aipatu beharrik ez dago, hain ezaguna denez, Narciso-ren mitoa.

Lilura guztiak harrokeriarekin harremanean leudeke, eta harrokeria guztiak norberekoikeriarekin. Baina, ispilua izango litzateke harrokeriarik inozoena; ez, ordea, horregatik, arriskurik ttikienekoa. Haur inozoaren ezaguera bere buruaz jabetzen doan heinean garatzen da, eta hor sortzen zaio lehen lilura arriskutsua, berekoitasun inozo horretan. Balearekiko liluran ez zegoen inozotasunik, ausardia, trebezia eta eromena baizik; gizaki zaildu eta ezagueradunentzat sorturiko engainua da balea zuria. Ispilua bigunagoa da, emeagoa, baina sortzen duen eromena eta arriskua bestearena bezain itogarriak dira, uraren hondora daramatenak azken finean.

Ispiluaren irudia behin eta berriz agertzen da literaturan. Hurbileko adibide bat jartzeko, besteak beste, Atxagaren Kalbun Dahabin-en ispilua ekarriko nituzke gogora. Ispilu horiek irakurketa askotarako bideak emanago dituzte seguruenik. Nik hone-lako irakurketa bat egingo nieke orain, adibidez: "menderaitzak heure ispilua, hots, heure urak, hots, heure grinak, eta heriotza bera ere menderatuko duk"; edo beste irakurketa hau ere proposa dezaket: "ezaguitzak heure buruaren alde infinitoak, hots, ezaguitzak heure burua, eta heriotza bera ere menderatuko duk".

Nork bere burua ezagutzearen ideia hau Sokrates-i egotzen bazaio ere, aspaldikoa da gizakiengan irriki hori. Nork bere burua ezagutuz unibertsoa ezagutzera iritea ekialdeko pentsamoldeetan oso txertatua dago; bestalde, heriotza menderatu nahia gizakiaren oinarrizko irriki delat esan beharko genuke, eta horrek eraman du gizakia lilura baten eta bestearen atzetik, heriotza menderatu nahi horrek, betirako izan nahi horrek.

Gaston Bachelard-en usteetan ispilua iturriarekin harreman estuan omen dago. Beraz, orain iturriaren irudiarekin sartzea egokitzen zaigu, uraren eremu zabal honetan. Iturriaren nondik norakoak ikusi baino lehenago, ordea, argibide txiki bat beharrezkoa zaigu: ametsa aztertu duten autoreen artean, —Bachelard bera edo Bguin bat aipa ditzakegu— esaten denez, objektu bat amesterakoan oinarrizkoagoa omen da objektu horri izatea ematen dion materia, objektu bera baino. Ametsak zuzenean ez dagozkie objektuei, hauen osagai den materiari baizik. Eta bide honetatik, materia beraren jaiotza-aren arazoarekin egiten dugu topo bete-betean.

Gu urarekin ari gara gora eta behera, eta haruntzago joan nahi badugu, ur horren sorburu den iturria hartzera iritsiko gara,

honela prozedura poetikoaren hondoraino iristeko modu bat aurkituz. Iturriaren irudia poesiarren hezurretaraino saturik dago; ez dakit izango den inoiz iturririk aipatu ez duen poetarik. Apustu egingo nuke, aipatzen ez dutenen artean ere iturriarekiko irudiak nolabait sinbolizaturik agertzen direla, irudi, objektu, metafora, nahiz beste prozeduraren baten bidez. Iturriaren esperientzia joatearen edo jario etengabearen bizipena da; ahotik irteten den hizjarioa iturriaren esperientzia da, malkoa iturriaren esperientzia da; eta ez da harritzekoa pertsona bat mendi bateko edo parke bateko edo plaza bateko edo ez dakit nongo iturri jakin batekin identifikaturik egotea, poeta bantentzat irudimen suspertzaile edo erreferentzia errekurrentea bihur daitekeelarik. Gerta liteke paraje bateko iturri bat noiz edo noiz bisitatzera joateko beharra sentitzea, hala oinez, nola irudime-
nez.

Iturria da maitasunaren leku, "...iturrira Bartolo nahi badezu etorri", iturria da poesia mistikoan jainkozko graziaren isuri amaigabea sinbolizatzen duena, "basahuntzak udan iturrirako zer irria". Haurren munduan iturria zerbait majikoa da: iturri gardena eta haurraren arima garbia diapaso berean daude. Iturriak irribarre egiten du; algara ez da iturriarena, irribarre isila edo gehie-

nez barre ttiki jostalaria da be-rea. Iturriak irribarre egiten digu eta jostalari abiatzen da, azalduz eta ezkutatu, gordeketa bezala, harriekin jolastuz, kantu ttiki jostalariak eginez, "hor goian goian iturri, ura pir pir pir erori..."

Aipatu dugu iturriaren eta hizjarioaren arteko harremana; iturria eta etorriaren arteko hurbiltasuna ez da fonetiko bakarrik. Poesia kontuetan berezko jarioa eta horrelakoak nahiko ikuspegi desbideratuak dira, horrela esanda behintzat; baina emozioen hodiak edo tuberiak erabiltzen eta handik urak oztoporik gabe pasarazten entrenatua dagoenari, badirudi iturria berez irekitzen zaiola azkenean. Barne-zirrarak trabarik gabe bideratzen ikastea beharrezkoa da iturriaren hizjario agortezin hori sor dadin; arina eta leuna da iturriaren erritmoa poesian, arina eta leuna bere hizjarioa. Noski, hemen uraren hizjarioaz ari gara, sabel barnetik edo bihotzetik sortzen den hizjarioaz, zeren bai baitago burutik zuzenean datorren hizjario bat, airezko hizjarioa, barne-zirrarekin baino gehiago burutapen eta go-goetekin lotua. Jakina, poetika orokor batean gauza hauek ez dira bakar hutsean agertzen, nahastuta baizik: urak, suak; lurak, aireak, bakoitzak bere lekua gorde ohi du poetika batean, orain bat gailentzen delarik, eta gero bestea. Uraren elementua bakar

hutsean islatu badugu, bere ezaugarriak eta funtzionamendua hobeto ikusteko izan da, eta ez bere-berean horrela agertzen delako.

Iturrira joan behar hori eta itsasoratzea amatasunaren altzoan elkartzen diren prozedura poetikoak dira. Itsasoa sabelarekin elkartzen bada, iturria bularrarekin lotuko genuke. Itsasoaren eta iturriaren arteko harremana zirkularra dela esan genezake; bestalde, gizakiaren bidai oro zirkuluak erabakitzen du; bidai zuzenena ere, behar adina luzatuz gero, zirkulu bilakatzen da, eta abiapuntura datorke berriro. Balea zuriaren bila abiatutako poetaren bidaia, azken batean, abiapuntura edo iturritantza eginiko bidaia ere bada, egarri oro aseko duen iturritantzako bidaia. Iturriak, ama lurraren diti emankorrak, asetzen bide ditu poetaren egarriak. Horrela, ura eta esnea elkarrekin doaz likidoaren sinbologian. Ur gardenak barne-zirrara sutilagoak adierazten dituen bezala, esnearen arretasuna behar fisikoagoekin lotua dago. Aldi berean, esnea odoletik dator, odolarekin batera; beraz, elikadura eta zauria, gozotasuna eta mina hari berarekin josiak izan direla esan genezake. Honela dio Rimabaud-ek "Uholde haundiaren ondoren" izeneko poema: "Esnea eta odola isuriak izan ziren".

Esan dugu itsasoa eta iturria, hots, sabela eta bularra, elkarturik doazela, zirkularki. Bestalde, iturritik edo bularetik isuritako urak, itsasoraino edo sabelaraino egiten du bidaia. Uraren bidaia beti beherantz egiten da, haizearena gorantzakoa den bitartean. Urarekin bakarrik dabilen poeta, barne-zirrara hutsean dabilena, behar hainbat sakonduz gero, ez da harrizkekoa malenkoniaren magalean murgilduz joatea, gero eta sakonago, malenkonia hori tristura pisua bilakatu arte, eta beherago oraindik, tristura hori ezdeustasun hutsa bihurtu arte, eta hondorago oraindik, ezdeustasun hori lo sakon bilakatu arte —eta ezin utzi hemen Loti Ederraren irudia gogora ekarri gabe—; eta barnerago eginez gero, lo sakon hori heriotz bihurtuko litzaiguke, hainbat eta hainbat poetaren helmuga, bere buruaz beste egitea, era zuzenean nahiz zeharkakoan; Alfonsina Storni-ren kasua nahiko grafikoa da, eta ez du adierazpen gehiagoren beharrik. Beherantzko hori, hala ere, oso graduala da, ez da bat-batekoa normalki, urjauziren baten kasuan izan ezik; urjauziak egoera animikoaren bat-bateko beherakada adieraziko litzaiguke. Baina beherantzko erorketa azkarrak berez airean gehiago sortzen dira uretan baino; uraren mugimendua etzana goa da, etzanez beherantz egiten duena; aiderkoa, aldiz, zutik egi-

ten da, bai beherantz, bai gorantz, baina beti gorako bidea seinalatuz, salto handien bidez gehienetan.

Uraren beheranzko bidai horretan, ordea, zisneak daude han-hemenka barreiatuak; zisne horien lepo luze eta tenteek beheranzko bidaiaren ondoren gorantz egin beharreko ahaleginaren iragarpen dira; zisnearen kantua heriotzaren kantua da alde batetik, baina baita ere harreman sexualarena; harreman honetan heriotz modu bat bada, baina, une beretik, bizi berri bat aldarrikatzen digu. Infernue-tara jaitsi eta gero zerurantz eginitako bidaiarekin paralelotasun handia legoke hor; hala ere, uraren bidai hotza eta hezea da, ez du infernurakoaren sukarrak, gozoago eta kuttunagoa da, amaren sabelean dagoen ilunpe-ra baitoa. Baina ilunpe horrek heriotzera garamatza, eta zisnearen lepoak agindutakoa bete beharra dauka poetak; hor, goranzko bidai horretan, balea zuriaren distira, edo lilura, lehen mailako motibagarria izango da.

Uraren beheranzko bidaiaren badago beste elementu garrantzitsu bat aipatu beharrekoa: aintzira, aintzira garden eta geldia, lo luzearen sinbolo. Baina aintzira geldi hori oroitzapenen kutxa ere bada nolabait, loak

ezkutatu, alegia, inkonzienteak gordea. Poetak loaren gelditasunean oroipenen putzu ia hondogabea aurkitzen du; baina oroipen horien azpitik, lo geldiaren azpitik, heriotzaren indarrak behera eta behera egiten digu, ur geldia ur hila bilakatu nahian, honela aintziraren gardentasunik eta distirarik indartsuenera iritsiz. Bide honetatik, edertasuna heriotzaren gelditasun mutuarekin lotuko litzateke, oroipenik ederrena isiltasunaren esperientziarekin bateratuko litzateke. Poemaren barnean heriotzaren presentziak eta isiltasunarenak sakontasun paregabea lor dezake: edertasun beltz hori, frak jantziaren dotorezia isil hor; "irudia, urdin ikaragarri ilunak eta berde ikaragarri ilunak hartu zuten", esaten du Rimabaud-ek bere "Nocturno edo gaueko arrunta" poeman. Aintzirako ur geldietako heriotza gaztea eta ederra da, ia inuzentea, ia grinarik gabea, poema batean ia bortxarik gabeko suizidio ezti bat islatzen denean bezala: ez dago mendeku egarririk, heriotz ezti baten aurrean gaude.

Aintzira ilun hori, loarekin eta heriotzarekin lotuta egonik, gauari dagokio oso osoan; Durand-ek irudimenaren antropologia aztertu zuenean, bi aldi nagusi bereizten zituen: gaueko aldia eta eguneko aldia. Aintzira iluna eta uraren sakontasunak gaueko aldiarekin lotuta leudeke; balea zu-

ria eta itsasgaineko nabigazioa eguneko aldiaren azaleratzearen eredu izan litezke, baina azkenik erakarpena gauaren aldikoa da, hondoratzea, sabeleratzea baita irudi horren etorkizun saihezkaitza.

Urak beti behera egiten du, joanaldi itsuan, erorketa hori gero eta mantxoagoa eta zabalagoa bilakatuz, azkenean egontasun ezti eta bizirik gabea bihurtzeraino; erorketa hori gero eta ilunagoa eta itsuagoa bilakatuz, azkenean iluntasun garden eta ezerezaren distira sakon izateraino. Hori da desesperazioa etsipen bihurtzen denekoa, eta etsipen hori egontasun hila bihurtzen denekoa.

Aintzira ilun horretan urak geldiak dira, ez dago behintzat uhin zalapartatsurik, gehienez ere mugimendu tikiak, zirrararen modukoak. Egoera horretan beldurraren presentzia ere nabaria egiten da, ametsetan bezala sortzen den beldur geldia, ia-ia izoztua, zirrara eragiten duena; aintzira iluneko beldurra benetan sakona da eta ez batere zalapartatsua, paralizantea baizik. Juan Mari Lekuonak erakusten duen lurrezko iluntasunean sortzen den izuaren alboan, zulo sakonetako garrasien oihartzunak biltzen dituen izuen genesiaren alboan, badago beste izu isilago bat, garrasirik gabekoa, ur sakon eta geldietako izua, zirrara ia nar-

barigaitzetan erabakitzen dena, eta begirada kristalduen oso urrunean ikus daitekeena.

Iturritik datorren uraren bidai horretan badira izaki berezi batzuk, bertan murgilduz edo ur-bazterrean eserita agertu ohi direnak: lamiez ari gara. Erreka er-tzetan edo aintzira sakon horien bazterretan, ikusten dira hamaika bider beren urrezko ileak etengabe orrazten ari diren eme horiek. Lamien presentzia hori euskal ipuin eta poema tradizioaletan oso hedatua egonik, ez dago gutxiago zabaldua munduko literaturatan, bai herrikoietan, bai kultuan. Iraganak gure buruan utzi dituen zantzuak orrazten ditugu urrezko orrazez, irudi horrekin gure barne kontzientzia irudikatzen dugularik. Aintzira geldia gure oroipen gordeen irudia baldin bada, bere ile horiak orrazten ari den lamia oroipenak gogoratzearen prozedura irudikatzen ari da nolabait; orrazeari behin eta berriz eraginez, aintziraren ahanzturatik salbaturiko oroipen berbiztuak ekartzen dizkigu gogora, urreak argia edo kontu-hartze hori sinbolizatuko lukeelarik. Oroipenak poetaren errekurtsorik oparoenatarikoa direla nahiko jakina da, eta bere poemagintza-ren ardatzetariko bat oroipen horiei bizirik iraunaraztea da, hots: lamia bere ile horia urrezko orrazez orrazten.

Urak gizakiarekiko duen egin-kizunetatik ez da garrantzi gutxienekoa garbiketarena. Ura da fisikoki garbitzaileena. Sinbolikoki ere garbiketa edo purifikazio lan hori hor dago. Poetika bati aireak argitasuna ematen badio, garbitasuna urak emango dio; barne-zirrara garbia, ongi identifikatua, poetika batentzat bizi berria ematea bezala da. Sakonerraino helduko baldin bada, bihotzeraino joko baldin badu, poetikak uraren garbitasunaren ukitua berarekin eraman beharko du.

Itsasoan hasi gara eta iturri-ira iritsi. Barne-zirrara nahasieta-tik, emozio mehetara eginiko bidaia. Hor gelditzen da uraren poetika, poetika horizontala, etzana, emea. Pasa gaitezen orain oxigenoz, hidrogenoz, helioz eta horrelako zenbait hatsez osaturiko beste itsasora, gorago aipatu dugun arkanoan agertzen zen zirkuluaren gainaldera. Hemen asten da airearen poetika, poetika bertikala, zutikakoa, arra.

Imaginazioa edo irudimena materia guztietan txertatzen da, baina bere-berezko elementua airea da; hegan egin gabe ez dago irudimenik; irudimenak osatzen dituen irudiak edozein elementuz osaturik egon daitezke, baina irudimena irudiak baino haruntzago doan zerbait da, hegan egite hutsa. Hegaldaketa irudi berrien eta mundu berrien bila eginiko bidaia da; pai-

saiak ezagunak izanik ere, bidaia beti berria da. Honekin esan nahi da, poemak egiteko materialak eta irudiak asmatuta badaude ere, egiten den unea eta egoera beti berriak direla; beraz, poemagintzaren bidaia beti berria dela, plajiorik plajioenean ere, zeren hitz berak ez baitu gauza bera adierazten bi une edo bi leku desberdinetan.

Beraz, irudiaren bizitasuna eta berritasuna denborarekin eta garaiarekin oso loturik agertzen dira. Beste garai batean bihotzak eta buruak mugiarazten zituzten irudiek agian gaur egun alde-rantzizko fenomenua sorrarazten dute. Esate baterako, garai batean demokrazia eta libertate eske ibili ginen gazte odolberooi eta ondoren eszeptizismo sakon batek irentsi gintuenoi, beherako ozipindua sortzen zaigu orain Walt Whitman-ek libertatearen eta demokraziaren gorazarrean eginiko poemak oroitzuz. Hosto berdeek gazte eta berde ginela funtzionatu zuten, orain orbel bihurtu dira eta hegohaizeak as-tintzen ditu haruntz eta honuntz.

Irudimena airean ibiltzen bada ere irudiak lurtean, suan eta urean txertatzen dira, bizitzarekin bat egiten dira. Irudiak bizitzari buruzko oldozpenak jasotzeko sortzen dira, beti giro eta garaiari lotuak; irudiak ez dira behin egin eta betirako gelditzen diren fosilak, baizik eta unez une

aldataz doazenak dira, eta esaten dutena ez da beti gauza bera; testu batek, nahiz eta hitz berberak mantendu, gauza ezberdinak esaten dizkio leku eta garai desberdinetako irakurleari; joko horrek iraunarazten ditu obra zaharrak; zertarako behar ditugu bestela guri ezer esaten ez badigute? Hemendik doa, nola testu baten interpretazioa ez den inoiz itxita geratuko, edo, nola interpretazio testualak, hitzez-hitzeakoak, ez digun ezer askotarako balio.

Esan dugu jo dezakegula irudimena airean eginiko bidaiatzat. Ametsa ere nolabait bidai izango litzateke; baina ametsezko bidaiaren eta bidai poetikoaren artean ezberdintasun nabaria suma dezakegu: gidariarena alegia. Bidai poetikoak pilotu argia eta esnatua eskatzen du, eta imaginaziozko lekuetara eramaten gaitu; bide ezezagunetan eta berrietan sartzen da, baina konszienteki, eta ez lokamutsean. Irudimenaren lurraldeetara doa poeta eta hor sortzen ditu herrialde eta paraje imaginarioak, paraje fisikoak baino gehiago paraje psikikoak direnak. Errealitatea deitu ohi diogun horretako paisaiak badu eraginik gure barne munduan, eta sentipenak eta gogoetak sorrarazten dizkigu; baina gure sentipenen eta gogoeten barne-munduak ere sor dezake irudimenezko

paisairik. Eta paraje horietara gonbidatzen gaitu poetak. Irudimenezko paraje horiei ez-errealak deitu izan zaie, eta fisika klasikoaren ikuspegitik ez dago ezetz esaterik. Baina paraje horiek poetaren barnean bene-benetakoak diren bizipenen islapen dira, eta horren egitasuna eta errealismoa, maila psikikoan, ukaezinak dira. Bestalde, azken garaiotako fisika errealitate asmatuaz hitz egiten ari da; alegia, guri ikusten ari garela iruditzen zaigun errealitate hau, geure buruaren proiektzio edo luzapen bat besterik ez omen da; eta guzti hau gorago aipatu dugun ekialdeko "maya" kontzeptuarekin bat letorke. Eta berriro ere lilurarekin aurkitzen gara aurrez aurre; nola airean, hala lurrian, nola sutan, hala uretan, balea zuriaren errainuak agertzen dira. Gure lilurak eta irudipenak "errealitate" fisikoa bezain eraginkor eta benetako ez ote diren galdetu beharko genuke.

Poetaren irudimena, aireko seme izanik, materia infinitoak aukeratzen ditu bere bidaiari; doan lekura doala, amaierarik ez duten paraje imaginarioak. Mugagabetasun hori adierazteko beste irudi bat ere erabil genezake, ipuin tradizioaletan maiz agertu ohi dena: inoiz betetzen ez den zakuarena alegia; dena kabitzen da zaku horretan, sartu ahala. Horrelakoak dira poetaren

leku mugagabeak, edo infinito birtualak. Atxagak asko hitz egin du azken aldian gai honi buruz. Gaston Bachelard, bere aldetik, honela mintzo zaigu: "Esaidak zein den hire infinito eta horrela jakingo diat heure unibertsoaren esanahia".

Azken autore honen eskutik irudimenaren beste alde bat ikusteari ekingo diogu; esaten digu: "Bertikalitatearen mugikortasun positiboa hain da argia, non honako aforismo hau adieraz baitezakegu: Behetik gora ez doana, goitik behera dator. Gizona, gizon denez, ezin liteke etzanean bizi. Bere atsedena, bere loa, erorketa besterik ez da gehienetan". Esan dugu irudimenaren eta hegan egin beharraren artean dagoen lotura. Behetik gorako horrek, bestalde, ikuspegiaren zabaltasunarekin zerikusi zuzena du. Poesian, behetik gorakoak zerbait inizatikoa adieraziko luke eta, Durand-en terminologian, eguneko aldiarekin batera jarri beharko genuke batez ere; behetik gorakoa da mistika poesiaren alorrean, behetik gorakoa da izadiarekiko panteismoa, behetik gorakoak dira irudimenaren airezko bideak.

Airean ibiltze hori batez ere hegatsik gabe egiten den prozedura denean, arrazionaltasunaren eskuetatik hein berean aldegitzen du irudimenak. Eta literaturan oihartzun zabala izan duten

bi irudi ekarriko ditugu orain gogora: Ikaro-ren hegalak, eta alfonbra majikoa. Ikaro-ren hegalak irudimenari ez diote libreki eta urrunera aireratzen uzten; eta irudi horren irakurketa bat eginenez, esan dezakegu hegal horiek arrazoiarenak ote diren, eta arrazoa argizari bigunegia da edertasunaren eguzkiaren beroa jasateko. Alfonbra majikoak, ordea, arrazoiaren eskuetatik ihes egiten du, eta erraz eta ustegabeki aireratzen da, berehala edozein parajetara eramanez. Alfonbra majikoa da irudimenaren gora-beharraren islapena, eta lkaroa, berriz, arrazoiaren eskutik bertikalean abiatunahiduenarena. Infinito birtualezko eta irudimenezko parajeei hobeto egokitzen zaie alfonbra majikoa, aerostato, lkaro edo beste edonolako tramankulu horietako bat baino.

Beste ikuspegi bat hartuz, behetik goranzko honetan poeta eta kantaria biak bat eginik doazke: txorien kantuak eta gregorianoa, Zuberoako menditarren nota altuak eta tirolesak, guztiak bat egiten dira poetaren irudimena suspertuz. Barkuen balantzaren kantu moetatik urrun gaude orain; interbalo edo tarte handiko melodiak dira agintari; ez olaturik eta murmuriorik, ozonoaren geruzari beste zulo berri bat erantsiko dioten goranzko ziztadak baizik.

Kantuarekin batera arnasa dator. Goietan arnasa zabal eta

arin hartzen da, behe-zuloetan pisu eta geldo hartzen den bezala. Goiko kantuaren bizitasunak, arnasa ere bizia izatea eskatzen du. Honela, esan dezakegu poema orok duela bere arnasa. Edozein materiaz osatuta egon daiteke poema, baina arnasa falta badu, poema hila bide da. Imagina dezakegu goi horietan halako aurpegi borobil-borobil bat, bere masail puztuekin haizeak bidaliz lurreko alde guztietara, bere lehen hatsa eman ez izaki orori, eta noiz edo noiz, haserretzean, ekaitz eta zurrumbilo beldurgarriak sortuz. Eta haizeak eta ekaitzak aipatu ditugunez gero, esan genezake itsasazaleko uren ezinegonen erantzule haizea dela, azken batean; honekin esan nahi da, emozioen munduan sortzen diren ezinegonak eta hausketak oinarrian ideia edo irudimen nahaste bat leukakete-la.

Behetik gorako bidaia eguneko aldiarekin loturik doala esan dugu. Bidai hori argiaren bila doanarena da, eguzkiaren bila doanarena; egunekoa da, zeren, gauekoa, ilargiaren bila doana, beherantz begira amaitzen da, ilargia, azken finean, putzua- ren ispiluan islatzen baita. Ilargia emea da eta uretako; eguzkia, berriz, arra da, eta airekoa.

Alfonbra majikoan irudime- nezko mundurantz abiatzen ba- gara, ez dago Ikarorena bezala-

ko erorketa mingarri baten bel- durrik. Irudimenaren erreinuan erorketa festetako noriatan beza- la gertatzen da; hots, berriro ere berehala gorantz abiatzeko. Ametsetan, erortzera goazen iru- dipena izaten dugunean, orpoa- rekin ostikada bat ematen dugu, berriro ere ametsetan murgilduz. Puntu honetan elkar genitzake dantzariaren salto erraza, eta grabitatearen kontrako ahalegin oro. Ipuin miresgarrietan, apiatu- riko alfonbra majikoaz aparte, bide handiak egiteko kapaz di- ren oinetako majikoek ere grabi- tateari erronka egiten diote. Aire- rako joerak dira guztiak, lurraren edo amatasunaren erakarpenetik alde egin nahiaren adierazle. Guk errealitate deitzen diogun honetan, irudimenaren mundua utzita, izaten dira horrelako aha- legin fisikoak: aipatu dugu dantza; baina, hortxe dago zen- bait mistiko tibetarrek lantzen duen disziplina ere, kontzentra- zio eta ahalegin luzeen ondorioz lurra kentzea lortzen dutela dio- tenean. Berriro ere irudimenaren mundura itzuliz, agertzen da lite- raturan, zenbaitetan, oinetan he- galak daramatzatzen kasua, adibidez Rilke- rangan. Guztietan bultzada berberaren aurrean ge- undeke: goranzko bultzada, eta horren ondorioz sentitzen den arintasunarena. Nietzsche- ren estetikan arintasuna esijitzen zaio eder den orori. Bide beretik doa Witgenstein, behin eta berriz

arin, ia pisurik gabe, joan behar dugula geure bidean dioenean. Noski, arintasun horrek uzketa edo errenuntzia askorekin zerikusia du: bai material mailakoak, bai ikasketa mailakoak, eta abar. Arintasunaren ondotik nolabaiteko aszetismoaren aldarrikape-na legoke.

Azter dezagun orain erorketa eta zutiketaren prozedura poetiko hori beste ikuspegi batetik. Ikusi dugu erorketaren zenbait alde urarekin aritu garenean. Erorketak grabitatea, amaren sabelerantzko erakarpeta, uraren beherantzko bidea esan nahi du. Zutiketa aireeratzeke indarra dela ikusi dugu; eta aitaganako bidea da, hots, eguzkiaganakoa; hau ere, uretakoa bezala, amildegia edo abismoa izan daiteke, baina buelta emanda, alderantziz jarrita; ez ote dute hori irudikatzen katedraletako kupulek? Bide batez esanda, kupula eta kopula hitzen hurbiltasun fonetikoak hauxe dakarkit gogora: ekialdeko tantrismoan lehen mailako lekua daukan kopula-jarreratako batean emakumea gainean jartzen dela, nolabait proiektatu nahi den indar izpiritualari kupula bat eraikiz. Sinbolismo horren barnean sartuta leudeke elizetako dorreak, monolitoak, megalitoak eta abar, zerua bera kupula handizat har genezakeelarik.

Gauzak horrela, eta poetikarekin lotuz, beherantzako bidea,

batez ere uraren etzanean egiten dena, berezko etorriarekin —aipatu ditugu iturria eta etorria—, barne bizipenei joaten uztearekin loturik legoke. Gorantzko bidea, berriz, ahaleginarekin, lan gogorarekin, ekarriarekin, lotuko genuke. Batean inspirazioaz ariko ginateke, eta bestean nahime-naz, eguneroko lanaz.

Hala ere, beherantzko irudia baino irudi etzana egokiagoa litzateke, bertikalitatearen kontrako indarra islatzeko. Indar etzarak, soinu etengabe eta hizjarioarekin adierazten dira; indar zutunak, aldiz, elipsia, interbaloa, isilunea, dute nagusi.

Zeren atzetik doaz dorre, monolito, alfonbra majikoak, suziriak, edoairean asma ditzakegun su artifizialezko poetikak? Liluraren atzetik doaz hauek ere, balea zuriaren atzetik zihoazen haiek bezala. Grabitatearen kontrako ahalegin hori lilura besterik ez da, zeren, azken finean, ahalegin hori handitzen doan hein berean indartzen baita grabitatearen erakarpeta. Eta hori irudi batekin adieraz dezakegu; landare batek zenbat eta gorago jo, sustraiak orduan eta beherago egiten du; landare bati goiko adarrak zenbat eta gehiago zabaldu, sustraiak ere hala zabalduko zaizkio; beraz, amildegiak beherantzkoak eta gorantzkoak dira aldi berean. Baina aireko poetikak goran-

zkoarekin bakarrik egin nahi luke amets, eta horretarako sortzen ditu lilurak eta lilura horien atzetik abiatzeko alfonbra majikoak.

Airean, asko erakartzen duen lilura izarrena da. Izarrak nolabait begirada mugagabe baten adierazle bide dira. Begirada horrek erakarpen indartsua egiten dio bere burua gorantz zuzentzen duenari, indar hipnotikoarekin pareka dezakegun erakarpen indarra. Eta hainbeste eta hainbeste izarrek, keinuka, liluratuturik uzten dute begiralea.

Gau izartsuak gizakiaren irudimena biziki zorrozten du; eta ez zorroztu bakarrik, aniztu ere bai, ugaldtu. Gizakiak bere barneko irudipenak eta izarrak bateratzen dituenarekin batera infinitorako bidai zoragarria osatzen du. Eta ugaritasun hori hain da handia, non kontaezina eta ia ordenaezina egiten baitzaio. Hala ere, gizakiaren irudimena ezin da bizi horrelako kaos batean; identifika ditzakeen lekuak eta multzoak beharrezkoak egiten zaizkio: izar horiek ezagutu egin nahi baititu, bere buruan sorturiko islapenak ezagutu egin nahi baititu. Horrela hasten da imajinazioa irudien bidez izar saldo mugagabe horretan familiak osatzen; eta asmatzen ditu konstelazioak, eta asmatzen ditu mitoak, eta asmatzen ditu ipuinak, eta asmatzen ditu jainkoak.

Zerua irudimenean islaturik

geratu da, pertsonaren barnean unibertso tikiak osatuz; tikiak baina infinitoak hala ere. Unibertso tiki horiek bultzatzen dute pertsona bere eginkizun, erabaki, asmo, sentipen, eta bizitzako arlo desberdinetan.

Asko gustatu zitzaidan Amurizaren irudi hura: "...izarren salda urdina edanda bizi naiz gustora". Gizakia izarren salda edanez bizi da, gustora ala petralduta, pozik ala zapuztuta. Salda horrek bere barnean unibertso tiki eta berezi bat osatzen dio, eta unibertso horretan egiten du hegagan bizitzaren zehar. Gorantza egindako bidaiak barneko unibertso tiki horretan eginikoaren ispilu besterik ez lirateke.

Poeta bere unibertso tikiari izenak jartzen aritzen da eta uste du horrela unibertso handirako bideak egiten dituela bere poesiaren alfonbra majikoan. Poesia gezurra da, azkenik unibertso objetibo hori islatu beharrean poetaren barneko unibertso tikiak islatzen duelako; baina zein gezur zoragarria. Gezurrak dira, halaber, mitologiak, kosmologiak, astrologiak, ipuinak eta horrelako kaxkalogiak, unibertso tiki askoren sintesi bat besterik ez direlako, unibertso handi horren objektibotasuna deskribatzen ez dutelako; baina zein gezur zoragarriak.

Zientziak bakarrik du nonbait unibertso objektiboaren zine-

man sartzeko txartela. Irudime-nak bide xebreak erabiltzen ditu eta unibertso ttiki horiek ez dira batere fidagarriak; zein aparatuk neurtu behar ditu, edo no-lako teleskopioz begiratu behar ditugu unibertso ttiki horietako izakiak. Ezin daitezke neurtu, ezin behar bezala sailkatu, ezin formula baten zehaztasunera makurtu. Beraz, gezurrak dira; baina zein gezur zoragarriak.

Ordea, zientziaren objetibo-tasuna bera ere kolokan dabil aspaldidanik. Zientziaren adie-razpenek aldi baterako bakarrik balio dute, zeren, gauza berriak jakiten diren heinean, lehengo ikuspegiak ezabatuak geratzen baitira. Azken aldi hauetan ez dira gutxi honako hau esaten ari diren zientzialariak: alegia, gure unibertso ttiki eta gezurrezko ho-riek ez ote diren bada unibertso handi eta objetibo horretatik hain ezberdinak; alegia, unibertso ob-jetiboen eta subjektiboen arteko bereizketa ez ote den horren garbia, bata ez ote den bestea-ren ispilu.

Uraren ilunpetik abiatu gara eta airearen argitara jo dugu gero lan honetan. Lehenik arras-to edo marra etzana bota dugu paperean; urrena, goitik behera-ko arrastoa marrazteari ekin dio-gu, horrela gurutzaketa bat osa-tuz. Poesiaren prisma infinitoan alde bat hartu dugu eta gurutza-

ketaren moldea erabiliz, alde hori aztertzeari ekin diogu. Erabili di-tugun elementu hauek beste ikuspegi askotatik azter genitza-ke; beste gurutzaketa batzuk ere proposa ditzakegu: urarena eta suarena, lurrarena eta airearena, airearena eta suarena, eta abar. Poesiaren eremuan, hala ere, urak paper garrantzitsua joka-tzen du, emozioen mundua eta ilargiaren erreinua sinbolizatzen duen heinean; bestalde, airearen irudimenik gabe, ur hori itsua gelditzen da, ideia argien pre-sentzia ere beharrezkoa zaio poesiari. Hala ere, beste batek esango luke, lurraren faltan, poe-sia hori sustantziarik gabekoa izango litzatekela; edo beste ba-tek, surik gabe, poesia hori inda-rrik gabea datekeela. Eta egia da; baina lurra, urik gabe, elkorra da; eta suak, haizerik gabe, ez du indarrik hartzen. Beraz, lau elementuak, gehiago edo gutxia-go, beti agertuko dira poesi-gintzan. Guk eginiko aukeraketa partziala da beraz; poesian ga-rrantzizkoak diren bi elementuren azterketan oinarritua, besterik gabe.

Gurutzaketaren oinarrian da-goen ikuspegia poesia orekatua-rena da. Beno, hau ere gezur bat besterik ez da; orekak ez du inoiz poesiari sortu, orekak ez du hitz egiten, oreka isiltasuna da. Orekaranzko bidez hitz egin beharko genuke; eta bide horre-

tan zutikako indarrak eta indar etzanak erabili beharrea aurkitzen da poeta, bere poesiari sakontasuna eta hedadura emateko. Begiak gora begira dauzkan poeta mistiko hutsak azkenean ez digu ezer esaten, urrundu egiten zaigu, zutikako hutsean geratzen zaigu, heltzeko gerririk ez du, eskuetatik alde egiten digu. Beti begirada horizontalean murgilduriko poetak, berriz, sentipen hutsera edo proiektiorik gabeko umorera eraman gaitzake. Joera horizontalak ikuspegi motza ematen digu; gora igo behar da zerbait gehiago begiztatzeko.

Liluraren atzetik abiatu ginen lan honen hasieran hegoaldeko itsasoetan barna, lilura baitzen iluntasun itsuan argia iragartzen ziguna. Airera irten garenean ere, ordea, liluraren atzetik segitu dugu.

Ezkutuko irakaspenak deitzen zaien horietakoek diotenez, gizakiak benetako argia ikustea lor

ez dezan bitartean, besteargi guztiak lilura besterik ez dira izango. Baina lilura horiek bidea egiten laguntzen diote, bideari ekiteko indarra ematen; lilura begiztatu orduko jartzen da gizakia harenganako lehian; eta lehia horrek egiten dio bidea urra dezan. Azkenean, ezkutuko irakaspen horiek dioten benetako argi hori norberak jorraturiko bide luzearen ikuspena besterik ez da.

Gezurrezkoak dira helburuak; han, helmugan ez dago ezer, dena lilura hutsa da. Baina, irauten duen bitartean, gezurra izanik ere, zein gezur gozoa! Gainera, lilura bat desagertu orduko gure irudimena beste bat sortzeko gauza da, eta beste bat, eta beste bat, eta horrela, etengabe. Azkenean, poesiaren eginkizunetako bat kateatuko gaituzten lilura berriak sortzea ez ote da? Eta zertarako? Bada, bizitzen segitzeko, bidea egiten segitzeko.

Hizkuntza hitz-joko bihurtzen denean

AMAIA ITURBIDE

Bertsolaritza ahozko euskal literaturaren atal garrantzitsuenetako bat dela eta tradizio horretatik edan beharra dagoela uste dut, gaurko liburuaren egilea den Joserra Garzia Garmendiarekin erizkidetuz. Bertsolaritza da, hain zuzen ere, bere azken poemario honen oinarri, ardatz eta funtsa. Bertsolaritzak bere burua jasotzen du eta dagokion ortzemuga aldarrikatu. "Zotal-egunak" deitu izana, Azkueren *Euskal-erriaren Yakintza*-n irakur dezakedanez, gure asabek zuten aintzinako sinesmen bati dagokio, urtarrilaren lehenbiziko hamabi egunek hamabi hilabeteetako eguraldia iragartzen omen zuteneko sinismenari.

Denbora da gaia, eta hizkuntzaren eraketa mami honen inguruan ibiliko da. Zer esaten den kontutan hartzekoa bada ere, are gehiagoko zama izango du esateko erak. Nolakotasunak jantzi eta gidatu egingo du zertasuna. Hitz-jokoen arteko kontrasteak denboraren dialektika azpimarratzeko funtzioa beteko du. Errepikazioak denboraren ideia zirkular bati erantzungo dio, behin eta berriroko desesperantzenari; hitz-jokoek, denbora bera denborapasa eta jokua dela uste duen pentsamenduari; ahokorapiloek, konkatenazioek eta bestelakoek denborari buruzko duda-mudak, arrazoi logiko-ilogikoak eta abar islada-tuko dituzte; zita erreferentziales polifonia bat osatzen dute. Elementu guzti hauen batuketa eginaz, denbora laberintikoan murgilduko da. Laberintoa Euskal Herriko errealitatearen ispilu, inguru sozio-politikoaz kezkatu dabilen horietakoa bait da liburu honen egilea.

Baina hizkuntzaz egiten duen erabilera zalu, gozo, eta aparta da adierazgarriena. Hizkuntzaren ahalbide posible guztiak bilatzen ez ezik esperimintatzen ere saiatzen da. Hor dauzkagu ironiaz nahastutako hainbat eta hainbat hitz-joko, liluratzeraino ez ezik burua abailtze-

raino ere iristen direnak (denborak ere ez ote du abailtzen?). Izan ere, Joserra Garziak hizkuntza mugitu egiten du eta hizkuntzan mugitzen da, hala nola arraina uretan. Sustraiari deutso eta hori eskertzekoa da, batez ere, garaiotan, non erdarazko kutsuagaitik hitzez-hitzezko itzulpenak diruditen zenbait kreatzio lan burutzen bait dira, teknika itsuaren menpe. Joera tentagarria bezain erortzeko erraza, normalizatuta ez dagoen hizkuntza batean.

Errepikazioa

Sailik garrantzitsuena, zalantzarik gabe. Denboraren joan-etorrian («bidai txartel zimurtuan / 1988-III-28 / JOAN-ETORRIKOA / 95 peza», 31. orr.), denboraren barruko bidaian sartzen da egilea, heste korapilatsuen moduko bide bihurri eta luzeak ibiliz; eta hizkuntza egoera honi egokitzuz jokutzen du, hitzei hemendik eta handik eutsiz, hitz-adar hura zorrozten, beste honako hau, ostera, kamusten, beti ezpalak nonnahi ateraz, denbora bezain aldakor den hizkuntza eraberri eta itxuraldatuz.

Errepikazioaren sail honen barnean azpisail anitz aurkituko ditugu, hala nola, hitz-jokoak, konkatenazioak eta abar. Hitz-jokoei gagozkielarik, hitzaren inguruko agudezia eta abildadearen emaitza direla esango nuke gehienbat. Irakurlea harritzea du helburu, bere irudimena dantzan jartzea, jolastera gonbidatzea, gurutzegramak bat ere baden denborarapasa zoragarriaren bitartez. Eta hitz-jokoak ditugula hizbide, ataltxo batzuk seinalagarriak dira, hala nola:

—Deribazioa, esaldi berean erro bereko hitzen konbinaketa:

«Kabalisten kabala kabalen arauera» (14. orr.)

«orduen ordua jo orduko» (78. orr.)

Erro bereko hitz antzekotsuak, batzutan, kateaturik agertzen dira:

«Langabeziaren tasa / langile bakoitzak / langabetu bakoitzak / lanjabeenak» (65. orr.)

«—maiteñoen gurasoek arbuaiatutako

«maitaleak bere maitea nola—» (45. orr.)

«maite zaitut eta

maitatu nahi zaitut

maitatu nahi zaitudalako

maite zaitut eta

maite zaitudalako
nahi zaitut maitatu» (50. orr.)

—Erro bereko hitza aurki dezakegu baina kategoria gramatikal desberdinetan eta konbinaketa desberdinetan, hala nola, adjetibo eta sustantiboa eskuz esku, sustantiboa adjetibo bihurtuta, zenbaki batetik sustantibo bat ateraz, adberbioa sustantibizatuz, adberbioa adjetiboaren mailan jarriz...

«maisu imitaezinen imitazio paregabeak» (43. orr.)

«arrazoitsuen arrazoia» (72. orr.)

«[...] itxuraren azpikoa azala
bezain azaleko dela» (61. orr.)

«zortzi zotal egunen
behin eta betiereko errepika
amaigabeko zortzikoan» (13. orr.)

«Betirako, betirako mintzo da
mintzo bat gizakiaren baitarik bortizki
eta gizakiak bere baitan
bilatzen du betirakoa» (42. orr.)

«behin eta berriroko pieza hura
behin berriro jotzeko, Sam» (33. orr.)

«Arrazoi Argiaren argitan ilargi laurdenak» (68. orr.)

«gogoan eta gogoko» (68. orr.)

Erretruekanoa ere badago, bere elementuen ordena alderantzuz esaldi oso bat edo hitz batzuk errepikatzean sortzen den errekurtsua. Nonnahi topa daitezke. Hitz-joko mota bat izateaz gain, batzutan beste esanahiak ere gordetzen ditu, kasuak kasu, hala nola, errealitatea eta fikzioaren muga lausoa adieraztearena edo eta salaketa bat adierazgarriagoa egitearena:

«Duela hogeitalau mende tximeleta zela
amets egin zuen TXANG TZUK esnatzean
ez zekien
tximeleta zela amets egin zuen gizona
ote zen
edo gizon zela amets egiten ari zen tximeleta» (36. orr.)

«Zakur batek kristau bati kosk egin diola
edo hizkuntza handiak txikiari
hori ez da albiste
Kristauak zakurrari edo
hizkuntza txikiak handiari kosk egitea
hori da lehen orriko albiste» (63. orr.)

—Homofonia: ahoskatze bera duten hitz esnanahiez desberdinak:

«[...] eta orduan
—bere orduan, nere orduan—» (75. orr.)

—Fonologikoki antzekotsuak diren hitzen arteko jokoa:

«Kosmiko-komikoa» (83. orr.)
«kasualitatea eta kausalitatea» (101. orr.)
«izenda zitzan gauzak oro
—izen eta izan zitezen—» (18. orr.)

—Antzekotasun fonologikoa dela eta hitz (adjetibo zein aditz) berriak
sortzen ditu halaber:

«memoriaren horma mehe ormatuetan» (54. orr.)
«Boterea eskuratu arte
iraultza.
Boterea eskuratu eta
irauntza.» (94. orr.)

—Sinonimoak aitzaki, sortutako hitz-errepikazio-jokoa:

«[...] erabilgarri edo
erabili eta botatzekoak» (64. orr.)

—Gramatikaki zerikusirik ez duten bi elementu batzen ditu, hizkuntzan
egon dagoen eta denontzat ezaguna den hitza ekarriz, hitz honek
aurrekoekin duen parekotasuna soil soilik fonologikoa delarik. Hiz-
kuntzarekin edozein gauza egin daitekeela erakusten digu
errekurtso honek, hain da malgua. Euskal hizkuntzaren barne

erraiak ondo arakatzen ditu Joserra Garziak, direnak eta ez direnak hustiratuz.

- «[...] lokatzetik
—loaren atzetik—» (18. orr.)
«Ni eta ni, nini horien» (51. orr.)
«Ezarian-ezarian
ezaren harian» (82. orr.)

Hitz-jokoen ondoren konkateneziora igaroko gara. Jarraitasuna azpimarratzen duen errepikazioari deritzaio konkatenezioa; gehienez, esaldi edo bertso baten azken hitza hurrengo esaldi edo bertsoaren lehenengo hitza da. Kateatze honetan mailaketa egon daiteke eta errepikatuta agertzen diren elementuen arteko lotura dago, esanahiari dagokionez. Aztertzen ari garen liburuan konkatenezioa denboraren zama astuna markatzeko erabilia dago, denboraren kontzeptu zirkularra eta ikuspegi honek dakarren desesperantza-kutsua adierazteko. Hurrengo adibidean, alegia, marraskilo-oskol baten irudiko marra laberintzkoa dibujatzen digu:

- «gaztea zahartzen
zaharra hiltzen
hila usteltzen» (42. orr.)

Datorren honek, ostera, ez du aurrekoak duen zentzurik izango, polisindetonarekin batera tonu arranditsua ematen dio diskurtsoari, Bibliatik ateratako pasarte bat irudituz.

- «Hasieran Jainkoa zen
eta Jainkoa hitza zen
eta hitza mutu
eta Jainkoak ezerezetik sortu zituen gauzak oro» (18. orr.)

Jarraian datozen bi adibideotan, ostera, konkatenezioa irudimezko joko bat bilakatzen da gehiago eta ez du, nere ustez, aurrekoak eduki lezakeen esanahirik:

- «Teresa
izen bat nere ametsarentzat

amets bat
zure behin behineko izenarentzat» (45. orr.)

«naizen bezalakoa
amets nazazu
amesten zaitudan bezalakoa
izan zaitezen» (58. orr.)

Errepikazioaren beste mota bat polipote izenaz ezaguna den errekurtsua da. Badago poema bat "Haizearen deklinabidea" (55. orr.) izenburua daukana, non "haize" hitza zortzi alditan deklinatuta agertzen den. Eta beste poema bat ere topatu dut "Irla han da" (52. orr.) deiturikoa, "urruti" kasu inesibo, elatibo eta alatiboetan ekartzen diguna, han hemenka sakabanaturik. Hain zuzen ere, horixe da polipotea, izen baten errepikapena zenbait kasutan edo aditz batena denbora desberdinetan:

«ilunabar herdoilduetan
[...]
ilunabar herdoilduero» (32. orr.)

Erreskadan aztertuko ditudan hiru errekurtsuak helburu bakar baterantz begiratzen dutelako elkartu ditut: Alde batetik, hitz baten errepikapena esaldi baten hasieran (anafora); erregularitasun baten barruan hitz bera edo eta bertso bera, errefrau bat ere izan daitekeena, errepikatzen denekoa (epinomea); eta azkenik, barraiatuak, inolako ordena logikorik gabe, agortzen den errepikazioa. Hiru adierazbideok xede bakar baterantz abiatzen dira: funtzio enfatikoa betetzera:

«usoak dira hango biztanle
uso luma gris hiritartuak
uso maitasunik ezak gizendutakoak» (32. orr.)

«kronika azkengabe monotonoak
monotonoak
[...] arroka harroak
harroak
[...] ur bizi eta hotzak
hotzak» (77. orr.)

«Nire maitasuna txerri bat zen» (97. orr.; "Txerria txerri" deritzon poeman, lau ahapalditan zehar errepikatzen den lehen bertsoa da).

«—arras gorri, goiz euri—

[...]

—arras gorri, goiz euri—» (32. orr.)

«Hala irakurria dut behintzat gazteleraz

Madrilgo egunkari gazteleraz independente batean

—independentzia maite duena gazteleraz—

letra beltzez zetorren albistea gazteleraz

—beltza baita zapaltzaileen umorea gazteleraz—

eta, beltzetik beltzera [...]» (72. orr.)

Orain arte, orokorrean behinik behin, hitzaren errepikapenaren inguruan ibili izan bagara ere, atal honetan estruktura sintaktikoari atxekiko gatzazkio. Paralelismo aberatsak eta klase anitzetakoak eriden ditzakegu. Adibide arruntenetik hasita:

«Zer zorion bete ta zer nirbana?

[...]

Zer heriotz ondo ta zer paradisu?

[...]

Zer amets handi ta zer utopia?» (90. orr.)

Korapilatsuagoetara, "Karl Ernst Van Baer-ren esperimentu amai-gabea" poema adibidez:

«Eta demagun are areago

gu baino mila aldiz polikiago

bizi den gizaki hori baino

mila aldiz polikiago

bizi den beste bat» (39. orr.)

Esaldi bat bestearen barruan dagoela ematen du, kaxa txinatarak bezalaxe. Poema osoak ahokorapiloaren antza hartzen du, tar-tekatzen dituen data eta zenbakiengaitik, besteak beste. Baiezta dezakegu, Joserra Garziak eraikitzen dituen paralelismoak errepikazio errepikatu batean oinarritutako paralelismoak direla. Ez da gutxirako, errepikazioa bait da, "Zotal egunak" izenburupean mamitu digun denborari buruzko saio bertifikatu honetan, buru eta jabe. Eta horrela,

bertsoaren bukaerarako berdintsuak diren hitzak bilatzen saiatuko da, paralelismoaren barruan beste antzekotasun bat eskainiz (esanahiarena alegia):

«eguzkiaren antzeko
hargatik da haren odola euriaren pareko» (15. orr.)

Berez errepikazioak diren esamoldeak ere erabiliko ditu paralelismo batzuen oinarri. "Ametsak amets?" deritzon poemaren ahapaldihasieretan daudenak alegia:

«Jolasak jolas, / Ilunak ilun, / Muxuak muxu, / Dardarak dardar, /
Lausoak lauso» (59. orr.)

Estruktura sintaktikoa ez ezik hitzak ere errepikatzen direneko paralelismoa, paralelismo osoa esan beharko genukeena, ere aurki daiteke:

«ez datoz inongo
urrutitik
ez doaz inongo
urrutira» (53. orr.)

Errepikazioaren atal honi azken puntua eman baino lehen, orain arte hausnartutakoaren laburpen gisa lau adibide zein baino zein bi-txiago ekarriko ditut hona. Laurok, errepikazioa giltza izanda, errekurtsio desberdinen amalgama dira. Lehenengoa, polipote eta hitz-jokoz sortutakoa da; bigarrena, polipote, homofonia eta anaforaz; hirugarrena, erretruekano, hitz-joko, konkatenazio eta epitomez; eta laugarrena, hitz-joko eta erretruekanoz:

«Gaur zortzi gaur izan zen
gaur izango da gaur zortzi
zortziko» (13. orr.)

«Betirako, betirako, mintzo da
mintzo bat gizakiaren baitarik bortizki
[...]
Betirako, betirako, mintzo da
mintzoa gizakiaren baitan bortitzago
[...]

Betirako, betirako, mintzo da
gizakia mintzoarekin aho batez» (42. orr.)

«—asfaltoan itsasirik utzi zenuen itzala—
ene itzala asfaltoan
zurearen bila
iheskor beti zu
—itzalik gabeko metafora—
betizu beti ni
—metaforarik gabeko itzala—
zurearen bila» (49. orr.)

«Aberri:
harria herri.
Atzerri:
herria harri» (91. orr.)

Bestaldetik, hitz berri bat sortzeko, paralelismoz edo, zehazkiago, paralelismo orok eskeintzen duen analogiaz baliatzen den kasu bat aurkitu dut "Irla han da" poeman:

«amets guztiak egia diren
inon-ezko parajejan» (52. orr.)

«amets guztiak egia diren
ametsezko utopian» (53. orr.)

"ametsezko" hitzaren atzizkia kontutan harturik, homofoniaz "inon-ezko" hitza agertzen zaigu paraleloki, kontzeptualki desberdinak badi-ra ere.

Kontrastea

Kontrastea poemagintzan sarritan erabilia izan da. Estetikari begira gozagarria da. Zirrara eragiterainoko ederrak bilaka daitezkeen kontrasteak egon badaude gure kantu zaharren bertsorik zainduenetan. Bestaldetik, ideiak tinkotu eta mamitzeko gako eraginkorra suertaten zaio edozein poetari, poesia ahalik eta laburren, ahalik eta dentsoen adierazteari datxekiolako. Joera sintetiko horrez gain, badu besteren bat, hala nola, adiera erakartzearena. Badu bai kontrasteak irakurlearen gogoan ideia bat zigilatuta uzteko adina indar, efektuak lortzeko hitzezko argazki-makina aproposa bait da.

Liburu honek denbora du gai nagusia eta kontrastea denboraren dialektika mahai gainean jartzeko egongo da, kontrajarrita dauden elementuen arteko bizi-beharraren dialektika. Denbora, azken finean, jokoa bait da, igarkizuna, dibertitzeko oihala edo papera, liluragarria bezain nekagarria. Dialektikaren mezua betetzen dutelarik, Joserra Garziaren poesian agertzen diren kontrasteak bi multzotan sailka daitezke: lehenengoz, "ez" partikularen bidez sortutakoak; eta, bigarrenez, kontzeptuak kontrajarriz egindakoak. Ikus ditzagu:

«besteak bezalako burdel
hartako
besteak ez bezalako
haren
begiratuaren nostalgian» (28. orr.)

«Gauetz oraina nauzu
egunez bezpera» (37. orr.)

«Azaleko itxuraren azpian sakoneko egia benetakoa aurkitu zuelako» (61. orr.)

«hain urre dukegun
urrutian» (53. orr.)

Bi forma hauen amalgama ("ez" partikula eta kontzeptu kontra-jariak) biltzen duen adibiderik ere hementxe daukagu:

«ez dela iragana
geroa dela
ez jaso izanak
jaso beharrak
egiten duela harria harri» (22. orr.)

Bertsolaritza

Joserra Garzia bertsozale peto-peto horietakoa denaren berri aspalditxotik geneukan, komunikabideak direla medio, batipat. Bere beste hainbat idazkitan bezalaxe, "Zotal-egunak" deituriko honetan, idatziz frogatu digu bertsolaritzarekiko maitasuna: molde desberdinak nonnahi, koplak eta bertso berriak, Xenpelarren "Betroiarenak" doinuan *propio jarriak*...

Bertsolaritzarekin batera, gogoratzeko ahalmenaren kontua dator-kigu, garrantzi handikoa berau, bertsolaritza oroimen-lantegi herrikoia

bait da, ahoz-aho herri jakintza zaharra iragan eta iragazteko tresna. Oteizaren hitzak ekarriz: «la técnica del auténtico bertsolari es desandar con claridad (poco a poco y de aquí y de allá) ese camino en el que se fueron oscureciendo los sucesos pasados con su realidad y sus ideas, y que la oscuridad (la del tiempo, la del olvido) fue guardando. La técnica del bertsolari es que está delante de todos y desaparece en su realidad interior. De la que salen sus palabras (que irán saliendo). Suelo decir que como dejándose llevar sumergido en un río (el río de su visión interior)» (*Quosque tandem...!*).

Eta lan honen hasieran hainbeste arretaz esku artean mimatu nahi izan dugun errekurtso literarioaren bisita datorkigu berriro: errepikazioarena, errepikazioa bait da jende xehearen oroimena hornitzeko bertsolaritzak landu duen altxor ezkutua. Errepikazioa arlo askotara hedatua, hala bertsoaren mamiari, nola itxurari. Joxerra Garzia bertsolaritzaz eta honek berezkoa duen errepikazioaz baliatzen da zenbait arazo sozial salatze eta diagnostikoa egiteko: euskara eta euskal kulturaren egoera, politikari buruzko gora-beherak, gizarte moderno edo posmoderno edo dena delakoaren kontraesanak...

Errepikazioan ere oinarritzen direlako, bertsolaritzaren eskutik bi fonetika-kontu plazaratuko ditut atal honetan: aliterazioa eta errima. Hona hemen aliterazioaren kasu batzuk: bata, U bokal itxiaren bidez iluntasuna adierazi nahi duena; bestea, R bikoitzaren bidez, aparraren zarata gogoerazten diguna:

«apenas zurrumurru bat
jolas mututuen antzoki antzuan...» (30. orr.)
«aparraren nabarra nabarmen» (79. orr.)

Errimari gagozkiolarik, bertsoaren amaierarenak ekidin ditut, lan honek ez duelako metrika helburu eta, gainera, oso luze joko genuke-elako. Horregaitik, errimarik osoenak, barne errimak hautatu ditut, bobilena eta, nire iduriko, baliotsuenak bait dira:

«... eguzkiaren jiran bira ta bira
etengabeko arian ari esanen luke agian» (61. orr.)
«—ibaian gora goazen—» (71. orr.)
«Eromena omen
oroimen betea» (96. orr.)

«Nork berak
aukera beza» (96. orr.)

Azken hitza

Laburbilduz, alde batetik, egileak tradiziozko usai herrikoia filosofiaz busti duela eta, bestetik, hitz-jokoaren munduak ez duela azkenik erakutsi digula esan daiteke.

Honenbestean uzten dut, bada, hizkuntza kontutan agudezia zer den azaltzen duen liburu hau, beste gauza askoren artean, hitzen arteko ariketa-liburu polita dena.

Bibliografia

AZKUE, Resurrección María de: *Euskalerrriaren Yakintza (I)*, Espasa-Calpe, Madrid, 1.989.

GARZIA, Joserra: *Zotal-egunak*, G.K., Donostia, 1991.

LEKUONA, Juan Mari: *Ahozko euskal literatura*, Erein, Donostia, 1982.

OTEIZA, Jorge: *Quousque tandem...!*, Hordago, l.g., d.g.

Ipuin miresgarri bat mitoen Olinpoan

JOSE MARIA SATRUSTEGI

Ipuinen mundu amesgarria lanbrotsua izan ohi da behin baino gehiagotan. Antzeslarien jendeaurreko jantzien antzera azalekoa da hitzen errepikapena, eta sinbologiaren hegoetan haizea astinduz ihes doa eskutik mezuaren edukina. Herrien ondare preziatua da bere apal itxuran ipuina, eta aspaldiko jakintza baliotsuen oihartzuna.

Ikerleari dagokio, oihan iluneko orbel-bide ibilgabeen bezala, barneko zantzuen azalpena egitea. Ibilbide irristakorra da noski, baina izar berrien oskarbi izkutuak aurki daitezke.

Ajologabekeria izan da une batean ondarearen etsai nagusia. Haurren gauza bezala ikusi izan da betiko tradizioan, eta etxe pobreko tresna zaharren ganbara zokora baztertu zen telebista sukaldean sartzearekin. Noizbait amona zaharrek sutondoan jalgitako esamesen itzal antzua bihurtu zen askorentzat.

Etenarekin kontularitzaren murrizketa edo galera etorri zen herri-jakintzan.

Denbora berrien eraginez ikastoletako haurrentzat berreskuratzen egindako ahalegin emankorra, baserri giroko emaitza denez, arrotz gertatzen zaie gizaldi berrietako ume hiritartuei. Hizkuntza bera hiztegitik hasita ez-ezaguna da gaztedi berriarentzat eta aitonen bizimoduaren berri eman behar du irakasleak kontakizun zaharren esanahiaz jabetzeko.

Altxorreko harri bitxi bihurtzeko bidean daude ipuin zaharrrak, herri-jakintza hura guztia bezala, eta ikerlan zientifiko sakona egiteko ordua iritsi da, herri aurrerakoien mailan egon nahi badu bere ondare aberatsari uko egin gabe Euskal Herriak.

**Amak hil nau,
aitak jan nau**

Izenburuaren ildotik hartu

dudan eredia gertakizun trakets eta itxura txarreko gaia da. Amaitzen batek mutikoa hil, aitari jateko eman, eta haren arreba nahigabetuak hezurtxoak bilduz piztu eginen da mutila. Pasaizo gogorra benetan eta gaurko pedagogia ahogozagarriaren ikuspegitik onartuezina haurren sentiberatasuna kolpa dezakelako.

Ipuina, hala ere, hor dago, hor egon da beti oso ezaguna baita, eta mundu zabaleko beste kultura askotan aurki daiteke. Zerbaitengatik izango da. Erronka horren ildotik sortzen da jakinahia.

Duela urte asko Urdiainen jasotako bi aldaki berreskuratu ditut eredutzat. Oso baliagarriak irudituz zitzaizkidan haste-hastetik eta Grimm anaien kontakizun batekin parekatuz argitaratu nituen orduan¹.

Lehenik datorren A testua hamabost bat urteko neskatillarena da, eta herriko eskolan neuk bultzatutako leihaketatxo baterako idatzi zuen. Honela dio hitzez hitz:

A. Etxe batian bizi ziran abuela bat, mutiki bat eta beste nesaki bat.

Egun batean gizona fan zan so-

roâ eta abuela labeko-iten asi zan.

Eta bialdu zituen nesakia eta mutikia basoâ abarrak eske, esanaz:

"Lenbiziko etortzen danari eman-ko deat opil puska aundiena"

Etor zan lenbiziko mutikia eta etxeâ aillatu zanean esan omen zean:

"Abuela, zabal atagia!"

Abuelak erantzun zion: "Pâzak ba eskubiko eskua!" eta moztu zian aizkoriakin eskuturra

Eta berriz esan zean mutikiek: "Abuela zabal atagia!"

Berriz esan zean abuelak: "Pâzak ba ezkerreko eskua!" eta atzeâ moztu zean beste eskua.

Gero, baita ankak ere; eta azkenean, mutikiaren gorputza puskatu zen eta pertz batean pâtu zen yosten (egosten).

Etor zan nesakia abarrakin eta geldein zion abuelai: "Nun da nere anaia?"

Abuelak erantzun zion: "Soroâ fan da bazkariek".

Bea (baina) nesakiek ikus zen pertzean zerbeit bazola, eta esan zean abuelai arek il dela bere anaia eta pertzean daukala yosten.

Eta abuelak esan zian orduen: "Bai, pertzean dago. Bea (=baina) esaten badeazu zen aitari, zeauri yos-ber (egosi bear) dezut pertzean.

Eguerdi aldean etor zan gizona soroti bazkaitâ eta geldein zean abuelai ia nun zan bere semea.

Abuelak esan zean: "Basoâ fan

(1) SATRUSTEGI, José María. "Versión popular vasca de un cuento de GRIMM", BAP. 1965, XXI, c. 3. y 4., pág. 283-290.

da abarretâ", eta nesakia bildur-
rrak, etzen itzik atâ.

Bazkaltzean abuelak atâ zean gi-
zonai bere semean aragi-yosia,
jateko, eta jaten zegon bitartean,
berak botatzen zituen ezurrak
nesakiak bildu ta teilatuâ iyo zi-
tuen eta pâtu zituen mutikiaren
forman.

Eta azkeinekua pâtu zenien, mu-
tikia asi zan kantaitan:

*"Amonak il nau, aitag jan nau,
nere arrebak ezur utsetan
piztu nau!"*

Gizonak aitu zituenien kantaitak
galdein zian abuelari ia ze pa-
satzen dan teilatuen;

Eta arek erantzun zian: ze pasatu
ber dau! Txoriek kantaitan dau-
dela!

Bea (baina) gizona etzon konfor-
me eta iyo zan teilatuâ eta an iku-
si zenien bere semea, berekin
artu ta eaman zuen sukaldeâ.

Eta gio (=gero) mutikiek bere
arriba urrez jantzi zen berari bi-
zia salbatzeagatik.

Eta egun batean ere abuela gais-
to aura il zan eta aita bi umekin
oso ondo bizi zian. (*Encarnación
Celaya. Urdiain, 1965*)

Une honetan sendagilea
den bederatzi urteko mutiko koz-
korak idatzi zuen bere eskuz ja-
rraian datorren B aldakia:

B. Etxe batien bizi zian andra gaizto
bat, mutiki bat, nesaki bat eta
ebein aita.

Gizon aura fan zan soruâ, eta an-
driarek bialdu zian mutikiari eta
nesakiari basuâ egurrak ekartziâ;

Eta esan zian, nor etortzen dan
lenbiziko opil andiena emanko
ziola.

Artu zain egurra eta eldu zian
etxiâ eta mutikiari etor zaion xixa-
kurria;

Nesakiek aurriâ segitzen zen.

Mutikiek esan zian espiatzeko.
Eta nesakiek: "Bai eta gio (gero),
iri eman opil andiena!"

Mutiekiek korrikan yautsi zian.

Pixkât giotxuô (geroxoago), ne-
sakiai etor zitzaion kakakurria.

Mutikiek aurriâ segitzen zen, eta
nesakiek esan zian espiatzeko.

Eta mutikiek esan zian: "Bai eta,
gio (gero) opil andiena itako,
ez-bal!"

Mutikia ailatu zan etxiâ eta esan
zian andra gaiztuari: "Zabal
ataia"

Andra gaiztu arek esanzian:
"Sartu eskua atarzuloti!"

Mutiki arek sartu zen eta andra
gaiztuak aizkoriekin moztu in
zian.

Andra gaiztuak esantzian sar-
tzeko beste eskua, anak eta bu-
rua eta intzian aizkoriekin danak
moztu.

Nesakia ailatu zan eta esan zian
andra gaiztuari ia nun zôn muti-
kia.

Andra gaiztu arek esan zian,
abuelân etxien yonko (egongo)
zala, txakurra umiek-iten zôla...

Nesakia fan zan eta esanzian
abuelak an etzôla.

Fan zan ebein etxiâ eta esan zian andra gaiztuari abuelain etxien etzôla;

Beste abuelân etxien yonko (egongo) da; txerria umiek-iten zôla.

Nesaki aura fan zan beste abuelân etxiâ eta abuelak esan zian an etzôla.

Fan zan ebein etxiâ eta esan zian andra gaiztuari an etzôla; eta bi-tartien andra gaiztu arek mutikia-
ren gorputza pertz batien artu zen.

...tiân etxien yonko (egongo) dala, beia txala-iten dôla...

Nesakia fan zan tiân etxiâ, eta tiak esan zian an etzôla.

Fan zan ebein etxiâ eta esan zian andra gaiztuari an etzôla.

Nesakiek ikus zen kalderan biaz-puntia.

Nesaki arek ihan-zian (eraman zion) bazkaia aitari; bazkaitako zian mutiki aura.

Ñarrez (negarrez) bazuan biden eta agertu zaion Ama Birjina eta esan zian ia zengeiti iten zen ñar

Nesakiak esan zian andra gaiztu arek be (bere) anaia il dela.

Ama Birjinek esan zian aita botatzen zen ezur guztiek jasotzeko eta pátzeko arramayuen zabal-zabala.

Ihan (eraman) zian bazkaia ebein aitari eta aita bota zituen ezur guztiek jaso zituen eta ihan (eraman) etxiâ.

Pátu zituen arramaiuen zabal-zabala eta fan zan ohiâ (ohera).

Urrengo goizien jagi zan eta ikus

zen jende montona ebein ataien; eta mutikia teilatutik au kantatzen:

*"Amak il nau, aita jan nau,
Poxpolin txuri, arrebak piztu
nau!"*

Nesakia atâ zan kanpora eta mutikiek eman zian teilatutik soineko polipat.

Nesakiek ihakutsi zian andra gaiztuari soinekua, eta andra gaiztu arek esan zian biandako (berarendako) botatzeko beste soineko bat. Mutikiek esan zian pátzeko burua tximinien parien.

Andra gaiztu arek pátu zen burua tximinien eta mutikiek bota zian arri aundi bat eta andre gaizto ura il zan.

Eta mutikia, nesakia eta ebein aita ondo bizi zian. (*Antonino Goicoechea, 9 urte. Urdiain, 1965*)

Urdiaingo kontakizunok funtsean antzekoak dira biak. Neskatoarena, hala ere, txukuna eta laburbildua agertzen da. Mutikoak zehaztasun gehiago eta gehigarri esanguratsuak sartzen ditu. Psikologia aldetik osaketa ezin hobea egiten dute elkarrekin. Izan ere, ama alargunaren ahoz zekien hark A kontakizun itxurosoa, eta alderantziz aita zuen mutiko koskorak B eskuizkribu osotuagoaren giza-iturburua.

Ezin da noski gorputzaren hiltze fisikoan eta berpizte magi-

ko hutsean ulertu naturaren aurkako pasaizoa. Sinbologiaren ikuspegi zabaletik aztertu behar da mutikoaren joan-etorria, eta ez odol isurketaren labankada gorritik. Izan ere, eguneroko hizbide, eskuarteko lanabes eta gertakizun arrunten antza duten materiaz gauzatu gabeko sormen eta burutapenen adierazpena da sinboloa. Zientziaren arloko logikan arrazoitutako pentsabidearekin ados ez egon arren, antzekoen erakertasunean oinarritutako sinboloa izana da antzinako gizonaren pentsabidea.

Ipuinaren ildotik abiatuz, haurtzarora gainditu eta gazte aroan sortzen den mutikoa ikus daiteke arazorik gabe gertaera horietan.

I. Basoa

Egur-bila joateko agindua, amaren altzotik atera eta bere bidea egiten hasteko unea da. Mendia aipatzen da beste aldaki batzuetan. Etxeko babes epela utzi eta biziko hauen nekea hartzea esan nahi du egurraren aitzakiak. Menpetasuneko lakioa eten eta nor-bera izaten hasteko bultzada zuhurra da amarena, biziko erantzunkizunen bidean lehen urratsa emanez.

Basoko ibilera eta lana ez dira noski eginkizun atseginak, eta amaren sabela gogoratzen duen labe berotik ateratako opil goxoaren zurrumurruan hartzen

dute anai-arrebak etxeko bidea, haurtzaroko girora alegia.

Ipuinaren lehen ataleko joan-etorriok haur hazitakoaren handi-minen bezpera esaten dute. Nortasun esnatu berriaren izeneko tira-biran haurkeriak gainditu eta gurasoen esanetik aske gelditu nahia nabaritzen da alde batetik, eta amazulo jarraitzearen gozamenak bestalde, galga eta oztopo egiten dio etorkizun ilun eta gogorrari aurre egiteko. Egosketa zalantzarria.

Bi xehetasun azpimarra daitezke B izkribuan: arrebaren abiada eta bien arteko elkarrizketa. Neskatiilla aurreratzen da basotik itzultzean, eta gero atzean uzten du anaiak. Jakina da emakumea erneago izan ohi dela lehen urtetan mutikoa baino. Garrantzitsua da bideko eztabaida: gorputzaren eginbehar arruntak naturalki dabilzate haur kontua dela ikusteko.

II. Amaizuna

Mutikoak zer-nolako lotura duen etxekoandrearekin ez da garbi ikusten Urdiaingo berrie-maileetan. Adineko pertsonei beti *amaizuna* entzun izan diet, A testuaren egileak abuela deitzen dio, eta bigarren aldakian *andra gaiztoa* bezala agertzen da. Azkeneko aipamenak ez du inolako oinarririk herriko tradizioan. Neure eraginez sortu da. Mutikoari ipuina eskolan lehenbiziko

aldiz entzun nionean *ama* zela esan zuen. Bere adinako haur batentzat amaizunaren betekizuna ulergarria ote zen familian jakin nahi nuen eta galdera hau egin nion: "Horrelako gauza itsusia egiteko ze ama-klase ote zen hura?". Mozturik gelditu zen mutikoa eta ez zuen ezer erantzun, baina egun batzuen buruan idatzirik ekarri zuenean ipuina, hasierako ama hitza baztertu eta *andra gaiztoa* zioen.

Iraganaren eta etorkizunaren arteko hesia da gaztetxoarentzat etxeko sarrera hori. Atea ixteak atzera begira bizi nahiari uko egitea eskatzen du amaren aldetik, eta bizialdiko esperientzien etena darama berekin: eskuarteko jostagailuak baztertzea, ordu arteko lagunekin ibilitako bideak uztea eta, azken finean, pentsabidea aldatzea. Hori da eskuak, hankak eta burua moztea gaztetxoaren barneko munduan.

Eginkizun honetan amak jarraibide zuhurra darama eta, nolabait, beretzat ere amaitu da haur txikiaren gozamina, ama sabelaren agerpena den sukaldeko pertzean hegosiz haragia. Gorputz guztia puskatu ziola dio A ereduaren egileak, haurraren heriotza pertsona osoaren aldaketa erabatekoa dela azpimarratuz.

III. Arreba

Mutikoa desagertzean, bigarren mailan egondako neskatillak

hartzen du bere gain jarraipenaren erantzunkizuna. Ez da bera ere haurtzaroko sukaldean gelditu. Pertsona helduen burubidez jabeturik, txakurra umetzen ikustera doa amonaren etxera, txerria da beste amonarenean umeak egiten ari dena eta, har-emeen arteko sexu gaietan begiak irekirik, baserriko azienda larria den behia ikusten du izebaren bordan txala egiten.

Nabarmena da errepikaren indarra. Hiru bider azpimarratzen da gaztetxoaren mundura aldatu denaren aurrean sexuaren azalpen gordina. Eta ongi begiratuz, emakumea da liturgia misteriotsu honen hari guztiak mugitzen dituen. Gidoiko amaizuna, arreba, amandre biak eta azkenik izeba, izan dira haur-ohiarekin gaztearen jaiotza berria mamitu duten sabel egoskorra, esku prestuak eta bular-ondo oparoa. Oso zaharra dirudi mezuak.

Hemen aurkeztutako bi izkribuetan badago berezitasun bitxi bat Euskal Herriko nahiz nazioarteko hil-piztuen antzeko kontaktuzunetan ez dagoena. Neskatoak ez ditu anaiaren hezurak, ohi denez, lurpean sartzen. A testuaren arabera, teilatuan ipintzen ditu, eta B aldakiak dio armairuan ezarri zituela zabal-zabala, hurrengo goizean teilatu gainean agertu bazen ere mutila kantari.

Aita-amen babesa gaintitu eta etxearen beste lokarrietatik

aske gelditu dela adierazten du teilatu gainean agertzeak, biziaren iturria den eguzkiak lehen argiarekin zuzenean piztuta.

Armairua inkoszientearen lotura gabeko gordailua izan daiteke. Ama-Lur arketipoaren sabelera itzultze normala, nolabait, mutikoa pertzean egostearekin bete da, pertzak -labeak eta amaren sabelak bezala- denen jatorriko ama den Lurra adierazten bai du.

IV. Kantua

Bizira itzultitako gaztearen hitzak testu ihartuen ondarean sartu dira eta haur txikien jolasetan abesten dira doinu desberdinekin. Urdiaingo bi berriemaileen arteko desberdintasunak azalekoak dira. Hezur hutsen egoera aipatzen du lehenak, eta arrebarenganako hitz politak sartu ditu bigarrenak. Bi esaerak elkartzen dira une hartan 80 urte zituen emakume batek esandako hitz hauetan:

Amak hil nau
aitak jan nau
neure arreba poxpolintxuek
hezur hutsetan piztu nau².

Ipuina galdu den herrietan gogorra da edozein emakumarentzat haurra amak hil duela

(2) Benita Menéndez, 80 urte. Urdiain.

esatea, eta era askotako aldaketak zabaldu dira bazterretan. Iruenen, adibidez, honela zioen andre batek: "Nere amak aur ttiqiya besuan artuta lo egitteko kantatzen ziyon:

Amak egin niñuen
attak il niñuen
arreba Maxepatxok
pixtu egin nauen³.

Luzaiden entzuten nuen tes-tuan aita-amen izenak kendu eta katuari egozten zaio heriotzaren errua. Eskuak zabaldu eta haurrari aurpegia harrapatzeko kei-nuak eginez, honako hitzok esaten dira:

Marrau, marrau!
Jantzak haur hau.
—Gaur edo bihar?
—Gaur, gaur, gaur⁴.

Ipuinaren amaiera desberdina da Urdiaingo bi izkribuetan. Emaztekien ahoko A ereduan ez zaio ezer txarrik gertatzen hiltzaileri eta bere kabuz hiltzen da zaharturik amona. Gizakien bertsioiko B ereduan alderantziz, mutilak tximinitik bota dion ha-

(3) *Maxepatxo*, Mari-Josepatxo. Sabadina Ribera Aramburu. *Katia* auzokoa. Valentin Berriotxo anaiak bildua (*El Bidasoa* 730; 1959ko abuztuaren 8ko zenb.).

(4) Maria Dolores Echeverria. Goienetxe, Luzaide.

riarekin buruan jota akabatzen da andre gaiztoa.

V. Pertsonaia

Herioaren itzala psikologia-ren aldetik ikusi behar da. Haur-tzaroko oroitzapenez mintzatzean, bere mundua hori dela, dio C.G. Jung ospetsuak, eta denbora bete delako zigorreratik paradisu hartatik botatzea da. Eta Shakespeare-n *Julio Cesar* aztertzean Casio pertsonaiaren egoerari buruz esaten du, amestutako pertsonaiaren garrantziko helburua aldatzeko bidean, printzea hil behar balu bezala dela. Heriotzaren amenazu ulerkaitzak sortzen ditu barnean eta sentipen mingarri nazkanteak. Haur denborak hil nahi du handien munduari aldia uzteko⁵.

J.L. Henderson-en ustez,

(5) *"Es el mundo del niño, el estado paradisiaco de la primera infancia, del cual nos expulsó la ley del tiempo que pasa. En ese reino subterráneo dormitan sentimientos de hogar y esperanza de todo lo verdadero". "Cuando una estructura de tanta importancia vital como un personaje ideal se prepara para modificarse, es como si tuviera que morir. Entonces produce en el individuo presagios de muerte difíciles de comprender, es decir, en apariencia infundados, y dolorosos sentimientos de astío del mundo (...) el mundo infantil quiere desaparecer, a fin de ser sustituido por la fase adulta".* JUNG, Carl G. *Símbolos de transformación*, Paidós, Barcelona 1982; "La lucha por emanciparse de la madre" pág. 295.

hauraren nortasuna ama/semee sustraietara itzultzea da horrelako heriotza nozitza bortxatzen duen eragina⁶.

Amaizuna, estikoa ere, esta houna dio errefrau zaharrak⁷. Kasu honetan amaizunaren papera egin behar du guraso ona izatekotan edozein amak. Heldutasunera iristen doan haurra amaren gonei lotzen da eta ez du joan nahi, amazulo baita. Baina biziak eskatzen du lokarriak hautsi eta nortasunaren bidea bere kontuz egiten hastea.

Maitemina baino gehiago, amaren sabelera itzuli nahia da, hilobira alegia, joera atzerakoia-ren zergatia, esaten du Eric Fromm-ek. Amarekin berriro

(6) *"El rito retrotrae al novicio más profundo nivel de la originaria identidad madre/hijo o identidad ego/"sí mismo", forzándose a experimentar de ese modo una muerte simbólica. En otras palabras, su identidad se desmembra o disuelve temporalmente en el inconsciente colectivo. Después es rescatado de esa situación mediante el rito del nuevo nacimiento. Este es el primer acto de la verdadera consolidación del ego con el grupo mayor, expresado como tótem, clan, tribu, o la combinación de los tres. El ritual, ya se encuentra en grupos tribales o en sociedades más complejas, insiste invariablemente en ese rito de muerte y resurrección que proporciona al novicio un "rito de paso" de una etapa de la vida a otra siguiente"* HENDERSON, Joseph L., *El hombre y sus símbolos*, Paidós, Barcelona 1981, pág. 128.

(7) OIHENART. *Ref. y Sent.*, 24.a.

batzean jaio aurreko egoeran desagertzera jotzen du⁸.

Zinezko beldurra dio une hortan haurrak helduen munduan sartzeari. Jung-en esanetan, ama galtzeagatik ez baino heriotzarekiko beldurra da⁹. Gizonak ezin du hala ere aurrerape-
nik egin bizian, beregan dagoen izaera eta giza-osotasunaren helburua unez une eta urtez urte gauzatuz baizik¹⁰. Azken finean, osotasunera iristea unibert-
sala izatea da, ez norberaren muga txikitari hiltzea. Hortan datza bo-
rrokaren gakoa.

(8) *"El rechazo a separarse de la madre puede tomar formas más extremas. Más profundo y aún más irracional que el deseo de ser amado y protegido por la madre durante toda la vida es el anhelo de ser uno con ella, de regresar a su seno y, finalmente, de anular el haber nacido. Entonces, el seno materno se convierte en tumba, la madre tierra en que "enterrarse", el océano en que ahogarse. No hay nada de "simbólico" en esto; tales anhelos no son "disfraces" de deseos edípicos reprimidos"* FROMM, Erich. *Lo inconsciente social*, Paidós, Barcelona 1992, 55 eta 58. orriak.

(9) *"El miedo parece provenir de la madre, pero en realidad es el miedo a la muerte, propio del hombre instintivo, inconsciente, que se excluye de la vida manteniéndose apartado de ella. Se se tiene la impresión de que la madre es el obstáculo, ésta se convierte en artera persecutora"*. JUNG, Carl G. op. c., pág. 310.

(10) TEILHARD DE CHARDIN. *El fenómeno humano*, Taurus, 6. ed, Madrid 1974, pág. 218.

VI. Mitoa

Ipuin honek lehen begiratu-
an miresgarriaren antza baino
gehiago beldurgarriarena du.
Ipuin harrigarria izango litzateke.
Baina ez da ipuina, mito uni-
bertsala baizik. Osiris jainko zati-
katuaren antzeko historia da. Ha-
ren gorputzeko atalak Egipton
zehir sakabanatuak izan ziren
eta Isis bere arreba —emazteak
beste aldaki batzuetan— arduraz
bildu zituen puskek bizia itzuliz.
Odiseo bera ere barneziketan
heldutasun osoaren parte bat
den Peneloperen bila doa. Arre-
ba prestua ipuinean ez da beste
persona bat. Mutilaren barne-
barneko indar emea da, gizatasun
hautsiaren hondakinak birmol-
datzen dituen, norberaren biziko
animus/anima bikotearen elkarke-
tak osatzen bai du pertsona.

Psikologia arloan egindako
aurrerapenen bidetik herri-ja-
kintzak balorapen berria hartu du
eta ipuina langai unibertsalen
mailan sartu da. Berri ona da he-
rri-literaturarentzat.

Bibliografia

BARANDIARAN, J.M. O.C. t. II, *"Beñardo"* pág. 311.

DONOSTIA, José Antonio de, *"Apuntes de folkore vasco"* BAP. VII, San Sebastián, c. 1, pág. 26-37.

DURAND, G. *La Imagen simbólica*, Amorrortu Buenos Aires 1971.

- ELIADE, Mircea. *Mitos, sueños y misterios*. Madrid 1911.
- , *Mefistófeles y el andrógino*. Guadarrama, Madrid 1969.
- FRAZER, J.G. *El folklore en el Antiguo testamento*, F.C.E., Madrid 1981.
- FROMM, Erich. *Lo inconsciente social*, Paidós, Barcelona 1992.
- GENMP, Arnoldvan. *Los ritos de paso*. Taurus, Madrid 1986.
- JUNG, Carl G. *Psicología y simbólica del arquetipo*, Paidós, Barcelona 1982.
- , *Símbolos de transformación*, Paidós, Barcelona 1982.
- , *El hombre y sus símbolos*, Caralt 3. ed. Barcelona 1977.
- , *Simbología del espíritu*, México 1984.
- , *Conflictos del alma infantil*, Paidós, Barcelona 1982.
- METZNER, Ralph. *Las grandes metáforas de la tradición sagrada*, Kairós, Barcelona 1986.
- PROPP. Wladimir. *Morfología del cuento*, Fundamentos, Madrid 1971.
- SATRUSTEGUI, José M. *Ipui miresgariak*, "Amak hil nau, aitak jan nau.!" Bilbao 1979, pág. 117.
- , "Versión popular vasca de un cuento de Grimm", BAP XXI, San Sebastián 1965, c. 3 y 4, pág. 283-291.
- TEILHARD DE CHARDIN. *El fenómeno humano*, Taurus, 6. ed. Madrid 1974.
- TURNER, Victor W. *El proceso ritual*. Taurus, Madrid 1988.

Iratzederren munduak

PATXI EZKIAGA LASA

Uka ezina da artegintzaren edozein esparru hartzen dugularik ere berarekin erlazonaturiko oro eztabaidagarri gertatzen dela. Hau are eta egiago fortunatzen da poesiaren kasuan, bere izatearen, bere zereginaren muina bera hain era ezberdinetan hartzen baita. Dena den, esan dezagun azken batez erizpideek funtsean bi ildo ongi be-reiztuetatik abiatzen direla: hots, batzuentzat olerkariaren sinismena artearen izakera BATIKOarekin loturik dago. Zentzu horretan poeta egu-neroko begi arruntarentzat ikustezinak diren egien bisita izan duen gizon emakurnea da, nolabait trszendentziaren muga irristakor eta iheskor horretan kokaturiko zerbait, mundu preternatural eta suprana-turalaren esparrua, poetak ikuspegi iradokikorraren bitartez subjeti-bizatuko duena. Beste batzuk, ordea, idazlea eguneroko ingurugunea-rekiko obligazioaren uztarpean jarri nahi izaten dute, bere zeregina eguneroko munduaren fikzioetaz arduratzea delarik.

Iratzeder non kokatuko nukeen galdetuko bazenidate lan nekeza gertatuko litzaidake hautaketa egin behar izatea, hain zuzen ere, nire ustez, arlo biak ukitzen dituelako, bere olerkigintzaren sasoi ezberdi-nen arauera, errealitateaz gain existentzia ere islatzen baitu doniban-dar poetak. Horregatik uste dut, nire oraingo lana poetaren bere lana-rekiko harreman subjeliboa argitzean datzala! Eta uste ere uste dut mintzaira poetikoaren berezitasuna kontutan hartuz hiru galdera hauei erantzun beharko diedala.

- Zer da deiadar mitikoa.
- Zein da mitoaren helburua.
- Nondik datorkio, non lortzen du mitogileak bere jakituria.

Galdera horiek edozein iharduera poetikoaren erraietan daudela

sinisten dugunok badakigu norberaren esperientziaren jabe izateko borrokak markatzen duela gizon emakumea, bere egiazko nortasunaz jabetzeko burutu behar izan duen ahaleginak.

Beraz, esperientzia pertsonal horren jabetzea hain garrantzizkoa baldin bada, —eta hala da— esperientzia horren aniztasunaren, sako-neraren, tipifikazioaren arabera gertatuko da iharduera poetikoa. Zera esan nahi dut, arras ezberdinak izango direla esate baterako Ted Hughesen poesiaren iturburua eta Iratzederrena. Sylvia Plath bere lehen emaztearen suizidioaren ondoren beste bi bider ezkondu den gizonaren bizimodu larrimindu eta markatuak nahi ta ez izan behar du arras ezberdina urteak monastegiko hegalean babestuta eman dituen poetarekin konparatuta.

Biak izango dira subjetoak eta, beharbada obsesiboki autobiografikoak, neurri batean edo bestean ez bait dago hortik ihes egiterik. Halere bada beste mundu bat, norberak sortua ez izan arren ere, kanpoagokoa izan arren ere, gure mundu sentsorialaren bidez asimilatzen duguna, dialektikoki noski, errealtate guztiak bezala, kontrako indarren arteko borrokan jasotzen bait dugu egiazko jakituriaren iturria.

Bai gure kreakuntzaren mundua eta bai eraginaren mundua MITOEN eta SINBOLOEN bitartez adierazten eta partaidatzen dugu gizakiok. Hain zuzen ere honen argitzea izanik gure gaurko ihardueraren helburua, gero zehaztasunez eta indarrez itzuliko gara arlo horretara. Lehengo ordea, gaiari legokiokeen giroa eta erritmoa jarri nahi nituzke, ihardunaldian zehar euskarri eta erreferentzi puntu gerta dakigun.

Iratzederren poesiaren sinbologian IRATZEak eta HAITZAK, dudarik gabe, toki guztiz berezia hartzen dute baina barru barruan daudakan zalantza da zera jakitea: Noraino diren lilurapen eta katigutasun mentala, lasaitasun eta oreka naturala baino.

Bestalde, lehen aipatzen nituen indar preternatural horien lekukotzat jotzen ditudan iratze eta haitzaz aparte, hor dago BELOKE, beste maila bateko errealtatearen sinbolo gisa. Eta, hasiera hasieratik zenbait gauza aurreratu nahi nituzke honi buruz.

Besteak beste, garbi dago elizak betetzen duela eta, neurri batean, kontrolatzen Iratzederren olerkiaren harana: pertsonaia Jainkotiarak, fedegabeak, pentsakera iheskorra bera. Baina Iratzederren kasuan, sinbolo horrekin bat egin denez, Iratzederri elizak ez dio ekarri alde batetik AMETSA, IDEIA eta IRUDIMENA eta bestetik GIZON SENTSUAL eta FISIKOAREN arteko dibortzioa.

Horrez gain, fedegabeziaren arazoa sortarazten duenean, nolabait fedegabeen ikuspuntuaren printzipio nagusietako baten oihartzuna adierazten du, hots, elizak halako espiritualitatea sortu duela, gorputza kanpoan utzi eta energia mentala makaltzen duena. Esan beharrik ez Iratzederrek ez du horrela pentsatzen, baina erreportari bihurtzen daki, hala dagokionean.

Iratzederrek, azken batez, elizaren eraginaz markatutako kanpoko errealitatea aurkezten digu... eta bera gustora sentitzen da elizak interpretatu duen mundu horretan.

Bestalde, aurrera jo baino lehen, badago beste sinbolo bat arras kezkatu nauena, olerkari donibandarraren obran. EMAKUMEAREN sinboloa hain zuzen ere. Hortan ez dakit noraino har daitekeen Iratzederren poesia greziar eta hebertarren tradizioaren aurkako oihu gisa. Hau esan nahi dut: Robert Graves-ek THE WHITE GODDESS, Jainkosa Zuriaren sinboloa aurkezten duenean, tradizio horri leporatzen dio giza izakeraren arima eta gorputzaren arteko dibortzioaren ardura eta errua. Kristo aurreko VII. mendeko Ezekiel igarleari eta bi mende geroago bizi zen Sokrates filosofoari, homosexualitate intelektualaren asmatzaile direla esanez. Eta dudarik gabe, Sokratesek baztertu egin zuen Platonen Boreas eta Orithyaren mitoko egiari buruzko galdera. Geroztik, beti izan da mendebaleko elizan halako erlijio intelektualak, antifemeninoa, antimitikoa. Neurri batetan behintzat.

Beraz, ez dakigu noraino izan den formulazio ona meditazio hutsaren Jainkoa goraltzea *Mente Unibertsala*, *Ontasun* eta *Egia* esentzial gisa *Naturaren gaintik egongo dena*. Jainko berri hori *Alfa* eta *Omega* izango da, hasiera eta amaia, *Santutasun hutsa*, *Logika hutsa*, *emakumearen partehartzerik gabeko bizitza izango duena*. Baina zera honetan datza kaxa: egiazko Jainkoa, *Logosaren Jainkoa* pentsakizun hutsa bazen, *ontasun hutsa*, *nondik gaitza eta errorea?* Ala aparteko bi kreakuntza ongi bereiztuak *asumitu behar ditugu*, *egiazko kreakuntza espiritualak eta gezurrezko kreakuntza materialak?*

Kezka guzti hauen aurrean, noraino izan da Iratzederren poesia jauraulkirik, tronurik gabe Jainkosa horri, ez egipziarren *ISIS*-i eta *Rheari* baizik hauen kristau barianteri, *MARIA*, Jainkoaren *Amari*, *eginiko kantua?* Eta *duda aunitz izan arren*, beharbada *ausartu ere ausartu egiten naiz esaten Iratzeder saiatu egiten dela homosexualitate mitiko horretatik ihes egiten*. Besteak beste nahiko litzateke bere zenbait poema barru barrutik aztertzea.

Esate baterako, Jaunaren Hegala bere azken poemarioan Fran-

ke Iratzederren poesian ikusten denaren arauera, hori gabe botere horiek kaosaren sortzaile bait lirateke.

Beraz, poema idaztea, historia kontatzea, deabrua hezitzea da eta MITOA eta SINBOLOA sendaketa sikiko baten historia objetibatua, gure erroko dramarekin eginiko hitzarmena. Tragediarekin gertatzen den bezala, mitoaren funtzioa ere gaitza egozte da, poeta komunitatearen sendagile, SHAMAN-a bilakatzen delarik.

Iratzederrek izugarritzko argitasunez ikusi du mitoaren zeregina egiaztatuko duen sinboloa bitartekoa dela, artekaria. Ikusi bestela nola formulatzen digun guzti hori Pindar eta Laño bere lehen poemarioan.

Bere hegalk zabalik hegaztin baten pare
iduri du joan nahia maldatik airez aire;
bainan lurrari josia egoten da halere
munduari emateko zer nahi lore. (P.L. orr. 53)

Asko dira sinboloaren zeregin SENDAKARI hau adierazten duten Iratzederren poemak baina bakan batzu besterik ez ditut aipatuko. Liburu bereko ZOKORRI poeman hauxe irakur dezakegu:

...nik dautzut irabaziko oraiko Eskual gudua...
...egun osoa naiz zuretzat hiltzen zeru alderat kantari...
...Chuti ditela euskal hezurak, lurpetik chuti eskual ondarren begira...
(P. L. orr. 125)

Sendakari eta ZUBIGILE. Beharbada MITOAREN sinbolismo ZUBIGILE hau gero berriz aztertuko badugu ere, aipatu behintzat aipatu nahi nuke, Iratzederrek agian gehien azpimarratzen duen zeregina horixe izanik. Gogoratu bestela zer adierazten digun Argiz Argiko "Ba, ttiki" poeman,

Mundu bat bada, ttiki, bat, bi eta hiru:
gu gauden mundu hau, lur, bertze hura zeru,
hirugarrena berritz bai lur eta zeru.

Iratzederren sinbologiaren iturriak

Nire ustez haseran aipatzen nuen oinarrizko MITO haren egiaztatze sinbolikoaren ura sei iturri ezberdinetatik datorkigu batez ere. Honek ez du esan nahi sailkatze hau behin betikoa denik, horrela egitea bidezkoa iruditu zaidala baizik eta gogarte luze eta azterketa guztiz sakonaren ondoren gainera, begi zorrotzez miatu baititut Iratze-

derren poema guztiak, orain arte kaleratu dituenak behintzat. Hauexek lirerateke:

Judutar eta Kristau tradizioarekin lotuak
Naturarekin loturikoak
Historia eta geografiarekin zerikusirik dutenak
Apezaren zereginarekin loturikoak
Euskararekin loturikoak
Bizitza prozesu dialektiko gisa hartzetik datozenak

Egia esan, halako ikastaro baten muga estuetatik haruntz legoke Iratzederren obran aurkitu dugun materiale guztia erabiltzea, eta horrexegatik hitzaldi honen koordinatan sar daitekeenera mugatu beharko naiz.

Judutar eta kristau tradizioarekin loturikoa

Izenburu hau ematean, batez ere BIBLIA dela Iratzederren sinbologiaren iturbururik nagusiena adierazi nahi dugu. Honetaz ez dago inolako zalantzarik. Beste edozein iturburuk baino hiru bat bider aukera gehiago eman diote Liburu Santuek Iratzederri bere sinbologiaren etxea eraikitzerakoan. Halere, honela formulatuta guztiz zabala gelditzen zaigunez hiru arlo nagusitan banatuko genuke:

- 1- Itun Zaharraren mundua
- 2- Itun Berriarena
- 3- Kristau tradizioarena

1. Itun zaharraren mundua

Garrantzikoa izan arren, ez da arlo honetako sinbologia iturririk nagusiena. Hauek dira nire ustez adierazpide nabarmenenak.

- MENDIA, zentzu biblikoan, Jainkotasunarekiko topaketa-gune bezala. Honela dio ZOKORRI poeman, izugarrizko indarrez kantatu ere.

"Noiz dut Zokorrin, Eskualdun-apez, Eskual Herria lekuko
Jaun Goikoari Jainko odola, kantuz eskaintzen ahalko.
Begira nagon argi zirrinta pizten ikusiz betiko..." (P.L. 127 orr)

—ABRAHAM, etxea utzi eta esperantza haundiaren aitaren sinbolotzat joko duena. Poema berean haxe dio Iratzederrek:

"... Jainkoak berak deiturik
guziak utziz hegaldatu naiz sort-herri urdin hartarik..." (P.L. 176 orr)

—Exodoan doan herriaren gidari bilakatuko den Jainkoaren MAKILA, Moisesen eskuetan Jainkoaren izate monoteista haundiaren lekuko izango dena. Horeb berri baten aurrean bageunde bezala esaten digu poetak:

"Zure ustez zu zinen zu
Jainkoaren Makila;
eta orain badakizu
xahartu eta deus ez zarela" (J.H. 501 "Haitzen pean")

—Horrekin batera, ESKALEA-ren figura biblikoa adieraz dezakegu Jainkoaren gizonarekiko eta gizonaren Jainkoarekiko harremanetako jarrera iradokitu nahiko ligukena, apaltasunean eta askatasunaren errespetuan oinarritua. Oihartzun bibliko haundiko figura da hau benetan.

Honela adierazten du sinbolo hori Iratzederrek Jaunaren Hegala, bere azken obran.

"Jainkoak barnez barne
guziak badazki;
ez du nahi halere
bortxatuz ideki.
Eskale baten pare
atean lañoki,
bera zabaldu-arte
da gaupez egoiki" (Eza nundik hezi? (J.H. orr. 549)

—Salmoetan hain sarri azaltzen den BASAPIZTIEN sinboloa ere eskeintzen digu poetak, Og eta Basan izen guztiz iradokikorrekin lotuta, oldarka egiten digun zakurbizitza adierazteko. Eta errelato Biblikoen indar beraz ekiten dio beneditarrak bere Deus Meus, Deus Meus poeman.

"Adarrak luze, dena hortz eta dena harrapo!
zezen azkarrak datorzkit niri;
ondoan ditut su-errabian,

lehoin gaitz batzu iduri:
agoa zabal neri behaka agoa zabal, orroaz ari" (Z.M. orr. 102)

- Goian aipatu dugun eskalearen figurarekin loturik ikusi beharko genuke, Isaias igarlearen orritan izugarritzko indarrez isladatzen zaigun YAHWEREN MORROIA, Itun Berriko idazti guztiak kristo sofrizaillearen irudi gisa ikusiko dutena. Iratzeder lotu egiten zaio sofrimenduaren epitome erraldoiari.

"Deslotzen zaizkit hezur guziak, urtzen ari zait gorputza;
eta, ezkoa balitz bezala, chorta chortaka
hertzetaraten bihotza...

Indarrak joanak, mihia idor,
hil-erhautsean urturik natza". (Z.M. orr. 103)

- SHEOL-en sinbologia aipatuko dugu urren, josafateko haranaren aurkako erreferentzia, bizitzaren aurkako heriotzaren lurrraren iluntasun beldurgarria, argitik urrun, esperantzatik erbesteratua.

"Zure gerlari zaintzale gaitzak nun dira orai nun dira?
xuti ditela, lurpetik xuti euskal ondarren begira,
Jaunak ez ditzan hasarrez bota su-leizeeri behera" (Z.M. orr. 126)

- Eta arlo honi amaia emateko azken bi sinboloak ekarriko ditugu, Iratzederren poesian sarrien azaltzen direnak, beharbada poetari iradokikorren gertatzen zaizkiolako giza egoeraren berri emateko eta gure Herri honek hain beharrezko duen esperantza izpia plazaratzeko.

EZEKIEL igarlearen AMETSA, lehengoz, hezur lehorren berbizitze ametsa, Euskal Herri erori eta ilunaren sinbolo. Gutxienez bitan irakurri dut sinbolo hau... eta hau ez da oso fenomeno normala Iratzederren poesian, benetan gogokoen dituen sinboloak bakarrik errepikatzen bait ditu. Bestela, nahikoa izaten du behin erabiltzearekin. Hain da aberatsa eta aniztua donibandarraren sinbologia. Bere poetikaren gailurra jotzen duen ZOKORRI poeman eskeintzen digu behin. Hala dio:

"Hauts, erhauts, hezur ez da gelditzen, ez da ikusten bertzerik.
Ai, bainan sarri itsaspe, lurpe eta ilhunbe hoitarik
denak uhainka jinen zaizkitzu, goi-deihadarrak pizturik".
(Z.M. orr. 127)

Liburu bereko Jakes edo Zeru Menditik poeman erakusten digu bigarren aldiz, testu inguru berdinean, gure Herri honen salbamen esperantza oihukatzeke.

"Azken goiz hartan, zelai mendi hauk bilakaturik hil-herri,
jautsiko dire, dena iduzki, hezur erhautsen pizgarri,
irrinzin eta irrintzinaka eskual lurpeko hileri;
pitz gaiten eta airez aire joan, hek zerurat aintzindari"
(Z. M . orr . 1 50)

Bigarrena, berriz eta agian hori baino iradokikorragoa, KANTARIK EDERRENA, Bibliako liburuari egiten dioen erreferentzi mundua da. Hortan, gainera, Iratzederrek bai kristau mistikoen tradizio apartari eta iturri beretik edan duen mahometar sufi-enari jarraituz egiten du. Horregatik dute Iratzederren bertsoek Donibane Gurutzekoaren oihartzuna eta Ibn Arabi maixu haundiaren xuxurlapena. Donibane Gurutzekoaren poesia guztiz ezaguna egiten zaigunez, Ibn Arabiren hitz hauekin konparatu nahi nuke Iratzederrek esaten diguna. Honela dio Asin Palaciosen interpretapenean:

" Igualmente pasa con el amor: nadie ama más que a su Creador. Lo que sucede es que Este se nos disfraza bajo los velos de Zeinab, de Soad, de Leila, del oro, de la plata, del honor, de todo lo que en este mundo es amable; y los poetas, dedican a las criaturas las elegancias de sus versos, sin saber esto, mientras que los místicos iluminados entienden que en toda composición poética se habla siempre de Dios, oculto bajo el velo de las formas corporeas"
(El Islam Cristianizado, Hiperion. Madrid 1981. Pag. 464)

Hau da Iratzederren batasun mistikoaren deiarra eta bere simbologia guztia.

"Eta orai egun oroz, lasai eta dohatsu,
Anaiekin kantuz nago. Jaun Goikoan urtua..." (Z.M. orr. 124)

Eta horrela dio Pindar eta Laino liburuan, mozkorraldi mistikoak suposatzen duen maitearen ardoaren sublimazioa kantatuz.

"Banoa goiz guziez zeruko sotora
hartaril begia pitz naiz beti athera.
Ai, Janpier, mozkor gaiten edanez Jaun hura
Jauzika eta Kantuz gateko zerura". (P.L. "Sototik" orr. 76)

2. Itun berriaren mundua

Itun Zaharreko sinbologiarekin gertatzen den bezala, orain aztertera goazenak ere Euskal Herria nahiz orohar hartutako gizona izango du destinatzaile, egoera zehatz eta tristeak esperantza utopiko batetarantz bertebratu ahal izateko. Oso anitza izango da sinbologia, nolabait Iratzederren Itun Berriaren ezagupen sakona adieraziko diguna, bere barne barneko zentzuaren arauera hartuko baitu, hitza benetan gerta dakigun salbamenerako bide. Gutxienez hogeita zazpi sinbolo ezberdin aurkitu izan ditut bere bost poema liburutan. Orain gehien errepikatzen direnak bakarrik aipatuko ditut, poemen kronologia jarraituz erizpide gisa.

—KRISTO - DONEZTEBE - AITZOL da Lehenengo trilogia sinbolikoa, Iratzederrek bat egiten baititu Nazaretoko Jesusen Nekaldia, Apostoluen Eginetan azaltzen zaigun Donestebe lehen martiriaren heriotza eta Euskal Pizkundeko bultzatzaile bortitza izan zen gerrate garaiko apez asasinatua. Iratzederrek hamazazpi urte besterik ez zuen sinbologia hau erabiltzerakoan eta, kuriosoki, garaiko JOC-eko langile militanteak jartzen ditu Aitzolen jarraitzaile eta asasinatuaren mezua jasoko dutenen artean.

Zita luze xamarra da, baina merezi du zati bat behintzat ekartzea:

"España hortan izan da segur asko bitahikeri:

horra nun zaikun ethorri

Euzkadirat Galtzhagorri

Jainkoaren amodioz jazartzerat aphezeri.

Berriki aphez suhar bat hil beharrez zeramaten;

hil-harrietan tiroka odolez estali zuten.

ilernuan zer irriak orduan egin dituzten.

Aphez gaichoak begiak, suharrik, zerurat dauzka,

gizon bat doa lasterka

bularrak zilatzen diozka:

Jaunak bezala hiltzean dio: "Jainkoa, oi, barka" (P.L. orr. 21)

—Bestalde, bere geroko poesian sarri erabiliko duen PAZKO GAUA. ABERRI EGUNA da bigarren lotura sinbolikoa. Denoi arras ezaguna egiten zaigunez, gainetik pasako dut, baina ez 1938ko Aberri Eguna poeman erabiltzen duela lehenengo aldiz esan gabe. (P.L. orr. 25)

—Ez dakit hau esatean oker egongo naizen, baina, nire ustez, GURUTZEARENA da Iratzederrengan gehien agertzen den sinbologia. Esan daiteke beste zenbait sinbolo bere bizitzako sasoialdi

batzutan erabili eta gero baztertu egiten dituela. Hau ez ordea; nolabait konstante bat izango balitz bezala, eutsi egingo dio eta ez dago poema libururik non erabiliko ez duenik. Agian beste edozerk baino hobeto islatzen duelako poeta donibandarraren bizitzari buruzko filosofia. Hain oparoa denez, ugariak izango ditu zeregin sendakariak.

- * Giharrearen suharraren eta bihotzaren eztiaren sinbolo izango da (P.L. orr. 54)
- * Zerurako txartel izango da, sofrimenduak zentzu salbagarria duelako (P.L.orr.57)
- * Argitasun iturri da (P.L. orr. 63)
- * Kristoren salbamenerako minaren hastapena da (P.L. orr. 63)
- * Kristoren "dohatsu dohakabeak" oihuarekin lotuta, zorientasunaren erreferentzi da (P.L. orr. 63)

Eta "Oren Beltza" poeman indar haundiz adierazten du zentzu salbagarri hori. Honela dio:

"Kurutzea dena odol duzu ikusten hurbil eta guziz, pean duen gure lohi gizona..." (P.L. orr. 63)

- * Amodioaren infinitasunaren sinbolo ere izango da (Z.M. orr. 110)

Gurutzearen sinbologiarekin oso estu lotuta eskaintzen digu ere JESUSEN BOST ZAURIEN sinboloa ARGIZ ARGIZ liburuan.

"Arantz-koroe dute buruan,
bihotz barnean bortz zauri:
ea noiz duten eskain ahalko
mundu zabala Jaunari" (A.A. orr. 76)

Poema honetan Iratzeder Arantzazuko praileei buruz ari bada ere, Garzia Lorcaren "Llego con tres heridas" gogorarazten dit bizitzarena, amodioarena, heriotzarena, Iratzederren kasuan bezala.

Eta guzti horrekin batera OLIOMENDI-ko sinboloa, bizitzako sofrimenduaren erreferentzi gisa.

"Oliomendiko olio sainduz
ditut indartuak,
aitamen buruak eta eskuak..." (J.H. orr. 506)

Gurutzearen sinbologiaren beste bariantea MINA-rena litzateke, sarri baino sarriago aurki dezakeguna. Poeta beneditarrarentzat:

- * Minak zeregin garbitzailea du (A.A. orr. 45)
- * Mina salbamen indar bilakatzen da (A.A. orr. 60)
- * Minak berdintzen gaitu (U.N. orr. 77)

Irakur dezagun zernolako maixutasunaz adierazten digun poetak:

"Bihotza nihork nihorekin
eztu berdin.
Hartakotz dute denek berdin (U.N. orr. 77) "Ez berdin..."

Arlo hau bukatzeko esan dezagun gurutzearekin loturiko BARKAZIOAN bakarrik ikusten duela Iratzederrek egiazko etorkizun argitsua, A.A. liburuan esaten digun bezala.

—Itun Berriarekin loturiko sinbologiaren laugarren elementu gisa San Paulon hain normalki agertzen den MUNDUKERIA versus GOI ARGIA kontrajarketa aipatu beharko dugu. Iratzederrek beste guztiok egin ohi dugun gauza bera egiten du, hots, norberaren bizi aukeren justifikapenak eman, azken batez, giza mugaziaren haurrak garela eta, sarri aurkitzen baikara, hitzez nahiz ekintzez, hori egin beharrean. Horretarako Iratzederrek lehenik MUNDUAREN sinbologia biblikoa aurkezten digu, bere bi ikuspegi ezberdinetan.

a) Jainkoaren presentziaren aurkako espazio teologikoa. Nahi bada, Jainkoaren ausentziaren aberria.

"Noiz othe nauzu osoki
mundukeriz hustuko?
Eta noiz bero beroki goi argiz zoratuko?" (Z.M. orr. 109)

b) Nolabait, honekin lotuta, eta erlijio bizitzari buruzko aintzineko teologiaren lekuko gisa, komentu eta monastegitik kanpoko espazio fisiko eta kanonikoa. Horregatik dio bere arrebari:

"Oi ene Jainko Lorea,
hets leihoak utz mundua.
Ene Jenofa maitea,
Jainkoaren hautatua." (Z.M. orr. 142)

—Bostgarren elementu gisa APOKALIPSIAREN erreferentzia ia obsesiboa aipatuko nuke. Eta elementu sinboliko hau guztiz garrantzizkoa iruditzen zait, hain zuzen ere Kristau UTOPIAREKIN oso estu erlazionatutako zerbait delako. Dударik gabe KRISTAU UTOPIAK formulazio ugari izan ditu eta Mateoren ebanjeliko azken epaietarena izan daiteke garrantzizkoena, gizonarentzat gizona jartzen denean amaigabeko zorionerako neurri, azken bateko Jainkotze izugarri baten burutzean. Irudikatu ezinezko momentu horren ikuskizun apofatikoak izan daitezke kristau utopia hain modu berezian ornitu dutenak, ertaroko, errenazimendu eta lehen iraultza industrialeko predikari milenaristek gogoratu dizkigutenak. Apokalipsiko ANDEREA litzateke lehena, Gravesen The White Goddess-etik ez oso urruti. Iratzederrek horrela ikusten du:

Agur! bihotzez agur, oi, nere maitea.
 Ilargiak derautzu burua aphaintzen.
 Jauntzia urdin eta izarrez betea,
 nere ganat zoin eder ziraren agertzen. (P.L. orr. 66)

Bestalde, ZERU MENDITIK liburuko "su eta khe" poeman utopia apokaliptiko horretarako ezinbesteko baldintzak jartzen dizkigu Iratzederrek.

"Oi, anaiak, gauden kantuz othoitz eta lanean
 izerdiz eta zeru-gozoz Euskal-lurren ontzeko..."

Hala eginez gero zuriz jantzitako hautatuen artean aurkituko gara la jakiteko, munduaren amaiako ordu erabakiorrean.

"Hemen hitzez, han arimez izanen dire pertsuak
 eta Jainkoz du aseko hango eskualdun soinuak.
 Ai, zeruan entzun behar zoragarriko pertsuak,
 Jainkoraino hel-arasiz guk salbatuen kantuek" (Z.M. orr. 195)

Eta Itun Berriko arlo hau bukatzeko hain errekurrente ez diren beste zenbait sinboloen berri eman nahi nuke, laburtu beharraren premiaz. Lehenego bezala kristautasunaren errekorrido sinboliko, erlijio, historiko-teologikoa islatzen duen bertsoa ekarriko dut gogora: Jainko *sendakaria* nolabait.

"Zure bihotza ideki duzu

khar hortaz nadin balia,
odolez hustu zare neretzat
zerura nadin lehia,
eta nik, Jauna, ukatu zaitut
eginez nere nahla.
Betiko sua merezi nuen:
eman dautasu bizia" (P.L. orr. 57)

Esan ere esan behar da maiz mintzatzen zaiola kristautasunaren erdiguneko dogma osatzen duen Hirutasun Doneari, su gisa, ilusio bultzagarri gisa jotzen duen Izpiritu Sainduari batez ere, bete dezan kristau teologiak eskuratu dion rola.

"Pitz zazu othoi! ni baitan
zuk zinuen Gogo. . . !" (Z.M. orr. 109)

Edota

"Leihoak hets eta pitz hiru chirio...
Zato, arreba, zato!
Diogun: Gloria Patri et Filio
et Spiritui Sancto. " (Z.M. orr. 143)

Horrezaz gain ez dira falta Itun Berriko mosaiko historiko-salbagariaren beste zenbait ikur: *Apostoloak*, esate baterako. Eta itsasoa eta arrantzalea, bihotz bihotzetik maite duen poetaren xamurtasunez ekartzen du Iratzederrek sinbolo hori, hurbiletik sentitzen duelako, bereziki interpelatua aurkitzen delako, berea izan zitekeen bizimodu eza-gunaren partaide.

"Zoin gozoki zen ibilki
arrainzalen barkuan, nolaz du ahantzi?
Hek baizik ez baitzaizko bihotzez jarraiki,
hek baitute odolaz hura maitarazi". (Z.M. "Muskou" orr. 116)

Baina Iratzederrek badaki agiriko sinbologia ezagun eta errazetik ihes egin eta artelan figuratiboak iradokitzen dion mundu magikoan sartzen, Oteizaren Arantzazuko hamalau irudien kasuan bezala. Hala-kotan askoz hurbilago aurki dezakegu poeta beneditarra Gandiagaren Androkantotik ala Salvatore Mitxelenaren azken garaiko poesia gordin, ebokatibotik. Halere, bere estiloari zintzo jarraituz, Iratzederrek

traszenditu egiten du harriaren hustasuna, bere utopiarako mitogintzan oinarri izan dakion.

"Arantzazuko mendi mendian
hamalau saildu kantari,
itsas-ondoko leihor hezurren
hamalau arkaitz lazarri.
Arantzazuko mendi mendian
triputs mamuak iduri
hamalau saildu Jainkoaz gose,
Jainko-Biziaz egarri" (A.A. orr. 78)

Badira beste sinbolo batzu, sotilagoak oraindik, baina behin edo behin baizik erabiltzen ez dituenak, Jesusek kanaandar emakumearekin topo egin ondoren ihardesten dion "Noiztik botatzen zaizkie zakurrei mahai gaineko jakiak..." gogorarazten diguna bezalakoak. . .

"Odola eskualdun izaki eta
eskuara utzirik, erdaraz kanta!
Eskual-ontasunak atzeri bota!"... (A.A. orr. 32)... edo
beltzen arteko kanta espiritualetan hain garrantzitsua den *JORDAN*
ibaiaarena...
"Odolean ta nigar errekan iragan eta,
garbiturik, barnaturik, zabalduzik baitoa..." (A.A. orr. 27), baina
utzi egingo ditugu hirugarren arlora pasatzeko.

3. Kristau tradizioarena

Egia esan, lehen arloko hirugarren puntu honen sarreran berari dagokion Iratzederren sinbologia ia GUZTIA Sabino Aranaren lehen nazionalismoko EUSKALDUN FEDEDUN oinarrizko printzipioarekin lotuta dagoela esaten badut, agian gehiegikeria hutsa eta justifika ezina irudituko zaio bat baino gehiagori. Halere, horrela dela sinesten dudanez, ildo horretatik joko dut. Dena dela, sinbologiaren ITURRI HISTORIKOAK aztertzen ditudanerako utziko ditut hainbat eta hainbat esparru, bertan kokatzea egokiagoa iruditzen zaidalako.

Euskaldun-fededun esan dut, euskal katolikotasun abertzalea ezinbesteko produktua izango balitz bezala gure Herri honetan. Konzeptu hau garai hontan oso erasotua egon arren, hala eta guztiz ere Iratzederrengan egiaziartzat jotzen dudala esan beharrean nago, berak bizitzarako onartu eta defendatzen duen bizi-egitasmo baten bandera eta ikur.

Hain zuzen ere lotu egiten ditu binomioaren bi zatiak eta ez du inolako beldurrik erakusten zati bakoitzari errelato zaharrek eta elizaren definizio dogmatikoek eman dioten parafernalia hornigarria gehitzeko.

Ehunka adibide ekar nezake aipatu dudan binomio hori horrela dela erakusteko baina guztiz argia denez, nahiago izan dut sinbologiaren formulazioan gelditzea. Esate baterako, Pindar eta Laino liburuan hasiera hasieratik konparatzen du, gero Salvatore Mitxelenak bere Confixus obran egingo duen bezala, Euskal Herriaren egoera Aste Santuko Jesusen Nekaldiarekin.

"Lehen abertzaleak hedatuz zoazin
Euzkadi guzira;
ortzirale saildu bat gero zaiote jin;
hemen gehienek dute "tolle" oihu egin...
gure dei suharra
Jauna, entzun zerutik, Pazko etor dadin". (P.L. orr. 30)

Gainera Jainkoak eskutik hartu behar duen herri honen heroi fondatzaile legendarioak ere kristau tradizioaren keinuz agertuko dira, saildunen koroaz jantzitako AITOR bezala.

"Dena su, dena chimist da tanpez agertu
Aitor, Eskualdun Aita, Larrungo gainean.
Buru gaina izarrez zaio inguratu..." (P.L. orr. 39)

Eta herri honen eraikuntzari buruzko erreferentziak ekartzen ditue-nean, bortitzak, iradokikorrek izateaz gain, kutsu izugarri hori dariela esan behar da. Adibidez, Zeru Menditik poemarioko Axular edo lurra-ren kantua poema boteretsuan honela adierazten digu Iratzederrek Euskal Mezaren sinbologia.

- a) Gu ere aiko gare, pertsuz eta kantuz
Euskaldunen bihotzen
Eskuaraz zabaltzen,
Oi, Axular!
- b) Suz eta zeruz Eskuara aphainduko dugu
nausi chutitu eta egin dezan oihu:
dohala ba erdara
Herritik kanpora!
Oi, Axular!

c) Kantuz jinen gintzaizu Eskualdun anaiak
 ikasle, laborari eta aphezgaiak
 Eskual gogoa sutan
 altchatuz airetan
 Oi, Axular!

d) Denak soinu, orduan berpiztuko zare
 Iduzkia soineko, Larruna aldare,
 Eskual-Lurra bethiko
 Jaun goikoratzeko
 Oi, Axular! (Z.M. orr. 133)

Baina hau ez da aldi bakarra eta Uhaineri Nagusi liburuan ere ildo beretik jotzen du poetak Herrigintza prozesua marrazteko, mezaren sakrifizio eta eskaintza zentzu bikoitza aspimarratuz gainera.

"Ni ere minez joan nintzen behin
 Eskual bidetan, eder bidetan,
 gure lurreko ederrenekin aldare
 baten egin nahian" (U.N. orr. 16)

Edo euskal bizitzaren zentzuaren programaketa eta goralpena iradokitzerakoan luzatzen digun KANDELAREN sinboloa bera aurrekoarekin guzti lotuta dagerkigu.

"Elizan eta plazan zerbeit, norbeit izan:
 gutan ariz Jainkoak denak berri ditzan.
 Gustu hartzerakoan, ez ager, ez izan:
 gu itzaliz munduak Jauna ikus dezan" (U.N. orr. 56)

Arlo honetako azken SIMBOLOGIA definigarriarekin aritu baino lehen beste zenbait zertzelada eman nahi nituzke ukitzen ari garen gaiari buruz, nolabait Jainkoa eta Euskal Herriaren arteko nobiazko aszetiko eta ezkontza mistikoaren bereizgarriak zeintzu diren argitu ahal izateko.

- Jainkoa da zorientasunaren iturri bakarra (P.L. orr. 53)
- Fedea heriotzaren garaile izan arren, ez da minaren aurkako sedantea (P.L. orr. 82)
- Bob Dylanen "With god on our side" polemiko haren parafrasia eginez, Jainkoa alboan dugularik ez diogula ezeri beldurrik izan behar. (Z. M. orr. 18 5)
- Jainkoaren begiradak edertuko du Euskal Herria (A.A. orr. 75)

—Jainkoak salbatuko du azken batez Euskal Herria (A.A. orr. 37 eta 51)

Baina azken puntu honetara iristerakoan ez nuke honi buruzko Iratzederren ohar guztiz bitxi eta, nire ustez, guztiz definigarri bat azpimarratu gabe utzi nahi. Egia delakoan nago Iratzederren aberriaren eraikuntzarako kredoan bortxakeriak ez duela Toki haundirik, baina harrigarria da nola bereizten duen odola eman eta odola hartu dutenen arteko ezberdintasuna. Badirudi behin eta berriro oihukatu egiten digula zein haundiak diren Herri honen alde odola eman dutenak... eta badirudi, aldiz, ez duela onartzen erasotzen duenaren jarra. Dena dela, Iratzederren sinbologian, oparitutako ODOLA osagarri bat besterik ez litzateke izango, horren aurretik jartzen baitu OTOITZA. Horregatik dio zero Menditik liburuan

"Aditu dugu Eskual fraideek aditu zure oihua,
aditu ere ichuri duzun odolaren dei kartsua;
gau eta egun menderen mende eskualdun othoitz kantua
mendi huntarik airatuko da, zure hill-hatsak piztua" (Z.M. orr. 149)

gero deiadar bortitzez hau esateko:

"Bertze Herriak eraiki dira odolaz,
Euskal Herria eraikiko da othoitzaz" (Z.M. orr. 149)

Guzti honen amaian Iratzederrek ERDIKUNTZA erraldoi bat jartzen digu, KRISTAU UTOPIAREN EUSKAL KRISTOAREN erdikuntza. Iratzederrek zenbait pausu ematen du horretarako. Uste dut lehena 1975ko urriaren 20ko Behazue poeman ezarria dagoela. Bertan, Michelangelo Buonarrottian Pieta Rondanini erdiragarria bailitzan, hitzaldi honen hasieran adierazi ditugun identifikatze prozesuak osatzen ditu, Otaegi ETA-ko militantearen heriotza kantatzen duenean, eta batez ere Otaegiren amaren jarrera. Hain zuzen ere hiru hurbiltze alegoriko egiten ditu

- 1- Jainkoa - Euskal Herria
- 2- Kristo - Otaegi (Kristoren odola - Otaegiren odola)
- 3- Maria Jesusen Ama - Otaegiren ama. (J.H. orr. 484-485)

Honen ondoren Euskal Kristo horretarako beharrezkoa den kokagune historikoa eta etikoa xuxurlatzen digu: Eliz Amaren altzoa. entzun nola adierazten duen:

Aurkitua dut, hara! maite bat
 lurreko eta zerukoa:
 Euskal-Eliza nere maitetzat
 hautatu eta kantuz noa.

Ezin bertzez hiltzean,
 begitartean
 lurrekoen artean
 uztea ! . . .

Ez nerea, bainan zurea,
 eskual Eliza nere maitea.
 Ez nerea, bainan zurea!
 nerekin gerorako
 baitazu moldatuko
 euskal-kristoren begitartea". (J.H. orr. 553)

Eta behin Euskal Eliz barruan Euskal Kristo hori erditu ondoren, hau da, benetako euskaldun fededuna, Iratzederren eritziz iritsia izango dugu Euskal Kristauaren utopia betea: gizona gizonarentzat ez OTSO, baizik ZERU izatea.

" ..ageriko da zoin garen denak elgarren bete,
 denak elgarren zerua". (J.H. orr. 560)

Eztabaidatzeko gauza ea Iratzederren UTOPIAGINTZA hori atzerantz edo aurrerantz egin behar den prozesua. Baina gero ihardungo dugu horretan.

Naturarekin loturiko sinbologia

Badakit arlo honetan ihardun baino lehen beharbada Iratzeder eta naturaren arteko harremanak aztertu beharko genituzkeela, hots, zer den NATURA Iratzederrentzat eta zer den Iratzeder naturarentzat. Badakit oso laburki adierazita poeta eta idazle askorentzat natura batez ere erromantikoen garaiko barneko bizikizunen ispilu isladaria izan dela, sentimenduen eta gisa egoeren kanpai pasibo, oihartzunlaria. Eta ezin uka neurri batetan ori bera gertatzen dela Iratzederrekin. Baina neurri batetan bakarrik. Bere poema liburutan naturarekiko komunikio estua nabarmentzen da, elkar onartze eta mireste prozesu luze baten ondorioa. Bestela esplikaezina izango litzateke poeta lapurtarren exaltazio ia mistikoa, ezinezkoa naturaren presentzia orobeteraz-

lea eta, hain zuzen ere, urte askotako harreman maitasunezkoek bakarrik uzten duten maitale zaharren arteko ulertze adierazgaitz horren grazia.

Natura esan dugu eta, beharbada, Euskal NATURA esan beharko genuke, Iratzederren kosmobisioan eta kosmogonian ez baitago Euskal ez den ezer, ez Jainkorik, ez Kristorik, ez gizonik, ez naturarik. Eta arlo honetan ere laburbildu beharrean aurkituko gara, hain da aberatsa, hain adierazgarria bere sinbologia. Naturarekin loturiko guxtienez berrogeita bat sinbolo ezberdin arakatu ditugu bere obran baina usuenak bakarrik emango ditugu.

Hasteko esan dezagun seguraski IRATZEA-HARITZA-ITSASOA trilogia-boteretsua izango litzatekeela sinbologia mota honen paradigma. Eta ez dakit noraino bereiz daitezkeen, nola hala beraiek osatzen baitute Iratzederren Euskal Herriarekiko ikuspegiaren hezurdura.

IRATZEA:

* Gero berri baten utopia lekua den euskal mendiaren iraun nahiaren lekuko da iratzea. Honela adierazten digu Indar eta Lano Liburuaren azken poeman.

"Eskual Herriko harri tartean
sortu iratze ostoa,
dena lilura ta usain gozo
iragan zaizu Hegoa:

Herdoildu dautzu, itsas aizeak
ekharri ferde bizia.
Eta, suz bethez, ethorri zaitzu
chimicht-karraskan ortzia.

Mendi buruan daldaran dago
nere iratze ostoa...
Aphalik dago baina nagusi
hartuz orenen gozoa.

Euskal Herriko ameslariak
atzar lo pisu hortarik
ar giten kantuz, soinuz ta pertsuz
IRATZERAT bildurik" (P.L. orr. 88)

Baina ez da hori bakarrik, Iratzederrek sarri trszenditu egiten

bait du IRATZEA eta berarekin beste elementuak Euskal Arima azken batez Jainkoratua izan dadin. Honela dio Zeru Menditik liburuko Axular edo lurraren kantua poeman.

... Hantchet Eskual Arima...
 iratzeri fereka, gaineri musuka,
 otheak harrotuz ta haitzak daldaraziz...
 airez aire gateko eta zeruz zero
 zirimiromirolan Jainkoratu arte " (Z. M . orr. 131)

Eta IRATZEA zenbateraino bihurtu den trilogia sinboliko horren elementu jakiteko ikusi besterik ez dugu nola Iratzeder Afrikan dagoen bitartean iratze hostoa jartzen duen urrutiko aberriaren sinbolo nostalgiko gisa.

"Noiz agertuko zait berriz neri
 euskal hurreko iratze ostorik
 haizean eta uripean dantzari,
 haizez hanpaturik, uriz mozkorturik
 mendi gainetan dantzari? (J.H. orr. 535)

Dena dela, lehen aipatu dugun bezala, oso gutxitan azaltzen zaigu iratzea elementu solte bezala. Maizago HARITZAREkin elkartuta begizta dezakegu, errealitate beraren bi sinbolo bereiztezinak. Horrela aurkezten zaigu Iratzeder bai Argiz Argi liburuan bai Uhaineri Nagusi-n bai Jaunaren Hegala bere orain arteko azken poemarioan.

Itsas aldeko marruma ihurzuri ximixta,
 iratze-gorri zirimol, haitzondo bat xut-xuta..." (A.A. orr. 30)

Gero, sinbologia historikoa aztertzerakoen argituko dugun bezala, esan beharrik ez dago Gernikako Arbolarekin lotuta dagoela haritza. Agian ez da inon Uhaineri nagusi liburuan bezain garbi gelditzen HARITZA azken batez Euskal Herri osoaren sinboloa dela eta behar bada Euskal Herri jainkotu utopiko batena bereziki. Hala dio Iratzederrek Saindu berriak poema iradokikorrean.

"Ostoak histen, adarrak hiltzen
 ari zaizkion haitzari
 bizi dadien, berpitz dadien,
 ez etor, otoi! dantzari.
 Sineste-garrak behar zaizkio

erro barnetan ixuri:
Saindu berriak behar ditu bai
oraiko Eskual Herriak". (U.N. orr. 82)

Eta ia beti berarekin doan iratze ostoarekin batera, edertasunaren eta indarraren parametro egingo du Iratzederrek.

"Mendietan den ederrena
Iratze osto;
zuhaitzetan jaunaren jauna
aiten haiz-ondoa" (J.H. orr. 539)

Dena den, beharbada Argiz Argiko "NOIZ OTE?" poeman adierazi du poeta lapurtarrak gure, euskaldunon HARITZA-rekiko konpromezua, goian aipatzen genuen jainkotze horretarako ibilbidea, eta itxuragabeko nostalgiak adierazten du gainera, jadanik errelatu haundien hil beilan egongo bagina bezala.

"Noiz ote, otez ote, noiz joanen gare ote
gainez gain otez ote?
Biak su, biak odol, noiz joanen gare ote
hegoak joan ostoez Haitza bezti arte?"

Haiz-Hego, haitz-ostoa... Ez gaiten hain zoro;
nola eta nork hil ote haitz-ostoa oro?
Haiz-hego, haitz-ostoa... Goazen lanoz goiti
lanoz lano joanez dugun... lurra jainkoz busti"

Sinbologian aritzea fortunatu zait eta ez literatur analisiaren beste arlotan baina ezingo nuke kezkatzen nauen zerbait esangabe aurrera jo. Hots hain zuzen poema honek ordurarteko eruditik atera eta beste esparru baten atarian jartzen duela Iratzederren poesigintza, T.S. Elliotthen iruditeri eta diskurtso poetikoaren bidean. Beste batean analizatzea atsegingo nukeen puntua da. Baina jo dezagun trilogiaren hirugarren elementura, ITSASORA.

Gabriel Celayarekin gertatzen den bezala nik ez dakit Iratzeder ITSASO den ala ITSASOARI Iratzeder dei diezaiokegun. Seguraski sinbolo honekin arkizen da gure poeta gustoen, bere bizikizun pertsonalen eta bere Euskal Herriaren bizikizunen pausaleku egiten baitu, bihotz, umontzi eta altzo. Itsasoa, Euskal itsasoa,

—Arbasoen bizileku da

- Infinitoaren sinbolo
- Herri menderakaitzaren ikur
- Galtzailearen erreferentzi eta pairamen
- Jainkoaren edertasunaren gorpuzdura.
- Jainkotasunaren pertsonifikazio (P.L. orr. 73)

Itsasoa Jainkotasunaren sinbolo izate hori askotan agertzen den ideia da eta fedegabeak federa deitzen dituenean ere Iratzederrek Itsasorantz deitzen ditu,

"Iduzkiz gora, izarrez gora
Argi argian argiak oro
sortzen zaikion itsasoraino" (U.N. orr. 21)

Baina poetak, Donibanekoa izanik, aspalditik du entzuna zer den itsasoa, nagusitzen den galerna, eta nolakoa infinitasun hori gurutzearen ordaindu behar den bidalaria. Horregatik behin baino gehiagotan elementu dialektiko gisa aurkeztu eta beraren bitartez erakutsi nahi izan digu naturaren beste edozein sinbolok baino hobeto isla diezagukela giza-kezkaren drama, gure egonezina eta gure amets kuttunenen porrota .

"Latso-fitsa
hunat ari, harat ari
uhainetan pulunpari.

"Latso-fitsa
zait iduri
ni neraman ametsa..." (U.N. orr. 75)

Halere, oso da bitxia nola Iratzederrek, nik dakidanez, behin behintzat indar positibotzat jotzen duen itsasoko GALERNA, euskal indarrek erdaldunenei egin beharko lieketen erasoaren sinbolo.

Poemari sarrera gisa frantsesez "Ils ont peur de nous" jarri ondoren honela goraiatzan du desiozko euskal indar izugarri horren eragina,

"Itsas-aizeak jo mendi-gainetako harrok hezurreri
aztaparka dauden haitzburuak bezein ileak buruan
galernatsu,

eta behakoa, bekain beltzen pean, mendez mendetako

erdal indarrerri, gogor egin duten gure arbasoek
bezenbat su..." (A.A. orr. 42)

Eta hortik aurrerako sinbologia laburbildu egingo dut eta gainetik pasa azterketa serioagoa beste aukera baterako gelditzen delarik. Dena dela arreta haundiz analizatzea merezi duenaren sinismenean nago, poeta gutxi baitugu euskaraz Iratzederrek bezain mitologia aniztua eta zehatza erabiltzen duenik. Besteak beste gogora ditzagun.

—Askatasun EGUZKIA, seguraski gerrate garaiko kantaren oihartzun.

"Argi churi zirrinta, urhez gorriturik...
Laster haizatu baitu gaua haizetarik..." (P.L. 24)

—ILHUNBEA, tristezia aroaren sinbolo (P.L. orr. 32)

Hala ere Iratzederrek erabili izan du beste zenbait esanahiekin. Batez ere Pindar eta Laino liburuan, Nemesio Etxanizen Angelusaren parafraasi antzeko zerbait egitean. Ez hori bakarrik, ordea, poema irakurri eta gero XIX. mendearen bigarren zatiko errealismoranzko bidaia egin eta Milleten pintura guzti *iradokikorretik* ateratako gogartea baiturudi. Argi horren arabera erroko berdintasunaren sinbolo litzateke, noizbait denok egin belar dugun "etxeratze" ekidiezinaren oroimen. Hunkigarri egiten du gainera poetak.

"...eta behiak marrumaka etchea alde datortzi,
haurraren deia nunbeitik baitute entzuten..."

mundua, zoin gocho zaren lokartzerakoan!

Gogoa lanhodun herrian arinik zait ibilki.
Arantza baino gorago badoa ezkila:
direnak oro othoitzean ari dira echtiki
nihau othoitz egina niz...airetan nabila.

Zato, nere gogoa, zato! goazen laster hotz baita;
goazen suko sorgin dantzen luzaz ikustera". (P.L. orr. 58-59)

—Hala ere ezin izango dugu ahantzi, gehienetan kontzologarri baino, beste Euskal Herriari buruzko ikuspegi ilunago, ezkorra-

go, etsipengarriago baten islada izaten dela ilunabarraren sinbologia poeta donibandarrentzat. Gogoratu bestela.

"Bortz urthe gaur ginela ametsetan ari
eskual ilhuntze batez gainetan kantari..." (Z.M. orr. 185)

Gauza berbera gertatzen zaigu ilunabarren ondoko GAUA-rekin, heriotzaren azken tristeziaren oroigarri zaiola Iratzederri, batez ere amaren heriotza oraindik bihotzaren erdian duelarik.

"Gaua da gaua, gau beltza
sor gelarat baiterama
gau beltzak ene bihotza:
entzun, ama; ni naiz, ama!" (U.N. orr. 27)

lido beretik doa HAIZEAREN sinbologia, heriotzaren garraiolari bezala, Pindar eta Iano liburua bederen.

—Larrun mendia, normalean, bizitzaren zenbait egoera ezberdinen sinbolo lez agertzen zaigu. Euskal Herri sakonaren lekuko gehienetan... eta behin besterik ez bada ere -oso arraroa baita gai hau Iratzederrengan- maitemintzearen espazio. Gogoratu nahi dut bere bertsoa.

"...uda goizetan, irriz, jauzketa, gazteak jiten zauzkitzu.
Zenbaten duten zerutik hurbil gahin hortan elgar maitatu.
(P.L. orr. 46)

—Bestela, esan dezagun EZKILA eternitateko zoriontasunaren igarile gertatzen dela, (P.L. orr. 69) OTE SUA gure hilezkortasunaren keinu den bezalaxe.

"Ote-suko pindarra
zeruan Izarra;
gure gorputz-hilkorra
zerutu beharra" (J.H. orr. 523)

SUA-ren ikurrak baditu beste zenbait gauzatze prozesu. Besteak beste:

- * sugarraren "boz pollita" musika ederraren oroitzapen (P.L. orr. 80)
- * Sua arbasoen bozaren deiadarra da alde batetik euskaldun

gaitzen kantuak eta dei latzak entzun ahal izateko eta, bestetik, haizeak Aiten nigarra Bizkaitik ekarri diolako. (P.L. orr. 80-81)

- Oro har LOREAREN sinbologiak ez du garrantzizko tokirik Iratzedarren mundu poetikoan. Zera esango genuke, noizbait edo, eskaini digula lilia adiskidetasunaren xamurtasuna adierazteko. (P.L. orr. 79)

Harrigarria badirudi ere sarriago eskaintzen digu denboraren iheskortasunaren itzal gisa edo edertasun joanaren ihartze prozesu gisa.

Ez atxik bihotz erroak lurrari lotuak,
utz, bertzen trufen lotsekin, irri eihartuak"... (A.A. orr. 48)

Eta beste poema batean zentzu arras misteriotsuz ikus dezakegu, udaberria bersus harri beltzetako LORE ezaz mintzatzen zaigunean. Halere, nik uste, gerrari buruz ari zaigu Iratzeder eta segur asko Gernikako horma beltz, suntsituak lirateke lore ezaren aberri .

"Udaberria irriz
dago munduari:
harri beltzetan lore
guti zait ageri.
GERNIKA!" (P.L. orr. 32)

- IZARRAK, doantasunaz emaniko bizitzaren sinbolo dira (P.L. orr. 90)
—XORIEI eginbeharra Jainkoaren atseginerako kantari izatea da (Z.M.orr. 107)
—HEGOA, bizitzaren haizearen sinboloa den bezela (J.H. orr. 486), Afrikako LUR IDORRA ikusi gabe sinesten dutenen esperantzarako sinbolo (J.H. orr. 536) eta UR LASTERRA ukitzen duen oro lore bihurtzen duen maitasunaren ikur (J.H. orr. 538)... beste muturreko dramatiko batetan UDAZKENA bidaiaren azkenaren oroimen izango da. (A.A. orr. 36)

Arlo honi amaia emateko zera esango genuke. Orokorrean hartuta IZADIA

- Gure sentimenduen islada, ispilu dela (P.L. orr. 46)
—Jainkoari kantatzen dion orkestra zoragarria dela (Z.M. orr. 123)
—Bere ezagupena arimaren egoerak adierazteko ezin hobea dela (Z.M. orr. 130)

—Bertatik atera ditzakegula eternitate zorionsuaren sinboloak
(Z.M. orr. 150)

—Eztabaidaren ikur ere izan daitekela (U.N. orr. 22)

Xarmangarria da arlo honetan ere Iratzederrek nola interpreta dezaken natura klabe bibliko batetan ikustea, salmoen parafasia egiten egongo bailitzan edo Nazaretoko Jesusek berak gizonaren semeari buruz zioena, bere lehen jarraitzaileei gerta zakiekenaren programa aurkezterakoan.

"Usoak badu bere chokoa,
ainharak ere umen-ohantze beroa.
Nere errege, nere Jainkoa, ez othe duket zure altzoa?"
(Z.M. orr. 104)



SORKUNTZA

Hamar kanta udako

PATXI EZKIAGA

Lasciate-utz ezazue (Dante)

Lasciate ogni speranza, o voi che entrate.
Halabaina ate horrek erakartzen gaitu
misteriozko leize barnerako haitzarte
bailitzan, zelaian bildu aurretik ondu

behar den belarraren azken urrin gozo.
Lasciate. Utz ezazue. Baina esperantza
larru-bizi zaigu, poema baten antzo
gure azalean, amets guztien triskantza

egitera bultzatzen gaituzten orduan,
desagertzeaz tatuiaturik dauzkagun
izenak eta amodioak, liburuan
jada aingeruaren oharrak. Idazteun.

Lasciate. Baina guk ez dugu ezer utzi nahi.
Eman zaiona gordetzen duena esker
oneko delako, nahiz bizitzaren uztai
laburra maiz samar gertatu zaigun anker.

Zuri, maitea, haraneko ispilu
haundiaren aurrean biluzik,
zure haragi argitsuaren urrekaraz, zilarrez, perlaz
bekaizti eta lapurrean
belarrak, loreak eta urak.

Dardarakada bordaren atarian,
karnabaren arrastiriko kantua
ganbarako leihotik nigana
eta zutaz lurrinduta
belar onduak eta mendafina
eta zutaz dirdirka
tximeleta
ezjakinean oraindik
zure arragoan ez direla
hegoak erretzen
baizik arima.

Behia eta zezena etxekita bortuan,
milioika urtez amodio berdina
Novalisen bertso ederraren tonuan:
Gorputza ukitu, ez zeruan baigina

baizik zeruan. Eta zerua ukitu,
baina ez ortze atmosferiko urdina,
gu bezain lur ta guk duguna zerutu.
Zerua, gau beltzaren izar uhina,

lurrean maite diren gizon-andreen,
amodiozko mundu guztien ispilu,
hatzez, ezpainez fereka daitekeen
Jainkoaren Zeruetako Erreinu.

Amodiorik ez dazaguen geroak
ez baitu gerorik eta, dakidanez,
laztanetan gorituriko beroak
sortu baininduen egun ezti batez.

Bizitza baino iresten ez duen bizitzak
ezin betiereko iraun eta horregatik
ikasi dugu heriotza jaten, balitzak
eta badirak gure plateran haurtzarotik

harik eta ematen dugun arte azken hatsa.
Jakinik gugan dagoen herio instintoa,
bidai luze hontan itsatsi zaigun lokatza
bezala, ez dela gurea baizik jaso.

Jakinik aberatsari eman dizkiogula
ideiak eta pobreari ikuskariak,
dutena soilik zaien arren sendo, mardula,
arbuiauz ameslarien begi zoliak.

Ahantziz mekanika baino zaharragoa
dela bizitza eta iragarki-spotetako
emakume irribartsuen dei mitikoa
baino eztiagoa zurea, eta hurbileko.

Jakinik alua, zakila eta bularrak
Santimamiñen ez zirela pornografia
baizik jainko ezkutuaren lehen aztarnak
maitasunaren bidetik gaitezen abia.

Zure gauetarako lumigasa,
ikustezinaren zitzelari;
haize kupelen, loredien nasa,
ur, harkaitz berrien ameslari.
Lainoberen etxerako alasa,
argi dardararen mozkorreri,
oin lokaztuen hurrengo urratsa,
begietako irri kulunkari.

Zure gauetarako kriseilua,
babesetik kanpo hain murrirtza,
mozkorraren bazterreko gernua,
andre baten itzal harrapagaitza;
bide atzeko gurdi abandonatua,
txoritzar kurpilduna bailitza;
zakurraren ibilera zalua,
azken txanpa guztien baliza.

Zure gauetarako argizaria
asmo eta arreguren kabia,
argi-nahi neurrigabeen haria,
iluntasunen filosofia,
jatorrizko munduentzat karia,
dugunaren begi nahasia,
oroimen zitalen errukaria
beltz eta zurien hitz hautsia.

Lehen nintzena ez izateko bat egin
eta hil, sexu barrenak egin baitu
heriotza izan gaitezen maitemin;
bat, bat bakarrik izatearen izu

larria, bat izanaren bakardade
hotza gainditu eta askosez niago
nadin. Eta amodioaren edabe
betikotzailea hartu batuago

gaitezen, ez biren bereiztapen urrun
baizik batasun. Eta gure kopetan
zirriboratu argi guztien ikur
zerukoia: ez garela laztanetan

baino, azalarekin epelduz azala,
gorputzen lokarriz loturiko arimak,
asetzeko itsasoa bezain zabala
zaigun egarria, gaur eta antzina.

Uda kanta

Busti ezazu zure hogeita zortzi urteko bihotza
ostadarraren pentzeletan
eta argi ezazu berriro urtaro iraganen aurpegia.
Feria-karruseletako zaldiño baizina
ibili dituzu, herriz herri, festaz festa,
bide guztiak,
biraka, biraka beti;
haurren begiraden intentsitatea,
amen soaren harrotasuna
zukan,
pasio behin
deslilurapen bestetan,
galtzaileen min guztien ihauterian
dantzatu beharko bagenu bezala,
autobusetan, tabernatan
utzitako amodio printzak,
aterkiekin batera,
zigarro mutur eta garagardo aparraren
ondoan.

Joan-etorrian ikusi zaitut,
gaueko espresoak utzitako kaian,
malkoak zukan, malkoak nigan
bion agurrerako banderak bailiran
Baina zu presentzia ezabagaitza zatzaizkit,
zakurrak abenidan bezala
eta ilbetea gure haraneko zeruan.
Zuk taiutu dituzu aspalditik
egunsentiak eta koloreak niretzat.
Eta dagoeneko ez dakit zer den denbora.

Traktoreak belardian gora eta behera dabilta
bilduz orain bi aste zuretzat uste nituen
lore eta belar onduak.

Belagoa igel eta birao kantu egin da.
Den dena orainaldi eta premia bilakatu zait.
1983tik zaude haranean. Nirekin.
Ganbararen metalezko teilatuak
haizetearen orroa eskaintzen digu
eta, larritasunez, euri tanta.
Iratzez, urez eta izaiez gainezkako Mazetik
oreinaren dei amodioz mozkorra datorkigu
izarrekin lehian eta lainoberarekin.

Maitea,
jar itzazu bata bestearen ondoan
zure mila begiak
eta osa ezazu zure uztaiak.
Gure laztanen gorria dauka
eta gure ezpain lotuen usaina.
Gogora ezazu,
baina amets egiten duzunetan bezala
gogora
egin dugun bidea,
elur-jauzi
lehorte
doinu
eta,
biok bakarrik uler dezakegun iheroglifiko moduan,
gure halabeharrezko helmuga
batua.

Eta gogora ezazu,
baina amets egiten duzunetan bezala
gogora
zentzumen biluzen kantua dela
ondino ederrena
eta, musika horretan betikotasunarekin esposaturik
dagoela oraina
eta ez dudala hitz gehiagoren beharrik
eraiki ahal izateko
zure ertzetik nirera
dihoan zubia.

Ezerezak apainduriko saloian
dantza eroan diharduten gizakiak
gara, ezjakinarena gure erraian
eta aspaldidanik, dohan, materiak

eman digun zalantza dantzakidetzat.
Antzerki huts bateko hondar alea
baigina, teoria hotzak guretzat
eta, gero eta nekezago sinestea.

Irakurri berri dut. Eta halere
uste dut atomo bakoitzak duela
kanturik eta gure erritmoak bere
dantzari ezartzen diola ustela

eta biziaren arteko lotura;
sorkuntza garelako eta hondamen,
ezer jaio, ezer hil gabe, natura
infinito aldakorra. Lilura.

La Quai d'Orsayn sartu berri naiz
eta eseri andre biluzaren
aurrean, bular sagarrak ekaitz
ondorengo muino dirdaitsuen

ispilu, bilo sarria bizi
iturriaren ondoko belar
xamur. Eta Paris udaberri
dela gogoratu dut, eme-har

sintesiaren eguzki, sagar-
mendi bikoteen amodio,
oroiturik, behingoz, ozpin-negar
haina garela dantzari-ardo.

Gure ikuspegia hala den arren
mundua ez dela, ez, ilusio;
ilargi, lur eta ekiaren
lotura-haria ez dela adio

baten hauts baizik betiereko.
Xori migralarien bidaiak
maitemina duela medio,
argi-itsasoa kai gure ibaiak.

Ai, nire azken tristezia hotza!
jakin haurtzaro orok duela,
zahartzaro eta heriotza,
beste batzuk izango direla

nire ordeaz haur, haien oihuak
gaitzespen baten seinale labur,
batealarien amorruak
hautsiriko pilotaren ikur.

Hainbat maitasun, hainbat maitasun,
eta halere heriotza garaile!
Hainbat erloju, hainbat erloju
eta jakin oraina halere

haur jolasen aurretik amaitzen
dela, eta galdetu posible den
bizitzea izar ttipi baten
barruan, herio gorputz honen

ezbestelako batean, hotzez
jantzi gaituen kimika utzi
eta Bideak, Egiak lorez
beteriko etxe berrian bizi.

Noiz baina.....!

(90.eko I. LEGAZPI Antzerki Saria)

YOLANDA ARRIETA

Idea bat, besterik ez

"Bizitzaren sentidu eza", entzuenegia litzateke.

"Amodio istorio bat ere", baka-rik, ez da.

Ez dakit, bi hitzetan, nola labur daitekeen obra honen mamia.

Behar bada, aipatu ditudan guz- tiekin sorturiko egonezin bat bai- no ez da.

Izan ere, zientifikoek deitzen dioten "pilota erraldoi" honetan, bakoitzak ahal duen moduan denbora "ematen" ari garelako. Noraezean, batzuetan. Argi eta ziur, baina, minik eman nahi ezta, besteetan. Beldurrez, gehienetan... Denbora guztia geurea delakoan. "Bihar" hitzak barnean lorez, musikaz eta gra- ziaz beteriko amets bat darama- lakoan... Bitarteko denbora — errekako uraren gisa—, ez dela gehiago leku berberetik pasa- tuko konturatu nahi ezta...

"Bizi izateko era bat baino ez da..." dio Iñigok.

Denbora emateko era bat baino ez... da bere oihartzuna,

"Noiz baina...!" Amaiaren bizitza ulertzeko era...

"Funtsean, zer...?" jakin nahi nuke nik.

Ea zeuek esaten didazuen...

Zatiketa

Hiru zatitan banatu dut obra. Hiru aldi nagusitan.

Zati bakoitzak, halaber, bes- te hiru "zatitxo" ditu. Aldi ba- koitza ere, beste hiru aldi edo "denboraldi" desberdinez osatu- ta dagoelako.

Hiru zati nagusi hauen bana- keta arropa eta fokuen tonuak markatuko du: Argitik ilunerantz. Denboraren joanak dakarren hel- dutasun ikutua emateko asmo- tan.

Hara hemen, "zatiketar"en edukia:

I: *Umearoa*: 6/7 urte, 12/14 eta 17/18 urte dituzte protagonistek, aldi bakoitzean. Bizitza norbereganatzen ari dira, Aldaketa nabarmenak gertatzen zaizkie. Baina "oraindik denbora dago...!" litzateke euren lema.

II: *Helduaroa*: 23/25 urte, 30 inguru eta 35/40 urte dituzte. Gauza pila bat gertatzen zaie, oso denbora gutxian. Aldaketa nabarmenak, oso epe laburrean. Aldaketa erabakikorrek, gainera. Bizitza "uholdetua". Baina muina ere, bertan. Aro betea, intentsoa. Erabakiz, aldaketaz eta kontradikzioz betea.

III: *Zahartzaroa*: 50 urte, 60 eta 75 urte inguru. Protagonistek bizitza eurenaganatuta dute, dagoeneko. Bizitza ez da "uholdetua". Behin egindako aukeraren ondorioa, baino. "Kontrolatua", beraz. Aldaketa gutxi. Baina aldaketa erabakikorrek. Denbora gutxi dagoelako. Eta esperientziak pisu handiegia duelako, ikasitako guztia albo batera utzi behar baitean.

Pertsonaiak

Amaia eta Iñigo bi pertsonaia dira. Hala ere, bik zein lauk, zein seik, zein zortzik, zein... hamazortzi aktore/aktoresak bete ditzakete hiru ekitaldiotan ager-

tzen diren "Amaia" eta "Iñigo"en rolak.

Egoeraren, nahiaren, behar-raren edo halabehar-raren eskuetan uzten dut aukera. Eta, jakina, zeuenenean.

Tokia/tokiak

Ate aurea, kale ertza, batarren etxea, bestearena... Toki asko agertzen dira obran zehar. Espazioa hutsik ikusten dut, ordea, nik. Aldi bakoitzerako behar diren tresnak eta akzioa bera protagonista bihurtuz.

Horrela bada, egorek, pertsonaiek eta bizpahiru objektu adierazgarri markatuko lukete aldian aldiko "tokia". Ikuslearen irudimena martxan jarritz. Ikuslea bera ere partaide bihurtuz.

Fokuak argi eta distiratsu egongo dira, hasieran. Gaztetasun eta freskotasun itxura emateko. Obrak aurrera egin ahala, fokuak murriztuz eta kondentsatuz joango dira. Denboraren joana erakusteko, alegia.

GARAIA

Obran gertatzen dena oso ondo koka daiteke gaur egunean. Aro bakoitza eta aro bakoitzeko denboraldi bakoitza, denak soltean hartuz gero, behinik behin. Honekin, guztionekin zera esan nahi nuke: Amaiaren eta Iñigoren istorioak mantentzen duela orden kronologiko bat. Bai-

na, era berean, zati guztiak oraingoak "aktualak" izan daitezkeela.

Nola izan daiteke hau?

Hara, nik nolabaiteko ikutu "atenporala" eman nahi izan diot lanari. Istorioan gertatzen diren gauza asko gaur egun ematen direla uste dudalako. Era berean, istorio guztia fikzio hutsa, ipuina, parabola, ametsa? bailitzan agertu nahi dudalako.

Arropak

Arropak sasoi bakoitzeko pertsonaiarekin bat joango dira. Egungo diseinua izango lukete, era berean. Hala ere —eta aurrekoari jarraituz—, fantasia edo ikutu "atenporala" izango lukete: Oihal argi eta arinak, denborarekin iluntzen eta astuntzen joango direnak. Aldi bakoitzean zerbait gehiago "erantsiz", alegia.

Amaia eta Iñigo. 6/7 urteko azukrideak. Bazkal ostea. Amaia-aren etxeko ate aurea.

(Iñigo sartzen da bat-batean. Amaiak ez du ikusten)

I: Kaixo! Zer egiten...?

A: Tonto! Kristoren sustoa eman didazu...

I: Bazkaldu duzu?

A: Aspaldi. Eta zuk?

Hau guztia, zergatik?

Denboraren joanari eman nahi izan diot garrantzia: Horretarako legoke arropen eta dekoratuaren argitik ilunerako aldaketa. Denbora hori dela-eta, pertsonaiak "heldu" egin direlako. Apurka-apurka, bitarteko gorabeheren eraginpean. Prozesu hau ezin delako inondik inora desbidiera.

Hala ere, hau guztiau proposamen bat baino ez da. Nik neuk lan guztia -istorio, egitura, moldaera- bere osotasunean ikusi izan dudalako neure irudimenean.

Horregatixe, bada, ohar edo erantsi hauek guztiak. Testua, berauekin batera atera zaidalako. Eta ez bera bakarrik, solte eta alargun.

I: Bai... Beno, ez... Oilaskoa ez dut bukatu...

A: Ba nire aitak esaten du, dena jan arte, ez dagoela aulkitik jaikitzerik.

I: Ba...! Niri ere bai. Lehen... Baina ia ez. Zer egiten duzu?

A: Idatzi. Ez duzu ikusten, ala...?

I: Bai... Eta... Zer idazten ari zara, ba...?

- A: Ipuin bat.
- I: Ala! Oraindik ez dakizkizu hizki guztiak-eta...!
- A: Bai! Badakizkit! Eta zeuk ere bai! Atzo bertan bukatu genuen liburua-eta...!
- I: ...Bai... Baina... ipuin bat idazteko asko jakin behar da...!
- A: Ba nik asko dakit.
- I: Ezetz jakin, ezetz jakin... Amerika non dagoen...
- A: Amerika... Amerika...
- I: Bai, bai... Amerika... Ezetz jakin!
- A: Amerika... Itsasoaren beste aldean!
- I: Non, baina?
- A: Ba... ba... ba... han! Beste aldean!
- I: Bai, bai... Baina, non?
- A: Ba... han... Hondartzatik ikusten da ba... urrunean..., marra bat... Zeruaren eta uraren erdian dagoena... Ba marra hori pasatu eta beste aldean.
- I: (Pentsakor) Ezin da.
- A: (Bere lanari jarraituz) Zer ba?
- I: Ezin delako!
- A: Zer ba...?
- I: Ba... Amerika kristorena delako, eta marra hori... ba horixe... marra bat delako bakarririk. Ez dago tokirik! Marra izan beharrean horma izan balitz...
- A: Ala! Horma...! Zuk ez dakizu, ala, urrunetik gauzak txikiagoak ikusten direla...?
- I: (Ulertu ezinik) ...Nola, "txikiagoak"?
- A: Ba... Txikiagoak... Txikiagoak!
- I: (Ez du ezer ulertzen)
- A: (Lana utzi eta lñigori begiratu) Aiii!... Joan hara!
- I: Nora?
- A: Hara...!
- I: (Beste aldera doa) Eta orain, zer?
- A: Nolakoa naiz?
- I: ...Ez haserretu, e? ...Potolita...
- A: Ezetz! Txikiagoa! Lehen baino txikiagoa! Ez duzu ikusten, ala?
- I: Noiz, "lehen"?
- A: Lehen. zu hemen, neure ondoan egon zarenean... Etorri!
- I: (Zintzo, aginduari jarraituz) Hemen nago!
- A: Ez naiz, orain, handiago...?
- I: Boligrafo marra bat duzu sudur puntan...
- A: Non? Hemen?
- I: Ez. Gorago. Ala! Orain, gehiago! Paiasa bat ematen duzu...!
- A: Hostras! (Eskuei erreparatuz) Boligrafoa lehertu zait. Ala! Eta papera! Paper guztia zikindu dut!! Nire ipuina...!
- I: Itxaron! Ez ikutu. Ez ikutu

- ezer...! Dena zikinduko duzu-eta.
- A: Nire ipuina... Ez da ezer irakurtzen... Nire ipuina... Kaka zaharra!
- I: Itxaron...! Neuk garbituko dut!
- A: Bai... Zerekin...?
- I: Itxaron... Tatxan-tatxan! (Painolu bat ateratzen du poltsikotik) Izeba Rosak oparitu zidan...
- A: (Ixilik, lñigok egiten duenari begira)
- I: Begiratu? Iasta! ...Mantxak igartzen dira baina... (Beste aldera alde eginez) Urrunetik... ez dira, ia-ia, ikusi ere egiten...
- A: ...Eta zer esango dizu amak painoluarengatik...?
- I: Ezer ez! ...Esango diot boligrafoa lehertu zaidala. Eta praktikak ez zikintzearren erabili dudala...
- A: ...Baina hori ez da egia...
- I: Ez, dena ez. Baina erdia bai. Boligrafoarena egia da. Praktika...ez, zuk gaur soinekoa ekarri duzulako... Baina berdin dio! (Painolua poltsikoan gordez) Joango gara hondartzara harriak uretara botatzera...?
- A: (Poltsatik arkatza atera eta berriz ere paperean murgilduz) ...Ez da harririk bota behar itsasora.
- I: Zergatik ez?
- A: Arrainek min hartzen dutelako.
- I: Bai, baina arrainak urrun daude eta nik hurrera botako ditut...
- A: Berdin da... Ze gero, mareak gora egiten duenean, berriro itzultzen dira, eta aurreko egunean harririk ez zegoenez, pentsatzen dute orduan ere ez dela egongo, eta danba!, Kristoren burukoa!
- I: Harritxo batengatik bakarrik...
- A: Bai harritxoa! Kanterako harriak "harritxoak" al dira zuretzako?
- I: Ala! Ez! Kanterako harriak, kanterakoak dira!
- A: Bai, baina nolakoak dira zuretzat?
- I: Nolakoak izango dira, ba? Handiak!
- A: Ba arraintzako ere, zure harritxoak handiak dira.
- I: Ez da berdin... Gainera...
- A: Gainera, zer?
- I: (Ernegatuta, irtenbiderik ez duelako ikusten) Aj! Zuk dena dakizu!
- A: Dena ez. Baina asko bai. Eta zeuk ere bai.
- I: (Ernegatuta, Amaiari entzun gabe) "Urrunetik txikiagoak", "harriak handiegiak", "txikia", "handia"... Zurekin ezin da ezer esan! Dena dakizu!
- A: Dena ez, baina asko bai. Lehen ere esan dizut. Baina

- zeuk ere bai. Pasatzen da, leihotik begira egoten zarela beti...
- I: (Ixil une baten ondoren) ...Amaia...
- A: (Bere eginkizunetan, buru-makur) Zeeeeerrrr?
- I: Bazatoz bizikletan ibiltzera?
- A: Ez. Orain ezin dut.
- I: Benga... Buelta bat bakarrik.
- A: Ipuina idatzi behar dut.
- I: Iturriraino bakarrik...
- A: Ez Iñigo. Hauxe bukatuta gero.
- I: (Amaiari begira)
- A: (Eskuetakoari utzi gabe) Nagusitan idazlea izan nahi dut.
- I: (Guztiz haserre) Ba, gero, "potola" deitzen dizutenean, negar egin, e...
- A: (Eskuetakoari utziz) Nik ez dut negarrik egiten!
- I: Bai...! Bai egin zenuen, behin. Josuk "potola" deitu zizunean...
- A: Baina bera hankokerra eta begiokerra delako... Eta mukiak jaten dituelako... Eta gainera, tontoa, leloa eta artaburua delako...! Horrexegatik egin nuen negar!
- I: (Irtenbiderik gabe) Beno, bazatoz ala ez zatoz?
- A: (Bere lanari ekinez) Ez.
- I: Ondo dago. Joan pikutara. Potola-la! (Alde egiten du)
- A: (Lana utziz) Eta zu... Buruhandi... Hagin oker...!
- Denboraldi aldaketa: 12/14 urte dituzte, orain. Aldaketaren bitartean, Amaia eszenatokian.
- A: (Publikoari, haserre) Hm! Ez dakit zergatik haserretu zen...! Neuk haserretu behar nuen! Eta ez berak! Potola. (Ilea askatu. Haginetan apartoa jarri. Traba egiten dio eta txarto hitz egiten du). Bost edo sei urte pasatu dira, eta ez dut oraindik ipuina bukatu. Baina bukatuko dut! Oraindik denbora asko dago! (Ipurdia ikutuz, eta sekretu gisa kontatuz) ...Atzo, "hilekoa" jaitsi zitzaidan... Lehen aldiz. Eskerrik! Lagun guztiek daukate, iada. Neu falta nintzen bakarrik. Ordua zen. A...! Eta atzo (ia ez hain pozik) dentistak aparatu hau egunean hogeitorduz erabiltzeko agindu zidan. Nagusitan hagin dotoreagoak edukitzeko. (Eskolako motxila hartuz, etxera itzuliko duen autobusaren zain, aparatuari zirri eta mirri. Iñigo heltzen da, korrika. Noski, "nagusiagoa" da)
- I: (Arnasestuka) ...Hostras! Pentsatu dut, alde eginda egongo zinetela, dagoeneko...!
- A: ...
- I: Aspaldi etorri zara?
- A: (Beste aldera begiratuz) ...Ez...

I: Zer ordu da?

A: (Eztul eginez eta ahoa eskuaz tapatuz) Eta hamar.

I: Jo! Laurdenetako etxean egon behar dut! (Amaiari) Partidua botatzen dute! "España-Eskozia". Mundiala!

A: ...

I: ...Amaia...

A: Zer?

I: Neskei zergatik ez zaizue futbola gustatzen...?

A: (Sorbaldak jasoz) Hm!

I: Ez dut inoiz ulertu, "futbol" hitza entzuteaz bat, zergatik jartzen duzuen nazka aurpegi hori...

A: (Hitz egin nahi, baina ixilik)

I: Amaia...

A: (Albora begiratzuz) Zer?

I: ...Haserre zaude nirekin...?

A: (Eskuaz sudurrari hazka eginenez) Ez.

I: Jope...! Ez didazu begiratu ere egiten...!

A: (Ezer esan gabe, begiratu eta irribarre egiten dio, ahorik ireki gabe)

...

I: ...Jope! Noiz ote dator autobusa? ...Hemen egoten da "eta hamarrea". Eta gaur... kaka zaharra!

...

I: Bazoaz kanpinera...?

A: (Sorbaldak jasoz)

I: Etxean ez dizute uzten, ala?

A: (Buruarekin baietz)

I: Ba orduan... A! Badakit zergatik ez duzun joan nahi... Josu doalako...

A: (Buelta emanaz) Ez.

I: Bai... Beti potola deitzen dizulako...

A: (Haserre, baina ixilik)

I: Bai. Ezta? Ez egin kasurik! Hankoker bat baino ez da... Oso ondo pasatuko dugu! Nik esan diot amari, botak eta kantinplora erosteko. Eta osabak zaku plumiferoa utziko dit... Ez omen da hotz tantarik ere pasatzen... Lumaz beteta dago! Zuk badaukazu zakurik?

A: (Buruarekin ezetz)

I: (Poz-pozik) Osaba Pedrok bi ditu! Nahi baduzu, eskatu egingo diot bat. Bai! Bai, bai! Larunbatean etorri gurera, eta biok joango gara etxera. Iku-siko duzu, ganbaran gordezten ditu denak: Kanpin dena, koltxoneta, farola... Dena. Den-dena dauka. Ikusiko duzu...

A: (Irribarrez dena entzuten, baina ahorik ireki gabe)

...

I: Zer ordu da?

A: (Erlojua erakusten dio)

I: Terdiak! Jodeeee! Kaka zaha-

- rra! ... (Amaiari) Joango gara, oinez?
- A: (Ezetz buruarekin)
- I: Zeu lehenen, eta ni zure ondoren.
- A: (Ezetz buruarekin)
- I: Jode Amaia! Enroilatu zaitez!
- A: (Eztul eginez) Joan zeu.
- I: Bai, bakarrik, ezta?
- A: ...
- I: Jo Amaia, txikitan neuk laguntzen nizun beti bidea gurutzatzen... Eta amak txakurrak zeuden etxeetara erreka-duetara bidaltzen zintuenean ere bai...
- A: ...
- I: Eta hondartzan, olatu handiak egoten zirenean...
- A: (Eztulka batean, eskua ahoan) Ezin dut.
- I: Zergatik ez?
- A: (Sorbaldak astinduz) Hm!
- I: Jo, Amaia! Arraragoa zaudede...! Beno, egin nahi duzuna. Ni banoa...
- A: ...
- I: Banoa, e...? Hogei gutxi dira... Agur... Bakarrik geratuko zara...
- A: (Zerbait esan nahi, baina ixilik)
- I: (Berriz neskarengana hurbilduz) Egin nahi duzuna... Eta bihar ez etorri niregana bizikletaren katea irten zaizulata... Zeuk konpondu beharko duzu! Zeuk bakar-bakarrik! (Alde egiten du)
- A: (Bere buruari) Nola joango naiz, baina? Katxarro honekin? (Aparatua, eta konpresa) Eta lau hilabete zaldi aurpegi honekin...? (Aparatua kendu eta poltsikoan sartu. Konpresa ondo jarri) Iñigo! Iñigo!! Iñigo!!!
- Denboraldi aldaketa: 17/18 urte dituzte.
- A: (Jendeari. Ilea orraztuz, takoiak jantziz, begiak eta ezpainak margotuz) Baina Iñigok ez zidan entzun. Alde eginda zegoen. Korrika joan zen, eta auzoko Luis geratu zitzaion kotxearekin. Beste bost urte pasatu dira. Kendu didate aparatua. Datorren urtean, Unibertsitatara joango naiz. Ipuina...? Ez dut astirik...! "Zita" bat daukat... Ai! Hor dator...!
- A: Iñigo! Iñigo!! Eramango nauzu, mesedez, motoan herrira?
- I: Zertara zoaz, ba?
- A: Gauza batera...
- I: Zer gauza?
- A: Zer gauza, zer gauza...! Errekadu batera...
- I: Zergatik ez zoaz oinez?
- A: ...Urrun dago...
- I: Urrun? Bi kilometro baino ez.
- A: ...Ez, baina..., zapatek min ematen didate.

- I: Berriak, e...?
- A: Bai.
- I: Ea... (Hanka zapalduz)
- A: Ai! Benga, Iñigo! Eramango nauzu, bai ala ez? ...Zazpietarako egon behar dut...
- I: Bateren bat duzu zain, ala...?
- A: ...Ez dizu axola...
- I: Zita bat duzu...?
- A: Agian...
- I: Benga, ...norekin...?
- A: Ai, Iñigo! Ez zaitetz kotila izan! Gainera, ez dut baietzik esan. "Agian" esan dut, bakarrik. Eta "agian" ez da "bai".
- I: Bai..., baina zapata berri horiekin... Eta hostras!, "rimela" eman duzu!
- A: Ez dut eman...
- I: Bai...! Neure arrebek ere ematen dute, eta horrelakoxe masa edukitzen dute begi bueltan.
- A: (Mundua jausi balitzaio bexalaxe) Korritu egin zait? Zer daukat? Beltz?
- I: Ez, ez... Bakarrik, horixe. Masa apur bat begi bueltan...
- A: (Poltsatik ateratako ispiluan begiraturaz) Iñigo... Benga..., goazen... Hogeia duro emango dizkizut...
- I: Amaia! Zer uste duzu? Ehun pelagatik salduko dudala neure burua? ...Lagunduko nizuke... eramango zintuz-
- ket... Baina orain, ezin dut. Ordu laurden barru, "agian"...
- A: Agian, agian... Kaka zaharra! Jo Iñi, joan eta etorri da bakarrik. Hori baino ez... Berton zaude bost minutu barru...!
- I: (Berehala konturatuz) Amaia! Zer egin duzu ilean?
- A: (Disimuluz) ...Ilean...?
- I: Bai.
- A: ...Ezer ez... Garbitu, bakarrik...
- I: Bai, eta kolore hori? Ez zinen ba errubia?
- A: (Berehala konturatu balitz bezala) A! Bai...! Hauts batzuk eman ditut...
- I: Ala! Tintatu egin duzu!
- A: Ez! Ez dut tintatu! Hauts batzuk bota ditut, bakarrik. Uraz kentzen dira.
- I: Gure amak ere, ia-ia, astero tintatzen du burua, potinge usaintsu batekin. Aj! Nik ez dakit... Bakoitza den bezalako da... Ez dakit zergatik egiten dituzuen horrelako gauzak...
- A: Esan dizut ez dela tinteaa... Ba! Alferrik da! ...Beno, azkenengoz: Eramango nauzu, bai ala ez?
- I: (Irribarretsu, erdi txantxetan) Nola eskatzen da?
- A: (Geroz eta sutuago, baina belauniko jarriz) Mesedez eramango nauzu... (berekala damutuz) Zoaz pikutara! Hu-

- rrengoan ez niregana etorri konbinazio/permutazioak nola egiten diren galdezka...
- I: Behin joan natzaizu bakarrik.
- A: (Guztiz sututa) Behin? Azterketa duzun bakoitzean, txikito! Eta azkenengo orduan, gainera. (Imitatuz) "Amaia, mesedez, mesedez..."
- I: (Garrantzia kendu nahirik) Behin lagundu zenidala hamabiak arte-eta...
- A: Hamabiak? Goizeko ordubiak jo zizkiguten zeure deribadak zirela eta ez zirela... Eta gainera, azkenean, neuk baino nota hobea ateratzeko...!
- I: Jode! Baina ondo pasatu genuen...! Jo... zure amak egin zigun txokolatea txurro konjelatuekin... Gogoratzen...? Eta gero, denak lo, eta etxe guztia biontzat... Ez zebilen inor kalean. Ez kotxerik, ez ezer... Gogoratzen zara?
- A: Zera ibiliko zen, goizeko ordu-bietan...!
- I: ...Gau hartan... oso polita zeunden... Pijama larrosa harekin, ez zinen hain potola ikusten...
- A: (Zeharo berotuta) Zergatik deitzen didazu beti "potola", e?
- I: Nik ez dizut "pelota" deitu. Bakarrik esan dizut...
- A: Bai, badakit, badakit zer esan didazun... (Arnasa hartu lasaitzeko) Zazpiak hamar gutxi. Benga, lñigo, pasatu da, ia, ordu laurdena...
- I: Ez. Oraindik bost minutu falta dira.
- A: Bost minutu! Bost minutu! !...Eta gainera, zertan zaude? E? Zer egiten ari zara? Ezer ez. Ezer ez!
- I: Et...! Itxaroten. Itxaroten nago.
- A: Nori?
- I: Aaaa...!
- A: Zita bat duzu, ala?
- I: Aaaa...! "Agian".
- A: Beti kopiatzen. Asmatu, behin edo behin, zeozer desberdina, e...
- I: Maria du izena.
- A: Maria? Zer "Maria"? Hemen ez dago Mariarik.
- I: Ez da hemengoa. Ez duzu eza-gutzen.
- A: A, ez? Nongoa da, ba...?
- I: Hemengoa ez...
- A: Nongoa, ba...?
- I: Aaaa...!
- A: Pufoa! Horretan ere kopiatu egin behar... Zenbat urte ditu?
- I: "Pss"...
- A: ... Polita...?
- I: ...Beno...
- A: Psss, beno... Gezurra da! Eta gainera (erlojuari begiratuz), ordua da. Eta ez da etorri.

- Benga, goazen! (Besotik helduz)
- I: Batzuetan tren berandu heltzen da...
- A: Eta batzuetan, bidean gelditzen da, langileek barrikada jarri dutelako..., edo nik ez dakit zer...! (besoa askatuz) Jo! Oraingo, zazpi ostera eginda zinituen!
- I: ...Itxaron... Minutu bat.
- A: Minutu bat. Minutu bat... Begira, ez dizut ezer sinesten! Aspertu naiz. Ba-no-a! (Alde eginez)
- I: Nola?
- A: Oinez! Zapatak erantzi eta oinutsik, besterik ez bada...
- I: Neska, heltzear dago... Itxaron pixkat...
- A: Heltzear...? Badakizu zer diotsudan...? Ez dagoela inongo Mariarik!
- I: (Ozenki, neska badoalako) Ezet? Geratu eta ikusiko duzu. Jeloskor zaude. Horixe da...
- A: (Buelta emanez) Jeloskor? Ni? Mesedez! Ez egidazu barre-gurarik eman. .. Jeloskor... Bizarrik ere ez duzu oraindik-eta...! (Barrezka) Jeloskor...! Hori ere entzun egin behar...
- I: Amaia! Amaia!!
- A: ...
- I: Kaka zaharra!

II

Aldaketa. Musika sartu. arropak aldatu. Pertsonaiak nagusitu edo heldu egin direlako. Arropa aldaketa, ikutu batez. Tonu ilunagoa erantsiz. Berdin argiak. Bai arropa, bai eszenarako behar diren tresnen aldaketa agerian egindo dira.

Amaia eta Iñigo, 23/25 urte inguruko gazteak. Klean. Iluntzea. Amaia etxera doa presaka, biharamonean azterketa bat daukalako.

I: ...Ai, Amaia! Eskerrak aurkitu zaitudan...! Ez dakizu zer gertatu zaidan...

A: Jesus mutil! Lasaitu zaitetz! Hori da arnasestua...!

I: Amaia, mesedez, esaidazu, benetan, bene-benetan, ...bihar euria egingo du...?

A...?

I: Benetan, derrigorrez esan behar didazu. Zer uste duzu, egingo duela ala ez.

A: ...Ez dakit zer esan...

I: Ez egidazu barrerik egin. Bazeneki...

A: Mutil! Ez dakit...

I: Surik baduzu?

A: Sua..., euria... Tori.

I: Puf! Kristorena! Kontatzeko baino handiagoa gertatu zait...

- A: Ba bai...
- I: Benetan Amaia, gu lagunak izan gara, beti, txiki-txikitatik...
- A: Bai...
- I: Mesedez, zin egin behar didazu, zin, ez diozula inori kontatuko...
- A: Kontatu, zer...?
- I: ...E... Puf! Ezin dut!
- A: Beno...
- I: Euria egingo ote du bihar?A: (Taktikaz aldatuz) Bazatuz afarira?
- I: Zer afari?
- A: Pisukoa...
- I: A! Noiz da?
- A: Datorren ostegunean...
- I: Ostegunean... Batek daki biziko naizen ere...
- A: Jesus! Zer duzu, baina?
- I: E...? Ez, ezer ez...
- A: Bihar bai. Bihar euria egingo du.
- I: Baietz uste duzu zuk...?
- A: Hori diote adituek behintzat... Mundu guztiak...
- I: Egia balitz...
- A: Iñigo, goizeko seietan jaiki naiz ikasteko... Gero, inkestak pasatzera... Ez dut bazkaldu... Aldizkariaren batzarre-ra... Maiteren pisura... Unibertsitateko jaia prestatzera... Klaseak eman... Bihar azterketa daukat eta kateatzen badut, adios! Uda guztia ikaste-ra...! Nekatuta nago. Esango didazu, mesedez, nondik datorren horrenbeste misterio?
- ...
- I: Ez dut lanik.
- A: Nola ezetz? Eta taberna...?
- I: Itxi egin dute.
- A: Eta liburutegia...?
- I: Umeak oporretan daude.
- A: Eta karteritza...?
- I: Osatu da karteroa.
- A: ...Eta ostiral gauetako umezaintza...?
- I: Neskamea hartu dute aste osorako.
- A: Eta...
- I: Ez dago zereginik. Kartzelan sartuko naute. Nola ordainduko ditut bulegoa, kotxea eta interesak?
- ...
- A: Zer denboratan ordaindu behar dituzu?
- I: Hamabost urtetan.
- A: Hamabost?! Ez ziren ba, bost?
- I: Ez, hori aurretik erdia ordainduz gero...
- A: Jo, Iñi! Zu ere sartzen zara...
- I: Euriak. Euriak bakarrik salba nazake.
- A: ...Euriak...? Zer ikusi dauka, honek, guzti honek eurirekin?
- I: Baratza geratzen zait, bakarrik.

- A: ...?
- I: Osakidetzak agindu du erreka-ko urik ez erabiltzeko, kutsaturik dagoela-eta...
- A: ...Iturritik...
- I: Bai, lehorte honekin harra-patzen banaute...
- A: Ba... Ez dakit... Konponduko da... Atzotik gaurra, pila bat hotzitu du...
- I: Ikasketak utzi beharko ditut.
- A: Iñigo!
- I: Eta kanterara joan beharko dut lanera. Etxean balekite... Ezin didate lagundu... Nagusienak, badakizu...
- A: Hoge mila pezta ditut...
- I: Ez, ez...
- A: Baietz! Aiba, hartu. Oraintxe estreinatu berriak. Itzuliko dizkidazu... Ahal duzunean...
- I: Bai... Eta zeuk, zer?
- A: Ni konponduko naiz. Begira, gainera... Badakit zer egin...!
- I: Benetan? Ez dizut horregatik kontatu... Ez nuke abusatu nahi...
- A: Zer abusatu eta zer abusatu oste! Tori!
- I: Zer da?
- A: Inkestak. Erdibana. Badakizu nolakoak diren... Urarenak...
- I: Urarenak!
- A: Bai, badakizu, modan dago. Hortxe duzu zer galdetu behar den. Gero, kontaktzea e.a., egingo dut neuk. Eta bi-tartean, beno, asignatura bi horiek atera eta danba! be-rehala gabinetea irekitzera!
- I: Bai, baina...
- A: Ez dago bainari. Aprobaten ez badituzu... Hostras! Hamar-rak! Banoa. Bihar azterketa...
- I: Larunbatean...?
- A: Bai, ez zegoen beste egunik libre-eta... Ai! Afaria! Etorri, e...?
- I: Bai. ...Amaia!
- A: Zer?
- I: Eskerrikasko.
- A: Benga...
- I: Amaia...
- A: Zer!
- I: ...Zera... e...
- A: Zer?
- I. Ezer ez... Gabon.
- A: Gabon. Ostegunarte.
- Arropetan zerbait aldatu. Berdintsu argiekin. 30 urte inguru dituzte, orain. Amaia, harreman bat hautsi berri, erabat lur jota. Bere moduan ari da. Bizitzaz aldatu nahi du. Iñigo ere ez dago bere onean. Bataren eta bestea-ren pasez osaturiko zatia litzate-ke ondorengo hau. Aurkako za-tiez. Aldiko kontradizio kutsua agertu asmoz.
- A: Autotxo ke itsuen bilera dirudi bizitzak. Erabakita dago! Ezin naiz, horregatik, etxean gerta-

tu. Irten egin behar dut. Kale-
ra. Bizimodu berrira. Harre-
manak ez dira betirako. Inor
ez da betirako. Pentsatu ere
ez. Ez. Gaurtik aurrera, beste
bat, beste bat izango naiz. Ez
dut inoren beharrik. Nahikoa
da. Apariketan ibiltzerik nahi-
ko da. Horixe egin dut, orain
arte-eta. Ibili, jolastu, olatu...
Baina, Amaia, bukatu da. Da-
goeneko, neska handia zara
eta, zeure bizimoduari ekin
behar diozu... (Alde egiten
du) Formala izateko ordua
iritsi da!

I: (Beste aldetik sartzen da) Ez.
Hau ez da nirea. Ordua da,
ia, ametsak egia bihurtzeko.
Noiz, bestela? Jubilatzerako-
koan? Ez. Ez, ez, ez... Ez! Bi-
zitza guztirako soldata,
arratsaldeak aske, hile biko
oporrak... Zer gehiago nahi
duk? Denbora! Horixe da
behar dudana. Denbora!
Neurea. Bakarra. Eta ez sol-
tea, zatika... Denbora oso bat
neuretzat bakarrik... Nahi du-
dana egiteko... Azken eguna!
Gaur da azkenengo eguna!
Konpromezuak... Harrema-
nak... Aurpegi onak... Solda-
tak... Interesak... Pikutara
dena! Denak!! Iñigo, ames-
teko ordua iritsi zaik! (Alde
egiten du)

A: (Beste aldetik. Boletin Ofizial
pila eskuetan) ...Datorren as-
tean dira oposaketak... Zazpi

egun ditut... Berrogeita hamar
zati zazpi, zazpi gai eguneko
eta bat soberan. Hori, egu-
nean zati bat eginez... Gai ba-
koitzak hamar orri... Hiruro-
geita hamar orri. Eta bat edo
bi, gainerako gaikoak... Puf!
...Hirurogeita hamar orri. Zer
da, ba, hori? Zortzi ordu lo
eginez gero, gehi lau jator-
duetarako, hamalau! Hamar
ordu ikasteko... zazpi orri or-
duko... Zazpi orri..., zazpi
orri..., zazpi orri...! Zer da, ba,
hori? (Orduari begiratuz) Ha-
mabiak. Gaur denbora gutxia-
go jateko eta lo egiteko. Egun
batengatik... (Alde egiten du)

I: ...Beno, beno, beno. ...Orriak
erosiko ditut, lehenengo. Bos-
tehunekoak, hobeto. Aurrera-
tu egin behar duk, orain, mu-
til! Beno, folioak... A! Tipexa!
Ordenagailua erosi arte maki-
narekin moldatu beharko duk-
eta... Ete! Inportantea! Ga-
rrantzitsua... Kafea! Idazleek
kafea hartzen dute...! Beno,
deskafeinatua. Bestela...
Ondo. Oso ondo. Ea. Ene!
Tabakoa... Tabako asko.
Gaua luzea da-eta. Ai! Eta
musika! Suabea... Erlajazio
musika... Arropa komodoa...
Jertsei urdin handia... Bai.
Hiztegia! Hiztegia, Iñi, hizte-
gia! (Trasteok hartu eta alde)

A: (Beste aldetik) ...Ez da hain
txarra ikastea... Azken ba-
tean, zerbait produktiboa egi-

ten ari naiz... Aprobaten badut, eta aprobatuko dut, taka!, zuzenean, lanpostua! Bukatu dira eta bihar?, eta etzi? loak hartu aurretiko eguneroko galdera erantzungabeak. Eta aprobaten ez badut ere, zerrendaren batean geratuko naiz... Lehen soldatetarekin..., musika aparatu bat eta afaria. Bost mila pelako afaria! A! Eta lehengoan ikusi nituen belarritako luzeak. Zer kristo! ...Eta udan, oporrak! Baina, behar diren modukoak! Mundu guztiak hartzen dituenean, Abuztuan! ...Eguzkitan etzan..., beltzarrandu..., biharamonerako estuasunik gabe, egon... (Ikasketak gogoratu) A! Berrogeita bederatzi zati sei, eguneko zortzi. Eta bat soberan... (Eguneko zenbat geratzen zaion kalkulatu ondoren, berriz bere lanari) Legebiltzarra... Legebiltzarreko... (Alde egiten du, buruz ikasi behar duena errepikatuz)

I: (Beste aldetik) ...Zerua urdin zegoen... Ez. Ilun. Zerua ilun zegoen... Ez, airea. Airea ilun zegoen... Ez, zegoen, ez. Airea iluntzen, koma, orduan ari zen... Ez, orduan ez. Beraz, komarik ere ez. Ea: Airea iluntzen ari zen. Punto. Ez. Punto eta koma. Ez. Airea, koma, iluntzen ari zen. Iluntzen ari zen airea. Airea

ari zen iluntzen. Iluntzen, iluntzen... Horixe! Bai! Iluntzen, iluntzen... Beno, orain, atsedena! Kafetxo bat. (Erluari begiratu) Jo! Ia-ia hiru egun, eta esaldi bakarra... Hiru! Eta esaldi bakar bat...! (Bere burua konbentzitu nahirik) Baina horrelaxe duk, lñigo, tiki-taka, tiki-taka... Hala ere, proportzio honetan, beste 30 urte beharko dituk, gutxienez, behar den moduko elaberria idazteko... Ez! Hobe poesian aritzea... Horixe! Bihartik aurrera. Bai! ...Bihartik aurrera... (Alde egiten du)

A: (Beste aldetik) ...Ate hori! Aj! Mesedez! Hitz egin ixilago! Jode! ...Legebiltzarra... Legebiltzarra... Legebiltzarreko... (Kaxetarantz) Mesedez! Utziko nauzue, mesedez, bakkarik, une batean? Ikasi egin behar dut!!! ...Legebiltzarra... Legebiltzarreko... Legebiltzarreko... Kaka zaharra! Hiru egun eta berrogeita zortzi gai: Hamasei eguneko! Nola????!!! (Alde egiten du)

I: (Beste aldetik) ...Airea ari zen iluntzen... Airea... Hobe elaberria... Handiagoa da. Zabalagoa... Itsaso bat... Poesia, kontzentratuegia... Erabakita dago! Elaberria! Orain, irudiak, irudiak behar ditut... Norbait, zerbait... Ea, Bizitza? Ka! Eskaxa... Ni neu? Paf! Hura gaia! Zertaz idatz deza-

- ket? A! Badakit! Maitasunaz. Betikoaz, baina modatik pasatzen ez denaz. Horixe! Maitasunaz! ...Begiak... Airealuntzen, begiak argituz... Amaiaren begiak. Amaiaren begi... Airealuntzen, begiak urdinduz... (Buru-belarri, lanean. Ez da aterako eszenatokitik)
- A: (Amaia sartzen da, ohiko tokitik, buruz esaten) Legebiltzarra... Legebiltzarreko... Legebiltzarreko... (Kalkuluak egiten, erlojuari begiratzuz) Berrogeita zazpi zati bi, hogeita hiru. Eta bat, soberan. Hogeita hiru gaur, eta hogeita hiru, bihar. (Erabat nekatuta) Nola, baina...?
- I: (Bere lekutik) Amaia! Amaia!!
- A: (Berean. Jaramonik ez) ...Hauek, batzuk, fuera! (Orriak kenduz) Ezin dut dena! Ama!!! Ez dut lortuko! (erabat urduri) Ezin dut! Ezin dut!! (berriz ikasten hasi) Legebiltzarra... Legebiltzarreko...
- I: (Neskarengana hurbildu, itzeleko aurkikuntzaren jabe) Amaia! Amaia!!
- A: Bai... (baina bere zereginetan) Legebiltzarreko...
- I: Amaia!!!
- A: Legebil... Zer kristo! Zer...?
- I: Amaia...
- A: Zer!!
- I: Amaia! Maite zaitut!
- A: Legebiltza... Zer esan duzu???
- I: Goazen hemendik! (Amaiari apunteak kendu eta airean jaurtiki)
- A: (Orriak jasoz) Zer diozu, baina? Zoratu egin zaizu, ala...? Falta zitzaidana! Ekatzu hori...! Legebiltzarra... Legebiltzarreko...
- I: Zergatik ez? Txikitatik ezagutzen dugu elkar! Ondo konpontzen gara! ...Goazen... Amerikara... Afrikara... berdin dio nora! ...Goazen...
- A: Baina, nola? Eta nondik bizi? Eta non? ...Eta gainera, beno..., beno...
- I: Eta gainera, zer?
- A: Ezer ez. Ezer ez. Ametsak izatea ondo dago. Baina ametsetan bizi izatea... Utzi, ikasi egin behar dut-eta...
- I: Baina Amaia! Bizitza aldatu dut! Neure ametsak egia bihurtzen ari naiz... Halako batean! ...Eta zeu falta zara barkarik... Ez dirurik..., ez etxerik... Ez kotxerik... Ez oporrik... Amaia! Bizitza beste zerbait da!
- ...
- A: Iñigo. Ondo dago. Baina horiek... zeure ametsak dira, Zeureak. Nik pila bat estimatzen zaitut... Eta ez dakit bizitza beste zerbait den ala

ez. Ez dakit. Baina orain, ezin dut. Ni neu ere bizimoduz aldatzen ari naiz. Eta ez daukat jolasteko astirik. Ezta gogorik ere. Lehen egin dut nahiko. Ez dut abentura gehiagorik nahi. Iñigo, nekatu egin naiz... Lasaitu egin nahi dut. Uleritzen didazu? Zentratu egin nahi dut. Mundu guztia bezala bizi nahi dut, normal. Normal... (Alde egiten du. Iñigo eszenatokian geratzen da, bera bakarrik)

Denboraldi aldaketa. 35/40 urte inguru dituzte, orain. Iñigo dago eszenatokian. Arrope-tan ohiko ikutua. Aurreko eszenako trasteak gorde. Berririk prestatu.

I: Nola demontre mantentzen dituzte malabaristek plater guztiak dantzari, denak batera, bat ere jausi gabe? (Alde egiten du)

A: (Arropetan ikutu bat, denboraldi aldaketa nabarmentzeko. Ume gurdi batekin sartzen da. Abesten) Txalopin txalo, txalotxu, Bego, katutxua mizpira gainean dago. Badago Bego. Bego badago. Zapata berritxueri, begira dago...! aggg! Aggg! (umeari) Txalopin txalo...

I: (Disimuluz sartzen da, itxuraldatuta) Ordurik baduzu?

A: (Umeari) Ez... (Bira erdi) Iñigo!! Baina, baina... Aspal-

diko! Non egon zara, baina? (Besarkatuz eta musuak emanez)

I: Jesus neska! Harrera honen jakinean, arinago etorriko nintzen... (Umeari erreparatuz) Baina, baina, baina... Norena da neskatila txiki hau, baina? Zurea ez, ezta?

A: Ez, zera! Norena, ba? Barre egin dizu... Zer arraroa... Ez dio inori ere egiten... Baina kontaidazu mutil, zer moduz, non ibili zara, zertan, no-rekin...?

I: ...Ba, hortik zehar... Leku askotan... Ideiak argitzen... Nahiak asetzen...

A: Eta lortu duzu...?

I: Zer? Ideiak argitzea ala nahiak asetzea?

A: Biak.

I: Beno... Saiatu naiz, behinik behin, eta lortu ere... Zeozer bai... esan beharko...

...

A: Jo, Iñi! Zenbat denbora ikusi gabe?

I: Bost urte, bi hilabete eta hiru egun.

...

A: Matematiketan, izugarri hobetu zara behintzat...

...

I: Beno, zentzua aurkitzen denean, errazago bihurtzen da dena...

...

I: ...Eta zuk zer? Zer egin duzu urte hauetan? Oposaketak atera zenituen? (Txantxan) Legebiltzarra, Legebiltzarreko...

A: Bai. Beno. Haiek, ordukoak, ez. Baina beste hamarrera aurkeztu nintzen. Eta uste dut, pelmada gehiago eman ez nezan onartu nindutela, azkenean.

I: ...Pozik biziko zara, orduan. Ezta?

A: ...Beno... Lana ez da dena... Eta Lorearekin... Ba bai. Hau xe da, azken batean, bizitza osoan izan dudan gauza bakar eta benetan neurea.

...

I: Baina ez da beti zeurea izango... Bere bizitza dauka...

A: ...Bai, noski, bai... Baina hori, gero! Orain..., neurea da, eta neu behar nau egun guztian, une guztietan, gauza guztietarako... Derrigorrez behar nau, eta ez dakit, horrekin batera, horrekin guztiorrekin batera, neure haragi puxketa hau, nortasun, jera, begirada, izaera berezko eta bereziz jabetzen doala ikustea... Ez dakit... Inoiz, ezerk eta inork bete ezin izan didaten hutsunea betetzen ari zaidala konturatu naiz...

...

I: ...Eta aita...?

A: Beno... Neuretzat eman zidala esan dezakegu... Horrela erabaki genuen... Oso istorio luzea da... Kontatuko dizut, egunen batean..., astiroago... Baina zer argal zauden! Ez? Ai! Kontatu zidan zuen amak liburuarena. Publikatu egin zitutela-eta. Pozik, ezta?

I: Bai, bai. Oso pozik. Beste hogeita hamar urtetan ere ez nuela bukatuko pentsatzen hasita nengoen. Baina ka! Behin mamiari heldu nionean, rakatakata!, berehala atera zitzaidan guztia. Irakiten zegoen, itxura denez. Leherzteko zorian...!

A: Poesia?

I: Ez. Elaberria.

A: A, bai! Zer interesgarria! ...Zertaz...?

I: Zertaz? Ba, oroitzapenez..., mingostasunez... Oparituko dizut, eta zuk zeuk esango didazu zeuretzat zertaz doan... Etorri nahi duzunean, eta emango dizut.

A: Oso ondo. Non bizi zara, baina?

I: Amarekin nago, orain. Zentratu arte-edo. Baina pisu bat alokatzeko asmotan nabil. Hala ere, egia esan, ez dakit nora jo. Bateren bat ezagutzen baduzu... pisuren bat libre daukana...

A: Bai, bai! Esango dizut. Uste dut, gasolindegi ondoan da-goena, merkatari bila dabile-la. Ez dakit, hitz egin bera-rekin ea zer esaten dizun.

...

I: ...Eta zu...? Gurasoekin...?

A: (Gurdiari eraginez, umea ne-garrez hasi delako) Ez, ni ez. Umea. Amak zaintzen dit, la-nean nagoen bitartean-eta.

I: Ondo...

A: Primeran...

I: Ikusten da...

(Umea negarrez. Amaia gur-diari eragiten eta Iñigo ama-ala-bei begira)

I: Lokartu da?

A: Ez. Tokatu egiten zaio-eta... (Gauzak txukundu etxerantz abiatzeko)

I: Lagunduko dizut...?

A: Ez, lasai. Ohituta nago. Eske-rrik asko. (Gauzak batu)

...

I: Beno ba...

...

A: Beno ba...

I: Ai! Amaia...

A: Zer?

I: Ia-ia ahaztu zait. Tori, hau zu-retzat. Umeari ez diot ezer ekarri... Ez nekien...

A: Beno... Esatea ere...! Zer da?

I: Ts! Ireki etxean. Eta bihar esango didazu gustatzen zai-zun ala ez. Zortzietan, Gure Txokon, adibidez.

A: ...Ezin dut...

I: Nola ezetz?

A: Umea... (Haurra negarrez) Ixo...

I: Utzi amarekin...

A: Bihar ezin du, baina... Ahizpa bisitatzera doa klinikara. Eta goizean, auzokoak zainduko dit...

I: Ba utzi berarekin...

A: Ez, ez, ez. Ordu asko dira. ...Beste batean, Iñigo...

I: Etzi...?

A: (Umeari) Ixo, ixo... Etzi...? Bai...! Ez! Ezin dut.

I: Etzidamu.

A: Etzidamu... Larunbata...?

I: Bai.

A: Ai, Iñi. Lehengusinarene txera noa asteburua pasatzera. (Umeari) Ixo...

I: Noiz, orduan?

A: Ez dakit. (Umeari) Bai, orain-txe... oraintxe... Ixo... Banoa... Deituko dizut...

I: Bale. Deitu, baina, e?

A: (Urrunetik, ume negarraren batera) Baaaaiiii!!



Musika sartu. Arropetan ohiko ikutua. Berdin argiekin.

Amaia sartzen da, Iñigok alde egin bezain laster. 50 urte betetzen ditu, gaur. Oso dotore jantzita. Buruan, urtebetetze ospakizunetan erabiltzen den kartoizko txano koloretsua. Mahaia jartzen ari da. Detaile guztiakin: mantel, kandela e.a. Bere burua-ekin hizketan.

A: Uztailak 16. Karmen eguna. Amaia eguna. Duela berrogeita hamar urte Amaia mundura ekarri zuteneko eguna. Aupa Amaia! Zorionak Amaia! (plantak eginez) Mua, mua! Hogeirekin bezalaxe zaude! Pare bat zimur gehiago, belarriak eta sudurra handiago, titiak eta ipurdia narratsago... eta ipurdia, Amaia, ez duzu inoiz ere tente-tentea izan... Pare bat ile zuri... Ka! "Metxak"! "Reflejoak"! "Bri-loak"! dira horiek, eta ez ile zuriak! Eta pare bat lagun, besterik ez... Berrogeita hamar urtetan. Hau altxorra! ...Eta hamabost urte, oraindik, jubilatzeke. Hamabost urte! Beraz..., oraindik, ez zara... zaharra... Eta gainera, zer? Izpirituz, indarrez eta sendotasunez, lehena ez bazara ere, aurrenetarikoa, behintzat, bai. Zer falta duzu? E? Alaba, hazita, dagoeneko. Bere burua-

ren jabe, iadanik. Etxe zoragarria. Urtean birritan bidaiatzen duzu. Europa osoa ezagutzen duzu. Eta India zati eder bat. Lanean hiru maila igo dituzu. Auzoan denek agurtzen zaituzte. Ez zenuen ba hori nahi? Bizitza azkarra eta era berean, zeure buruaren jabe izan nahi? Ez al zenuen horixe nahi? Eta orduan, zergatik zaude horrela, hain... motel, hain... hutsik, hain...triste...? Ez dakit zer nahi duzun. Inoiz ere ez dut jakin. (Txirrina) Baaaiii! (Aterantz)

X: (Ahots batek) Amaia Gorriti?

A: Bai. Neu naiz (atea ireki).

X: Zuretzat.

A: Niretzat? Eta nork?

X: Tarjetan dator izena. (Alde)

A: ...Baina... Tarjeta... Non ote dago? Ai! Inoiz ez dit inork lotarik oparitu! Lanekoak izango dira... Esan behar diet... (Irakurritz) Zorionak. Betiko lagun baten partez (Txirrina) Jesus! Hau misterioa! (Txirrina, bigarrenez) Ai! Plater gehiago jarri beharko dut.

(Atea ireki eta...)

A: Iñigo!

I: ...Kaixo...

A: Badaezpadago hori...! Zer moduz? Sartu, baina! Pasa,

- pasa! ...Oraintxe bertan jaso ditut... (loreak)
- I: (Disimulatuz) ...Zer...?
- A: Itxi begiak.
- I: Beno, beno... Sorpresa? Ondo!
- A: (Tarta bat dakar) Ireki begiak.
- I: (Disimuluz)Baina beno! Zer... Zer egun da, ba, gaur? (Bat-batean konturatu bailitzan) Koño, koño, koño! Uztailak 16a da, gaur, barren! Jakin izan banu! Zorionak! Zorionak!! Zeharo ahaztuta neukan...! Zure Uztailaren hamaseia!
- A: Tori (tarta zatia).
- I: Ene! Handiegia...!
- A: Tira! Hezurretan zaude-eta...! Ez zaituzte zaintzen, ala? Mutil zahar hauekin...!
- I: ...Ezkondu nintzen...
- ...
- A:...A...! Bai...?
- I: Bai. Hango batekin. Baina ez zen ondo atera...
- ...
- I: Hiru urte egon ginen elkarrekin... Orain, beste batekin bizi da...
- ...
- A: ...Eta... zu...?
- I: Ni ez. Ni, bakarrik. Nahiago dut, gainera... Gauza asko erakusten du, norbere barre-nak... (gaia aldatu nahi) Lorea...?
- A: Duela ordu erdi hots egin dit, esanez, lagun baten etxean geldituko dela lotan, eta handik abiatuko dela, bihar, akanpadara. Ez du bost minuturik etxean egiten... Arrazoia zeneukan. Bere izaera berezko eta bakarra dauka... la ez da nirea...
- ...
- I: Inor ez da inorena. Eta denok gara denenak. Horrelakoa da mundua. Horrelakoxea, bizitza: bakarra, berezia, erabat bitxia, arrunta, izugarria... dena batera...
- A: Bai... Horrela izango da... Baina hori guztiori onartzea, norberegatzea... Hori beste kontu bat da.
- I: Ohitzea, besterik ez.
- ...
- I: (Tarta janez. Gaia aldatu nahi) Humm! Goxoa, benetan. Zeuk egin duzu?
- A: Bai... Azukre guxiegi, aukeran. Diabetes honekin...
- I: Puntu-puntu dago.
- ...
- A: Zer moduz zure liburuak?
- I: Ba... Ondo, esan beharko.
- A: Irakurri ditut. Azkena gustatu zait, gehien.
- I: A, bai? Amorraldi askoren ondoren sorturikoa da. Ez dut inoiz erditu, baina uste dut, antzerako lasaitasuna soma-

- tuko dela, behin dena bukatzerakoan...
- A: Eta antzerako hutsunea...
- I: Baita! Antzerako hutsunea ere bai!
- ...
- A: Baina erditu zenuen.
- I: Bai. Erditu nuen.
- ...
- I: Eta zeuk, zer? Bukatu zenuen zeurea?
- A: Zer?
- I: Bai. Zeurea. Sei urterekin hasitakoa.
- A: A! Ene! Gogoratzea ere! Auskalo non dagoen! Ka! Gauza bakoitzak bere garaia dauka. Eta horretarako nuena nik neuk suntsitu nuen.
- ...
- I: Benetan gura dena egiteko ez da inoiz berandu.
- A: ...Ez... Baina... Ba! Gauza asko dago!
- I: Ea, bota. Zein da lehengoa?
- A: Ba... Ez dut astirik...
- I: Gezurra. Arratsaldeak libre dituzu.
- A: Zuk zer dakizu?
- I: Zer egiten duzu, ba?
- A: Ba... etxea... Lorea... etxea...
- I: Bi aldiz esan duzu etxea. Eta Loreak izango du, seguruenik, nork zaindu. Beraz...
- A: ... Bai... Eta zertaz idatziko nuke...?
- I: Zertaz? Zeure bizitzaz...
- A: Bai... Gai ederra!
- I: Ondoan ezagutzen duzunaz. Edo ezagutu nahi duzunaz... Ez arazorik bilatu, aurkitu egingo dituzu-eta esan zidan behin, idazle zahar batek. (Kanpaiak entzuten dira: Zortziak) Zortziak ez, baina! (Erlojuari begiratu) Erlojua geratu zait! Ene!
- A: Zer? Bazoaz?
- I: Bai. alde egin behar dut. Zortzietan deitu behar didate. Eta ni, sei terdiak zirelakoan... Gorde hau. Biharko (tarta). Gosaltzeko.
- A: Ez... Gaurkoz nahiko da. Eta bihar, porru-salda!
- ...
- I: Beno ba...
- A: ...Noiz arte...? Noiz arte... zaudede... herrian...?
- I: Ez dakit... Oraingoan, ez dut inolako asmorik eta planik ekarri. Ikusiaren gainera...
- ...
- A: Lehengo tokian jarraitzen duzu, ezta?
- I: Bai. Gasolindegia ondoan.
- A: Ederto.
- ...
- I: Etorri nahi duzunean, kafea hartzera-edo... A! Baina bal-

- dintza batekin. Bost lerro-
rekin.
- A: Bost lerro?
- I: Zure elaberriaren lehen bost le-
rroekin. Bestela, ez dizut sar-
tzen utziko (irribarrez)
- A: (Barrezka) Besteak eramango
dizkizut. Inoiz saritu gabeak.
Agian, denborarekin, hobetu
egin izango dira...
- I: Ez, ez, ez. Haiek ezagutzen di-
tut. Bestea nahi dut nik. Ba-
dakizu. Konforme?
- ...
- I: Konforme?
- A: Konformeeeeee.
- ...
- A: Iñigo...
- I: Bai?
- A: Milesker... margaritengatik...
- I: (Disimulatuz) ...Zer...? Margari-
tak...?
- A: Bai. Margaritak.
- I: (Irribarrez alde)
- Denboraldi aldaketa. 60 urte
inguru dituzte, orain. Ohiko iku-
tuak arropetan eta argian.
- Amaia, eszenan. Aurreko
eszenako tresnak batu eta behar
diren aldaketak egiten. Elaberri
zatia edo hasiera ozenki esaten.
- A: ...Etxe aurrean, orain errepi-
dea doan lekuan, zelai handi
bat zegoen. Eta erdian, etxea
munduarekin lotzen zuen bi-
dezidor estu eta sugetsu bat.

- Hantxe, hantxe hasi ginen,
etxeaz ezezik lurrez,
eguzkiaz, lorez, euriz... beteri-
ko bizitzaz jabetzen. Hantxe.
- (Iñigo sartzen da. Ohiko ikutua
erantsirik. Dagokion adin al-
daketa markaturik)
- I: Amaia! Amaia!! Zer egiten
duzu, oraindik hor, baina? Za-
toz hona! Ekarki mahaia! Bai-
na emakumea! Esnatu! Zatoz
hona! Hirurogei bete behar
dituzula datorren hilean!
- (Amaiak mahaia Iñigo da-
goen lekura darama. Biak eser-
tzen dira. Pila bat folio idatzi jart-
zen ditu Amaiak mahai gainean.
Irakurri egingo ditu Iñigok)
- I: Nik hau moztu egingo nuke.
- A: Zer ba?
- I: Ba luzeegi geratzen delako.
Lau aldiz errepikatzen duzu
gauza berbera.
- A: Bai, baina era eta hitz desber-
dinez.
- I: Bai, baina...
- A: Horixe nahi dut, gainera.
- I: Beno, beno... Nahi duzuna!
Beteegi, kargatuegi gera ez
zedin esaten nizun bakarrik.
Baina zuk horrelaxe nahi bal-
din baduzu...
- A: Ez didazu ulertzen. Ez da nahi
kontua. Gauza bat esateko
era da. Eta zuk era hori
suntsitu egin nahi didazu.

- I: Ea... Ea... Froga bat egingo dugu. Kendu azken esaldia.
- A: Zein? ...eta urrundu egin zen...?
- I: Bai. Horixe. Ea, irakurri, orain.
- A: (Ixilean irakurtzen du)
- I: Hobeto dago ala ez?
- A: Psss!
- I: Nola psssss?
- A: Ez dakit ba...
- I: Erritmoa behar du. Eta askotan, gauzarik arruntena izaten da politena, sakonena eta goxoenena. Ez da derrigorra dena hitzez, aditzez, adjetiboz eta...merengez... kargatu behar!
- A: Ez dut inoiz bukatuko.
- I: Baina Amaia! Non daude zure animoa, zure indarra, zure letxea? Etxeak ere adreiluz adreilu egiten dira...!
- A: Bai, Baina nik hamar urte daramatzat adreiluak jartzen. Eta oraindik ez dut kanpo aldeko zutaberik ere egin...
- I: Zutabeak dira etxeari eusten diotenak.
- ...
- A: Zer ordu da?
- I: Hamaikak, ia-ia.
- A: Ene! Zazpitan jaiki behar eta ni hemen!
- I: Bihar jarraituko dugu, orduan.
- A: Ez. Bihar ezin dut.
- I: A! Beno, etzi orduan.
- A: ...Ez. Asteburu honetan alaba bisitatzeri noa.
- I: Beno, bale! Etorri nahi duzunean. Eta jarrai egunero idazten. Apurren bat, besterik ez bada ere.
- A: Bai, bai... Astitzen banaizedo...
- I: Astia ez dagoen lekutik ere atera daiteke nahi izanez gero.
- A: Bai... Noski... Gabon, Iñigo.
- I: Gabon. Kontuz eskaileran, e?
- A: Bai. Trankil. Ezagutzen dut. Laugarren maila kili-kolo dago.
- I: Datorren asterarte.
- A: (Esnenatik kanpo) Bai!
- I: Hau emakumea, hau!
- Denboraldi aldaketa: 75 urte inguru dituzte. Ohiko arropa eta argi aldaketa-ikutuak. Parkean.
- A: (Eserita, usoei ogi apurrak botatzen) Purra...! Purra...!
- I: (Disimuluz) Ene, hemen, gure Amaia aspaldikoa! Zer egiten duzu, baina, zuk hemen?
- A: Ba zeuk egiten duzuna: Egon.
- I: Azken 15 urte hauetan, egunero pasatu izan naiz hemendik... Eta ez zaitut behin ere ikusi...
- A: ...Ba... Sarri etortzen naiz... Euririk ari ez duenean, beti.
- I: Betaurreko hauekin ez dut larregirik ikusten-eta. Horixe

- izango da. (Gaia aldatu) Zer moduz Lorea?
- A: Hirugarrena izan du.
- I: Ene! Noiz ezkondu da, ba?
- A: Aspaldi. Oporretan joan eta ezkondata etorri.
- I: Beti esan dizut azkarra dela neska hori. (Gaia aldatu) ...Zer moduz idatziak...? Bukatu samartuta...?
- A: Ez. Oraindik ez.
- I: Irakurtzeko irrikitan nago.
- A: Ba itxaron egin beharko duzu... Dena aldatu dut...
- I: A, bai?
- A: Bai.
- I: Beno... Ondo. Baina aurpegi hori?
- A: ...Ez dut amaitu nahi...
- I: Zer ba?
- A: Ba...
- I: Ba, zer?
- A: Ez dakit ondo dagoen.
- I: A! Hori da. Zeuri gustatzen zaizu?
- A: Bai edo...
- I: Ba orduan... Ondo dago.
- A: Ez da hori bakarrik...
- I: Zer da ba, orduan?
- ...
- A: ...Ba... lela bat baino ez naizela izan, neure bizitza guztian zehar...
- I: Ez dut ezer ulertzen.
- A: Beldurtia eta iheslaria, besterik ez.
- I: Zergatik diostazu hori guztiori?
- ...
- A: Gogoratzen zara sei urte-rekin... ipuina hasi nuen...?
- I: Nola ez!
- A: Eta bizikletaz zeurekin joateko eskatu zenidanean...?
- I Bai...
- A: Eta nik ezetz! Eta beste hartan...? Autobusaren zain... Hitzik ere egin ez nizunean...
- I: Hmm...
- A: (Barrezka) Aparatuarengatik zen. Ez nuen zuk aparatu harekin ikusterik nahi. Eta gainera..., hilekoa jaitsi zitzaidan eta...
- I: Eta nik...
- A: Itxaron... Itxaron... Rimela eman nuen lehen aldi hartan...? Ez nuen ulertu. Denbora lapurtzen ari zinen, zeurekin denbora gehiago egoteko... Ez zegoen "Maria"rik, ezta?
- I: (Irribarre) Bai, baina larogei urtekoa. Amaren izeba.
- A: Eta inkesta-lanak erdibanatu genituenean, zure begirada hura... Erdi umezurtz, erdi... ez dakit...! Eta Amerikarako gonbitea...
- I: Benetan ari nintzen.
- A: Bai. Badakit. Bueltatu egin zi-

nen. Behin eta berriz. Eta margaritak oparitu zenizkidan...

...

A: Zoriondu ninduen bakarrazin zinen. Loreak ere, biharamonean hots egin zidan akanpadatik...

...

A: ...Eta urte hauetako ahaleginak... Bizitza estreinatu berriko ametsetan murgil nintzan saiatuz... Behin eta berriz ahaleginduz... Beste era bateko bizitza, mundua, errealityatea zeudela...

I: Daudela.

A: ...Daudela erakutsiz...

I: Erakutsiz ez. Gogoraziz. Erdi ahaztutako ametsak gogoraziz, berrelikatuz, berrituz...

...

A: Zergatik hau guztiau? Zergatik alferriko lan hau?

I: Alferrik? ...Ez dakit... Bizitzeko era bat baino ez da... Denbora emateko era bat. Besterik ez.

...

A: Bai, baina...

I: Baina, zer...? Eta zuk zeuk zer?

Zergatik ez duzu elaberria bukatu nahi?

A: ...Ez dakit... Honekin guztionekin bukatu nahi ez dudalako..., behar bada...

I: ...Bukatu...?

....

I: (Erabat pozik) Hasi egingo nintzateke ni...

A: (Irribarrez) Zertan?

I: Badakizu ondo ere zertan.

A: Noiz, baina...?

I: Oraintxe bertan.

A: Astelehen buruzuri bateko goizeko hamarretan...?

I: Zergatik ez? Bizi izateko era bat baino ez da.

...

A: Eta elaberria...?

I: Bukaera falta zaio bakarrik, ezta?


A: Bai...

I: Gaur bertan amaituko dugu, berriarentzako tokia egiteko.

A: Berria...?

I: Bai. bestearen jarraipena. Bigarren tomoa. Benga! Arin! Ez dago astirik-eta!

(Alde egiten dute eskutik helduta, pozik eta korrika bategan)



AHOZKO
TRADIZIOA

Herri-kontakizunak

MAITE MUJKA

Sarrera

Segikako horrietan agertzen diren istorioak, "Zeamako kontuk" deritzanak, nondik nora jasoak izan diren aditzera emango dizuet. Kale kontuetan entzundako zenbait pasadizo eta pertsona xelebria buruzko kontakizunak dira. Herritarren artean, hitzetik hortzera erabili ohi diren kontuak. Galtzorian ikusirik Zegamako Herri-Eskolko bi andereño animatu ziren ondoren grabagilua hartu eta etxe bakoitzeko atea joz eta "kontu biltzea gatoz" esanez hitzunei espontaneoki grabatuak dira eta ondoren papelera pasatuak. Aho-hizkuntzatik idatzirako saltoan zenbait erreferentzia aldatu egiten dira. Elkarrizketa, entonazioa, keinuak, hitzun bakoitzak daukan aparteko grazia, expresatzeko moduaren ezaugarriak desagertu egiten dira papelera pasatzerakoan.

Ondoren zenbait transkribaketa, irizpide eta kontrakzioak aipatuko ditut.

Transkribaketa irizpedeak

Grabaketetatik papelera transkribaketak egiterako orduan zenbait irizpide moldatu behar dira:

H: -Hitz hasieretan mantendu egiten da, batez ere irakurterrezago suerta dadin: hau, hemen, hartu, hain.

—Hitz tartean ez: ahoan - auan;
ohen - oaian
berehala - beala;

Jatorrizko ahozkatzea apurtuko lukeen kasutan, bai:

nahi - nahi
behar - behar
behetik - behetik

Ñ: Errespetagarria iruditu zait ñ erabiltzea kasu guztietan, in- en orde-
dez: zikiñ, ikazkiñ, horrekiñ...

LL: Berdin jokatu dut: Il kasu guztietan erabiliz il-ren orde-
dez: zeillen, mutillek, Pellok, billau...

J: Zegamakoa oso gogorra da.

S-Z-X eta TS-TZ-t TX: Hots hauek oso ondo bereizten dira.

TT: Entzuten den bezala dago idatzita:

aitona orde- attona
aita orde- atte

Kontrakzioak

—Ez - Aditz laguntzailea: Ahoskatzen den erara idatzi dut, elkar-
tua:

ez zon - etzon
ez zan - etzan
ez zekiñ - etzekiñ
ez zeuken - etzeuken

—“Ere” hitza zegamarreraz “ee” bakarrak agertzen denetan - zen-
baitetan “re” esaten baita: zu re / zu ere-ren orde-
dez. Banandu egin dut, bereizketa erraztearren nolabait:

“nik ee egingo niket”
“eta zeu ee hemen gaitzen zer”
“harek ee artoa jaulki”

—Aditz izena - laguntzailea:

“men” - “emen” / “omen” bi adizkien tartean badago banandu
egin ditut, nahizeta ia beti “men” hau laguntzailearekin ahoskatzen
dela konturatu.

“bialtze men tzitun”
“iltze men tzon”
“ematen bamen tzekiñ”

—Aginteretako formak lotuta idatzi ditut, zaila gertatzen baita banaketa zein bokaletan egiten den antzematea.

“etxoin ezak - etzoizak”

“utzi iezaiek - utziek”

“kontua atera ezazu - kontu taazu”.

Zegamako kontuen klasifikapena

- I. Elizen ingurukook.
 1. Eliza Zeaman nola eiñ tzan.
 2. San Martiñ.
 3. D. Alfontso, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11.
 4. Pedro Erlotxo, 1, 2.
 5. Urrezko kazo.
 6. Kupel berria.
 7. S. Kruz 1, 2.
 8. Attamarren.
 9. Iruxtako amabirjiñea nola agertu zan.
- II. San Adrian - Santu Espiritu.
 1. Santi espiritu.
 2. Prailen balalekue non don.
 3. Mandabidea.
 4. Amiñagoena.
- III. Klasikok.
 1. San Martin
 2. Urtzelaietako attona.
- IV. Akziok eta inbentziok.
 1. Alkateak - herriak.
 2. Kaxpar txistu 1, 2, 3.
 3. Erregea eta kamiñeroa.
 4. Motiko koadrillea.
 5. Txomin Garrasta.
 6. Errezatzeko asmotan.
 7. Hiru Oñatiar Araba aldera.
 8. Jiboso bat eta tuerto bat.
 9. Bi neska gazte.
 10. Neska ezkongai.
 11. Pentsaatan non pentsaatan.

I. Elizen in gurukok

1. Elizea Zeaman nola eiñ txan

Zeamako Elizea eiñ zanen, xexion ibil men tzien. Attamarren zaharreko nausik, Andutzako elizea atzea utzi ta berrie eiñ nahi izan bee terrenon. Herriko maiorazkoak etzuen hori ametitzen. Attamarrengo nausik maizterrak zeuken da hok nausiñ alde ta maiorazkoan kontra jarri zien.

Eztabaidak gora behera, Attamarrengo nausik elizea eitea erabaki zon. Harrie Aimapiztiti, Antximoñoti, Izarraa ekartzen tzuen da hermeridi Attamarrena.

Attamarrengo lurren hasi zien elizea eiten, baño Attamarrenen eunez eiten tzan obrea, gauetz norbaitek arrastau eiten tzon eta gaur elizea don lekua norbaitek eamaten zitun materialak gurdiz.

Gau hartan, andra at jarri men tzan leioti beida, ze milagro geratze zan ikus naita. San Martin men tzijon harrik zituala kantari.

"Aida txuri, aida gorri,
leio zuloti beida don horri
etaa daioan begie".

Leioti beida zion atxoi ezkerreko begie etaa men tzion San Martiñek. Milagro hau ikustakon, Elizea oaiñ don lekun eiñ men tzuen.

2. San Martin

Zeamako San Martiñek morroiak lapurretaa bialtze men tzitun San Adriana. Bera re lapur gaiztoa men tzan, jendea nolanahi hiltze men tzon dirukati, baño zeukenai kendu eta etzeukanai ematea ba men tzeikiñ.

Zeamako parrokoa oso laune men tzon. Gauen askotan San Martin parrokon etxea kafea hartzea jute men tzan.

Eun baten parrokoa trixte men tzeon. San Martiñek zer tzon ba, eta parrokok kontestau men tzion:

—Herri guztie pekatu gorriñ dalle, eliztar danak infernua jungo zat eta men neu nola salbatuko naiz?

—Hori konponduko deu gizona!- esan zion San Martiñek eta kafea hartu ta San Adriana jun tzan.

Hurrengo eunen, iganden, goizen-goiz San Martiñ parrokon etxen presentau zan. Zartain baten ikatza tontorka jarri ta su eman tzion;

—Infernuko sue eskau zuk tarteko sermoian da ikusko-ezu jendea nola konbertitzen dan.

San Martiñ zartañe eskutan zola elizako ganbaraa jun da zulo aten ondon jarri zan.

Poliki-poliki jendea elizaa etor zanen abadek mezea hasi zon. Sermoian hala zion garraxika:

—Herri hontako jendea, danok infernua zoazte; pekatari haundi batzuk besteik etzaate.

—Jaungoikoa, bota jende honi infernuko sue!- esaten txon dea-darka.

Jendea erabat bildurtu zan.

Parrokok infernuko sue, deabrun galderak eta beste milla gauza aitau ta beize hala eite men tzon garraxi:

—Jaungoikoa, bota kende honi infernuko sue!

San Martinek txingar danak bota zitun zuloti, elizan jendea laugorriñ zeon. Parrokok beize hala zion:

—Bota su gehio jende gaizto honi!

San Martiñek ganbarati:

—Jauna, nee suk gastau die!

Jendea orduntxe pixka-at lasaitu men tzan.

3. D. Alfontso apaiza

Alfontso Maria Zabala Etxeberria, Ezkoin jaio zen 1847. urtean. Gasteizko Apaizgai Etxean ikasketak egin eta bertan apaiz egin zen. Hondarribian, Zegaman eta Donostian, erretore izan genuen. Euskal Erria aldizkarian idatzi ohi zuen. Literatur lehiaketa askotan mahaiburutza osatu zuen.

1882ko Donostiako literatur lehiaketan, lehen saria eman zioten.

1887an bere ipui "Gabon gau bat" ere saritu zuten.

1901ean Hernaniko erretore egin zuten.

Bere komeri lanak:

"Periaren zalapartak"

"Apari merke"

"Jauregi erroteko astoa"

"Urrütiko izketa"

"Melitonaren bi senarrak"

Antzerki hauek askotan antzeztu ziren Donostia eta beste zenbait herritan.

Edonork lortu ez duena lortu zuen D. Alfontso maiteak. Euskal Literaturaren kondaira izen ospetsu bat.

1919an Hernanin hil zen.

Ulergaitza benetan, Zegamako herriak berari buruz duen ikusmena.

Bukatzeko, D. Alfontso bere garaiko "integrista" fin bat zen.

D. Alfontso I

Ostiala Santu eunen D. Alfontso Jesusen Heriotza ta nekek kon-tatzen ai men tzan ikazkiñ aulkiñ, ikazkiñ batek launei hala esa men tzien:

—Motillek, Jesus hori re goorra ek, jakiñ urtero ze eiten dien da halare bertaa etortze-ek.

D. Alfontso II

D. Alfontsoana ez men tzan iñor konfesatzea juten, dotriña asko galdetze men tzon. Motill batek behiñ, afari at jokau men tzon laun batzukiñ, baietz bea D. Alfontsokiñ konfesau ta baietz abadekiñ mu-sen eiñ konfesionarion.

Sartu men tzan motill hori konfesionarion da abadek mandamentuk zenbait zien preguntau men zion. Motillek bost. Ez gizona, bost gehio. Bestek hordago! Gustora irten men tzan motille afarie irraazi zola ta.

D. Alfontso III

San Bartolome eun baten D. Alfontso hoola hasi men tzon ser-moia:

Lendabizi beteko dezue pantza
Gero eingo dezue dantza
Hola nola izango dezue
Bartolo haundiñ antza?

D. Alfontso IV

D. Alfontso hala eite men tzon behin pulpitoti:

"Zuen pekatuk, Landabeko soroko belarrak bezela die. Han aituko

ek Joxe Iñaxio aste guztiñ zopizarren, zuztar txarrak etaa ta soroa garbitu eziñda. Joxe Iñaxio gizajoa! Alper-alperrik ai dek. Lada-beko soron beize belar txarra nausi."

Nik ee zuei aleiñe pekatuk kentze izuet, baño alperrik ai nauk, zuen animako zuztarrak beize pekatue emango dia.

D. Alfontso V

Behin D. Alfontsoi gizon bat etor men tzikon konfesatzea, behi bat harrapau zola ta. "Ba, barkatzekotan behie entregau zare eñ beharren". "Ba, Josepetako zelaira, behie sokati dezula presentau beharko zaa". "Nausie han izando al da?". Baietz: D. Alfontso. "Hantxe entregauko diot".

D. Alfontso VI

D. Alfontso halala prentau men tzion behin txarteletaa jun tzikon neska ati:

- Baltseon ba dakiñ?
- Pixka at bai jauna - harro, harro.
- Baltseon hobeto jakiñgo-en hik dotriñea baño.

D. Alfontso VII

D. Alfontso sermoia eiten ai zala, aste barrun ze jai zan ahaztu zan. "Aste barrun —hasi zan— jai bat do, baño bee izenakiñ eziñ naiz akordau. Jai honek belar baten izena dauke, ia zeñ akordatzen zaten bee izenakiñ".

- Batek: San Porru- Ez
- Bestek: San Tipula- Ez
- Bestek: Perejil Santue- Ez
- Bestek: San Aszensio...

D. Alfontso: Hori dek atentzio.- Asten Aszentzio eune men tzan.

D. Alfontso VIII

Behin D. Alfontso Abarkeroneti behera zijon. Ontzi-saltzalle at zetorren beheeeeeeti gora, ta besteik bee astoa hasarrau ta ontzi mor-do at lurea bota ta puskau zion. Ontzi-saltzailea maldizioka hasi men tzan da D. Alfontso zorrotz ekiñ men tzion demandan.

Ontzi-saltzallek hola kontestau men tzion:

Euliri deitzen zako moska
Honek etorri eta eiten badio hozka
Salto ta brinko
hausten badie
ehun lapiko...
Zenek do kulpea
Jauna?

D. Alfonsok ez men tzon ze eratzun jakifi.

D. Alfonsok IX

D. Alfonsok behin Ibaerta alden men tzellen paseatzen. Hontan katu beltz haundi at ikus men tzon. Liburue zabaldu ta konjuroa eiten hasi men tzan. Katue ordun emakume bihurtu zan. D. Alfonsok galde-tu men tzion:

—Zu re hoola?

—Kaleti behera hamalau bagaa erantzun men tzion emakumek.

D. Alfonsok X

D. Alfonsok hoola hasi men tzan behin pulpiton: "Jesusek gauza harrigarrik eifi tzitun. Pentsau zazue ze eifi tzon. Bost milla eskalu eta bost milla ogikiñ bost launi eman tzien jaten".

Ikazkiñ batek beheti erantzun men tzion:

"Hori nik ee egingo nikek"

D. Alfonsok, gaizki eifi zola ta ixildu eifi tzan.

Bazkaltzekon neskamei esaten men tzion: "Ni bezelako gizon jakintsu at, ikazkiñ arlote, mutur zikiñ batek burla ein behar. Milla arrano beltz!"

Hurrengo jaien beize hasi men tzan D. Alfonsok. "Jesusek gauza harrigarrik eifi zitun. Pentsau zazue ze eifi tzon behin. Bost eskalu eta bost ogikiñ bost milla gizonei eman tzien jaten".

Ikazkiñek beize:

"Hori nik ee eifigo nikek"

"Demonio tontoa, hik nola eifigo-on baa?"

Ikaskiñek:

"Jun tzan jaien sobrau zienakiñ"

D. Alfontso XI

D. Alfontso horrek, oso ondo konpondutako garaie izan do, Polonia, mala-moja horrekiñ, Geo hasarrau die Kuutze Santuko ermiten gañen: hagan terrenon zeola taezer etzuela paatzen da... "Nik eman-go diat hiri oaindio pasaportea" pentsau do.

Osteun Santu eunen prozesioa juten tzan da geo Ostiela Santu eunen Zupurruti bueltan bestea. Lehendabiziko eskolameek juten tzien maixukiñ ta maixtrakiñ, gero juten tzien emakumaak eta emakumaan bitarteen apaizek.

Prozesio horta juteko, bete-o harriz mantala da prozesio allatzen hasi danen hasi-a harrika Polonia, mala-moja hori da... prozesioa bueltau eiñ behar!

D. Alfontso horrek, eiñ don aziokati hotseiñ dio aiuntamentua, juiziora, da etor da preparauta Polonia hori, aber ze behar tzon? "Aber zekiñ ze astakeri eiñ tzon? Herri guztie seguru prozesion ta prozesioa hala bueltau?"

—Ta guza hori esatea ekarri al nau ni honutza?, zerri horrek! Ez al diek esan ze eiñ dien nei? Kamixa jasotzeko astibe buztana sartu-ien ta.

Juizioa harekiñ bukau men tzan.

Mala-moja: Mojatati etaatakoa

4. Pedro Erlotxo Pedro Erlotxo I

Erlotxoko Pedro, xalau bera bakarrik bezalako zan! eta, harek pentsau men tzon: bai! gaur ee elizan limosnea, artaburu bat bota behar diat nik.

Ordun illaran, biltzen juten zan, bandejakin, korun, korupen eoten tzan jendei, iskillaan zeonai... Pedro txiki horrek kardo artaburue poltsikon sartuta ta, jun tzikonen bota dio bandejaa artaburue. Bestea, demoniok hartuta sakristia jun da, apaizei esan dio zeñiek bota zion artaburue ta, hotsein dio aiuntamentua apaizek, artaburue bota ziolako.

Pedro, oso bizkorra! Apaizek uste bizkorra izango zala baño hura bizkorragoa ta:

—Guk taloa beste ezer ez teu jaten. Zuek ogie, ta oaindio zuentzako izaten dan gari apurrekin eiten da iriñe. Zuendako olataak ekartzen ibiltzen gaa! Elizeek, maten dan limosnea dana hartu behar dala esaerea da! Ogiin urrena, taloa izango-a urrena, taloa izango-a aurreti. Guk ez deu ogiik jaten eta, nik pentsasu det artoa ekartzea da kito!

Pedro Erlotxo II

Hura bera tortzen zan kalekora gureana. Oso zan salaue mutille! ta, jokun aitzen giñen, punttun da jokun.

Apaiz horik bezpera eman da gero, egualdi ona baldin bazeon, bastoia buelta emanez, paseaten bueltaka.

Pedro txiki horri amorratio haundie zioen apaizek da esan tzuun Pedro Txiki horrek:

—Nahi al tzue, bueltau etxea nik apaiz horik etxando kristos, hemendi?

—Bai motell, mesee earra egingo ek. Hori etzekiat zeitea etortzen dien honuntza, gu hemen burrukan ta gaitzen eo, ikustea etorko ituk!

—Bai, laister bueltau behar doe

Ta paraa alleatzea zijotzela:

“Udaberrian egoten dira
birigarroak kantari
Abitupean izan litzeke
txiribituak dantzari”.

Gero etzien juten. Ugarmintatio, han gaiti, bueltatzen tzien kalekoa allau be.

5. Urrezko kazoa

Bi apaiz, ikaragarri launek. Ta apaiz horik neskameek! Bat hor, zoragarri men tzeuken neskamea eta apaizek, baten etheen jai baten da hurrengooen besteen bazkaltzekotan ein due tratue. Baiño neska-me zoragarri horren etxea etor tzanen, besteek beala kalau zue martigala zeillen. Bea, nunbait, argixea izan.

Kazo urrezkoa ta! eun da sekulako zeakin maie serbitu men tzon neska horrek! Geo etxe dana erakusten ta, besteek diximulon kazoa neskameek nun utzi zon ikusi eta sartu dio paiz horri oian kazoa. Hala, despeidea eñi da sekulako gustora, bazkari ona eman tzioela ta konforme apaiz hori!

Handik euneetaa kazoa falta zala esan dio. Hura etor tzanen ibil tzuela eta nola litekeen, etxen etzala inor izan da kazoa faltatzea.

Bestek pentsau do eskribitzea bee laun horri:

"Querido amigo, sabes que tenemos un disgusto terrible, porque la muchacha mía dice que cuando estuvisteis tú, habíamos usao un cazo pa la sopa y que falta. ¿Acaso tu viste a alguien en casa que entró?"

—No, no, no —harek ezezkoa.

Bueno hartan, karta hori bukau da beste kontestazioa:

"Ay amigo, amigo! Ya sabía antes también que eras pillo pero ahora te conozco que eres pillo y medio. Tú dices que os falta el cazo. Yo no digo que te acuestes con la criada pero lo dudo y, te digo, como a un buen amigo que si te hubieras acostao en tu cama allí hubieras encontrao el cazo".

6 Kupel berria

Neska at omen tzeon herri baten, zoragarrie! Ezkontzeko, nobioa ein da, preparau da.

Bikariok esate omen tzon:

—Zeinek probau lezakeen horixe! Hori dek neska zoragarrie!

Bikario hori jute men tzan —baserri oneko alaba men tzan ta sagardoa eukitzen men tzuen ikaragarri ona—. Askotan, neskea ikusteati, bueltatxo bat ematea, sagardoa erate men tzon.

Neska oso edarra men tzan baño un poco inoranta! Geo, baakizu nola juten tzan, lehen, ezkondu behar tzan bezperan parrokira. Bezperan jun da neska hori bikario horreana da engaño do nola edo hala. Hobe zala preparauta jutea. Ezkontzeek ondo preparauta jutea eskatzen tzola ta, nobioa etzekilla, gixajoa antzekoa iruditzen zikola

izango zala ta. Behintzak estreñau do, berak, parroko horrek, eakusteko nola eiñ behar tzuen funtzioa.

Jun da etxea ta kontau dio amai.

—Baño neska, hori eiñ diñala!

Morroia ta guzti eukitzen men tzuen.

Hurrengo eunen, bazekien hamarretakora jungo zala parroko hori da, neska horri esan men tzion:

—Txixagurek eon behar den bi ordu gutxiñez e! Aitze-en ze esate-niñan? Bi ordu txixagurek eta txixe eiten haste haizenen indarren eiñ txixe.

Ta Joxe Joakiñ, kartzu sagardo botilla bat.

Ta erain dio txixe. Baakizu aparra... Sartu do botillan amak eta zaharra balitz bezala ameraunekin da danakin gorde do bitilla hori hurrengo euneako.

Hurrengo eunen jun da parroko hori beti bezala. Jendea jun da errezibitzea ta:

—Joxe Joakiñ, parroko jaunari sagardoa gustatzen zaio ta, botilla zahrrak badare han da. ekartzu!

Ekarri ta, amorrauta sagardoa eraateko ta irikita pin dioe. Basoa bota doenen, aparra! Ño hau oana eongo-a ta krak! Gesto txarra eiñ men tzon da esan men tzion:

—Hau ze sagardo-a hau? Hondauta daukazu, sagardo txarra eiñ do hau.

—Txaarra! Nola eongo-a ba txaara! bart heorrek hasi zon kupelakoa da ta!

7. Santa Kruz

Santa kruz Harri Haundiñ I

Gue atte ta attona Sorotxikia junik zien lurre maneatzeta. Tunel haundi aldeti presentau zien karlistak Santa Kruz buru zuela eta erraliek soltau zituen. Hontan goiti behera "beltzez" kargautako tren bat zetorren da karlistak tiroka geau zuen. Soldau beltzak eulik bezela hasi zien treneti irtetzen, karlistak Otzaurte aldea erretiau zien.

Lau hortzen ai zien gue attona ta atte, ikau ta semea karobiñ gorde zan, aitte beiz arditaa itzul-haundi aldea, hua artzaie izan! Arditaa zijola ikus zuenen, berai fuergo eiñ da seko bota zuen. Semea karobiñ zeon bitartean, beltzak karobiñ auan bueltan ibil men tzien,

baño etzuen billau. Karobie otadiñ men tzeon. Larri eon men tzan gizajoa gordeta. Gorputze trenbidea ekar tzuenen, "beltzak" hala esaten men tzuen:

"karlixta bat hil diagu
karlixta at gutxiago"

Gorputze trenen hartu ta Zumarraa eaman tzuen. Don Andresen aittek jantzi ta dilijentziñ gorputze Zeamaa ekar men tzon.

Trenak Otzaurtetik Zumarraako bidea zortzi ordun eifñ men tzon. Karlistak beste golpen bat emango zuen bildur tzien.

Beize Santa Kruz Zeaman II

Behin Santa Kruz apaizek San Adriandi mezu bat biali zon Zeamako aiuntamentua. Bee motillentzat hainbeste errazio, halako ordutako gertu euki zitzela eskatzen tzien herriko agintariai.

Alkatea Attamarrengo Patxiko zan, da agoazille Silbestre Azurmendi.

San Kruz etortzen zaneako arraziok gertau beharren, Patxiko Pellok Urtoan-aldea iges eifñ tzon, Silbestre beiz Mazkian errekaa estaltzen don tunelen, herriñ bertan, izkutu zan.

San Kruz aiuntamentua aillau zanen etzon billau ez alkateik, ez agoazillik eta ez arraziorik.

Attamarrena jun tzan lehenengo kontuk askatzea, alkaten andrea ta umek oaindio txikik billau zitun bakarrik. Santa Kruzek emakumai ta umeai etzien sekula eskuik jartzen. Gero agoazillenea ta han Axintxio, agoazillen atte billau zon:

—Semea non zan apaizek.

—Etzekilla-ba.

San Kruzen motillek Axintxio hartu ta plazaa eaman tzuen. Zeamako aiuntamentuk kamiño aldetik bazon uztai burnizko at astok eta kaballerik lootzeko.

Axintxio uztai hartan lotu zuen da semen da alkaten hutsegiten zigor bezala, eztait zenbai makillara eman tzioen gizon gizajoi. Axintxiok ordun 60 urte zauzken. Handi hamahiru urtea hil tzan, 73 urtekiñ, 1885an.

8. Attamarren

Attamarren baakizue hen Zeaman nun doon. Men tzien bi anai eta, klaro, bat apaize ta bestea etxen eo, lanen zebilena ta, gurasok, ze eñ doe? ba, heredatu itue apize, zeuken gauza danakin apaize izango zuen maittea! gogokoa, ta haren izenen jarri itue gauza danak eta beste hori desesperauta jarri da. Ta mezea ematen aizala bere anaie hiltzen —hemen, Zeaman— ta hitz hok esan men tzitun: Atte, ama, arren!, eta horreatio dola Attamarren izena.

9. Iruxtako ama birjiñea nola agertu zan

Iruxtan naiz gaur hiru etxe eon, garai hartan bakarra men tzion. Iruxtan izena Gesalbizkar zan. Etxe honek artetxea Eillorren zeuken.

Attamarren zaharreko morroia ta neskamea jarri men tzien ezkon-duta bertan lehenengo aldiz. Gizona naparra men tzan da andrea oñatiarra.

Bizimoduik etaa eziñ da alde eitea erabaki zuen da bakoitze bee aldeti al zoon lekua irtetzea. Kaltzada makurren partitu men tzien, bat Oñatia ta bestea naparroa. Abiatu orduko, andrei damutu eñ men tzikon da gizonai hots ein men tzion:

—Nei damutu zitak.


Hura bazijola-bestek.

—Ez al dek nahi? Honek ekarko hau — hotseñ men tzion andrek gonak jasoz.

Aizkenen juntau men tzien baño familik ez men tzuen izan.

Gau baten Iruxtan ikaragarrizko elurrek eñ men tzitun. Gizonak arbolen ganen, atariñ, Ama Birjiñea zeola amets eñ men tzon. Andrei ametsa kontau zionen, erokeriari utzi ta lo eiteko kontestau men tzion.

Goizen beitu zuenen, Ama Birjiñea han men tzion atariko haritzen gañen, elurrez estalita. Horreati men dauka Elurrezko Ama Birjiña izen, Iruxtako Ama Birjiñek.



ITZULPENAK

Aszentsorea trabatuta gelditu da

(L'ascensore si è bloccata)

ANTONIO FAVA

SARRERA:

(Iluna. Argia.)

(Hiru pertsonaiak, hantxe daude, irribarrez, elkarren ondoan. Aldo eta Gioconda gerora karakterizatuko dituzten gauzarik gabe daude. Ugok irratia dauka eskuetan. Piztu egiten du: Aurretik musika oso ezti bat duelarik)

LISTOR EROA:

Kaiso, muturzikin guztiok...

bai, bai, zuengatik ari naiz, nire irratiaurikular maite-maiteok, irratibelarriandiok, irratientzuleok, nahiago baduzue... Hemen zuekin zuen Listor ero leiala, Purrusta Irratiko antena zikinetatik, atseginik bizienaz kakazten zaituztela. Nire ahots karrankatzaile honek markatuko du, ikusteko zaudeten parabolatxo amoral honen garaia...

Hona pertsonaiak:

Giocondak interpretatzen duena.

Aldok antzesten duena.

Ugo aktoreak bere gain hartzen duena.

Ekitaldi lizun eta bakar honen izenburua:

Aszentsorea trabatuta gelditu da edo bestela: denbora baten istoria, zeina bait da... kasik thrilling bat...

Antzeslan honen egilea eta zuzendaria da Antonio Fava, teatroko piztia nahiko aldrebesa, ikuskizun mota honekin poz handiz setatua...

Erne zuen belarriok, maiteok...
Zorroztu begiak, xarmagarrienok...
Ahal baduzue eta baldin baduzue, erabili zuen kaskarrak ere...
Eta ongi pasa txepelok...

Alde egiten dute hiruek.

(Gioconda Txolinerdi sartzen da.

Gaztea da, xarmagarria, elegantea, harroa, hantustez betea, gogorra, uzkurra, mokordoa, sentsuala. Oportunismorik ederrena erakutsiko du.

Esku-boltsaz gainera, paperezko zorro bat darama, erosketez betea: aki batzuk.

Aszentsorea abiatzen da. Deitzeko botoia zapaltzen du.

Une batez, itxaroten gelditzen da.

Aldo Kaskarinaga sartu eta aszentsorea abiatzen da.

Aldo kultoa da, serio, gizon jatorrik eta zintzorik bada, bera da bat, aberatsa, inportantea, arrazista, bikaina, potentea, argia. Baina, ezkutatzen saiatzen bada ere, atsegin zalea ere bada, kasik kaskarina, gainerakoen ergelkeriaren lekuko jostaria.

Maleta txiki bat darama ongi hertsita eskuetan.)

ALDO: *(Giocondari)* Dei egin diozu aszents...

GIOCONDA: Garbi dago, ala?

ALDO: Oso garbi... hara... etorri da. *(Arraitsu Giocondari)*
Mesedez...

GIO: Hau bai dela gizatasuna... *(aszentsorean sartuz)*
Eskerrik ematen ez badizut, berdin izango zaizu, ba?

ALDO: *(Bera ere sartuz)* Ez naiz hilko horregatik... *(Botoi egokiaren bila hasiz)*

UGO: *(Zalapartaka heltzen da.)*
(Zarpaila eta pijoa da. Astakilo bat da, zikina, pertsona zuria, billaua. Gabardina eta txapel zuri izanak daramatza soinean, arretarik gabe; alkandora zahar bat, galtza zabalak txorkatilan lotuak, galtzerdi lodiak eta gimnasiako oinetakoak.)
Itxaron! Itxaron! Ni ere banator! *(Aszentsorean sartzen da dena irauliz eta itzulipurdikatuz.)*

Barkatu... barkatu... *(Sortu den nahas-mahasa zuzendu nahirik.)*

Triestetik nator. Trena galdu dut hasteko. Gero, hemen, tranbia

eta kartera nortasun agiri eta zortzi mila lira eta guzti... jabetuko zarete, aszentsorea ere galdu izan banu, popatik hartzera joan beharko nuen! Ah! ah! ah!

ALDO: Beno, beno, baina ez dezagun patxada ere galdu. (*Giocondari*)
. Nora zoaz, andrea,... neska?

GIO: (*Ezinegonez bezala*) Eta zu?

ALDO: Ni hogeita hemezortzigarrene, hura baita azkena.

GIO: Ni ez. Eman, eman lasai, utzi nirea nire kontu.

ALDO: Zure esanetara... (*Ugori*)
Eta zu... ?

UGO: (*Totel, baina beti ere pijo.*) Ni... ni, ba... aizu... zuk nahi duzune-
ra.

ALDO: Nolatan?

UGO: Ez, hau da, ba... zu zoazen lekura noa.

ALDO: (*Hotz.*) Ziur zaude?

UGO: (*Ziurtasun osoz.*) Ez.

ALDO: (*Gizalegaz, baina pazientzia galtzen hasita.*)
Beraz, nik hogeita hemezortzigarrenari emango diot, zuek jau-
nok, kontrakorik ez baduzue.
(*Itxaroten du, baina erantzunik ez; keinu zehatzik ez. Botoia
zapaltzen du.*)
(*Aszentsorearen gorako mugimenduaren ilusioa birakako argia-
ren bidez lortzen da.*)

UGO: (*Aszentsorea abiatu bezain laster.*) Baaagooooaaaaazzzz!
(*Erabateko pailazo bihurturik Giocondari.*)
Ikusiko duzu, emozioz beteriko bidaia egingo dugu!
(*Bizkarreko bat ematen dio.*)

GIO: (*Biziro, irmo, guztiz aztoraturik.*)
Ez ni ukitu ! (*Ugo izaturik geratzen da. Aldo zur eta lur dago.
Giocondak . Tonuz aldatzen du, gauzak konpondu nahirik.*)
Boltsa... arraultzez beteta dago... (*Bat atera eta erakusten die.*)

Hara! Ikusi!

Ez al zaizkit hautsiko!

Nire amonarentzat dira. Oso gaizki dago.

UGO: Zer, basoan bizi al da, goiko terrazan?

GIO: Nor?

UGO: Amona. Erne ibili aszentsoreko otsoarekin!
Uuuuuuhhhh... . .

GIO: Mmhh. Gogaikarria!

*(Une bat. Bakoitza bere aldetik. Ugo aspertu egiten da.
Aldok, egunkaria atera, eta irakurtzeari ekiten dio).*

Ugok, imitatuz, plastikozko zakutoan aldizkari sexy bat bilatu eta orriak pasatzen hasten da. Ugo dibertitzen ari da, Gioconda eskandalizatu egiten da. Ugok, aldizkariaren erdiko orri handia askatu eta aszentsoreko ormaren erdi-erdian itsasten du: Neskatil bilusi bikain batek irribarre egiten die izun hirurei).

ALDO: *(Edozein modutan, bera ere nahiko dibertiturik).*

Baina zertan ari zara, gizona, zer ari zara. Kendu hori hortik!

UGO: Oso luzea izango da bidaia, eta lekua antolatzen ari naiz.

GIO: Zikina. Eta gainera, segituan gara goian, Zertarako hasi behar duzu lekua antolatzen?

UGO: (Gioconda izorratzeko, otsoarena errepikatzen du)
Uuuuuuhhhh... . .

*(Aszentsoreak dardaizo bat egiten du. Argia piskat apaltzen da)
da).*

GIO: Zer gertatu da?

UGO: (Ez bait da ezertaz konturatu). Zer ba? Zerbait gertatu da, ala?

ALDO: Ba gertatu da, trabatuta gelditu egin dela.

UGO: Nor?

GIO: Oh, Jainko maitea, ez!

ALDO: Nor ez, zer:
aszentsorea trabatuta gelditu egin da.

UGO: Gure hau?

ALDO: Hau berau.

GIO: *(Ugori)* Eintzuidazu ongi, astakirten horrek!

UGO: Esan!

GIO: Ez da minutu asko nire ezagutza egin duzuna, eta txepelkeriaren marka guztiak hausten ari zara!

UGO: (*Gutziz objetibo eta entusiasmoz*)

Hala da! Bai, hala da!

GIO: Beraz, horretan bat gatozenez gero, ea beste puntu honetan ere bat gatozen:

Hemendik aldegin behar dugu... eta segituan gainera. Beraz, ea irtenbide zentzuzkorik asmatzen dugun hemendik...

ALDO: (*Hotz.*) Alarma jo dut segituan. Baina ez dut uste dabilenik. Hogeitamahirugarren eta hogeitamalaugarren estaien artean gaude, zulo batetan, lurretik ehun eta gehiago metrotara zintzilik, zementuzko lau pareten artean itxita.

Hasteko, lehendabiziko gauza, irmo egon behar da. Eta bigarren, eta ez horregatik bigarren mailan, patxada gorde behar dugu. Eta orain, itxarotea dagokigu...

GIO: Itxarotea, baina zer?

ALDO: Azxentsorea berriro abia dadila.

GIO: Eta abiatzen ez bada?

UGO: Ba, orduan, gure egoera larria izango litzateke.

ALDO: Hori txepelkeria!

Gu trabaturik gauden aszentsorea hirian dagoen eraikuntzarik Handienetako eta katramilatuenetako honetan dauden aszentsore ugarietako bat da.

Babelgo Dorre moduko honetan, bulegoa besterik ez dago. Estudioak, laborategiak, tailerrak, egunkari eta aldizkari askotako zuzendaritzak, aseguruak, finantz erakundeak.

Adibidez, sarrerako estaian, Banku Nazionala dago. Goraka zortzi estaia hartzen ditu bere bulego eta gauzekin, eta lurrazpian beste bi estaia dauzka gainera.

Gero ministerioetako eta udaleko ordezkariak dauzkagu. Eta gainera, notarioak, abokatuak, medikuak eta bestelako profesionalak.

Baina gain gainean, atikoan, zinema eta teatroko jendea bizi da, arteko jendea, kulturakoa, beren lagun nahiko xeble horiek joan eta etorri etengabea ari zaizkiela.

Hamaika terdiak dira, astearte, eta alde guztietan buila izugarria dago.

Edozein arazo tekniko edo administratibo sortzen dela, eraikuntza guztia maila ezberdinetan antolatuz dago, arazo horiei aurre egiteko. Hogeiren bat izango dira gutxienez atezainak eta askoz gehiago dira guztiaren zainketarako daudenak. Eta ho-

rien artean, aszentsoreen ardura duten teknikoak daude. Guztia konputadoreen bidez egiten da. Zerbait hondatzen bada, argizko laukietan azaltzen da, eta dagoeneko horretan daudenak konturaturik izango dira, ez badaude behintzat tabernan edo lotan edo hilda.

(Erlojuari begirada bat botatzen dio).

Hemendik eta, gehienez ere hoge minututara, askatuko gaituzte, eta aszentsoreak bere hegaldiari jarraituko dio.

UGO: *(Miretsirik eta entusiasmoz txaloka).* Hori daaaa...

GIO: *(Antsiaz beterik).* Baina, ez al zara konturatzen hoge minutu ere, gehiegi dela?

ALDO: Ez. Guzti hau amorragarria ere badela aitortuko dizut. Gehiago oraindik: Ni ere minutu oso preziatuak galtzen ari naiz baina, edozein modutan, minutu gutxi batzuk bakarrik izango dira.

Bestalde... *(Erlojua).*

Baaj, ea gordetzen dugun gure patxara madarikatu hau...

(Ugori begiraturuz).

Zuk ez duzu presarik, edo?

UGO: Ez, oso ongi nago hementxe. Hara, zure maletatxoa uzten badidazu, bertantxe eseriko naiz. *(Eskua luzatzen du).*

ALDO: *(Hortzen erditik, izugarri, ezin ezagutzeko moduan).*

Geldi esku hori...

UGO: *(Harrituta eta enbarazaturik. Ondoren, lasaitu eta enbarazorik gabe, Giocondari).*

Eta, dirudien bezala, honek luzetxo jotzen badu, neska eta andreak, zurrut egiteko arraultzatxoren bat emango digu, den bezain jatorra izaki. Gero, nire dendariari aginduko diot zurrut egindakoak ordainetan osa diezazkizun.

Hauxe, bai, benetako oilaloka!

(Kolpetxo bat ematen dio azpiko aldetik Giocondaren zakutxoari).

GIO: Eeeeeezzzz!

Eraile madarikatua! Ero amorratu bat zara!

UGO: *(Zer pentsa ez dakiela geratu da bien irteerengatik. Baretu, eta hondorik gabeko bere zakutik irrati-kasette bat ateratzen du eta pizten. Aretoko giro osoa rock txatxu batek betetzen du).*

Rocka atsegin al zaizue?

(Beste biek, erabat ernegaturik, karraska hasi eta meziprezuzko begirada botatzen diote).

Niri ere ez... ze itsusia... (*Kasettea aldatzen du. Mistinguette*).
 Mistinguette. Frantzesak da... ona!
 (*Zinta aldatu eta La Traviata jartzen du, Callas-en ahotsa*).
 Callas. Denei gustatzen zaie.
 (*Zinta aldatu eta Fava jartzen du*).
 Hauxe bai bikaina: Tony Favadoro. (*Favaurrea*)
 (*Azkenik, musika kendu egiten du*).
 Zein musika nahi lukete jaunek?

ALDO: Isiltasuna, (*Isilaldia*)

UGO: Ez, ez daukat ba nirekin. Baina joan eta eros dezaket.

GIO: Trabaturik dago.

UGO: Isiltasuna dago trabaturik?

ALDO: aszentsorea da trabaturik dagoena.

Eta zuk egin behar duzuna da, muturra hertsia, geldi egon eta artefaktu hori itzali.

GIO: (*Bapatean.*) Zein artikulu?

ALDO: (*Ugoren irratia-kasettea erakutsiz*). Hori...

GIO: (*Asaldaturik*). Ah. Kasettea.

ALDO: Zerbaiten susmoa hartuz.

Zergatik? Zer ulertu duzu?

UGO: Irratia ere badauka, eh? Irratia jarriko dut nahi baduzue.

ALDO: Bai, jarri, baina nik esandako lekuan.

UGO: Non?

(*Geldiune bat. Egoera lastu egin da, baina bakoitza nolabait berera biltzen da.*)

(*Gioconda bere boltsatxoan hasten da bilaka, eta zigarrilo pakete bat ateratzen du*).

GIO: Erretzen badut, inori minik egingo al diot?

UGO: Ez. Bai zera! Bat emango bazenit.

GIO: (*Zigarriloa eskeintzen dio Ugori, eta honek, bat ere lotsarik gabe, lau edo bost hartzen dizkio. Ernegaturik oso, Aldori eskeintzen dio*).

Zuk... ?

ALDO: Eskerrik asko, ez. Mintzen ez bazaitut, nahiago ditut nireak...

(*Bere paketetik hartzen du; paketea Giocondaren berdin-berdi-*

na da. Honek ere beretik hartzen du.
Aldok, lehenbizi Giocondarena pizten du, ondoren Ugorena, eta
azkenik berea).

(Geldiunea, ke asko eta patxada piskat lortu nahirik).

UGO: Erretzaile alaitsuak.

...
Erretzaileek badakite elkarrekin ulertzen...

...
Nagikeria, eh? Nagikeria da gainerako bizio guztien aita, anaia,
lehengusua, aitona eta koinatua.

...
Nik nahiago ditut rubiak. (*Aktorea rubia balitz, beltzak esango
du*)

Neska... edo andrea mintzeke, noski. . (*Tonuz aldatuz*).

Emazte zorionsu edo printzearen zain?

Ah, badakit: ezkongai, mutil gazte altu, rubio batekin, eta be-
giak...

...
Ezta...

Pentsatu behar nuen: ezkongabea, bi bizkien ama, zibiletako
kapitain batengandik dibortziatua.

(*Giocondak nekeak ditu Ugo jasaten. Zigarrikoa lurrera bota eta
oinaz artegatsu itzaltzen du*).

Artega, eh? Jabetzen naiz. Dibortzioa ez da gauzarik ederrena
ere. Gizonak batzutan nekagarriak ere izaten dira.

GIO: Hara! Horixe! Beraz, saia zaitetz ni bakean uzten, konforme?

UGO: (*Aldori*) Neska gaixoa... ulertzekoa da...

GIO: (*Bufaka*). Ez naiz neska gaixo bat! Ez naiz ulertzekoa!
Ez naiz ezkondua! Ez naiz ezkongai! Ez naiz dibortziatua!

UGO: Baina, ama zara!

GIO: Ez! Ez naiz ama, ezta izeba ere! Eta zuk, sartu muturra zure
kontuetan!

UGO: Hori da! Ezer baino lehen, zuhurtzia!
(*Aldori*) Bihozbera izan behar da...

ALDO: (*Laster*) Ongi da, ongi da...

(Egunkaria irakurtzen. Gioconda zurrun dago eta pentsakor. Aldo bere irakurketan murgildurik, Ugo aspertu egiten da. Ugok, Aldoren egunkariak baliaturik, albotik irakurtzen du.

UGO: *(Goi mailako gauzetaz hitzegiteko gogoaz handikiro azalduz). Zer iruditzen zaizue gaurko gobernu taldea?*

BIEK: *(Gogor eta zorrotz, batera). Ezer ez.*

Geldiunea

UGO: *Aita sainduak, nire ustez, italiarra izan beharko luke. Ez, gaizki esan dut, Aita Saindu poloniar bat ongi iruditzen al zaizue?(Aldori) Jauna, zer iruditzen zaizu?*

ALDO: *Ez zait ezer iruditzen. I(rakurtzen jarraitzen du).*

UGO: *Eeeeehhhhh. Hara, begira, zuk bezelako jaun batek hau bezelako arazo katramailatsu batean ez du eritzirik.*

ALDO: *Sentitzen dut. (Irakurtzen jarraitzen du).*

UGO: *Bufff...*

(Aspertu egiten da. Bufada. Ondoren bere zakuan begiratzen du. Harrituta bezala geratzen da. Esku bat sartu eta bila hasten da. Eskuak barruan, mugimendu arraro bat egiten du, Ugoren borondateak askaturik balego bezala. Ugo harrituta bezala dago; gainerakoek gauza arraro hura harriturik eta jakinminez ikusten dute beren aldetik. Ugoren eskua gero eta azakarrago ari da mugitzen zakua barruan.

Bapatean, atera egiten da eskua. Plastikozko munstrotxo txaxar bat dago Ugoren hatz batetatik zintzilik, hura jan nahi izango balio bezala.

Ugo uluka dabil eta aszentsorean saltoka hasten da, denak izutzen dituelarik).

GIO: *Mesedez, zaude geldi! aszentsorea dantzan jasi da!*

UGO: *Badakit! Egin dezagun dantzan denok elkarrekin!*

(Astiro astiro, baretu egiten da. Jokoa gainerakoek erakusten die).

Guido deritza...

A(Do eta Giocondak haserrea erakusten dute. Azkenik Ugok bere jokotxo utzi egiten du, berriro zakuan sartu, eta aspertzen hasten da, beste biak baretasuna gordetzen, Ugori jaramonik ez egiten eta beren baitan biltzen saiatzen diren bitartean. Ba-

patean, Ugok ondoez bat du).

Jainko maitea! Lagundu, lagundu niri!

GIO: Zer da? Zer daukazu orain?

UGO: Gaizki nago. Nire atakeetako batek eman dit. Egin zerbait, azkar!

ALDO: Baina benetan zaudela gaizki?

UGO: Bai, gaizki nago! Ah! Azkena da! Aahahahahahah...!

(Lurrera erortzen da, biraka, arnas estuka, uluka, eskuak zintzurra eramanez, etabar).

GIO: *(Aldori).* Egin zerbait, mugitu!

ALDO: Lasaitu zaitez, neska, ez ditzagun jarri gauzak dauden baino okerrago.

(Aldo, bere krisialdi ikaragarrian dagoen Ugori laguntzen saiatzen da. Aldok ahal duena egiten du, baina Ugoren konbultsioek dena eragozten diote.

Bapatean Ugo zurrundurik geratzen da, hilda bezala.

Geldiune larria Aldoren eta Giocondaren aldetik).

ALDO: Jauna... jauna... erantzun Jainkoaren izenean!

GIO: Jainko maitea, ez da ba izango... Jauna jauna jauna...

aszentsorean trabaturik, eta hildako bat gurekin...

Ez! Ez! Ez! Hau ezinezkoa da! Hementxe hil behar zuen txepel honek!

ALDO: Lasaitu zaitez, neska, ez da oraindik hil.

Jarri dezagun hola. *(Ahal bezala moldatzen dute).* Holaxe.

Orain arasketa artifiziale egin behar zaio. Ikustagun.

(Arasketa artifiziale egiten dio).

GIO: *(Piska bat geroago).* Eta?

ALDO: *(Nekaturik, geldituz).* Ezer ez.

GIO: Jainko maitea, baina konturatzen al zara?

ALDO: Bahh, bai, gizarajoa...

GIO: Zer gizarajo eta gizarajondo. aszentsorea abiatu eta urlia erdi hildako honekin harrapatzen bagaituzte, kontrolak, eta ikerketak eta amaibako nekeak datozkigu ondoren.

ALDO: Lagunurko zalea, eh?

GIO: Uztazu, uztazu.

ALDO: Arrazoin duzu, edozein modutan. Bere onera itzulerazi behar dugu derrigor.
Proba egingo al dugu arraultze batekin?

GIO: (*Laster*).
Ez!

ALDO: Ez aztoratu, ongi da...
Irtenbide bakarra ahoz-ahoko arnasketara da...

GIO: Oso ongi. Ekin.

ALDO: Nik?

GIO: Nork bestela? Ez duzu, ba, pentsatuko nik egingo diodanik?

ALDO: Hartu pazientzia, andrea...

GIO: Neska.

ALDO: ... Neska. Onartu beharko duzu ez dela gauza bera gizon baten tentzat edo emakume baten tentzat, gaisoa gizon baten baldin bada.

GIO: Hori hitzegiteko modua! Hemen ez gaude maitasunezko ariketetan, gizaki baten bizitzaren aurrean baino!

ALDO: Baina zergatik egin behar diot nik?

GIO: Zuri bururatu zaizu.

ALDO: Ongi da, ongi da. (*Ugo pentsatzen*).
Ama maitea, baina nondik atera da hau?
(*Saio bat egiten du, eta gero utzi*). Zimaurren pila bat da baina!

GIO: Kontua ugari zuk! Mugitu, hil egingo da eta.
(*Aldo saiatzen da, nazkari gainera hartuz. Ondoren, ustekabea:*)

UGO: (*Esnatuz bezala, Aldoren lepoari heldu, eta horrela zutituz*).
Ez du galduko aho lastanduak bentura, aldiz du ugalduko ilar-
giaren modura...
Harrigarria! (*Biak zur eta lur daude*). Eskapada ederra, eh?
(*Giocondari*). Eskerrik asko txapelarenagatik...
(*Aldori*). Eskerrik asko zimaurren pilarenagatik...
Eta ez da asko falta izan jaun serio batek lastandu nindezan...
Zer, ongi jokatu al dut?

GIO: (*Erabat haserre*). Lotsatu egin beharko zenuke.

ALDO: Nahiko txarra, joko bezala.

UGO: Nolabait igaro behar da denbora.

ALDO: Ez da nahiko arrazoi, inoren nerbioak urratzeko.

GIO: Ahoz-ahoko arnasketa egiteko puntuan nengoela pentsatzen badut...

ALDO: Neu nintzen arnasketa egiteko puntuan zegoena!

UGO: Baina ez dizut utzi egiten.

Ez zait atsegin laztan batez esna nazaten.

GIO: Bai. Zapladaka esnatu behar zintugun.

UGO: Baina onartuko didazue ongi antzestu dudala. Beti esan izan didate nire lagunek: Aktore izan beharko huke hik. Baina beste asmo batzuk ditut... poeta naiz ni. (*Biek bufa*). Ez al didazue sinesten?

ALDO: Sinesten dizugu, sinesten dizugu...

UGO: (*Orri xaxtar batzuk ateratzen ditu eta bila hasten*). Hara, hauxe adibidez. Udazkena deritza. Herriko parkean idatzi nuen behin, holaxe, bapatean, etenik gabe, bi zahar elkarri eskua maitekiro emanez zeudela ikustean:

(*Eztarria garbitu, jarrera eta tonua hartu eta irakurtzen du*).

Begiratzen zaituztet...

Eta ikusten zaituztet...

Zuek zaharrak zarete

eta ni ez.

Zuek maite duzue elkar

eta nik ez.

Zuek azkena xurgatzen duzue

eta nik ez.

Zuek elkarri maitekiro eskua ematen diozue

eta nik ez.

Agian pentsiorik ere baduzue

eta nik ez.

Zaharrak zarete,

enamoratuak zarete.

Eta ni?

Nik begiratzen zaituztet...

Eta ikusten zaituztet...

(*Biei, entusiasmoz*). Lirikoa, ez da?

(*Beste orri bat bilatzen duen artean*.)

Beste hau luzaro pentsatzen egon ondoren egina da. Ariman

astindu bortitzak sentitzen nituen batetan egin nuen. Izenburua bera iada saminezko garraisi mingots bat da berez. Izenburua du "Bonba".

GIO: (*Bapatean, ohiu ito batez*). Zein izenburu esan duzu daukala?

UGO: Bonba... bum...

(*Geldiune labur, harrigarri eta beldurtzekoa. Ugok irakurri.*)

Bonba.

Eztanda.

Borronba.

Apurtu.

Makurtu.

Beldurtu

Zimurtu.

Du hiltzen

eta garbitzen.

Ze gezur da.

Bermuda... lizentzia poetikoa...

Lehergarri

Xahugarri.

Burrunbari

errekari.

Lehertzaile

xahutzaile

Kiras kentzaile

Kutsu ezeztaille.

Zaratatsua.

Dirutsua.

Hotsanditu,

Dardaritsu.

Bonba.

Eztanda.

Borronba.

Nire baitan dagizu bum.

Nire ohean dagizu bum.

Sofa gainean dagizu bum.

Bizarginenean dagizu bum.

Botikan dagizu bum.

Zineman dagizu bum.

Dagizu bum

Edozein lekutan zaudela:

Etxean, kalean, leihoan, balkoian;

Tranbian, autobusean, trenean,
banketxean, elizan,
ordu orotan zara lehertzen
aszentsorearen barruan ere... To. aszentsorea.
nire bihotzean balitz bezala.
Bonba, ooohhhh Bonba.
Bonbarabonbarababa. Bum!

Bikaina, eh?

GIO: (*Erabat txunditurik*).

Zu... zu... orratio... zu... zu zara...

ALDO: Zu "saltsero" samarra zara. Orain neskak eta biok biziki eskatzen dizugu, txintxo-txintxo portatzeko. Isil-isilik egongo gara aszentsore bedeinkatu hau abiatu arte, geldi-geldi eta bare-bare, konforme?

UGO: Zuk bai dakizula gauzak eskatzen...

Gozotasunez edozer gauza lortzen da, egia...

Beno ba, iraupen ona, orduan...

Geldiunea

GIO: Zenbat denbora igaro da?

ALDO: (*Erlojua begiraturik*).

Zehatz esanda, hogeita bost minutu eta hamar segundu.

GIO: Jainko maitea... hamalau minutu eta berrogeitamar segundu berru hemendik aldegin ez badugu, gureak egin du...

ALDO: Zer esan nahi duzu?

UGO: Ah, ah. Hau komeria. Irteten banaiz, egingo du nireak!

ALDO: (*Ugori*). Zer esan nahi duzu?

UGO: Hara, ba, esan nahi nuen, ba... aizu, neskak erantzun behar du lehendabizi, eh? Bakoitzak bere txandan!

GIO: (*Tonuz aldatzeko, nahiko nekeak dituela*).

Hara, begira... nire burua aurkeztuko dut... Ni naiz Gioconda... Gioconda Txolineta.

ALDO: (*Eskua luzatuz*). Pozten naiz. Aldo Ekonomian doktoretua.

GIO: Pozten naiz.

UGO: (*Giocondari*). Ugo Sakelustegi, pozten naiz guztiz.

GIO: Pozten naiz. Gioconda Txolineta.

UGO: *(Aldori)*. Sakelustegi.

ALDO: *(Eskua luzatuz)*. Pozten naiz. Kaskarinaga.

UGO: Sakelustegitar Ugo, adiskideen artean Ugo Kuso. Jajajaja!
(Bizkarreko bana ematen dio bortizki bakoitzari).

ALDO: *(Ernegaturik. Biek batera)*. Zaude geldi, astakirtena!!!!

GIO: *(Ernegaturik)*. Alde baina hemendik!!!!

UGO: *(Mindurik, komeriante handi bezala)*.

Zuen portaera honek mindu egin nau eta behartzen tonu hotz bat, handikia eta duintasunez betea hartzera, gogortasun aristokratikoari dagokion neurrikoa, alegia... Irratia entzungo dut, zuek nahi ez baduzue ere.

(Biek eragotzi egin nahi diote. Ugok, ordea, esku bat sartzen du azkar boltsikoan eta gogor begiratzen die.)

STOP.

(Armaz egindako mehatxu baten susmoa hedatzen da.

Boltsikotik astiro ateratzen du eskua, baina betiere nahiko urduri Ugoren portaeraren aurrean.

Ugok aurikularra irratian itsasten du. Piztu. Irratia indar guztiz hasten da, Ugok aurikular hondatua boltsikoan sartu eta beste biek irratia entzutera etsita jartzen diren bitartean).

IRRATIA: *(Gutziz nekagarri)*.

Kaixo, kakamokordo eta kakapirrin guztioi, eta kaixo baita ere zamako piztia eta builako astakume diren zuen zaharrei. Hemen Listor Eroa, kakapilako zimaurmila megahertziotan...

Pernachia Irratiko ppppprrrrrrr antena hauetatik zapladaka ari zaizuen...

Propagandaren zokoa da.

Propaganda zoko amaibako gogaikarri guztiz zikina da eta den-dena xurgatuko duzue, zeren, hor zuen desesperazioan baka-rrik zaudeten bitartean, ez bait duzue izango adorerik irratia, zuen belarrietako eguneroko droga hau itzaltzeko.

(Gong ergelezko segida zentzugabea).

Jan ezazue trokote bat.

Trokote eder bat iresteke, esan dut!

Trokotea da gainean idatzita dakarrena ez, beste edozer gauza.

Eta estaltzen duen zelofana zimurtu ondoren, koloratzailearen eta kontserbatzailearen erdian, plastiko zati garbi oso garbi bat topatuko duzue.

(Eromenezko beste gongaldi bat).

Edan ezazue Plisti bat eta Plausta bat gainera. Eta gaitz dagizueta Plastak, limoiaren, limaren eta limuriaren gusto apartsu, higuingarrikoak, eztarrian jeitsiz behera dihoakizuela glu-glu-glu.

Plisti eta Plausta

ggggrrrrrr... ggggrrrrrr...

Txip-txop-txap, txaplatxap...

PPPPPPRRRRRRRRRRRRRRRRRR!!!!!!

Harrapatuko al duzue gaitzik txarrena

eta hilko al zarete hotzikararik mingarrienen erdian!!!!

Goazen rocktzar honekin!!!!!!

Aidaaaaa!!!!!!

(Rock izugarri gogor bat dator).

GIO: Lagundu... lagundu... Inork entzuten al du?

aszentsorean trabaturik gaude. Lagundu... egin zerbait! Atrapatu-
turik gaude... ! Lagunduuuu! ... LAGUNDUUUU... !!!

(Ugori desesperaturik). Itzal iezadazu irrati hori! Ez dituzte entzuten deiak! Ez gaituzte aterako sekula!

ALDO: *(Pazientzia galdu du. Pistola atera, eta Giocondaren burura zuzentzen du. Hau erabat zur gelditzen da. Gauza bera, Ugo).*

Tiratu egingo dut, isiltzen ez bazara.

(Aldok hitzok ozen esan ditu, argi eta garbi, bare, erabakitasun beldurgarriz. Bere itxura gogorra da. Rocka bukatzen da, baina Listor Eroak berriro ekiten dio hizketari).

IRRATIA: Hemen beti zuekin Listor Ero zakila, Pernacchia Irratiko antena likitsetatik, ppppprrrrrr... . hiri kaka honetako azken berriak zuentzat.

Duela ordu erdi juxtu National Bank delako horretan diru zulo handi bat aurkitua izan da. Bai, gizonak, bai. Gure superpoliziek

somatu, erabaki eta finkatu dute litxarreroak "in the bank" ezkutatuturik egon direla, edo bestela funtzionari maltzurkote batek garbitu dituela barrutik txanpon guztiak: Bost mila miloi, bost mila!

Alferrik beraz, asfaltoko oihanean, "Asphalt junglean" "surching in the rain", euripetan bila hastea!

Palaziotarra, Jasogoraeta jaunak sinaturiko kriltaleria eta burniteria pila katramilatua, gureek zaindurik dago, arauak aginduriko uniformeak eta biboteak soinean dituztela. Ate, ataka, atari eta atarte guztiak gordetzen, zakurrak. Urra!

Eta orain, Listor Eroak Pernacchia Irratitik, pppprrrr... milionari berri maltzurkoteari, ondorengo mezu hau bidaltzen dio:

Oh hi, jaun misterioitsu zintzoena, hire maletatxo anonimoa bost mila miloi papertxo filigranatu itxurabakoz gizendurik, serio eta txintxo hoana, nora hoa, nora hoa ez baduk salbazioa? Agur maite! Ihes egik armagizon ezjakinen haginetatik, hirekin duk gure solidaritate guztia! Eta izorra hitzak dirutzar guzti horiek izerdi patsetan irabazi dituztenen muturretan!
Hirekin gaituk! Hirekin gaituk! Hirekin gaituk!

Irratiaren jardunaldi guzti honen bitartean, Glocondak eta Ugok garbi erakutsi dute jabetu direla Aldo dela banketxeko funtzionaria eta maletatxoaren barruan bost mila miloiak daudela.

Irratiaren testua bukatzera doala, Aldok pistola Giocondaren burutik

Ugorenera aldatzen du. Ugok ulertu eta irratia itzaltzen du.

Isiltasunezko eta gelditasunezko unea. Tentsio oso gogorra).

GIO: *(Kasik negarrez).* Kaskarinaga jauna... entzun une bat, mesedez... Zuek, materialistok, "itsu" deitzen dituzuen horietakoa nauzu... "Gaiztakeriaren kontrako onbidearen aldeko Botere Zerutar" deritzan erakunde iraultzaile-trazendentaleko bazkide naiz. Zeregin bat betetzen ari naiz... hemen, erosketa zorroan ezkutatuturik aingeruen uzker bat daukat...

ALDO ETA UGO: Aingeruen uzkerra?

GIO: Bai... bonba bat. Guk, Botere Zerutiarrekook bonbei aingeruen uzker deitzen diegu... purifikatzeko dira. Sarrerako estaian jarri behar nuen, zuk bost mila miloiak ohostu dizkiozun banketxean hain zuzen...

(Aldok berriro bere aldera zuzentzen du pistola).

Ekin aurretik, azken minutuak igarotzeko hartu dut aszentsorea, ahalik eta isilen, gora eta behera ibiltzeko... Hara, lehergailua denbora-emaila bati loturik dago, hor dago koska... eta nik ez dakidala askatzen. Zu artifiziarri samarra bazina...

ALDO: *(Erabat izaturik, pistola daraman eskua begiratzuz).*
Ez... soldaduskan bulegoetan egon nintzen.

GIO: Ez... oh!

UGO: *(nork espero ez duela).* Baina nik badakit hortaz zerbait!

ALDO: Ziur zaude? Ez da, ba izango beste pailazokeria bat?

UGO: Zure buruaren izenean zin dagizut!

Motikotan hasi nintzen. Behinola, esnagailu txiki batez petardo bat paratu nuen, aitaren ehize-zakurra lotu-lotu egin eta gero petardo hori ba, jarri nion... buztan azpian sartu nion, hola, besterik gabe, ikusteko, kimikari txiki eginda... ba al zenekien Nobel jaunak, izen bereko Sariaren asmatzaileak, dinamita ere asmatu zuela? Eh? Bartezzaghi irakurri al duzu?

Baina, nik falderaren zati bat nahi dut niretzat, bestela ziplo eta bum!

ALDO: Baina zer ziplo gero! "Bum" horrekin akabo zu ere.

UGO: *(Serio, ziur, beldurgarri).* Eta niri berdin zait!

(Une batez pentsatuz. Kolpetik Giocondak zorroa dagoen bezalaxe luzatzen dio Ugori).

(Zenbait joko, ohizko edukinaz: Arraultzeak, gazta, fruituak, barazkiak. Azkenik zorioneko bonba azaltzen da: dinamita ziriak eta esnagailua, bonba baten karikatura.

Arretaz aztertzen du Ugok atrikulua. Esku bat sakelean sartu eta labana automatiko bat ateratzen du, ahoa atera eta ukitu oso delikatueta murgiltzen da. Boltsikotik egunkari zatikiak azaltzen dira. Aldok, beste biak oso kontzentraturik daudela baliatuz, Ugo-ren sakeletik egunkari zatikiak atera eta irakurtzen ditu).

UGO: *(Lana amaitzean).* Uff.

GIO: Egina?

UGO: Bai eta ez.

GIO: Nolatan bai eta ez?

UGO: Ez naiz ausartu indargetzen eta orduan leherketa atzeratu besterik ez dut egin.

GIO: Zenbat denbora?

UGO: Ordu erdiren bat.

GIO: Hain gutxi?

UGO: Hel iezaiozu, ba, zeuk. Zeu zara iraultzailea eta uzkertu handia. Zeu zara Jainko Guztialdunarekin eta Goiaingeruarekin zuzeneko telefonoa duena. Ni neure aldetik soil-soilik...

ALDO: (*Mozten dio irakurriz*).

... Ugo Sakelustegi hogeita hemezortzi urte, Triesten jaioa, lanbidez intxaur, kakahuete, gozoki eta turroi saltzaile ibiltaria.

Poliziak bilatzen du bortxatu, torturatu, hil, zatikatu eta txikitu dituelako gutxienez ere, hurrengo hauek: hamabi neskatila, zortzi motikotxo, bost atso bakarrik bizi zirenak, hogeita zazpi alargunsa denak gazteak eta gustagarriak, udaltzain bat zibilez jantzia eta agure pentsiodun bat, azken hau erabat helbarritua gurpil-aulkira behartua...

UGO: (*Aldori kentzen dio zatikia eskutik. Guztiz zital*).

Nahikoa da, orratio... halako gauzak, ozen eta emakume baten aurrean irakurri! Zerria galanta! Ez zara lotsatzen?

ALDO: Ni ez, eta zu?

UGO: Ni bai... hara, begira... zuen baimenaz...

(*Ahal duen bezala etzaten da plataforman*).

Begira, haurtzaro oso, oso zorigaiztokoa izan dut nik... Aitak pattarra edaten zuen eta jo egiten ninduen... amak egunez, aitak jakin gabe, ederrarena egiten zuen eta gauez, aitaren aurrean, santarena... Eta baliteke aita bera nire aita ez izatea ere... bai ba, bestela trentxoia erosiko zidan, bizikleta erregalatu zidan, ez ninduen sekula joko. Eta ez ninduen mojetara eramango, zakurrarekin egindako esperimenduaren ondoren. Behin, zinematokian, masturbatzen ari nintzela harrapatu ninduen aulkizainak... Bere linternaz, izugarrizko eiakulazio bat bete-bete argitu zuen. Raquel Welch-ena zen kulpa guztia. Ez dizuet esan ere egingo zelako trauma jasan nuen.

ALDO: Ez.

GIO: Ez.

ALDO: Esan.

GIO: Esan.

UGO: Harrez gero, norbaitek Raquel Welch gogorazten badit, eta aski

da horretarako zernahi txikiena, berriro egiteko gogorik handiena sortzen dit... Gehienetan berriro egiten dut. Baina gero etortzen zait burura linterna, eta itsutu egiten naiz. Orduan ateratzen dut nire labana eta... (*Labanaz, keinu adierazgarria*).

ALDO: Ah, zein ongi ulertzen zaitudan. Niri ere gauza bera...

GIO: Ah, zure zinematokian...

ALDO: Jainkoaren izenean, ez, ez.

(*Ugo altxatu egiten da, eta Aldo bere lekuan etzanerazten du, lurrean*).

Amarekin etzaten nintzela egiten nuen ames...

UGO: Ah!

ALDO: Orduan On Pinguinok...

GIO eta UGO: Pinguino?

ALDO: Herriko erretorea On Paskuino zeritzan, baina motikook geuron artean On Pinguino genion gaitzizen bezala, hitzen antzagatik ere bazen, baina batez ere ibiltzeko zeukan eragatik... gero soinekoa, luzea eta beltza... eta zerbait egin behar zuenean, gainean ipini ohi zuen amantal zuri handi hura...

Non zaude orain fede xalo barregarri triste eta zalantzarri gabeko baten lekuko?

Nora zoaz hegaka, hegorik gabeko hegazti, aingeru izuna, xalotasunaren hegaldari?

Eta aizu... gogoratzen al zara nirekin?

Nork hustuko dizu limosnen kutxatila?

Nork botako dizkizu aitorlekuko zirriztuetatik upats borobila-goak?

Nork beteko dizkizu pixaz elizako ur-harriak?

Apeztxo maite ahantzia...

Baldin parabisurik bada ezgauzentzat, alferrikakoentzat, arlo-teentzat, zu egongo zara zalantzarik gabe jargoian eserita...

On Pinguino gizarajoa...

GIO: Eta gero?

ALDO: Bai, bai... On Pinguinok, aitortzakoan, aditzera eman zidan, amari ezin zekiokela... ba, hori...

UGO: Adarra sartu.

ALDO: Hori. Ezta munduko urre guztiagatik ere.

UGO: Antigualekoen antzekoa, eh, zuen On Pinguino hori?

GIO: Eta gero?

UGO: Eh? Eta gero?

ALDO: (*Altxatuz*).

Ba, nire ama nireganatu ezin dudanez gero, ba, munduko urre guztia nireganatzen saiatzen naiz. Eta egia esango badut, saiatuz-saiatuz, maila nahiko onean jarri naiz. Baina, zer nahi duzue? Bat ez da sekula asetzen (*Diruen keinua egiten du*). Azken txanpon hauekin (*Maletaren aldera keinu*) erretiroa hartuko dut, eta bizitza on bat pasatzera noa.

Eta zuk, neska? Zer gorapilo daukazu barnean, bonbak bantzen ibiltzeko?

(*Ugok Gioconda etzanerazi nahi du, baina Giocondak biziki uko egiten dio*).

GIO: Erabat normala naizela esan behar dizuet, nire oreka siko-fisikoa akatsik gabea dela guztiz. Ez dut traumarik, gorputzean eta ariman erabat libre naizelako.

Eta badakizue zergatik?

ALDO eta UGO: Ez. Zergatik?

GIO: (*Sutu egiten da*).

Egia dakidalako.

Egia ikusi dudanez gero, dena daukat garbi, dena garden iturriko ura bezala.

(*Aldori, su biblikoz*). Zuek! Zuek, zeuron barne zikinetatik berrietatik jaio den mundu gaizto baten adibide zimeldu batzuk zarete zuek! Zuen ondotik, zuen pareko izateko asmotan, ardi galdu talde batek (Ugo adieraziz), irrikarik lehitsuenaz jarraituko dituen lege zikinak asmatzen ditu zuen arima ustel eta galduak! Baina, ai zuek! Gu erne gaude!

UGO: Hori! Zurekin gaituzu! Gora aingeru uzkertiak!

GIO: Hago isilik, gaizto hori! Pailazo zikina! Goian dagoen edozeinen aurrean makurtzen haizen zakila! Hi, hi izango haiz hemen, lehertuko den lehena!

UGO: Baina ni, ni bat nator zurekin, aingeru mendekatzaile.

GIO: Ixo! Belauniko! (*Ugo ez da mugitzen*).

Belauniko esan dut! (*Belaunikatzera behartzen du indarrean. Aldori*).

Hi ere bai. Belauniko!

ALDO: Aizu, ez ditzagun nahastu gauzak.

Ni ez naiz sekula belaunikatu, ezta elizan ere.

Eta orain zu bezalako erokume baten aurrean hasiko naiz ni belaunikatzen!

GIO: Ez duk belaunikatu behar lekuko apal honen aurrean, ez, heriotze ziurretik libratzen gaituen Probidentziaren aurrean baizik. Orain-txe bertan, hari batetatik zintzilik bizirik gauzkan Probidentzia-ren aurrean!

ALDO: (*Zalantza txiki baten ondoren*).

Zera, Nahikoa da oraintxe! Altzairuzko kable bikain bati esker dabil aszentsorea. Mundu guztian daude aszentsoreak eta denak sistema berari esker dabilta, inondiko akatsik gabe. Eta sistema horretan, nik, andre maitea, uste osoa daukat.

UGO: Hori da. Eta nire aldetik zerbait esan badezaket, eta begirune osoz noski, bonba oraindik lehertu ez bada, da eskerrak bi eskutxo trebe hauei, labanatxo horren laguntzaz hainbat gauza egoki egiten bait dituzte.

GIO: Ah! Gizarajo axalak, itsuak, gorrak... ez dakizue zer esaten duzuen ere... Baina, ez al zarete konturatzen, hemen elkarrekin topo egin badugu, ez dela halabeharrez gertatu? Ez zarete konturatzen, goragoko borondate batek gurutzatu dituela gure bideak?

ALDO: Ba, nire borondaterik sendoena da, bide horiek bertatik banatzea.

UGO: (*Giocondak beti lurrean belauniko egotera beharturik*).
Luzaro egon behar al dut oraindik hola, belauniko?

GIO: Bai, Kaskarinaga jauna belaunikatu arte, eta oraintxe bertan probidentziak inspiratu didan otoitza esan arte.

ALDO: Pazientzia galtzen ari naiz.

(*Kanpora ohiuka*).

Aska ezazue behingoz aszentsore hau! Entzuten al duzue? Mugu-itu zaitezte, arraioak!

UGO: (*Harrigarriri bare eta tonu pedagogikoan*).

Kaskarinaga jauna, mesedez, egizu niregatik.

Belaunika zaituz minutu pare batez. Alimo, zer galtzen duzu horrekin?

Honek bestela, desblokeatu arte edukiko nau hemen eta orduan deskuidoan muturretan lehertuko zait bonba... mesedez...

ALDO: Zaude isilik zu ere!

UGO: (*Aldori jantzietatik indarrean helduz eta belaunikaraziz*).
Behera esan dut!!!

GIO: (*Azkar Ugori*). Ugo jauna, ez al daukazu musika zerutiarrik zureen artean?

UGO: Hori galdera! Jarriko al dut?

GIO: Jarri. (*Gioconda inspiratzene eta Aldok pairatzen duen bitartean, Ugok zinta jartzen du. Arpegiatu zerutiar bat da. Giocondak abestu:*

Aingeru, aingeru ederra
zabal zure hegoak
gizadi gaizto honen
gaitzetatik gu libra.
Hartu gutaz pazientzi
izan gurekin erruki
aingeru, aingeru ederra
egia erakutsi.

(*Kantua bukatu. Ugo harrituta, Aldo guztiz amorraturik. Giocondak hizketan jarraitzen du*).

Oh zu, aszentsoreetako aingerua. Hiru ezgauza hauek probatu nahi izan dituzuna, gainerako guztien artean gu hautatu gaituzun aingerua, zaitez bedeinkatua, zu, aingeru guztien artean zerutiarrena.

UGO: Amen. (*biek batera*)

ALDO: Azkena da hau!

GIO: (Poliki-poliki hitzak astiroago esanez eta xurgatuz).

Jarri zure lan probidentzialari.

Gu, zure ospearen hiru lekuko txit apalok prest gaituzu jarraitzeko.

Banatu dugu guztia... eta guztia esaten dudanean... esan nahi dut... guztia.

(*Aldok eta Ugok elkarri begiratzen diote. Giocondak begiratu egiten die. Hiruok bapatean maletatxoari begiratu eta haren gainera jotzen dute zalapartaka*).

UGO: Bi mila miloi terdi tokatzen zaizkit bonba atzeratzeagatik.

GIO: Ez, ez. Hemen hirutan banatu behar da. Azken batean, bonba nirea da!

ALDO: (*Pistolaz apuntatuz eta maletatxoa eskuratuz*).

Demagun, garbitzen zaituztedala, eh?

(Giocondak azkar batean bonba hartu eta Aldoren pistolaren muturraren kontra jartzen du. Ugok bere labana ateratzen du. Aldo eta Gioconda Ugoren kontra bueltatzen dira, eta honek kasi konturatu ere gabe labana askatzen du. Biak berriro bueltatzen dira eta pistola-bonba egoeran jartzen berriro. Ugo egoera hortaz baliatzen da labana berriro hartzeko.

Une honetan hiruak elkarri kontrolatzen daude, oreka nahiko bitxia guztien artean sortzen dutelarik).

UGO: Jaun agurgarriok, nik ez daukat zer galdurik.

Eta hala uste ez badut ere, edozertarako prest nago.

Neskak txikitzen nauela edo zuk jauna burumuinak erretzen dizkidazula, gera bedi garbi, neri berdin zait guztiz.

Baina, bizitzeko banaiz, ongi bizi nahi dut...

Unetxo bat aski zait. Oso naiz trebea labanaz, egia.

Zuek mugitzen hasterako, nik hil zaituztet...

Eta tramankulu hau desblokeatzean, majo aberasturik joango nintzateke.

Orduan, zer, traturik egingo al dugu?

GIO: Lehen ere esan dut: hirutan banatu behar da, eta gainera bi-dezkoa da.

Lehendabizi, hiruok lapiko berean gaudelako; bigarren diruaren heren bat hartzeko, bakoitzak arrazoi nahiko egokiak eman ditugulako.

ALDO: Baina, zu, jauna, zu ez zeunden nirekin plana aztertu eta burutzeko orduan. Bakarrik aritu naiz, zilegi bekit esatea. Hemen, istoria honetan nire izena jarri dut jokoan nik, nire lanbidea, nire ospea.

UGO: Eta zergatik ez nik?

ALDO: Zein izen arriskatu behar zenuen, ba, zuk, errugabeen bortxatzaile horrek!

UGO: Ni naiz hemen ezaguna dena, zu eta neska oraindik ez: hortxe dago alde guztia.

Nik errugabeak bortxatzen baditut eta zuk, zure aldetik, duten guztia kentzen diezu. Gioconda andereñoak, sotiltasunik handienaz, jo eta zati-zati egiten ditu. Parean gaude. Gehiago oraindik: berdin-berdinak gara.

GIO: Hori da. Beraz, zati berdinak.

UGO: Bat nator Giocondarekin.

Bi alde, bat kontra, doktore maitea. Ekin, ekarri txanpon horiek, bestela hemen, zure filosofia guztiaz pentsatu ere pentsatu ez zenukeen kolpe bat gertatuko da.

ALDO: Entzuidazue, neuk egingo dizuet proposamenik egokiena; entzuidazue ongi.

Hasteko, fardela nirea da...

(*Biak erreakzioa*). Zaudete, utz iezadazue bukatzen.

Bigarren: minutu gutxi barru aszentsorea desblokeatu egingo da.

Hortan, seguru, ez dago dudarik. Goiko terrazan helikopteroa daukat.

(*Biak harridura eta miresmen handia*).

Banketxekoen ustetan, oporretara noa...

Irten baino lehentxoago, bonbaren denbora-emailea une batzuk gerotxoagorako jartzen da. Irten. Terrazara igo. Eta aide handik. Hemen dena lehertzen da, gu Riora goazen bitartean, aztarna guztiak garbituz. Han aurpegia konpondu eta nire inperioa sortuko dut.

Hirugarren:

(*Ugori*).

Ba al dakik gidatzen?

UGO: Helikopteroa?

ALDO: Ez, automobila.

UGO: (*Soldaduen gisara irmo jarriz*).

Ugo Sakelustegi txoferra, zure esanetara!

ALDO: Ongi da. Txofer hartzen haut. Hasteko emango dizkiat bost mili... demagun, hogeitamar mila lira, ikusiko diagu geroago zer.

UGO: Ez da berorren Eskuzabaltasunari kontra egiteko, baina hogeitamar mila lirak egunoro balira...

ALDO: Hala dira.

UGO: Ah, hala dira? Ba, edozein modutan uste nuen Berorren Oparotasunak bestelako modu zuzenago batetan eskertuko zidala...

ALDO: Aizak, txoferra. Helikopteroan birentzat zegok lekua. Hiru sar-tzeko ere estutu gaitzekek, baina hire mokofin eskakizun horiekin isiltzen ez bahaiz...

UGO: Berorren Minberakortasunak ez daki jostaketarik ulertzen...

ALDO: Ados beraz?

UGO: Ados guztiz, Berorren Gorentasuna.

ALDO: (*Giocondari*).

Laugarren: nire ustez hi... bai, hara... trebea izango haiz hala-ko...

UGO: (*Aholkulari bizkor*). Ariketa erotikoetan, doktore.

GIO: Eta ez banaiz ama bezalakoa?

ALDO: Bah. Denok duzue elkarren antza.

UGO: (*Aldoren morroia erabat, bere arazoez kezkatu*rik).

Doktore, ez al zaizu iruditzen Raquel Welch-en antz piskat ere baduela?

ALDO: (*Oso gogor, hortzen artetatik*).

Ez ausartu sekula! Ezta begiekin ere!

UGO: (*Ezin leialago*). Zeruak zigor nazala, doktore, sekula ausartzen banaiz...

ALDO: (*Oihuka*). Eta ez hasi pailazoarena egiten!

UGO: (*Militarren disziplinaren tonuan ekinez*).

Obeditzen dut azkartasun eta itsumenez, apaltasunez, morrontasunez, ipurtzuritasunez eta gainera billautasunik handien eta aldaezinenez.

ALDO: (*Giocondari*). Orduan, zer?

GIO: (*Dagoeneko, apainketa zuzentzen hasia baitzegoen*).

Bah, garbi dagoela iruditzen zait, edo?

(*Makilaia konponduz*). Eta gainera ez dut sekula ikusi Rio...

Baina, alde zure jakinerazi nahi dizut, nire jaun eta jabea: Ni oso garestia naiz, zure txoferra baino askoz garestiagoa...

UGO: Bi bider bai, gutxienez.

(Oso begirakune txarra botatzen diote biek. Ugo txiki-txiki bihurtzen da. Aldok eta Giocondak sakonki begiratzen diote elkarri, bata bestearengana hurbiltzen dira eta maitasunezko duetto bati hasiera ematen diote, bitartean Ugok ikusi bai baina ez begiratzeko ahalegin guztiak egiten dituelarik).

ALDO: Ederra haiz, Gioconda.

GIO: Eskerrik asko... Baina Gioconda nire borroka izena da.

Nire benetako izena da...

ALDO: Ez esan, niretzat Gioconda haiz.

GIO: Eta hi, Aldo? Nor haiz?

ALDO: Hiretzat, Aldo naun.

UGO: (*Idilioa hautsiz*). Aldo jauna...
(*Biak geldi geratzen dira*). Boskarren puntu bat legoke...

ALDO: Eta litzateke?

UGO: Litzateke... Ba... Nork esaten digu zure maletatxo horretan bost mila miloiak dituzula eta ez, zer dakit, adibidez ordainagiriak edo oraindik okerrago letrak?

ALDO: (*Ulertu ezinez bezala, begirakune txar bat botatzen dio Ugori ondoren Giocondari begiratzen dio, eta honek ere badirudi Ugoren zalantza berak dituela. Sakon arnasa hartuz, Aldok dio*):
Ongi da, ba...

Eta pentsatu sekula esperoko ez zenuten zerbait erakutsi nahi nizuela bere garaia heltzean...

Beraz: jakin, hemen barruan ez daukadala dirurik.

BLAK: Ah!

ALDO: Dirua, nire lankide bati eman nion, segurtasun kutxatilen ardura-dunari.

GIO: Eta zergatik?

UGO: Eskuzabala da oso gizona! Ez al zenekien?

ALDO: Berak, trukean, kutxatili horietako batzuetan zegoena eman di-dalako...

(Biek erabat leloturik begiratzen diote, zain).

... Diamanteak. Hiruek maletatxoa begiratzen dute).

(Aldok irekitzeko keinua egiten du).

UGO: Itxaron!

Astiro, jauna... nik zineman bakarrik ikusi ditut... badakizu, bihotza...

GIO: Nere bizitzan hirutik gorako pilarik ez ikusi sekula... eta gainera ez ziren nireak...

UGO: Giroa...

(*Kasette bat bilatu eta jartzen du.*

Verdiren Dies Irae eta argi oso sugestibo bat ematen diren bitartean, Aldok maletatxoa irekitzen du. Soinu eta argiaren efektuak bukatzean, maletatxoa irekirik dago eta barruan edukin ikusgarria benetan: diamante pilak eta pilak).

GIO: (*Xuxurlatuz*). Aldo, maite haut...

UGO: Eta nik ere bai... (*Aldok kolpetik isten du*).
(*Bukatzen da argiarena eta musikarena . Hau, Ugok itzaltzen du*).

ALDO: Pozik?

GIO: Oh, Aldo! Zoragarriena haiz! (*Aldo lepotik heltzen du*).

UGO: Ipuin bat dirudi.
Edurne Zuri... (*Gioconda seinalatzen du*).
Printze Urdina... (*Aldo seinalatzen du*).
Eta zazpi ipotxak!
(*Bere burua seinalatzen du*).

(*Aldo eta Gioconda xamur-xamur, bero-bero daude elkarrekin. Maitasunezko duetto bati hasiera ematen diote, bitartean Ugok ikusi bai baina ez begiratzeko ahalegin guztiak egiten dituelarik*).

GIO: Handia haiz, Aldo.

UGO: Beraz, hemen Ugo den bakarra, neu naiz.
(*Ez diote batere jaramonik egiten*).

ALDO: Hire erreflexu azkartasuna zaidan atsegin.

GIO: Eta niri biziki, hire kemena.

ALDO: Izango al haiz leiala?

GIO: Jakingo diat nire sentimenak aministratzen.

ALDO: Bidaia asko egingo zitunat. Itxarongo al didan?

GIO: Etxean?

ALDO: Etxean...

GIO: Segun etxea nolakoa den...

ALDO: Etxe oso eder bat izango dun...

GIO: Eta parkeak eta automonilak...

ALDO: ... eta morroiak eta erosotasun guztiak.

GIO: Eta askatasunik zabalena...

ALDO: (*Lepoan musu ematen dion bitartean*).

Bai... askatasuna... nik emango diadanaren alderantzizko proportziokoa izango dun...

GIO: Oh, ez izan beldurrik... mundua aldatze hori ez duk nire espeziali-

tatea, egia, baina nik kontuak egiten oso ondo zekiat, kontuak egiten... eta hi haiz nire kontua.

(Elkarri musu emateko sasoian daude. Ugo suturik dago oso eta neke handiz kontrolatzen du bere labana.

Elkarri musua emateko zorian daudela, aszentsorea desblokeatzen da).

ALDO: *(Erabaki osoz). Bagara!*

(Aldok keinu bat egiten du: Ugok denbora-emailea zuzentzen du. Konturatu ere gabe, irratia pizten du, lurrean utziz, aszentsorea bere xedera heltzen da.

Giocondak kanpoko aldea aztertzen du. Bidea libre dagoela adierazten du. Hiruek ihes egiten dute.

Ugo berriro itzultzen da labana jaurti eta plataformaren erdian sartzeko, ondoren berak ere alde egiten du.

Areto txikian geratzen dira irratia, musika txarra emanez, Ugoren plastikozko zakutoa, Giocondaren erosketako zakutoa, arraultzak eta tomateak lurrean banaturik, labana zutik sartua eta bonba. Hegan ihesi doan helikopteroaren zarata somatzen da).

IRRATIA: Zer moduz zaudete, entzule momifikatu astakilo, zakil, likits zikinok, zuen belarriok kakazi zaharminez gainezka al dituzue?

Azken albisteak jakin nahi al dituzue? Hona, ba: Banketxea hustu duen maltzurkoteak dirutzarrak baino balio askoz gehiago duten diamanteak eraman ditu berarekin!

Ziurtasunezko kutxatilen arduradun gixaixoari utzi dizkio diruak, eta gixaixoa segituan harrapatu dute, noski!

Jaun zintzo maitea, handia haiz! Gora hi!

Munduaren akabera dakarten rock alu horietako bat botako dizuet orain. Bai, hemen musika oso jakin bat egiten da, niri atsegin zaidana alegia, eta beraz zuei ere atsegin zaizuena.

Ez al da hala, astapiku taldea, eh?


Ezer baino lehen, ordea, entzun hau: Ez al duzue gaitzik mingarriena harrapatuko, ez baduzue Krokodil erretzen, alde batetik eta bestetik filtroa daramana, baina erdian hainbat gauza eder daukan zigarrilo zikina.

Erre ezazue, jan, injektatu, arnaskatu, sartu ipurzulotik; aski da, ordea, erosten baduzue!

Eta orain, hona rocktzarra!
Hona zuekin mundu alu honetako talderik pprrrrena:
Hator, txikituko haut eta taldea.
Benetako bonbaaaaaa!!!!!!

*(Eztanda. Iluna. Isiltasuna. Musika gozoa. Argia. Ikusleak agurtze-
ra azaltzen dira aktoreak).*

*Pello Zabaletak
italieratik itzulia.*



ADABAKIAK

Usurbilgo Udarregiren mendeurreneko gogoetak

1895.urtean hil zitzaigun Juan Jose Alkain Iruretagoiena "Udarregi" bertsolaria. Aian jaio baina txikitatik Usurbilen bizi zen hil arte. Bitarte honetan bizi zen haranean hainbat bertsolari zuen alboan: Errikotxia, Gaztelu, Gaztelugorri, Pello Saikola, Manuel Oloki.... Ingurune honek Txirrita, Pello Errota, Otano eta Xenpelarrekin aritzeko balio izan zion.

Landu zuen bertsolaritza gogoratzearen, atzoko lana geroko sustrai eta ardatz izan zedin, mendeurrenaren ospakizunak antolatzeari ekin zitzaion. 1993. urtean azaroan hain zuzen, Batzorde Eratzaile bat osatu zen, lanean hasteko prest egongo zen jendeari deituaz. Hainbat elkarteko ordezkari gutun gonbitea luzatu zitzaion eta azkeneko, sakonki lanean jardun dugunok 10-15 lagun izan ziren. Batzorde honetatik hain bat azpi-batzorde atera ziren:

a) UZTARTZE AZPIBATZORDEA: Herrietako hainbat ekitaldi eta jaiekin mendeurrena uztar-

tuaz lagunduko zuen azpi-batzordea.

b) EKONOMI AZPIBATZORDEA: Dirulaguntza eta diruzaintza bideratuko zituen azpi-batzordea.

c) HARREMAN AZPIBATZORDEA: Komunikabide eta hainbat elkartekin harremanetan jartzen saiatuko zen azpi-batzordea. d) Batzorde Teknikoa: Udarregi bertsolariari buruzko azterlanak bideratuko zituen.

Batzordeko bizkarrezurra behar bezala eratuaz, lanean hasteko garaia zen, eta hasi ere bai. 1994.urtea 1995 erako ekintzak behar bezala lotzen saiatzeko, izan zen.

Honela, 1995-eko urtarrilaren IS-ean Aia eta usurbil herria senidetu ziren Udarregi bertsolariren aitzakiaz. Aiatik goizaldean 220 lagun atera ziren (usurbildarrak eta aiarrak) eta mendiz-mendiko lau orduko ibilaldia burutu zen. Bide gurutze garrantzitsuetan txalaparta doinuz lagundu-

rik egon zen. Bidaia era berean alaitu eta garai batean zuen komunikazio eginkizuna berreskuratu egin zuen. Eguerdia aldean, Usurbil heriko plaza ondoan dagoen Udarregiren oroigarriaren inguruan bi herrien arteko sindura ofiziala gauzatu zen tartean ere bertsolariak eta dantzarien laguntzaz.

Hil honetan ere Xabier Amurizak "Gaur Egungo bertsolaritza-ren egoera" izenburua zuen hitzaldia eman zuen. Arrakastatsua jendearen aldetik, eta azkenean bere bertso paper batzu abestu ziren denon artean.

Urtarrilari bukaera emateko "Zazpi Eskale" kantaldi emanaldia izan zen. Unai Iturriaga eta Igor Elortzaren bertsoez eta Josu Zabalaren musikaz lagunduriko jaialdia.

Bigarren aroa, hots, ekitaldi sorten sasoiak maiatza izan zen. "Udarregiren bertso berriak" bertso zinta grabatu zen. Bertso Eskolak bere partaidetza izan zuen bertsoak grabatzen. Jose Mari Izetak hitza jarririk eta Migel Angel Garciak musika, ereserkia ere grabatu zen zinta honetan.

"Zaharkinak" erakusketa gauzatu zen hilabete osoan. Usurbilgo 60 baserritik mila nekazal tresna zahar bildu eta berreskuratu eta herriari erakusgai jarri zitzaion. Azkenik, 6000 bisitari pasa ziren ikustera.

Maiatzari errematea emateko Bertso Jarrien Jaialdia antolatu zen. Xabier Euskitze-Mikel Mendizbal/ Andoni Egana/ Sarasua anaiak/ Antton Aranburu ziren bertso jarrien partehartzaile. Ekitaldi ikusgarria suertatu zen, bakoitzak bertso paper mailan duen hoberena eskeini zuen musikaren laguntzaz, baina jendearen erantzunaz oso pobre gelditu zen.

Azken urte sasoiak eta agian suertatu den emankorrena iraila izan zen. Herri mailan oihartzun handia lizan zuen eta herriko jendearen partehartzearengatik eragina izan zuen. Lehenik eta behin, irailak 16-an herriko Joxan Artze olerkariaren emanaldia zegoen iragarria. Irrika bizia zegoen herritarrengan baina dena prest zegoen garaian euria hasi eta bertan behera utzi behar izan zen. Irailak 23-an "Udarregi" Herri Antzerkia iragarririk zegoen. Gidoia herriko Nikolas Izetak burutu zuen eta zuzendu Ixabel Agirresarobek. 42 herritarrek parte hartu antzeste lan hauetan, eta egundoko arrakasta izan zuen berak. 1220 ikusle hurbildu ziren eta antzerkia plaza ondoko kalean burutu zen antzerkiari bizitasun handiagoa emanez.

Irailak 24ean Udarregi Bertsolariaren eguna ospatu zen. Goizaldian bertsolari honen ahai-deei harrera. Bertsoak, dantzariak, herri bazkaria, oroigarri ba-

naketa, ididema eta bukaera emateko trikiti erronomia.

Iraileko hilari amaiera emateko eta era berean mendeurrenari Euskaltzaindiaren hileroko Batzarra ospatu zen Udaletxean egun osoz. Arratsez Juan Mari Lekuonak Udarregiri buruzko azterlanaren hitzaldia eman zuen: "Udarregiren baliapide erretoriko poetikoak bere bertsogintzan"

Hil honetan ere beste hitzaldiak egon ziren:

- "Inguruko beste bertsolariak" (Antonio Zabala)
- "Udarregiren belaunaldiaren ekarria bertsolaritzaren his-

toriari" (Jexux Mari Etxezarreta)

- "Udarregiren eta garaikoen doinuak" (Juanito Dorronso-ro)
- "Udarregiren bertsogintza: moldeak, errima, bertsole-roen tratamendua...." (Andoni Egana)
- "Udarregiren erderakadak bertsogintzan" (Koro Seguro)

Beraz, ekitaldi hauekin Udarregi nor zen ezagutarazi eta kultur ekitaldiak bultzatzea izan da helburu nagusia.

Iñaki Agirresarobe

Santiago egun bi eta erdi

Oinez, bizikletaz, motoz edo kotxez egin daiteke Santiago bidea. Hegazkinez egin nuen nik, AELG (Asociación de escritores en lingua galega) elkarteak gonbidatuta. Euskal Idazleen Elkar-tea ordezkatzuz.

Irailak 22:

Arratsaldeko 7ak. Donostia-tik Bilbora baino azkarrago iritsi naiz Sondikatik hona. Bizitzaren abiada...! Eguzki beroa, kalean. Uda dirudi. Museo de Pobo Galegon omen da kongresua: Galegoz idazten duten idazle galegoen kongresua, alegia. Hirugarrena, aurten. Goizez hastekoak ziren. Jose Luis Arangurenen eskutik. Banoa.

Arratsaldeko 7 t'erdia. Gaur egungo narratiba galegoaz ari dira. Nor?: Carlos Casares, Lois Dieguez eta Bieito Iglesias. Carlos Mella, moderatzaile. Eskuprograman datoz izenak. Egun bi dauzkat, oraindik, ezagutzeko.

Galegoz ari dira. Zertaz?:

—Narratiba popularra. Kos-trunbrista. Rurala...

—Narratiba "hiritarragoa"...

Bide berriak ireki dira. Irakurlearen gustorako, sarritan. Irakurleak gauza arinak nahi. Polizi nobelak eta antzerakoak ugaritu dira, beraz. Zalantzak honetaz, guzti honetaz.

Kalitatea omen da salbabi-dea. Idazten dena idazten dela, *kalitatez* egitea.

Gauza gehiago ere esan da. Baina izugarritzko "enbolada" daukat buruan: Hizkera, lekua, egoera... "Eta orain zer egiten da, ba?" galdetu diot betaurreko-dun bati. "Orain? Orain ataldu?" erantzun dit.

Goazen bada!

Gaueko 9 eta erdia: Olagarro goxoa, ardo ezin hobea. Ogi opila irin desberdinez egina. Arraina hitza, barra-barra. Nik, entzun. Eta jan.

Asturiarrekin elkartu naiz hotelera bidean. Xalauak dira.

Irailak 23:

Goizeko 9 eta erdia. Ondo lo egiten da Konpostela hote-

lean. Gosari paregabea eta kale-
ra. Alde zaharra ezagutu nahi
dut. Ordu bete inguru daukat. Ez
da asko, baina tira!

10 eta erdiak: Hiru komuni-
kazio irakurri dira. Poesiaz. Hara
hemen belarrira iritsitako izpiak:

- Poesia krisian dago. Bizi du-
gun era teknologikoaren e-
tsaia baita. Aisialdirako zer-
bait. Eta gaur egun, "aisial-
di" kontzeptuak ez du balio-
rik gizartean.
- Zein da egungo poetaren
lekua gizartean? Gizartea
kulturaz husten doa. Poesiak
-edo poetak- ez luke ertz
batean geratu behar.
- "Behatzaile naufragoak gara.
Herrialde naufrago bateko
idazle naufragoak": Inkomu-
nikazioa, nagusi: Bai barru-
tik, bai hanpotik: Komunika-
bideek informazioa neutrali-
zatu egiten dute-eta", horixe
dio Luisa Villalta idazleak.

Irtenbideak?:

- "Ez dezagun irakurleentzat
idatz. Ikusten ez diren, baina
badiren eta badauden beste
horientzat guztientzat, bai-
zik".
- Poesiari bereak dituen/zi-
tuen bi gauza itzuli:
—jakituria
—estetika
- Gizarteak osasun espiritua-
lerako guneak behar ditu:

Poesiak bete dezake gune
horietako bat.

- Akzioa: "Hitza" oinarri:
—Norberarena: Norbere bai-
tan erantzuna
—Elkarlana:
Mugimendu kulturalak eratu
Mugimendu instituzionalak
bultzatu
Komunikabideetan sartu:
telebista...
Galegoz idazten dutenen
arteko elkarlanak eratu.
Enkontruak biztu edo zuz-
pertz
- Sedukzioa: formari dagokio-
nez

A! Eta ez ahaztu

- Ezin zaiola kantitateari begi-
ratu: "Ezin gara amerikar
merkatuarekin konpara"
- Gizartea ahal denik gutxien
pentsatzeko eratu dagoela
- Ezin dela "irakurle-kontsu-
mitzaile"rik ezarri.

Atsedenditxo bat eta hurrengo
gaia: Antzerkia.

Eguerdiko 12ak: "Gaur
egungo Antzerkia". Autoreak, zu-
zendariak, autore-zuzendariak...,
denetarik dago: Manuel Louren-
zo eta Roberto Vidal. Manuel
Vieites, moderatzaile. Geroxeago
jakingo dut zein den zein. Hara
hemen, jaso dudana:

—Egoera txarra

—Testu dramatiko kolekziorik ez argitaletxeetan

—Liburutegi zehatzik ez

—Non daude klasikoak?

—Autoreak zuzendari. Zuzendariak autore: Idazteko denborarik ez

—Denboraldika lan egiten da: Dirulaguntza lortzen deanean: Dirua, tranpa. Dirua, amuzki.

—Ez da dirurik inbertitzen antzerkian: Unean unekoa xahutu, besterik ez

—Letra galegoen "trastelekua" litzateke antzerkia

—Botere mugatua gauzak aldatzeko

—Antzerkia ekintza soziala da: Erantzun soziala behar

Giroa bero-bero. Antzerki Elkarrekin eta Idazle Elkarrekin zerbaitekin egin beharko luke teela bota du publikotik batek. "Nola, baina? diote mahaikoek, elkarren etsaiak.

Berandutu egin da. Gaiak luzarorako ematen du. Beste ekitaldiren bat antolatu beharko litzateke jarraitzeko. Bazkaltzera goaz, bada.

Bi mahai handi. Biak jendez beteta. Atzo baino lagun gehiago. Senperrenak eta bi lekua hartzeko. Mahai muturrean egin didate txokoa: Valentziako idazle gonbidatuaren eta Xoxe Maria Alvarez Caccamoren, "Pepe"ren

bitartean. Ez dira ixiltzen. Liburuak gora. Liburuak behera. Idazleak gora. Idazleak behera. Primeran. Nik entzun eta jan.

Arratsaldeko 5ak: Gaur egungo poesiak Uxio Novoneyra, Maria Xesus Pato eta Rafa Villar. Xose Maria Alvarez Caccamo —Pepe—, moderatzaile.

Eztabaida biziak komunikazioen ondoren:

—Herri "patriarka" batean, emakumeak non?: Maria Xesus Patok. "Patria" hitzak "gizon" kutsua barnean. Berak nahiago "nazio" hitza, eta ez "patria". Zenbait eritzi trukaketa publikoaren aldetik. Gala ez litzatekeela desbideratu behar eta abar...

—Poeta gazteentzat espazioa eskatzen du Rata Villarrek. Espazioa. Leku fisikoa.

—"Poeta gazteen belaunaldi berri"rik baden ala ez ere aritu dira.

9 eta erdiak jota. Afaltzera. Asturiarrekin eseri naiz. Atari goxoa. Elkarrizketa ere bai. Adin berbera eta guztiok "kanpotarrak". Alde zaharrera goaz. Afaldu ondoren. Zenbait hizketaldi, literarioak eta profanoak. "Galeuzkan" sartu nahi dute. Ez dut ezagutzen oztipoa. Barre ugari. Taberna politak Santiagon. Txoko sainduak. Ordua aldatu behar denez, ez dago lotarako presarik. Beste zenbaitekin elkartu

gara, plazaren goiko kafetegian. 3ak. Ordubiak, alegia. Ixtera doaz. Lotara, beraz.

Irailak 24:

Goizeko 8etan esnatu naiz. Begiak, zabal-zabalik. Aprobe-txatu egin behar da! Gosaldu eta kalera noa. Katedrala ikusi nahi dut. Gero ez dago astirik eta.

Politak dira Santiagoko ka-leak gauetz. Are ederragoak goi-zean goizez. Goitik benera eta ezkerretik eskuinera zeharkatu ditut alde zaharreko guztiak. Berdintsu, katedrala. Paregabea. Gustura nago hitz murmurio er-dian. Gustura, inork ezagutzen ez nauen leku honetan. No-raezean... Baina babestua, era berean.

11 eta erdiak. Jendez gai-nezka Museo de Pobo Galegoko aretoa. Aldizkari berriaren lehen zenbakia aurkeztu behar dute. "Contemporanea" izena. Uni-bertsitateko errektorea ere ber-tan. Dirulaguntza eman dueta.

Ale bat daukat eskuan. Di-seinu polita. Galegoz, erderaz, frantsezez eta ingelesez, barrua. Hurrengoak, galego hutsez joan-go omen dira. Txukuna eta doto-rea. Liburu itxurakoa. Poesia.

Laburra izan da aurkezpena. Atsedenditxoa eta bukaerara goaz, bada.

Xose Luis Mendez Ferrinen eskutik doa agurra. Galegoaren

mugak, esparruak, berezitasu-nak, lexikoa e.a., mintzagai. Lehenengo kastroetan bizi ziren haiengandik gugana 30 aitona baino ez daudela dio. Denbora neurtzeko era bitxia, alajaina!

Asturiarrak erne, nire al-boan. Ezados daude gauza batzuetan. Erdi txantxetan. Gero-xeago argituko omen dituzte gauzak hizlariarekin. Xose Luis Mendez delakoarekin, alegia. Gonbidatuon agurra eta esker ona. Migel Anxo Fernan-Vellok garbian atera dituen hitzek emango diote bukaera goizari. Baita kongresuari ere. Galegoz idazten duten idazle galegoen III. kongresuari.

Hara hemen Migel Anxoren hitzok, etorkizunerako abiapuntu

- Izpiritu etikoa
- Herriarekiko maitasuna
- Unibertsaltasuna
- Hizkuntzari tinko eusteko borondatea

Ordu biak laurden gutxi. Jai-ki gara aulkitik. Ordu bi eta erdie-tan da bazkaria. Udaletxeak or-dainduta. "Auditorio de Galizia" delakoak daukan jantokian, hain justu.

Kotxez goaz. Beno, kotxez nara-mate. Hau aukera!

Leku paregabea. "Arte ine-xistente" izenburua duen XX. mendeko emakume artisten era-kusketa, jantoki azpian. Haserre

dira, batzuk, izenburuaz. "Ezko-rra" omen da.

Menchu Lamas, Elena Colmeiro, Carmen Corredoyra, Julia Minguillón... eta beste hainbaten lanak agertzen dira bertan.

Batenak harritu naute ni, ordea: Maruja Mallorenak, hain zu-zen. Emakume keltz batzuen bu-ruek. Eta beste koadro geometri-ko batek. Atzo bertan eginda-koak dirudite. Gaur egungo ema-kume batek eginak, alegia. Atze-rrian bizi omen zen. Hego Ameri-ketan, uste dut. Duela gutxi hil da. Larogeita hamar urtetik gora zituen.

...Geure amama zenak beste, gutxi gorabehera...

Benoa, gora goaz. Jantokira.

Bazkaria primerakoa kultur zune-gotziaren mahaian jarri gaituzte gonbidatuak. "Detailea" da. Ola-garroa, berriz. Padrongo pipa-rrak, Gernikakoak bezain go-xoak. Zapoa edo rapea. Pastel-txoak eta kafea.

Bazkal osteko hizketaldien ondoren, musuak e.a. Aireportu-ra.

Seiak eta hogelan, hegazkina. Madrilera.

Hamabiak pasatxoan, autoa. Etxera.

...Pare bat kilo gehiago. Logura...

Yolanda Arrieta

Beran Lore Jokoen oroitzapen jaialdia

Lehenengo Lore Jokoak ifarraldean ospatu ziren Antoine Dabbadieren eskutik. Irlandar-zuberotar honek antolatutako lehen Lore Jokoa, Urruñan ospatu zen 1853. urtean. Jaialdi folkloriko festibo hauetan poesia lehiaketak ere ospatzen ziren.

Ondoren, ifarraldetik hegoaldera hedatu ziren Lore Joko hauek. Hain zuzen, 1880. urtean Beran antolatu zen. Beratarrek, 1895. urtean egindakoa gogoan izanik, haren ehunurteurrena ospatzeko narratiba eta poesia lehiaketak antolatu dituzte urte honetan.

Narratiba arloan Javier Mangado iruindarra izan zen saria bereganatu zuena: Ni bi modalidetara aurkeztu nintzen, bai narratiba arlora, bai poesiakora - esango digu. Aurkeztu nuen narrazioa kondaira batean oinarritzen da, Arrasgoitiko haranean

dagoen Txintxurnear izeneko arroilan gertatutakoa.

Poesia arloan Mirari Garcia izan zen saria eskuratu zuena. Neska honek, nahiz urte gutxi daraman idazketa munduan, badu iadanik sari-bilduma ugaria: Pasaia Hiria (*Poesiaren magalean*) izenekoarekin, Berako Lore-Jokoaketa Euskaltzaindiak eta BBK-koek emandakoa.

Mirari Garciak egindako azalpenetan agertzen denez, gehien atsegin dituen poetak Harkaitz Cano, Sarrionandia eta Pessoa dira.

Zer den beretzat poesia adierazterakoan zera diosku: Poesia espresatzeko bide bat da, denborapasa bat, noizean behin pentsatzen dut zer egin, ba idatzi. Eta beste adierazpen batean: Poesia lagun bat da, haserretzen ez dena, ahazten ez nauena, utziko ez nauena.

Kultura Sailak 116 bideofilme euskaratu ditu zortzi urtetan zehar.

Euskararen Berripapera orriak dioenez, Orain zortzi urte bideoak euskaratzeari ekin zionetik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 250 milioi pezeta baino gehiago erabili ditu 116 bideofilme euskaratzen eta ohiko salmenta tokietan jartzen. Harrera ona izan dute: urte hauetan 55.000 kopia inguru saldu dira. Aurten sei titulu jarriko dira salgai: Periko eta Benjamin Untxien Ipuina, Gloucester-eko Jostuna, Eguzkiaren Erregea, Panama, Bai polita, Lekuko Bakarria, Zeruak itxaron dezake.

Orri berean dioenez, egitasmoaren helburuak zerak dira: Ekimen pribatuak betetzen ez duen eremura iristea, Euskarak ikusentzunezkoetan duen presentzia areagotzea, Euskaraz dauden ikusentzunezko materialen merkaturatzea, Euskaraz bizi nahi duten herritarrei filmeak euskaraz ikusteko aukera ema-

tea eta, azkenik, EAEn lanean diharduten ikusentzunezko enpresen arteko elkarlana bultzatzea.

Orain arte, nagusiki, hiru bideo mota jarri dira merkatuan: ETBn erakutsi diren ospe handiko filmeak, abentura filmeak eta kalitate goreneko marrazki biziak eta dokumentalak.

1990. urtean banaketa etxea-rekin kontratatu zenetik eskaintza izugarri zabaldu da, bideoak salgai jarri ziren oso salneurri egokietan eta kanpaina zabala egin da eskaintzaren berri emateko. 1992. izan zen urterik onena: 25.000 kopia baino gehiago saldu ziren.

Harrez gero, salmentak jaitsi egin dira, batez ere bideo eskaintza murriztu egin delako. Halere Kultura Saileko arduradunen ustez, oso proportzio egokian mantentzen da.

Lubaki Bandaren agurra

Itxaropen eta indar handiz sortu zen duela bi urte Lubaki Banda. Gazte laguntalde bat elkartu zen euskal literatura surpertzeko, indartzeko eta ildo berriak ereiteko. Orain desagitea erabaki dute. Agian, euskal literaturak azken hamarkadako talderik ezagunena galdu du. Par-taideen artean, oso ezagunak egin dira gure artean zenbait, hala nola, Harkaitz Cano, iadanik zenbait sari ere eskuratu dituena.

Ezin esan, urte hauetan emandako emaitza urria izan denik. Euskal Idazleen Elkarteak tako moduko egutegi bat eman du argitara, datorren urterako. Lubaki Bandako hamahiru lagunek egin dute: Asier Serrano, Harkaitz Cano, Ander Izagirre, Xabier Aldai, Xabier Ganzarain, Lierni Ibargutxi, Garikoitz Berasaluze, Iñigo Iruretagoiena, Ibon iribarren, Arantza Hirigoien, Josu

Goikoetxea, Mikel Reparaz eta Manex Mujika.

Harkaitz Canok egutegiaren aurkezpenean esan zuenez, taldeak, bere bi urteko bizitzan zehar, hiru aldizkari plazaratu ditu Susa argitaletxearen bidez eta maketa bat ere bai, baina inportanteena, bere ustetan, jendaurreko literatur emanaldiak izan dira. Berrogei bat saio egin ditugu hainbat toki ezberdinetan eta hasieran guk uste baino interes gehiago piztu dugu. Halere, tamalgarria, hobe ustez, hartu duten azken erabakia. Taldea desagitea. baina ez nolana.

Harkaitzek berak esan zuenez, balitteke aurrerantzean berri ere elkartzea lan puntualen bat egiteko: Egutegi hau gure testamentu probisionala da.

Klasikoak bildumaren ale berriak

Lerro hauek *EGAN*-erako idazten ari garen unean publikatu berri ditu bi liburu berri Pentsamenduaren Klasikoak bildumak. Guztira, hogeita zortzi . Eraitza bikaina, dudarik gabe.

Orain argitara eman direnak, honako bi hauetxek izan dira: James Georges Frazerren *Urrezko abarra*, Iñaki Iñurrietak itzulia eta Johann Gottfried Herderren *Hizkuntzaren jatorriari buruzko tratua*, Anton Garikanok itzulia. Arduradunek esan digutenez, berehalako batean beste bi emango dira argitara Pentsamenduaren Bilduma sailean: Ernest Cassirer-en *Gizakiari buruzko entseia*, eta Immanuel Kanten *Prolegomenoak*. Horiek argitaratzerakoan, 30 ale izango dira bilduma honek argitara emanak.

Arduradunen asmotan dago 1977.a baino lehen 50 liburu plazaratzea, hortarako lanak nahiko burututa baitaude. Xabier Mendi-

guren Bereziartu, bilumako zuzendari teknikoak esan zuenez, esperientzia ona izan da alde guztietatik ia amaitzeaz dugun planaren lehen fasea. Orain arte egindakoarekin asko ikasi dugu, eta ziur gaude ikasi dugun hori, guztiz baliagarri izango zaigula hemendik aurrera egingo dugun bidean. Pentsamenduaren mundua oso zabala da eta gure plangintza hasi-masietara baino ez da iristen, baina hasiera ona izan dela iruditzen zaigu eta amaierarik sekula izango ez duen bilduma honetan aurrera segitzeko aukera izatea espero dugu.

Seirehun harpidedun ditu egin Klasikoak Bildumak, Andoni Iriondo bildumaren arduradunetako batek azaldu digunez. Baina, ez dirudi hain lan sakon, txukun eta egoki batentzat, aski denik. Beraz, harpide berri eta ugariak eskuratzea ere beren helburuen tartean daukate Bildumako arduradunek.

GE

Ahokotasunari buruzko ikastaroa udan

Udan, abuztuaren amaieran, Miramar jauregian ospatu zen ahokotasunari buruzko ikastaro trinko ba. Bere zuzendari, Bertsolarien Elkarteko den berbera izan genuen, hau da, Koldo Tapia.

Hitzaldiak emandakoen arteko zenbait, oso pertsona eza-gunak dira gure artean. Lehenengo Yves Beaupérin, frantziarra izan genuen, lehendik ere Don Manuel Lekuonaren omenaldia zela eta mintzatu zizaiguna Oiartzunen. Marcel Jousse izan zuen mintzagai lehen hitzaldian: bizitza, lana eta bere gaurkotasuna. Eta, bigarrenean, berriz: Ahokotasuneko tradizioa: sorrera, memorizazioa eta belau-naldien arteko transmisioa.

Jon Sarasua, gaur egungo bertsolaritzari buruz mintzatu zitzaun. Nola bizi daiteke bertsolaritza abiadura handian zirkulatzen duten merkantzien kultur ingurunean? Gaia interesgarria iruditu zitzaun eta, orijinaltasun puntu batekin emana.

Ondoren gure inguruan bizi diren kultur adierazpenak aztertzeko patroi moduan ezaugarri multzo batzuk hartu zituen, besteak beste, kontsumo zatikatua, zenbaitetan elitista, merkantzien aparatuarekiko dependentzia maila handia, kontsumo indibiduala.....

Balore horiei kontra egin beharra aldarrikatu zuen, kultur eredu komunikatzailea, partehartzailea bakarrik izan baitaiteke aberasgarri eta askatzaile.

Ildo hortatik, bertsolaritzak bere ezaugarri propioak ditu. Propioak eta bereziak, besteak beste, produktuaren orijinaltasuna, zuzenekotasuna, kalekotasuna, taldekotasuna...

Bertsolaritza bidegurutze eta erronka batzuren aurrean ikusten du hizlariak eta honen baloreak zaintzekoak izanik ere, ez dute zergatik kontserbadore eta inmobilitistak izan behar. Erronka ez da irautea, bizitzea baizik.

Joxerra Garziak azaldu zigunez, bertsolaritzaren alderdi so-

ziologiko-komunikazionalak de- zente aztertu diren arren, oso atzeratuak gabeak bertsoaren egitura, baliapide eta amarruak aztertzerakoan. Bertsoaren ar- loan gure barne emozioak sorta- razteko erabiltzen diren baliapi- deak oro bat dira eta bertsolaria hizkuntza arautuaren bidez modo orokor hutsetik urrundu eta komunikatu beharreko modu ba- kan eta betean helarazten zaio hartzaileari.

Eta geroxeago, zera esango digu: Bertsoek (eta gainerako esan-idatziek) sortarazten digu- ten emozio estetikoa Beti da arti- fizio baten ondorioa, ez da doha- nekoa, baizik eta teknika eta jokabide, baliapide jakin batzu- ren ondorio.

Andoni Egañak, bertso- laritzaren historia laburki adierazi zuen, Euskal Herrian ahozko jar- dunak duen hedapena azpima- rratuaz, historia horren barnean eman den garapena argituaz, bertso-paperak, XIX. mendean izan zuten zereginaz.

Hedapen horren barnean, Xabier Amuritza nabarmendu zuen, duela hogeitatu urte eman zuen urratsarengatik. Emaku- meek ere, protagonismo handia hartu dute. Gaur egun ez dago eskolatu gabeko bertsolarik.

Osasungarri ikusten du Ega- ñak bertsolaritza, baina ondoren zaindu beharreko zenbait alderdi azpimarratzen ditu, bertsolaritza-

ren kaltetan gerta ez daitezen: idatzian, entzutekoan ikus-entzu- nezkoan bertsolaritza izan behar duen tratamendua, heda- bideek sor ditzaketen mugak, eskolatzeak, irakurketak ahozko- tasunetik ekar dezakeen urruntzeaz eta gainerakoak.

Patri Urkizu jaunak Aztertu dena eta aztergai dagoena izena ezarri zion bere hitzaldiari. Ho- rren arabera ikuspegi zabal bat eman zuen ahozkotasanari buruz egin denaz eta falta denaz. Hitzaldiaren harian azaldu zituen Zuberoako herri literatura (asto- lasterrak, pastoralak, maskara- dak, erretratuak eta eskuizkribuen argitaratzeak); kontagitzan, argi- taratutako bildumak, aldizkarieta- ko hustuketa eta Corpus Fabula- rum Vasconiae delakoaren sail- kapenerako irizpide batzuk eman zituen; bertso- gintzaren gainean, ondorengo hauek izan ziren ai- patuak: Antoine Dabadieren (1810-1897) alde guti ezagunak, A. Aren Gutunak, Koplarien gu- duak (1851-1897). Argitaratua eta argitaragabea eta aldizkari eta eskuizkribuen hustuketa eta edizioa; saiogintzan buruturiko lanak, ikerketa lanen aurrebal- dintzak eta molda daitezkeen lan berezi zenbait.

Eraberean oso interesga- rriak izan zen, Jose Criado hizlari andaluziarrak egindako azalpena *El trovo de la Alpujarra* izenean, halanola *Poesía de tradición oral*

en Mallorca gaiari buruz Miquel Sbert Garau jaunak eta *La literatura popular Gallega del siglo XXri* buruz Domingo Blancok

emana. Askok uste baino zabala-
goa da oraindik ere bapatekota-
suna herri horietan gaur egun
ere.

GE

Aguirre pastoralaz

Orain arte, nire pastoral bat jokatzeko duten udan, ondokoa idazten dut. Horrela hasi nintzen 1990eko uztail-abuztuaren, "Abadia Urrustoi"ren garaian; errepikatuko nuen 1993an "Euskaldunak Iraultzan" zaudelarik: "Aguirre Presidenta"-ri lotu nintzen. Baina hor lasai jardungo nuen, behar zen denbora hartuz, lan eskerga delako pastoral baten ontzea. Gainera beren txanda behar dute beste idazleek ere eta gaur sei gara. Azkeneko nire burua ez dut hastiarazi nahi maizegi plazaratzeko.

Hargatik gauza ez zitzaidan ene xedeen arabera joan, ezen Arrokiagako gizon gazte batek antzerkigai hori eskatu zidan herri horrentzat eta bide beraz jarraian bukatzera lehiatu ninduen, 1995eko udan jokatzeko gisan. Zeren urte horretako hain zuzen? Herriko bozen urtea izan beharra baitzen "Frantzian eta Nafarroan" (hexagonoan erran ohi den bezala) eta Arrokiagan zerrenda bakar bat izango baitzuten, Zuberoko beste udal gehixenetan ez bezala. Eta horrek badu funtsik, ezen oso gai minbera da

herriko hauteskundeena, Bidasoaren bi aldeetan, bai eta ni beldur eguzkiaren azpian dauden erresuma ta errepublika guzietan. Artxiiboak hor daude: 1953az geroztik ez da pastoralik eman herriko boz urte batean, salbu 1989an Altzain: baina hain zuzen ere, zerrenda bakar bat zen aurkeztu hor!

Ongi. Jean *Bordaxar* gaztearen ideiatik pasa behar izan nuen, gizon hau baita eskatu zidana: gero aukeratuko zuten pastoral horren arduradun, eta kantu berrien doinuak ondoko zituena gainera, azken abestia bestalde (herrikoa) osorik moldatuko, hitz eta musika. Beraz testua laster bukatu nuen.

Zergatik *Aguirre*? Oso gizon egokia zitzaidan pastoral baterako: karismatikoa, maitagarria, batasun egilea (eta behin re baino gehiago, batasun beharretan gaude gaur euskaldunok), profeta bere gisan kristau demokraziaren ildotik Europarako bidean... Gure historiako bi garai bikain haragitzen ditu: 36-eko gudua eta munduko bigarren gerla. Be-

raz hunkigarria zatekean horrela-ko antzerkia, baina kontuz... mingarria ere berdin... bizirik baitago gertakizun horietan ibili zen pertsona frango. Ene beldurrik handiena zen nola hartuko zuten Aguirre Lehendakari zenaren seme-alabek: gostukoa gertatu baitzaie, lasaitu naiz azkenean, pentsatuz ez dudala okertu gure historian hain gora dagoen Presidentearen figura noblea.

Piezaren idaztea gauza bat da, haren jokatzeari zinez beste bat: antzerkia ez baita irakurtzeko, baina ikus eta entzuteko. Inork ez zuen uste 130 biztanleko herriska batek trajeria bat eman zezakeenik: ez eta herritarrek berek ere! Gainera 1906an emana zuten beren azken pastoral, Daniel profetaz. Baina gure Bordaxar etxez-etxe ibili zen beste gizon gazte batekin eta ia denak banaka eta bederazka konbertitu zituzten 1995ko udazkenean. Antzerkiaren gaiak ez zuen arazorik sortu eta miretsirik utzi ninduen izpirituen irekidura horrek. Dantzari gazteen moldatzen hasi zen jarraian Martine *Beheregaray*, Bordaxarren emaztegaia. 1994eko abuztuan, Doñaixtiko "San Mixel Garikoitz" jokatu zenean, tauladan jauzien emateko eskubidea irabazi zuen Arrokiagako taldeak ohiko subasta-enkantean: seinale garbia ondoko urtean harek emango zuela trajeria. Gainera mezu hori

aldarrikatu zuen mikrofonotik Doñaixtiko lokutoreak lagunkiro. Udazkenean hasi ziren koru-abestien ikasten Mixel *Etzekopar* Gotaine-Irabarnekoaren gidaritzapean. Baina hor gertakizun larri batek utzi zuen herria lurjota, haur esperantxetan zagon emakume gazte bat automobila ixtripu batean hil izan baitzen. Beraz dena zalantzan egon zen aste zenbaitez, botuetara joan behar izan zuen udal-konseiluak eta boz bakar batez ereman zuen pastoralara jokatu behar zelako iritziak.

Otsailean hasi ziren mugimenduen eta dialogoaren ikasten Jean-Pierre *Recalt* altzaiar errent-eszenografo gazte baina jada konfirmatuaren idaritzapean, eta astero-astero ihardun ziren larunbat arratsetan baserri bateko borda-belartegian: Oilaui auzoko Etxeberrian hain zuzen, Barkoxeko bidean. Denetan zabalduko zen afixa ederra egin zuen Jean *Jasa* erretiratua den herritarrak.

Lehenbiziko emanaldia 1995ko uztailaren 23an jokatu zen, ohi bezala igande arratsalde, sorobelardi baten erditan, Maidalena menditik jausten den haran bukoliko bzten magalean: ia-ia 4.000 ikus-entzule jarriak bildutasun handienean, lehen lerroan zaudela Aguirre zenaren alaba Aintzane ta bi semeak, Joseba eta Inaki... Malkorik ixuri zuten

37ko udaberrian Gernika sutan utzi behar izan zuten batzuek, haurtzaroko oroitzapen ilunak gogoan ...

Hamabost egun berantago, Zuberoako antzerki zaharrear usatzen den bezala, bigarren jokaldia eman zen abuztuko lehen igandean. Eguraldiaren aldetik jasan genuen beldurra! Me-teoko iragarkia zinez txarra zen, euria denetan ari salbu Arrokiagan: Baionako irrati batek erran zuen ez zela jokatu pastorala. Pertsona batzuk etxean egonara-ziko zituen horrek guziak. Baina berriz ia-ia 4.000 bildu ziren Maidalenak iparretik daukan haran benedikatuan, hor ateria baitzen! Eta berriz emozio berbera.

Horretan gelditu gogo zuten Arrokiagakoek eta entelegatzen ditut, ulergarria baita: izigarriko

lana da herriska oso baten berriz mobilizatzea eta bere tokitik urrun eramaitea, behar diren jauntzi eta tresnekin, arazo larriak sortzen ditu antzoki baten egokitzeak eta abar... Baina Joseba Aguirrek eta Getxoko alkate den Cirarda jaunak konbentzitu dituzte Lehendakari zenaren herrian agertu behar zutela. Beraz horrela jokatu dute han hirugarren eta azken emanaldia, urriaren 7ko urteurren sonatu hartan, Fadurako pelotalekua gaindika beterik zagola. Publiko bikainaren partehartzeari esker, are hunkigarriagoa izan zen, zuberotarrantzat bederen ezin ahantzia. Lotura bat gehiago Euskal Herriko beste hegal puntarekin, Aguirre Lendakariari esker, euskal teatro zaharraren arartez.

J.L. Davant



KRITIKAK ETA
ERRESEINAK

Kritikak eta erreseinak

JUARISTI FELIPE, *Ilargi-lapurra*, Erein, 1994, Donostia, 113 orr.

Euskal letretan fama eman edo areagotu zion *Arinago duk haizea*, *Absalon* hartatik narrazio-lan laburrageoi emana da-bilkigu Felipe Juaristi —*Tristuraren Teoria* deritzana argitara zuen 1993an eta aldizkari honetan bertan ere argitaratu du narrazio labur bat—, eta berriki *Ilargi-lapurra* izeneko alegia eskaini digu. *Tristuraren Teorian* egin bezala, oraingo honetan ere gazteek eta helduek gogoz irakurtzeko moduko istorioa egin nahi izan digu, eta esango nuke lortu duela, atseginez eta gustoz irakurtzen baita komentagai dugun lan hau. Alegiaren tradizioan zer pentsa eta zer ikasirik ere ematen digu gainera animalia mintzodunen mundu honek, batez ere protagonista nagusia den Azeriak adierazten duen mundu-ikuskerak, eta arazoen aurrean agertzen duen jarrerak.

Gizakion eraginez bestelakutzen ari den basoa eta bertan bizi diren gizakion antz handiko animaliak dira narrazioaren bil-

bea eratzen dutenak. Alegietan bezala, abereak soilik gizakiona den mintzoaren dohaiaz jantziak ageri dira, baina alegi tradizioan letan animaliak euren eguneroko zer-eginetan eta euren ohiko munduan ohartu ohi ditugu, hemen berriz nagusiki gizakiak eragindako arazoei aurre egin nahian eta ezinean.

Liburuak hiru atal ditu eta basoko munduaren hiru aldi desberdinei dagozkien hiru idazkera desberdin. Lehenbizikoan ilargia lapurtzeak sortarazten du narrazioa. Prosa poetikoena atal honetan darabil. Artean basoko mundua beste edozein mundu bezala aldakorra da, denbora aldakorren mendean da baina artean ez da gainbeheran abiatua. Bigarren goan gainbehera aurreratu da, eta horretaz basoko animaliak ohartaraz daitezzen kaio itsusi, lumaje hitsekoa eta txilioak botatzen dituen hurbiltzen da basora. Itsasokoa izaki basoko animalientzat arrotza delako ez diote jaramonik egiten. Atal hau

animaliek gutaz duten ikuspegia agertzen duten ipuiez oretua da, ispilu-jokoa darabil idazleak. Basoa gainbeheratua dakusagu, gizakiak esparruak osten ari dira eta ondorioz animaliena murrizten ari. Honen sinbolo, sasoz kanpo atertu gabe ari duen euri tematia; eta hirugarrengoan, basoaren dekadentzia ia guztizkoa da, eta animaliak erabaki beharrean dira zer egin: beste basoetara aldegin, mendeku hartu, erabat suntsitu arte iraun. Atalik prosaikoena hauxe da, hemen poesiak ez du lekurik, erabaki beharra da nagusi. Sinbolikoki negua da, eta ari duena ez da euria baizik eta elurra, elurra eta elurra.

Lan polita idazleak basoko animalien mundua eraikitzen egin duena. Euskal alegilari ugariaren kateari beste maila moderno bat erantsiz, hortxe ageri zaigu Mika anderea, distiratzen duen ororen gutiziaz dena, lapurra eta harroputza baina emetasun onuragarriaren jabe ere dena. Kardantxilo aldakor eta ahoxuria, basoko esames guztien jakitun eta barreiatzaile porrokatua; azeriak bezala adiskidea galdu zuena eta harrezkero bere lau otsokume aurrera ateratzen nahiko lan duen otso errukarria, lapurreta ttikiak egiten dituen zer ahoraturik izateko baina denak ama-lur beraren seme-alaba izaki, elkarren seni-

de diren animalientzat garrantzitsua den ezer lapurtzeko gauza ez dena.

Protagonista nagusia berriz, narrazioan toki buruzagia hartzen duen azeria ez da alegi tradizionala azeri maltzur, haragijale gupidagabea, baizik ere basoan bertan bizi ez den barazkijale dotore eta elegantea; kapelu, jaka eta korbataz apaindua gainontzeko animalien miresmena beretzen duena. Gaztetan oso ausarta izandakoa, otsoarekin batean ausarkeria handiak egindakoa baina balentria zentzugabeak larrutik ordaindu beharra izan duena, bere maitea galdu baitzuen lurralde debekatueta egindako inkursio batean. Eskarmentu handikoa, animalia helduek behinik-behin arras estimatzen eta errespetatzen dute, basoko animalia guztiak laguntzat ditu eta etsaiekin mintzatzeko —gizakiekin— heraberik ez du.

Gorago aipatu dugun gainbehera-aldietara etorritik, basoko abereen mundua arriskupean da, gizakien aldetiko mehatxu gupidagabea *in crescendo* doa ataletik atalera. Lehenbiziko atalean animalia guztientzat axola handikoa den ilargia lapurtu egiten diete, bigarrengoan, basokoa ez den animalia batek gizakien erasoaren ondorioz, basoan gertatzen ari den gainbeheraz ohartarazten ditu. Hirugarrengoan

basoa kinka larrian da: "Aldatuta zegoen basoa, aintzira inguruan etxe mordoan egin zuten ge-roztik. Eta etxeekin batera, erre-pide txiki bihurri estua asfaltoz eta harriz estalitakoa, zehar-mehar herritik igotzen zena... Guzti horrek eragin nabarmena izan zuen hango biztanleen bizi-moduan. Gizon-emakumeak eto-rriri ziren bertara eta autoz, hau-rriz, zaborrez bete zuten basoa" (77-78 orr.)

Egoera honen aurrean bilera egiten dute basoko abereek. Animalia txikienek, zaharrenek eta erkitueneak ezik, beste guztiek beste basoetara alde egiten dute. Geratzen dira gazte batzuk, otsokumeak hain justu, gizakia gorroto dutenak, eta hau euren bizi-esparrua urritzen ari delako gerrara jotzekotan da-biltzanak. Hauek gizaki batekin

mintzatzeagatik azeria traidore-tzat hartzen dute baina azeriak dioen bezala, abereek abere iza-ten jarraitzen dute, eta ez diote gerrarik egiten gizakiei, ez dute mendekurik hartzen.

Abereek helduen aholkuei kasu eginik, ez dute erreboltara jotzen, ahal duenak beste baso batzutura, beste mundu batzutura alde egiten du, eta ezin duenak etsipenez onartzen du patu zoritxarrekoa, gazteenen gorro-toak gorabehera. Azeria zaharregia da egoera berrira, gizakieki-ko harremanetan bizitzera ego-kitzeko; gainera beldur die, ez da hauetaz fio, hala ere alaba galdu zaion emakumearen larri-tasunaren aurrean urrikaltzen da eta laguntzera prestatzen.

Gizakia otsoetan otsoen.

P. Sudupe

ATXAGA, Bernardo, *Gizona bere bakardadean*, Pamiela Argitaletxea, Iruñea, 1993. 349 or.

Bakardade zein ezkortasun hutsa isurtzen omen duen izen-buruean ezkututzen den arren, *Gizona bere bakardadean* ez da labandu —are gutxiago amildu— irakurlegoaren ahantziak edota arbuioak liburu bati eragin dakiz-kioken hauts-biltzaile bihur-tzearen bakardade bakarti eta arbuigarri horretan; atizitik, *Behi*

euskaldun baten memoriak eta *Obabakoak*, besteak beste, jaiorazi zituenak lau haizeetara zabaldu den oihartzun ozena sortarazi du, oihuka eta intzirika aldarrikatu gabe. Izan ere, bere luma isilari —isiltasunari dago-kion modura, txintik ere esan gabe hitzezkoa den mezu idatziaren bidez— Euskal Herriko

egungo errealitateaz mintzatezko edo, hobeki, idazteko parada iritsi zaio. Eta, jakina, orrialde-multzo mardulak ezin zezakeen oharkabetasunean iraun.

Jakin badakigu Bernardo Atxaga izenordeaz sinatutako Jose Irazuren kreazio lanen ekarpena funtsezkoa eta erabatekoa dela euskal literatura modernoari buruz hitz egiteko garaian. Bere lumatik ernatutako lanak horren adierazle dira: ez dira sorkuntzaren esparru jakin batera mugatzen (aski da hartzarotik zahartzarorako irakurle-bidea Atxagarekin soilik ibil daitekeela nabarmentzea, irakurleak non hautatu baitauka), idazle asteasuarri berezko zaion originaltasuna mugatuta ez dagoen legez. Eta edozein idazlek, literatura edo hitzaren dohain zoragarriaren bidez haren inguruko errealitatea bizirik bailegoen isladatu ahal baldin badu eta gainontzeko herriei jakinarazi, zergatik Atxagaren itzurpena? Zergatik ekidin bide horri Euskal Herriko egoera saihestuz? Euskal Herritik landa ere ezagunak, onartuak eta sariatuak izan diren lanek ez al zuten gurea besteenganatzeko zubia- ren oinarri izan beharko?

Hona hemen, bada, sortzailearen sona bezain sonatua den leporatzea; hona hemen nobela isilak —irakurlearen ahotik edo honen baitatik ez bada ez baitu hitz egiten—, harribizi bailitzan,

hedatu duen durrunda; hona hemen, azkenik, *Gizona bere bakardadean* fruitu polemikoak argia ikusteko hautatu duen testuingurua, lan hau behar bezala ulertzeko hain beharrezko zaigun hori. Zer igortzen du, baina?

Elaberri hau, aurrekoei ospea eta kategoria ebatsi barik, aise gailendu da besteen artean; lodikote orritsu hau elaberri baino gehixeago dugu: nobela moduko erantzuna da, eta haren bidez, idazleak hainbatetan jasandako egozpenari, gure gaurkotasunean murgildu ez izanari, alegia, ihardetsi dio.

Hau guztia, ordea, ez da beharhalakoan antzematen eta baietztaezina suertatzen da liburu irakurri edo irakurtzen hasi arte. Nola somatu, bestela, bakardadez osatutako izenburuko hitz bakarrenean gordetzen dena bakardadeaz baino gehixeagoz mintzatu nahi zaigula?

Gainera, ez da ahaztu behar izenburua datorrenaren igarle dela, izena ematen dion liburuaren sintesia eskaintzen duela; horregatik, bakardadeak leku garrantzitsu bat izango du, zeharkako irakurketa batean bigarren mailakoa dirudiela konprobatuko badugu ere. Gizon bat —zehazka-bea, arrotza— bere bakardadean —jendez inguratuta egonarren hainbat pertsonari izatez dago-kion bakardade horretan— itota dago: argi eta garbi aurrea-

ten zaigu izenburuan. Zein da, ordea, gizon misteriotsu hori? Zer dela eta harrapatu du bakar-dadeak? Eta, orain artekoarekiko lotura bat bilatzearen... Non begi-esten ote da egungo egoera-
ren islada?

Elaberriari buruz benetan hitz egiten hasteko moduko itaun-an-dana honen aurrean, pertsonaia ezkutua Carlos izeneko (?) gizon bat dela argitu behar da. Carlos txotxongilo bat da, jitoan dabilen txalupa, bakarrik eta bakarda-dean errotutako gizagaixoa...

Bigarren galderari osoro erantzuteak liburuari xarma eta irakurleari istorioarekiko interesa ohostuko lizkioke... Eta lerro hauen xede xumea zenbait pista ematearena denez, haietaz balia dadila irakurlea galdearen atzean ostentzen dena kausitzen ahale-gintzeko. Horretarako, guztiz egokia da orrialdez orrialde edo-ta gertakariz gertakari aritzearen poderioz ateratzen den ondorioa azpimarratzea: honakoa, orain-ditik kontatutako iraganeko isto-rioaren islada dugu, zeinak, orai-na eta iragana uztartuz, etorki-zuna baldintzatuko baitu. Eta hori frogatzeko, ondorengo lerro hauek irakurri baino ez dira egin behar: "Carlosi hala iruditzen zitzaion, jendeska haren erresu-man ez sartzeagatik sartu zela organizazio armatu batean ado-lezentzia bukatu orduko". (150 or.). Esaldi motza dugu, bai,

motzegia nobela osoaren al-dean, baina aldi berean adieraz-garria, elaberriaren ardatzak, hots, istorioa eraikitzearen lan neketsuan erabili diren hiru zutoi-nak, agerian uzten baititu: Carlos eta organizazio armatua (iraga-na), Carlosen nahastea eta bar-ne-gatazka (oraina) eta bien ar-teko batzea, Carlosen etorki-zuna. Egiazta daitekeenez, bat baino gehiago dira ekintzan par-te hartzen duten elementuak; hari diren elementuak... txotxon-giloa eskukatzen duten elemen-tuak...

Non ote, azkenik, gaurkotasu-na? Bada, testuinguruan, ekintza garatzen den zirkunstantzietan. Izan ere, testuingurua guztiz erreala da (Barcelona, 1982ko Futbol Mundiala) eta bertan ema-ten dira Carlosen bizitzaren zen-bait zertzelada. Irakurketak au-rrera egin ahala, zertzelada ho-riek aienatuz doaz eta ikuspegi zabalago bati bide ematen diote: izandakoaren eta izango dena-ren artean kokatzen den ikuspe-giari, hain zuzen ere. Carlos, ETAkide ohia —datu garran-tzitsua, pertsonaiaren izaera bal-dintzatuko baitu—, arestian aipa-tutako hiritik gertu bizi da iraga-nean bere taldekoak izandako "lagunekin". (Benetako lagunak ote dira?). Haiekin batera, jatorri garbirik ez duen hotelaren jabe da. Bost egunetan zehar (ekaina-ren 28tik uztailaren 2ra arte),

pertsonaia honen zein inguruko en kezka eta pertsonalitateak ezagutu ahal dira, Euskal Herriko egoera sozio-politikoaren ere zeharka jorratzen delarik. Bost egun horietan, irakurleak Carlosen hoteleko okindegipean bi ETAkide gordetzeko bakarkako erabakiaren ondorioa bizitzeko aukera ere izango du: isolamenduaren bakardadean behin-betirako itotzea. Izan ere, egoerak dakarkion urduritasunak —kazetari/polizien presentziagatik areagotuta— eta, batez ere, bere kontzientzia laukoitzaren etengabeko mailukadek —sentimendu, zalantza eta pentsamendu igorle— Carlosen, hots, itxuraz hotza, kalkulatazalea eta ziurra zirudien pertsonaren izana desagertaraziko dute; izena hasieratik baitzegoen galdua...

...Istorio honetan parte hartzen duen oro —Euskal Herriari dagokionean, bederen—, "galdua" edo ezabatua dagoen neurri berean. Esaterako, nabaria da ezizenen eta goitizenen presentzia, leku-izen sinbolikoen presentzia: nekez aurki daiteke ezizenik ez duen pertsonaia euskaldunik; nekez aurki daiteke izen sinbolikorik ez duen herri euskaldunik. Gainera, ezizenen hauek ez dira nolnahi aukeratu: batzuek banakoaren ezaugarrien bat azpimarratzen dute ("Ez-painas": ezpain lodiak dituen polizia); beste batzuek, aldiz, ogibi-

dearekin edo izaerarekin zerikusi dute ("Neptuno": arrain-saltzaileak itsasoaren jainkoaren izena darama; Kropotki: iraultzaile baten izena iraultza berezi batean sinesten zuenarentzat...). Zer esan daiteke horretaz? Carlos edozein euskaldun eta aipatzen den Obaba (Atxagaren kontaktuzunetan maiz agertzen den itxurazko mundu hori) Euskal Herriko edozein herri izan daitezkeela.

Alabaina, nobelaren erakar-garritasuna eta interesgarritasuna edukinean nahiz istorioaren nondik-norakoetan zeutzala esan badugu (errealitatean oinarritzen zen aldetik), nola konprenitu errealitate den irrealitatearen eskenatokian gauzatzen dena?

Honek bi azalpen posible onartzen ditu: bata, objektiboa, logikoa, edozein irakurleri burura etor dakioken horietakoa: idazleak, pertsonaiak zein herriak identifikatu edo definitu gabe, irakurleak (edozein herritakoa izanda ere), pertsonaia batekin edo besterekin identifikatuz parte har dezan nahi izan du; bestea, aldiz, subjektiboagoa, idealismoak gehiago jotakoa: Carlos bakardadezko giroan bizi den gizaki bakarti bat izanik, zergatik ez bilakatu bere bakardadea oraindik ere ilunagoa bera inguratzeko duena ilunagotuz?

Agerian dago azalpen biak onargarriak direla, "identifikaziorik eza"k bietan interpretazio

desberdinak baditu ere. Dena den, bata bestearen hurbilekoa da biek amankomuneko osagai bat baitute: *bakardadea*. Kontutan hartu behar da Carlosekin identifikatzeak horren bakardadea onartzea exigitzen duela eta Carlos inguratzen duen giro ilunagotzea bakardadean gehiago sakontzea dela. Abiapuntutik genekiena, bada, baieztatu zaigu: bakardadea da, inolako ezbairik gabe, elaberriaren ardatza, kontakizunaren gako nagusia. Non galdu zaigu, orduan, aitatutako gaurkotasuna? Ez al da azpimarratu, bada, *Gizona bere bakardadean* erantzun bat zela? Bai, ihardespen bat da; ez ditu, oster, jendeak espero zituen indarra eta distira izan, baina... erantzun guztiek ez dute zertan nagusitasunaren jabe izan beharrik ingurukoek beregana ditzaten. Zeihar esanek ere balio dute... eta ondo asko, gainera.

Oraingo honetan Atxagak zertu duena hastapenean aipatu dugun sorkuntzarako gaitasun mugagabe hori erabiltzeari lotuta dago: harri batez bi kolpe egin eta, sinpletasunetik, arruntasunetik erauzitako elementu zoritxarrez ezaguna —bakardadea, konpainiatuta egon edo ez egotearen arteko desberdintasuna, laguntasunaren joanarekin etortzen den lagun ez lagungarria— guretzat ezaguna eta besteentzat berria den eskenatoki

batean kokatu du. Eraitza, hau xe: bakardadearen interpretazio ez-ohikoa, autorearen lanetan "tabu" izan den zirkunstantzia kontutan hartua; zirkunstantziaren azterketa, hari darion bakardadezko ondorioa aintzakotzat hartuta. Bakardadea eta zirkunstantzia, zirkunstantzia eta bakardadea... patuaren gorpil itzulgarria.

Ardatzaren inguruko gorabehera hauek azpigaiei buruz hitz egiteko bidea urratzen dute. Esana dugunez, bakardade kutsua nagusi da; hala eta guztiz ere, zenbait momentutan, badaude beste gai batzuk honen gaitetik nagusitzen direnak: kirola (ez ahaztu ekintza Futbol Mundialeko Barcelonan gauzatzen dela), eta, batik bat, ideologia. Egia esan, elaberria eta elaberri honetan garatzen den ekintza argazki balira, ideologia argazkia girotzeko hautatutako hondoa litzateke. Eta hondoa funtsezkoa da argazkia ulertu eta argazkiaz gozatu ahal izateko... Honekin adierazi nahi dugu Carlosen izaera ideologiak baldintzatuta dagoela: gaztaroan, Sabino maisuarenak: "*Aktibista bat* gutxiena uste duenean izan daiteke harra-patua". (31 or.); orain, heldu-urduri-bakarti-nahastua denean, Rosa Luxemburgorenak: izan ere... ez al du isladatzen, ispilu baillitza, Carlosek bizi izan duena? Ez al dio gogorarazten iragan ahantzezin hori? Ez al da

identifikatzen Carlos emakume horrekin eta haren herrian agitzen denarekin? ("Kanpoan, presondegiauren aurretik, zaldi bat dihoa, eta atzazalek egiten duten hots erritmo geldokoa gauaren ixiltasunean entzuten da (...) Luze gabe, beste presondegia eta beste gutun batzuk etorri zitzaizkion gogora, *berak ezagututako presondegia eta berak idatzitako gutunak...*" (147 or.). Dena den, Kropotki anaia-filosofo-ero-baztertuaren gogoetak gero eta hobeto ulertuz joango da, gero eta hurbilagoak egingo zaizkio... ("Nire ustez, iraultza ez duk gauzatzen behar primarioen mailan, baizik eta hurrengo mailan, behar primario horiek ase direnean (...)... Carlosi (...) gartzelan irakurritakoan baino zentzuzkoagoak iruditu zitzaizkion". (225-226 oo.).

Beraz, ideologia faktore inportantea da: garrantzitsua eta erabakiorra, ideologiatik ideologiarako jauzien bitartez, inguramen edo zirkunstantziaren seme den pertsonaiaren egoera eta aldarte zein jarrera aldatetako eza-gutu ezezik, momentu jakin bateko ikuspegia eta pentsamoldea ere plazaratzen baitira.

Hariari jarraituz, aurreko parafotik zintzilik eta zabuka dagoen itauna amiltzen utziko dugu: badakigu ideologia pentsakera desberdinak plazaratzen dituela, baina nola? Nola

plazaratzen diren horri arrapostu eman ahal izateko, elaberrian originalaren artean originalena den baliabidearen aipua egin beharra dago: sinbologia, hauxe baita irakurlearen arreta ernai mantenduko duena, hauxe baita irakurketa astuna arinxeagoa bilakatuko duena. Arestian aipaturiko "kontzientzia laukoitza" honen exenplu da: pertsonaia ikustezinak baina aldi berean funtsezkoak diren pertsonaia sinbolikoek osatua da (Carlosen bizitzan, pertsonaia honen bilakaeran nola edo halako eragina izan dutenak, azarna ezabagaitza laga dutenak). Kontzientzia den aldetik, ideologia eta ikusmolde desberdinak kanporatzen ditu eta, edozein kontzientziarekin agitzen den legez, honek ere alderdi baikorra zein ezkorra dauka. Horrela, *Sabinok* (kasualitate baino gehixeago den izena), kontzientziaren alde ona sinbolizatzen du. Carlosen garai bateko maisua izan zenak maisuaren rola betetzen jarraitzen du. Sabinoren aholkuak, bada, zentzudunak izango dira beti. Lantzean behin, ordea, iraganetik mintzatuko zaio Carlosi, itzalita zirudien garra biziki berpiztuz... *Arratoi*a, Sabinoren kontrakoa, kontzientziaren alde txarra da, "deabrua": "Arratoiak bere erraien artean lurperatuta ematen zuen, betirako mututua. Baina irudipen hura ez zen beteko, berak (Carlosek) bazekien hori". (178 or.). Izaki txiki horren

hortz zorrotzuek horzkada saminak emango dizkiote Carlosi... *Kropotki* anaiaren eta *erahildako enpresariaren familiaren* ahosak hirugarren eta laugarren zatiak dira, hurrenez hurren. Ahots hauek iraganeko mezuen oihartzunak biziartzen dituzte; aladurazko hitzek osatuak daude... Zergatik laga zuen Kropotki eroetxe batean? Zergatik hil zuen enpresari hori? Zergati gehiegi, galdera-ikur gehiegi: galderaz beterik dagoen bizitza honetan, galdera-ikur erraldoi den bizitza honetan, Carlosi zail samarra gertatzen zaio erantzunik aurkitzea, edo bilatzen saiatzea... Aurkituta ere, entzun nahi izango litzuke?

"Don Beldur" jauna ere sinbologiaren zakuan sartzen da. Izan ere, ikararen pertsonifikazioa dugu: "Inork sekula eduki zezakeen etsai setati eta likitsena, dudarik gabe, baina baita, bere amenazuaren zinezkotasunagatik, borrokari dinatasun bat eman ahal ziona ere". (150 or.).

Argi dago, beraz, sinbologia garrantziko faktore dela; eta sinbologiaren barnean, kontzientzia: kontzientziaren presentziak bakarrizketen presentzia suposatzen du; bakarrizketen presentziak, halaber, bakardadearena. Hortaz, abiapuntura itzuli gara. Eta, ez al da adierazgarria bakardadea hainbatetan agertzea?

Gizona bere bakardadean;

Carlos bere bakardadean; Carlos eta bakardadea; bakardadea eta Carlos; Carlos eta bere bakardadearen arteko sinbiosia. Zer da Carlosi buruz benetan dakiguna?... Carlos, borroka armatuan militatu ondoren, bere burua txertatua (?) ikusten duen pertsona da. Baina norbaitek atentatu batean parte hartu duten bi ETAkideak gordetzea eskatzen dionean... onartu egiten du. Zergatik, baina? Ziur al dago? Batetik, konprometitu sentitzen da; bestetik, bakarrik eta nahastua...

Zer da Carlosi buruz benetan dakiguna?... Carlosen bizitza sistematikoa eta perfektua da, aukeratu duen okin-ogibideari dagokion sistematizazioari ederki egokitua. Ogia lantzea pausoz pausoko prozesua baita, ordenatua, antolatua, metodikoa, sistematikoa,... Eta, garrantzitsuena, ez du buruari eragiteko, burutazio desatseginei bueltaka aritzeko denborarik baimentzen. Baina norbaitek atentatu batean parte hartu duten bi ETAKideak gordetzea eskatzen dionean... onartu egiten du, eta sistematizazio hori gertakari-zurrumbilo, korapilo nahasi bilakatzen da...

Zer da Carlosi buruz benetan dakiguna?... Fisikoki, ezer gutxi: hasieran, deskribapen somatiko nagusirik ezak harridura sor dezake irakurlearengan; gutxi dira bere fisikoari buruz ematen zaizkigun datuak: altua da, berrogei

urte inguru ditu, normalean galtza bakeroak eta alkandora zein zapatila txuriak janzten ditu,... (“ia berrogei urte, 60 kilo bakarrik, sudurra luzeegia...”) (111 or.); “...eta augurio onetan pentsarazi zion galtza bakero zarpil batzuk eta mahonezko txaketa bat jazten zituen bitartean”. (165 or). Gizon bakarti honen izaera, ordea, tantaka eta ia konturatzeke jakinarazten zaigu: harik eta tanta horiek itsaso handi bati, Carlosen izaerarenari, alegia, dagozkiola jabetzen garenera arte. izan ere, bere izaera da benetan behinena; fisikoa garrantzirik gabeko xehetasuna baino ez da... Eta barrua irakurlearenganako identifikazioa lortzen duena bada, zergatik nekatu, zergatik ahitu gainezkoak diren datuak idazten?

Lehen komentatu dugunez, euskaldun den oro “ezabatuta” dago; pertsonaia gehienak euskaldunak izanik, haiekin antzeko fenomenoak jazotzen da. Baina ez dira nahastu behar “ezabatuta” edo definituta hitzaren esanahia eta zentzua. Carlos, pertsonaia nagusia, iluna da legaltasunari dagokionean, baina baita nortasun handiko pertsona ere. Elaberriko orrialdeetara azaltzen diren beste guztiak ere, legalki ilunak izanik, oso bestelakoak dira: konplexuak, desberdinak, bi multzotan sailka daitzekeenak: batetik, pertsonaia fi-

sikoak, hau da, istorioaren garapenean une desberdinetan agertzen direnak (Carlos, Ugarte, Guiomar,...); bestetik, pertsonaia “ez-fisikoak”, pertsonak ez izanik garrantzitsuenak diren izakiak: haiengan dago elaberriaren gakoak; kontzientzia modura, ideia, datu eta aholku inportanteak ematen dituzte, haien presentzia besteena baino erabakiorragoa izango delarik.

Aurrera jota, baina hariari heltzeari uzteke, edozein literatur lan edertzen duten elementua aitatu beharra dago: deskribapena. Deskribapen somatioei buruz, dagoeneko komentatu dugu zerbait pertsonaiez iharduteko garian. Urriak dira; are gehiago, ez oso hornituak. Hortaz, nahikoa zaila da pertsonaien “argazkia”, hau da, haien itxura fisikoaren ikuspegi osoa lortzea. Dena dela, arrazoia azalduta dago. Kasu honetan, gainera, komentatzen ari garena narratibari dagokionez, agerian dago deskribapen gutxi egongo dela, aditz sintagmaren presentzia izen sintagmarena baino ugariagoa baita. Paisaiarekin gauza bera gertatzen ez dela esan beharra dago: Bartzelona ezin egokiago deskribatuta azaltzen da (kontutan hartzekoa da Atxagak Bartzelona ondo ezagutzen duela hiri horretan ikasi baitzuen), bertako naturako elementuak horren lekuko direlarik: garriga eta bes-

te mota batzuetako sastrakak, olibondoak, suteak, mendi berdeak,... Eta Montserrat, Carlos pertsonaia nagusiaren lasaigarri den mendia. Izan ere, hari begiratzeak urduritasun oro eza-batzen du... Euskal Herria ere menditsua eta berdea dela kontutuan izanik, ez al du pertsonaia honek, inkonstzienteki bada ere, bi herrietako paisaiak lotzen? Ez al da Montserrat mendia Euskal Herrian daudenen interpretazio metaforikoa? Montserratekin gertatzen dena itsasoarekin ere errepikatzen da: konstante bat da metaforak egiteko garaian. Zenbaitetan, bizitzarekin parekatzen da. Izan ere, bizitzan, itsasoan bezala, haserraldiak eta barealdiak badaude... jakina, itsasoa ere Euskal Herriko paisaiaren elementuetako bat da...

Badaude, bestalde, paisaia "natural" ez izanik garrantzizkoak diren beste zenbait: istorioaren garapenerako eskenatokia osatzen duten lekuak. Horrela, okindegiaren edota gordelekuaren deskribapen nahikoa zehatzak ere eskaintzen zaizkigu, hariari jarraitu eta istorioa ulertu ahal izateko funsezkoak baitira. Honi, Carlosen "paisaia" partikularra, bera bezain ordenatua, sistematikoa eta metodikoa den paisaia, Barcelonan biziten jarraitzeko beharrezko zaion paisaia gaineratu behar zaio: "...betiko saguzar ttikia ikusi zuen hotel atariko

farol batetik bestera, eta pittin bat haruntzago okindegiaren inguruko zuhaitzen errainu beltza; eta gasolinategiko argi urdin eta gorriak ere ikusi zituen, eta baita ordurako karreteran zebiltzan autoen argiak ere; eta Montserrateko murraila ere bai; eta zeruan orduantxe argitzen ari ziren bi laino arrosak ere bai. Mugimendu nagusia, iluna eta argitasuna txandakatzen ziren *eszenario* hartan, saguzar ttikiak jartzen zuen, bai bere etengabeko jiraketengatik eta bai zenbaitetan egiten zituen joan-etorriengatik ere, hoteleko ataritik arrosa koloreko zeru-atariraino, eta zati honetatik, berriro ere, atariraino". (165 or.).

Ukaezina da iruzkin hau ezin dela amaitu narratzailearen ikuspuntua eta estiloa komentatu barik. Lehendabizikoari, hots, ikuspuntuari dagokionez, bitxikeria batez ohartu behar dugu: narratzailea objektiboa den arren eta hirugarren pertsona erabiltzen badu ere, noiz edo noiz beste pertsonaia baten eskuetan (edo, akaso, atzaparretan) erortzen da narratzearen pribilegio hori. Izan ere, berez narratzaile ez izanda baina nolabait hitz egiten duenez, kontzientzia laukoitzak autoreak isildutako datuak ematen ditu ezagutzera (bigarren pertsona erabiliz, hikaz mintzatzen baitzaio Carlosi). Kontzientziarekiko mintzatze ho-

rrek "magikotasuna" ematen dio narrazioari, Carlosen buruan agitzen dena benetan gertatuko bailitzan kontatzen baitzaigu.

Estiloari dagokionean, ez dago ezer berririk gaineratzerik. Izan ere, Atxagaren idazkera oso pertsonala da, erabiltzen dituen baliabideak argitaraturiko liburu guztietan behin eta berriz errepikatzen direlarik. Horrela, nabaria da "ordea" juntagailuaren erabilera ez-zuzena (komen artean eta bigarren sintagmaren atzean idatzi beharrean, azken sintagma honen aurrean kokatzen du), "a itsatsia"ren omisioa eta esaldi motzen erabilera. Bestalde, hizkuntzarekin jolasten du erabili behar izango ez lituzkeen zenbait "erdarakada" erabiliz ("mantxatu" aditza kasu). Dena den, Atxagaren beste elaberri batzuekin alboratuta, elaberri honetan erabiltzen den hiztegia oso erraza da, guztiz ulergarria, modernoa, beharbada ekintza nekazal giroan garatzen ez baita. Baliabide dexente erabiltzen du (metaforak; gorapatu behar da liburuari amaiera ematen dion metafora, lerro hauetan, eta amaiera ez igartzearen, esplikaezina bada ere: "...nahiz bere iragan bizitzako pitzadura guztiak errebitzeko oportunitate bat suposatzen zuten..." (155 or.). *Pitzadura guztiak* ezusteko, arazo guztiak; eta konparazioak geihenbat: "...baina berak —doi-

lorrak txanpona bezala— esaldia harrapatu eta bere memorian gorde zuen". (159 or.); hauek, nobelari edertasunean irabazten laguntzen diote. Jakina, denak Atxagak soilik dakien originaltasunaz aukeratuak izan dira.

Eta originaltasun hori da, ez bairik gabe, estraineko irakurketa azkar batean gogaikarria eta korapilatsua dirudien liburu hau interesgarri bihurtzen duena. Izan ere, autoreak jorratzen duen gaia guztiz egiaztagarria da, baina, errealitatean, eta norberaren baitan ahots ezkuturen bat dagoen arren, zail samarra suertatzen da Carlosen buruan haragitutako pertsonaien antzeko batekin topo egitea.

Bestalde, *Gizona bere bakar-dadean* ez da denborapasatzat har daitekeen elaberri horietakoa; aitzitik, lokikote honek exigitzen dituen arreta eta patxada bereziak dira: kapituloka egindako banaketarik ez dagoela go-goan harturik (egunetik egunera tarte bat errespetatzen bada ere), eta haria galtzearen beldurrez, ia ezinezkoa gertatzen da dagoeneko hasia dagoen irakurketari uztea. Gainera, datuen joskera bikainak zein orrialdez orrialde plazaratzen diren ideien konplexutasunak zeharkako irakurketa soil bat baino gehixeago merezi du.

Esanak esan, ezin uka irakurtze prozesu hori astuna eta motel

samarra gertatuko dela. Ez al dugu esan hau elementu interesgarritz hornitutako elaberria zela? Ez al dugu goraipatu gaurkotasuneko gai bat jorratzen duen elaberria? Ez al dugu ohartu irakurlea kontu handiz eta fintasunez josiriko lan honen presentzia? Halaxe izan da, eta oraindik ere halaxe da: zer adierazten du, orduan, kontraesan honek? Zertan datza akatsa, baldin eta "akats" deitzerik badu? Eraitza gehiegi, larregi luzatzean, hain zuzen. Izan ere, azaltzen den gertakizun oro neurritz kanpo zabaltzearen arriskua aintzakotzat hartu ez, eta Atxaga bertan jausi da Carlos bere bakardadean jausi den moduan. Horrexegatik aitatu dugu honakoa ezin zela denborapasatzat hartu; pazientzia, pazientzia handiz gainera, leitu beharra dago. Bestalde, zenbait momentutan irakurlea eta idazlearen arteko harreman magiko, berezi eta kidetasunezko hori etenda suertatzen da: irakurlea ez da zeharo amiltzen elaberriaren sare harrapatzaileetan. Hauxe izan da, hain zuzen, Atxagari egin nahi izan diodan egozpen bakarra: ekintza arinduz gero (ez nahasi motz bihurtzearekin), eraitza akasgabe izan zitekeen. Baina, auskalo, litekeena da moteltasun hori geuk ere Carlosen giro ezkorra endelegatzearen nahita sortu izana...

Bukatu baino lehen, nire arreta erabat piztu duen faktorea gogoraziko dut: iruzkin honetan zehar behin baino gehiagotan aipatu izan dudanez, Euskal Herriko egoera sozio-politikoak ez da elaberriaren jorratzen den gai nagusia, hala dirudien arren. Azpimarratzekoa da oso, irakurle gehienek kontutan hartzen ez baitute. Hau frogatzeko, izenburua aipatu besterik ez da egin behar: *Gizona bere bakardadean*. Hitz adierazgarri hauen bidez, eta begiei gertakari desberdinen berri ematen dizkiguten letrorietatik labantzen eta irristatzen utzi baino lehen, batek baino gehiagok asma dezake bakardadeak leku garrantzitsua beteko duela. Ondorioz, Euskal Herria elementu inportantea da, elementu baldintzatzailea, zeinak, beste elementu batzuekin batera, istorioa girotuko baitu.

Nire ustez, elementu horiek, nola hala Carlosen pausoz pausoko bilakaera dira, hain zuzen ere, elaberriari bizia ematen diotenak. Izan ere, egunak sekuentziatzen dituzten iharduerak denboraren iraganaren berri-emale besterik ez dira; benetan interesgarria dena, sinbologiaz betetako orrialdeen esanahia argitzen edota interpretatzen saiatzea da; benetan interesgarria dena ingurugiroak zenbaterainoko eragina duen ulertzea da; benetan interesgarria dena, azkenik, gizaki

horren zoritzarreko bilakaeraren lekuko mutu izatea da.

“Bakardade zein ezkortasun hutsa isurtzen omen duen izenburupean ezkututzen den arren, *Gizona bere bakardadean* ez da labandu —are gutxiago amildu— irakurlegoaren ahantziak edota arbuioak liburu bati eragin dakizkiokeen hauts-biltzaile bihurtzearen bakardade bakarti eta arbuiagarri horretan...” Estraineko lerro hauek gogora ekarriz, hasiera-hasieratik igartzen zena bete dela baieztatu nahi dugu. Honakoa elaberri baino gehixeago da; ezin ahaztu Kritika Saria nahiz liburuaren itzulpena eta

etengabeko argitaraldiak frogarik onenak direla...

Esandakoa laburbiltzeko, hau xe esan dezaket:

Gizona bere bakardadean idazkera ulergarri batez bildutako osagi konplexuek osatzen duten errezateren emaitza dela. Jaki zaila eta originalak (hots, gogoetara gonbidatzen duten liburuak) gustoko badituzu, irakurle, ez zaitez gera honen zaporea dastatu gabe. Ez da erraza izango —kostata murtxikatzen da— baina, behin irentsita, behin ondo barneratuta, honi darion bakardade kutsua hain mikatza eta ulergaitza ez dela konprobaturiko duzu.

Leticia Grandes Mateos

UMBRAL, FRANCISCO, *Las señoritas de Aviñón*, Edit. Planeta, I.995, 236 or.

Umbral dugu, gaur egun, penintsulako idazle oparo, txokante, malmutz edo sokarroienetakoa, ironia ongi landu batez edozein pertsonaiaren edo aldarteren sareak maisuki isladatzen dakiena. Askí da bere *Las españolas*, *Mis mujeres*, *Crónica de esa guapa gente* gisako liburukiak irakurtzea bere umore ironikoaren iturriaz jabetzeko.

Las señoritas de Aviñón liburuak Espainiako kronika sugerigarria eskaintzen digu —elemen-

tu asmatu eta errearen harian emanak—; penintsulan XX. mende hasieratik gerrate zibila arte-rainoko pertsonaia ezagun batzuen inguruan fantasiaz eta estilo zehatzez kontakizun-hari bitxia aurkezten digu. Picasso, Unamuno, Rubén Darío, Galdós, Primo de Rivera diktadorea, Valle-Inclán eta García Lorca gisako idazleen biografi-andana bitxiak azaltzen dizkigu, beti Francesilloren familia inguruan onduak. Bertako kontaera eta anekdotek halako xarma, sorpre-

sa, eta bereziki ironiazko jarrera, txokantea dute, beste ilusio, gatazka eta zehaztapen nabarrak ahantzi gabe.

Esan gnezake ironiaz bilduriko umoreak, eta maiz jarrera malmutz-zinikoen ere, orriei nortasun berezia damaiela Umbralen eskutik. Esperatzekoa zen, nolabait. Aipaturiko pertsonaia ezagunen erretaula nabarrean originaltasuna beti nabarmen, Espainian gertaturiko gertakizun anitzek bere idazketan halako unitate formalak lortzen duelako.

Umbralen estilo zinikoa dotorea ere gertatzen da, maiz, irakurlea berehala ohartzen baita autoreak tremendismo orotik ihes egin nahi duela, ohikoa duenez. Picassoren figura isladatzerakoan, adibidez, idazkera sentsual baten zertzeladak, eta Primo de Riveraren kasuan Espainiaren ikuspegi nazio-eternal baten trazoak, beti ironia sor batean bildurik. Valle-Inclánen esperpentismoaren apologia ere dagi, xarma guztiaz, eta Rubén Daríoren poesia, ia beti, umore petulante aski mespretxugarriz inguratzen du gure autoreak. Behar bada, Unamunoren pertsonalitatea isladatzean du Umbralak era original eta sugerigarrienaz, pentsalariaren jarrera fideistak halako txantxaz harturik.

Hona, poesia dela eta, bere pasarte malmultz zenbait: "Tía Algadefina, con su autoridad lite-

raria de novia de Rubén, decidió que aquel señor era un imbécil", "Tía Algadefina, en una temporada de castidad, tisis y melancolía, sacaba las cartas, y los versos de Rubén... Estaba disfrutando el idilio con aquel indio inspirado y transcendente". Garbi dago hemen dena ironia baten bilduta dagoela, eta, Rubén, noski, ez zela geroko falangistak bezala "un poeta de las pistolas".

Erlijioari buruz autoreak oraindik ironia garatuagoa, batez ere, Unamuno aurkezterakoan. Unamuno idazlearentzat jarrera fideista baten arketipo petulantea zen... Umbralen ironi-haria, erlijio ofiziala eta dogmatikoaren aurka ezezik, Unamuno gisako autore heterodoxo —baino sakonki erlijioso— den baten aurka ere euskaldunaren jarrera fideista eta egozentrikoa erasoaz: "A usted, lo que le pasa, don Miguel, no es que encuentre a Dios, sino sustituir a Dios". Umbralentzat Unamuno Papini katolikoaren antzekoa da, hots, fedezale harroskoa, mistikaren ausardiaz bere pertsonaiaren ospea gizendu baino egin nahi ez duen horietakoa: "(Años más tarde, el católico Papini, cuando consiguió verle la cara a Dios, descubrió que tenía la misma cara que él: cara de Papini. Así son los místicos)". Eta zuzenkiago Unamunoren alde erlijiosoak karakteri-

zatu —eta karikarizatu— nahiaz: "A usted (don Miguel) se le ve la coronilla de mormón y de cuáquero en cuanto se quita el sombrero..." Jarrera ironiko bera inguruko gazte batengan pietismo jesuitikoa atzematean bere ikuspegi agnostikotik bekatua eta kulpabilitate teologikoaren alderdiak erridikulizatu.

Honekin loturik elizkoikeria edo santujaletasunaren kritika. Kera maxkal, gelberak arbuaitu gura ditu autoreak; adibidez, Unamunoren Velázquezzen Kristo irmoaren espiritualitate bortitza kristauen portaera maxkalei kontraezartzen die. "Pero don Miguel era implacable, como todo deísta... Y se ponía a leerle versos a gritos al bisabuelo...". Baina Francesilloren birraitonak Unamuno erasmista eta krausista ere salatzen ditu. Francesilloren Eloísa amona, berriz, erlijio-mundu arkaizante eta gotorrangoan —ortodoxoangoan— bizi da ("El abuelo Cayo y la abuela Eloísa decían que esto del cometa era el apocalipsis, cosa del demonio o del fin del mundo, y que más valía rezar..."). Ezaguna da, beraz, Umbralen jarrera kaustikoa edo erregarria erlijioarekiko, eta hemen ere errukigabea azaltzen zaigu idazlea hainbat eta hainbat pasartetan.

Autoreak baditu, oraindik, beste alde ironikoak, birjinitarearen ikuspegi baten aurrean, adi-

bidez, "María Eugenia era virginal, dulce y tímida, pecadora, y no le pidió nada al pintor" dioenean. Errespeturik gabekoa azaltzen zaigu, baina hemen idazlea ez da ari kontzeptu teologiko batez, jarrera batez baino. Teologia serioenak ere umore erregarrienaz birrintzen ditu Umbralak. Emilia Pardo Bazán idazlearen deskribapena eskaintzerakoan ondorengoa: "Doña Emilia Pardo Bazán, aristócrata y todo, intelectual y todo, no era tan guapa como la cabra ni como la gata, sino que era directamente fea, como casi todas las mujeres que se dedican a escribir". Dударik gabe, azken erremate honek bere pikardia du.

Politika arloan, berriz, Primo de Rivera diktadorea zela eta, antzeko andana bitxiak. "Me gusta que me llamen dictador. Napoleón también lo era. —Pero usted no es Napoleón—. Ni usted es Goethe...". Umbralen ironiak eskuindarrak eta ezkertiarak, katolikoak eta ez-katolikoak ukitzen ditu ("Quién te ha metido esas ideas debajo del hermoso pelo de panocha"... "Te has enamorado de un pollo anarquista"). Eta falagisten astakirtenkeriak salatuz: "Me parece que los milicianos de verdad trabajan mejor que vosotros. - No digas eso, que te fusilamos".

Liburuaren beste alderdiak behatuta, esan dezakegu Um-

bral oso prosista ona dela; adibidez, pertsonaia baten inguruko karakterizazioak ematerakoan; bere barrokismo bereziaz bi, hiru eta gehiagoko izen eta adjetiboen andanetara jotzen du, maiz. Gauza da gizaki baten aspektuak era sugerentz eta hitz urritan isladatzeko. Bestainbeste baiets daiteke deskribapen somatikoa. Hona karakterizazio ongi lortu batzuk ironian bilduta: "Todos andaban un poco enamorados del dandismo feble y mujeriego del rey, como la mayoría de los españoles", "Don José María de Cossío era un joven gordo y bizco, con sonrisa verde y homosexual". Primo de Riveraren aurkezpena egitera-koan, berriz: "Don Miguel Primo de Rivera era jaquetón, ni guapo ni feo, militarote, libre de ese luto ridículo de los viudos y constelado de medallas, sonrisas, triunfos y amigos". Hitz gutxitan, pertsonaien alderdi fisikoaz gain, izaeraren ingurumari berezian kokatzen gaitu, psikologiaren aldetik aldarte biziki sugerenteak erakutsiz. Anekdotak eta kanpo deskribapenak ere sarritan karakterizazio bixien giroan ahokatzeko dituzte. Valle-Inclán dibinoaren estampa ematerakoan honakoa: "Esperábamos, en el fondo, quien más, quien menos, encontrar allí a Va-

lle-Inclán, pero su sombra de aureola gris, cabello plata, gafas perversas, barba solemne y botines blancos, como dos cisnes que caminasen a su lado, sólo pasó un momento, estilizadísima...". Adibideak, noski, biziki ugaltzeko.

Batek baino gehiagok aurpegi bota dio Umbral bere luman hartzen duen ia oro banalizatu egiten duela, gauzen funstasuna (berak tremendismoa esan du) itzaltzen duela. Hori egia izan daiteke, eta bera bezalako autore kaustiko, malmutz baten kasuan bizitzaren mikaztasunari mugak ezartzea ez da erraza izan... Umbral, ordea, idazle den aldetik, interesatzen zaigu baiestea gauzetan fauntasuna eta erlatibismoa bilatzea gauza positiboa gerta daitekeela, bere mugatan, noski. Umbralek edozein gauza xumeri bere xarma aurkitzen dio; hutsala den horretan barrokismo bitxiaz bizitzaren alderdi ahanzi eta ezkutuak desestaltzen maisu dela ere aitortu behar dugu. Umbral psikologo aparta dugu giza erreakzioak ezagutzen eta komunikatzen. Noski, umore-ukitu batez hurbildu behar da beti bere liburuetara...

Luis Mari MUJICA

GARCIA DE CORTAZAR, MIRARI, *Itzaleko hitzak*, Euskaltzaindia, BBK, 1995, 44 orri.

Itzaleko hitzak izenburupean Mirari Garcia de Cortazar poetisak, antza, bere bizitzaren ñabar-dura zenbait azaldu nahi izan digu, poema solte, arin eta zalueta itzalak berak gauzei ezarri ohi dizkien trazo xumeak nabar-menago ezarriz.

Poema-liburu hau 1.994 urteko Felipe Arrese Beitia sari irabazlea dugu, eta, bere irakurketatik, nolabait, autoresaK alde formale-tan azkenaldiko poeta gazte batzueK baino askoz orekatsu eta armoniatsuago diharduela dirudi. Formaren aldetik, bada, beste poeta batzuegan baino etendura urriago, gutienez, poesia espermentalista eta marginalista zenbaitekin erkatuta.

Garcia de Cortazarren poemek armonia bilatu bide dute, amodioa, askatasuna, bizitzaren esperientzia era lau eta orekatsuan itzuriz. Perpausa bilbatu eta saretuak bilatzen ditu, erritmoa behar bezala zainduz. Puntuari, noski, beste askoek bezala, agian, behar adinako garrantzirik ematen ez dion poesia askatua egiten du, baina noiz-noiz, poesiaren etorria errespeta-tuz, baliapide hori ere kontutan du ("Oi Hitza!/barrukaldeko *zinkuri* /etengabeko eraldaketaren kresalaren *irri...*, Makurrak zituen eskuak, / eta *hortzak* / eta ilunak begiak /eta *otoitzak...*").

Gure ustetan lastima da poesia gazteak bide hori gehiago ez saiatzea, euskarak puntuarekiko duen makurrera nabaria baita, hizkuntza pospositibo bezala. Puntuak, baliabide literarioaren aldetik, euskaraz gaztelanian ez bezalako prestantzia du, eta ezin dezakegu bertsolaritzaren bidea poesigintzan hain hertsiki ahantz. Han zilegi dena hemen ere bada, nolabait...

Poemarioak gehienbat erritmo malgu eta zalua du. Poemek matzatatik mantsoki ateratako haria dirudite. Olerkiak, bada, zalu doaz perpausa laburretan, lerro-andana arinetan... ("Gauan/ murgildu naiz/ biribilka, /itsu,/jakin gabe,/ene bihotzaren erdian...", "Nire eskuz banu/ ahal kanpora /usteltzen zaituen/ samina,/ zugatik, maite/ eskumotz nintzateke/ zure irri soil/ baten truk". Gehienetan puntuazioaren disziplinari makurtzen zaio poesia, baina bada komarik eta deusik ez duen olerkirik ere (*Zilarrezko lapurra*, adibidez).

Baliapide literarioetara joanda, handik eta hemendik errepi-kak, pertsonifikazioak, metaforak, eta bisemia zenbait. Errepi-ketan Hoge poema dugu nabar-menena: "Hoge ziren, / hoge, /egun maiatzekoak, /hoge /kanpaia elizakoak, /hoge/ainge-

ru baten hegoak,/hegan zerura-koan”.

Liburuko poemak, maiz, halako kutsu erromantiko-sinbolistaz azaltzen zaizkigu, XX mendean maiz eman den halako ukitu xumeaz, surrealismo gaitzetik urrunago, irudien trazo bat-bateko eta aski soil baten bidetik... Hori, batez ere, amodioaren trataeran nabariago. Gehienetan amodioaren trataeran sinbolismo aski ulerkorra, metaforen hariak hain ausart eta gaitzak ere ez direla. Poemarioan edukin nagusienak amodioa, denboaren auzia (iragankortasunaren aldetik), askatasuna, sentimenduak eta hitzaren garrantzia. Amodioaren inguruan sentimendu zenbait (leialtasuna, tristura, beldurra, susmoa...) (“...Zure zure aurpegitik urrun,/zuretzat nahi nuke/ nire amodiozko hatsa...”, “...ez lotsa/arrapozko hordialdian/ arras girbindurik/ maite zaitudala/ lau haizetara/zipristintzen badut”, Baina guzti horren gainetik/ defini baneza maite/ zugatik sentitzen dudana...”).

Denborak azaltzen duen iragankortasunezko mezuak ere maiz asaldatu du poetisa. Temporalitatearen tematika sakona izan ohi da poesian, osoro existentzialista delako. Gure poetisaren olerkietan nahiko present edukin hori (“...Eta keak, aienatzea, /berarekin daramatza /asmo hutsen putzura,/izan bes-

terik izan ez diren/asmoen kabi-ra...” (hemen *ke ihesiaren* sinboloa). “Ahantz ezazu/ hagin zorrotzez/ zapaltzen gaitun denbo-ra...”).

Libertateari atxikitako tematikak ere nolabaiteko nagusitasuna poemarioan. Berarekin lotuta gatazkak, borrokak, lehiak, giza sufrimendua. Hegaztiaren sinboloa profitaturik dio: “Nire hatzez/ohostu ahal banizu ere/ hegoa/ ez zinateke /jada libre / eta nik, /libertatea nahi dut”, “Ez dut askatasunik nahi/loreek su-traietan/ badute lokarri. /Ez/ ho-deiek haizea/ badute gidari”). Libertatea irudikatzeko, bada, hegaztiarek aparte, hondartzaren irudia ere, noiz-noiz. Hegaztiaren hegoen sinboloa, noski, beste autoreetan, eta euskal lirika zaharrean, oso ezaguna. Ildo horretatik orandik: “Hegoek gabekoek/ nahi genituzke hegoak/ gauaren magal beltzean/ilargiaren zuriar /kabia eraikitzeke”. Hegaztiaren (*usoaren* tematika) berriro amodioaren edukina hobeto kokatzeko: “Ogi apur haiek/ maitasunezkoak ziren.../ bere usoek egina bai zuten /amarengandik hegoa”.

Bestalde, olerkietan, arian-arian, alaitasun, beldur, susmo eta ahanzturazko sentimenduak itzurita. Batzuek tratera heldu eta hertsiaigo bat dute, beste batzuek, aldiz, xumeagoa.

Poemategiari, behar bada,

originaltasuna falta zaio pasarte batzuetan, irudi eta sinbolo zenbait, ezagun izaki, topiko ere bihurtuz; baita edukin batetik bestera saltatzerakoan ere, behar bada, sakontasuna falta zaio, irakurleak trazo tematiko batzuetan

esperoko lukeen trataera bat al-bora utziz. Dena den, poema-liburua, harropuzkeriarik egin gabe, erritmo gozozko oldetan garatu eta ehotutako edertegia dugu.

Luis Mari MUJICA

ALLENDE AZULA, ISABEL, *Paula*, Plaza y Janés, Bartzelona, 1994, 366 orri.

"Paula" Isabel Allenderen azkenetako liburua dugu. Idazle hegoamerikar honen lana oparoa izan da. "La casa de los espíritus", 1982an idatzia, bere idazlan ezagunena dugu.

Bere alabaren izena duen lan honetan idazlearen sentimendu barneratuenak agerian agertzen dira, eritasunaren ondorioz koman dagoen alaba maitearentzat idatziriko egunkari baten moduan sortua baitago eta ez irakurleago zabal batentzat, nahiz eta azkenean liburu xamur eta intimista hau eskaini. "Paula" ez da fikzio liburu bat; Isabel Allenderen autobiografiatzat har dezakegu; beraz, bere alabari eginiko homenaldi bat baino gehiago da.

Madriren "El plan infinito" liburua aurkezten zegoela Paula koman sartu zen. Isabel Allende ospitalean pasatutako ordu triste horietan bere bizitza eta familieren errepasso bat egiten hasi zen

Paula komatik ateratzean bera partaide zen familiaren istorio eta esperientziak orrialde batzutan bildurik ukan zitzaizkion; zoritzarrez, Paula ez zen komatik atera, eta egun gogor horietan idatziriko orrialdeak orain eskuartearen dugun liburu mardul, goxo eta barnekoi hau izan dute ondorio.

Ospitalen igarotako ordu horiek abiapuntutzat hartuz, Isabel Allende bere jaioterra den Txileko historiaren errepasso bat egiten digu, batez ere, 1973an gertatutako estatu kolpearen ondorioz herri batek bizi izandako une latzak. Baina ez hori bakarrik, bere familiako hainbat pertsonaiaren izaera eta ezaugarriak maitasunez deskribatzen ditu, hala nola, bere bizitzan hainbeste eragina izan zuten aitona eta amona (el Tata eta la Memé). Liburuan aitortzen duen moduan, familian inspiratu zen "La casa de los espíritus" eleberriko

pertsonaia magikoak sor-
tzerakoan. Esate baterako,
Memé amona liburuan agertzen
den Clara dugu ("...inspiró el
personaje que más amó de to-
dos los que aparecen en mis li-
bros: Clara, clarísima, clarividen-
te, en La casa de los espíri-
tus", 37 or.).

Idazle latinoamerikarrek hain
berea duten errealismo magikoa
ere obra honetan agertzen zaigu.
Liburuan bere amonaren pertso-
nariari, lotua: ("El consuelo en los
momentos de pánico fue el per-
sistente espíritu de la Memé, que
solía desprenderse de los plie-
gues de la cortina para acompa-
ñarme" (61 or.).

Paularen heriotza (epilogoia
365-366 or.) errealismo magiko
xamur batez deskribatua dago.
Idazleak bizitzan maite izan di-
tuen hildako pertsonaiak Paulari
hildakoen mundura ongietorria
emateko agertu dira, eta bizirik
daudenak agur triste bat ematen
diote. Hildakoak eta bizirik dirau-
tenak elkarrekin agertzen dira,
ama eta alabaren arteko maita-
sunaren bitartez bi mundu hauek
elkarlotuz ("... me impulsé con
mis últimas fuerzas y logré afe-
rrarme de su mano dispuesta a
no soltarla, y al llegar arriba vi
abrirse el techo y salimos jun-
tas", 366 or.).

Maitasuna liburu honetan ar-
datz ere bada, esate baterako ai-
tona eta amonaren arteko maita-

sun ia platonikoa ("Su marido de-
bió conformarse con vivir bajo el
mismo techo, pero en diferente
dimensión, sin poseerla jamás",
"...o cuando la sostuvo en sus
brazos a la hora de la muerte
tuvo la sensación de que ella
realmente existía", 37 or.). Baita
ere amak "Ramón"ekin izandako
amodioa. Amodio honek Isabel
Allenderen familia berrosatzeko
balio izan zuen, idazleak beneta-
ko aita kontsideratzen baitzuen
Ramón. Amaren lehen senarra
Isabelen bizitzatik haur bat bes-
terik ez zenean desagertu zen.
Ramón eta amaren arteko amo-
dio hau Perun bizi izan ziren
epean jaio zen eta idazlearen fa-
milia Txilera itzultzean eskutitzen
bidez indartu zen. Beraz, dis-
tatzian mamitutako amodio erro-
mantikoa dugu, eta gaur egun
dirauna ("Mi madre asegura
que el único amor de su exist-
encia fue Ramón y como todavía
ambos están vivos, no pienso
desmentirla", 57 or.).

Isabel Allenderen bizitzan
amodioak paper garrantzitsua
bete du, baina bi era desberdi-
netan. Bata bere lehen senarra-
rekin eta bestea heldutasunean
Willierekin. Bi maitasun hauek
oso desberdinak izan dira; lehe-
nik gizona bere seme eta alaba-
ren aita da, eta nahiz oraindik
maitasun izpi bat geratu, bikote
batek behar duen pasioa desa-
gertu zaio denboraren poderioz.

Elkarrekin esperientzia ugari bizi izan dute; estatu golpeareñ garaian erbestea, adibidez, baina heldutasunean Willierekin ezaguturiko amodioak, bizitzan galdurik zuen ilusioa itzuli dio.

Eta, azkenik, Paula eta bere senarra Ernestoren arteko amodio gazte eta freskoa. Bizitza motza izan duen amaiera tristeko maitasuna. Ernesto senar goxo eta maiteminduen figura dugu ("...Ernesto te besa y abraza, a pesar del enjambre de tubos que te envuelven. Despierta, Paula, te estoy esperando, te extraño, necesito oír tu voz, estoy tan lleno de amor, que voy a es-tallar, vuelve por favor, te suplico", 89 or.).

Autobiografiatzat kontsidera dezakegun liburu honetan nola

egin zen idazle aitortzen dio Paulari Isabel Allendek. Kurioski, "La casa de los espíritus" eleberri famatua 500 orrialdeko eskutitz baten moduan sortu zen. Honela jaio zen Hegoamerikak gaur egun duen idazle famatuenetako bat ("Al final del año se habían juntado quinientas páginas en una bolsa de lona y comprendí que eso ya no era una carta, entonces anuncié tímidamente a la familia que había escrito un libro", 17 or.).

"Paula" liburuan Isabel Allendek idazteko duen gaitasun mi-resgarria erabiltzen du; sentimenduez beterik dagoen eskuzkribu bat osatu du. Irakurlearengan zirrara sortzeko gauza den liburu hau inoiz ez irakurtzea pena litzateke.

Nerea M. Aranda

IRIGOIEN, JOAN MARI, *Consummatum est*, Elkar, Donostia, 1993, 285 orri.

Olerkigintzan aritu ondoren narratibara itzuli da Joan Mari Irigoien "Consummatum est" eleberriarekin.

Liburua, argi eta garbi, bi zatik osatzen dute, baina biak guztiz osagarri dira. Era manikeista batean bi zati horiek ongia eta gaizkia izango lirateke. Ongia errepresentatzen duen pertsonaia Gadea da, gaizkia, berriz,

Diego. Eleberri osoan ongia eta gaizkiaren arteko gatazka agertzen zaigu, bukaeran ongiaren garaipena dugula.

Ongia eta gaizkia adierazten duten pertsonaien aurrezartzea ez da bukaerarte ematen, Gadea eta Diegoren munduak guztiz banaturik aurkezten baitzaizkigu hasieratik. Batzuetan eten hori loturarik gabekoa gertatzen da,

batez ere, hasieran. Batean mundu errurala aurkezten zaigun bi-tartean, bestean, berriz, Europako iparraldean kokatua dagoen baroi baten luxozko bizimodua agertzen zaigu, bi zati desberdinen hariak zerikusirik ez duela. Dena den, eleberria aurrera doan heinean bi zati hauen artean hurbilketa mantso bat ematen da, azkenean bakarra bilakatu arte.

Gadearen hizitza zoriotsua den neurrian, Diegok zoritxarrean bizitzen ikasi beharko du, honek bere izaera justifikatuz. Gadea famili giro zoriotsu eta armoniatu batean bizi izango da, non besteak maitatzen ikasiko duen. Baina bere ongiaren ikuspegia sakrifizioari guztiz lotua aurkezten zaigu: "Ez dago maitasun handiagorik kondentatuak salbatzeko, bere burua kondentatzen duenarena baino, eta horrela kondentatzen denak here burua salbatu baino ez du egiten" (281 or.). Gadearen bizia besteenganako sakrifizioz betea dago, pertsonaia honen mistikak irakurlea bere baitan harrapatzen duela.

Diego, berriz, gorrotozko mundu batean bizi da, maitasuna zer den ez du ikasi, edo hobe esanda, ezagutu zuen urria gorrotoak bultzaturik ahantzi du. Bere izaera gaiztoa eta berekoia kamalehoiak (animalia aldakor eta iheskorak) adierazten du. Bere bizia mendeku baten histo-

ria litzateke, haurtzaroko ohorea garbitzea izanik garrantzitsuena ("Ez, Sotoviejora ez naiz norbait izan arte itzuliko" (181 Or.), "Etxera negarrez joan zen Diego...ez zioat barkatuko, ez zioat barkatuko...Bizitza osoan ez zuen inoiz ahaztuko pasadizu hura" (59 or.), "...Diegok ez zuen huts egin behar, are gutxiago bere jaioterrian eta haurtzaroko etsaien aurka...gurasoen aldeko mendekua hartu ondoren neure aldekoa hartu behar diat orain..." (261 or.).

Hala ere, mendekuaren ordua iristen denean bere jokaeran aldatuta nabarmena gertatzen da, gaizkiak ongiari lekua uzten dio, eta Diegok hainbestetan desiratutako unean haurtzaroko etsairik amorratuena den Pablo hiltzera doala, bere buruaz beste egiten du, eta Pablo bizirik geratzen, haurtzarotik bere barnean mami-turiko gorrotoari amaiera emanaz. Azkenik ongia garaile geratzen da, Diegok, bere helburu nagusia izanikoa ahantzita bizitza sakrifikatzen baitu bere etsaiarena salbatzeko. Diegoren baitan izandako aldatuta hau Gadearen maitasun amaigabeak bultzaturik gertatzen da. Diegoren helburu nagusia mendekua bada, Gadeak argi dauka bere bizitzaren jomuga ongia gaizkiaren gainetik garaile ateratzea dela, eta Diegok bere gorrotoaren gainetik Pablari bizitza

barkatzean helburu hori bete dela sentitzen du. Guzti honen ondoren bere bizitzak zentzu gehiagorik ez duela ulertzen du Gadeak. Honek ere bere buruaz beste egiten du, egin behar zuena egina baitu. Hortik liburuaren izenburua den "Consummatum est" delakoa, Gadeak hil aurretik esaten dituen azken hitzak, hain zuzen.

Beraz, hasieran, liburua era manikeista batean bana daitekeela esan badugu ere (ze ongia eta gaizkia zehazki banaturik daude), bukaeran Diegok baitan izaten duen aldaketari esker eskema hori apurtzen du, bere bihotzean ongiak irabazten baitu.


Espazioaren tratamenduak bi zati hauek argi eta garbi banatzen ditu. Bi pertsonaien mun-

duak guztiz kontraezarrita daude Sotoviejon elkartzen diren arte, ongiaren garaipena emanez.

Laburbilduz, ongiaren mundua mistikaz eta idealtasunez beteta dago, mundu idealaren eta perfekzioaren bilaketa dela nagusi, horren adierazgarri arrosa baten sinboloa izaki. Gaizkiaren munduan, berriz, gorrotoa eta mendekua garaile, bere adierazpena kamalehoia dela.

Hizkuntza aldetik euskara aberats eta ulerterraza erabiltzen du Irigoienek, irakurketa arin baten mesedetan. Dena den, bada go zenbait pasarte astun eta soberazko gerta daitekeena, idealtasunaren harian gehiegi murgiltzen baita argumentutik urrunduz.

Nerea M. Aranda



EGAN

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko **BO-
LETIN**-aren euskarazko gehigarria



EDUKIAK

- 1.- Azterketa literarioak
- 2.- Sorkuntza: poesia, antzerkia, kontakizunak
- 3.- Ahozko tradizioa
- 4.- Itzulpenak. autore unibertsalen itzulpenak
- 5.- Adabakiak: Euskara eta literatur inguruko berrien komentarioak.
- 6.- Kritikak eta erreseinak: euskal eta erdal liburuak

Harpidetu zaitez:	Urteko harpidetza:	2.000 pezta.
	Atzerrian:.....	2.500 pezta.
	Dendan ale bakoitza:	1.800 pezta.
	Ale atzeratuak:	2.500 pezta.

Informazio gehiago nahi baduzu, eskatu konpromisorik gabe.

Gure helbidea: **EGAN**

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea

Peña y Goñi, 5-2º izda.

Postakutxatilla 992 - 20080 - DONOSTIA



HARPIDE TXARTELA

Izen deiturak _____


Helbidea _____

Herria _____ Posta-kodea _____ tel. _____

Banku edo Kutxa _____

Kontu zkia.: _____


EUSKALDUINON
Egunkaria



EGUNEROKO
AUKERA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa


fundación kutxa

Elhuyar

ZIENTZIA ETA TEKNIKA



natura



teknologia

Zientzia eta teknologiaz
informazio zuzen, zehatz eta
txukuna, edonork ulertzeko
moduan gure
kolaboratzaileen eta
erredaktoreen eskutik.



zientzia

Elhuyar. Zientzia eta Teknika aldizkaria jaso nahi dut. Urtean honen hamaika ale jasoko ditut eta gainera doan **Elhuyar** aldizkariaren bi ale.

Izen-deiturak _____

Helbidea _____ Tel. _____

Hiria _____ P.K. _____

Ordainketa:

Kontu korrontearen zenbakia: _____

Bankua: _____

Sukurtsala: _____

- 5.750 pta. Euskal Herria eta Espainia.
- Bi urterako 10.500 pta.
- Hiru urterako 16.000 pta.
- 8.500 pta. beste herrietan.

hilaro zure eskutan

KRITIKAK ETA ERRESEINAK

FELIPE JUARISTI, <i>Illargi-lapurra</i> . (P. Sudupe)	207
BERNARDO ATXAGA, <i>Gizona bere bakardadean</i> . (Leticia Grandes).....	209
FRANCISCO UMBRAL, <i>Las señoritas de Aviñón</i> . (L. M. Mujika)	220
MIRARI GARCIA DE GORTAZAR, <i>Itzaleko hitzak</i> . (L. M. Mujika).....	224
ISABEL ALLENDE AZULA, <i>Paula</i> . (Nerea M. Aranda)	226
JOAN MARI IRIGOIEN, <i>Consummatum est</i> . (Nerea M. Aranda).....	228

EGAN

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea
BOLETIN-aren euskarazko gehigarria

Urteko harpidetza.....	2.000 pta.
Atzerrian	2.500 pta.
Dendan ale bakoitza	1.800 pta.
Ale atzeratuak.....	2.500 pta.

BOLETIN

De la Real Sociedad Bascongada
de los Amigos del País

Suscripción anual.....	3.000 ptas.
Número suelto	2.000 ptas.
Número atrasado.....	2.200 ptas.



**EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO
"BOLETIN"-AREN EUSKARAZKO GEHIGARRIA**

Idazkaritza: Euzko Adiskideen Elkartea. Gipuzkoako Saila
992 Postakutxatila — DONOSTIA